



Hizkuntza-eskubideen egoera Euskal Herrian, **2005**ean

URTEKO TXOSTENA

Liburu honetan agertzen diren datuak, informazioa etab. baliatu nahi izanez gero, iturria aipatu.

Izenburua: Hizkuntza-eskubideen egoera Euskal Herrian, 2005ean.

Mota: Urteko txostena.

Egilea: Hizkuntz Eskubideen Behatokia

Legezko Gordailua: NA-991/2003

© HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA

Martzelo Zelaieta 75.

31014 – Iruñea

Euskal Herria

www.behatokia.org

AITZINSOLASA

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak bosgarren urtez gizarteratzen du bere Urteko Txostena, eta ehunka espediente aztertu eta bideratu ondoren ageri duen egoeraren diagnosiak ez du zirkin handirik egin, itxuraz behintzat; horregatik, Zuzendaritzak uste du “egoera hau iraultzeko tenorea” dela.

Funtsean, igaro diren bost urteotan metaturiko esperientzia honako puntu hauetara bil daiteke: Euskal Herri osoan administrazio guztiek urratzen dituzte hizkuntza-eskubideak; zenbaitetan euskara erabili nahi izatea garesti ateratzen zaio euskaldunari, eta aldiz, merke gertatzen da hizkuntza-eskubide horiek beroriek urratzea; urtero hautemandako ilunguneez beren horretan dira eta zenbaitetan larriagotu ere egin dira; zorionez, herritarren hizkuntza-eskubideekiko kontzientzia gorantz doa.

Aurreko aitzinsolasetan esandakoaren ildotik, badakigu hizkuntza-eskubideen aldeko lasterketa hau iraupenekoa dela, urte luzetan okertua ez dagoela bat-batean zuzendu eta oneratzetik; bestalde, jakina da, halaber, egoera hau gaitzitzeko herritarren kontzientzia eta sentsibilitatea iratzarri eta areagotzea ezinbestekoa dela, eta lan horrek ere luze joko duela.

Nolanahi ere, bost urteotan zehar egindako lanaren fruituen artean instituzioetan hizkuntza-eskubideen aldeko kontzientzia areagotu izana ere aipatzekoa da. Horrela, esaterako, *Hizkuntza Politika aurrera begirako 22*. Jardunbide Nagusiak “hizkuntz eskubideak urraturik gertatzen diren guneeetako arduradunei urraketa hori gaitzitzeko laguntza eskainiko zaiela “ aipatzen du eta “hizkuntz eskubideen zerbitzua antolatzea”.

Bestalde, geure ingurunera begiratzen badugu pozgarria da ikustea kataluniarrek eta galegoek berriki gai honetaz erakutsi duten kontzientzia eta interesa: lehenek jardun betean dute beren “Observatori de la llengua catalana”, eta bigarrenek dagoeneko ematen hasiak dira galegoaren babeserako erakunde bera sortzeko pausoak.

Azkenik, Europako Kontseiluko Adituen Txostenak Euroitunaren betetze mailari buruz egindako deskribapena eta hutsuneak agerian jarri izana ere lehen aurrekari garrantzitsutzat jo daiteke, ahalegin horrek izan dituen mugak gorabehera.

Oro har, datozen hilabete eta urteetan aurreikus daiteke Arartekoekiko harremanak estutu egingo direla hizkuntza-eskubideak babesteari dagokionez, eta Iparraldean berehalatik ekingo zaiola orain arte EAE eta Nafarroan egin diren urrats berak emateari.

Bost urteotako lanari gainbegiratu bat emanez gero, eta helburuak zeinen urrun dauden ikusita, zenbaitek etsipenerako tentaldia senti lezake, baina ekinaren ekinez lortu dena, nola etxean hala kanpoan, ez da hutsaren hurrengoa. Izatekotan ere, adorea galdu ordez geure lana hobetzera eta eginkizun bertsuetan gabiltzanon indarrak batera eraman beharko gintuzke. Ziur nago horrela izango dela eta beste bost urte ez direla alferrik igaroko.

Bejondeiela Hizkuntz Eskubidearen Behatokiarekin lankide izan diren guztiei eta etorkizunean ere bide beretik jarrai dezatela eskubidezaleen taldea gehituz, eta sendotuz.

Xabier Mendiguren Bereziartu
Hizkuntz Eskubideen Behatokiako lehendakaria

AURKIBIDEA

1. Hizkuntz Eskubideen Behatokia	7
2. 2005 urtean bildutako datuak	17
2.1. Herritarren jatorria	19
2.2. Espedienteen izaera	22
2.3. “Euskararen telefonoa” zerbitzuaren bidez jasotako datuak	23
2.3.1. Kexak eremu publikoan	23
2.3.2. Kexak eremu pribatuan	32
2.3.3. Zoriontze edo nabarmentze positiboak	39
2.3.4. Kexa izaera gabeko espedienteak	42
2.4. Behatokiak abiatutako ekimenak	43
3. Datuen azterketa: Metodologia	47
4. Eremu publikoko kexen azterketa	55
Justizia	57
Lan eta gizarte arloa	61
Ogasuna eta ekonomia	65
Barne saila – herrizaingoa	69
Hezkuntza	75
Herri lanak eta garraioa	87
Osasungintza	93
Kultura	99
Bestelakoak	105
Udalak	111
Iparraldea	127
5. Eremu pribatuko kexen azterketa	133
Interes orokorreko zerbitzuak	135
Merkataritza guneak, kateak, denda erraldoiak	143
Aisialdia	151
Finantzak eta aseguruak	159
Mundu asoziatiboa	165
Elikadura eta ostalaritza	171
Profesionalak eta zerbitzuak	175

6. Espediente baten jarraipena: Behaketa lana	179
7. Legeen urraketak	195
8. Eskubideen urraketak	215
9. Ondorio nagusiak	235

1. Hizkuntz Eskubideen Behatokia

1.1. SORRERA, XEDEA ETA LAN ILDOAK

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak bosgarren urtea beteko du aurki. Bost urte igaro dira, beraz, gizarteari eskaintzen diogun honako azterketa hau fundazioak argitaratzen duen bosgarren diagnosis da.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak hizkuntzaren normalizazioan atzerapausoak ezin onar zitezkeelako erabaki zuen Behatokia abian jartzea. Behatokia sortu aurreko urteetan euskalgintzako eragile nagusienak biltzen dituen erakundea zenbait gabeziaz oharturik zegoen. Euskararen eremu batzuetan normalizazioaren kontrako eta hizkuntza-eskubideen urraketa aktiboan aldeko politika bortitzak ari ziren abian jartzen; euskararen beste eremu batzuetan ez ziren behar bezalako aurrerapausoak ematen ari. Halaber, indukzioz, Euskal Herri osoan hizkuntza-eskubideak urratzen zirela ohartu zen Kontseilua.

Gauzak horrela, hori guztia objektibatuko zuen erakunde independente baten beharra ikusirik, 2001eko ekainaren 26an gizartearen aurrean aurkeztu zuen Hizkuntz Eskubideen Behatokia, euskalgintzako eta sindikalgintzako hainbat eragileren babesarekin.

Hizkuntza-eskubideen inguruko azterketa objektiboak egingo badira, ezinbestekoa da erakunde publiko edo pribatuaren mendekotasunik gabe beteko duen erakunde batek hartzea lan horren ardura eta horrexegatik, Behatokiak neutraltasun eta independentzia osoz dihardu eta Kontseilua ez den beste edozein erakunde publiko edo pribatuaren mendekotasunik gabe betetzen du bere lana.

1.2. BABESAREN OBJEKTUA: HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK

Hizkuntza-eskubideen inguruko diagnosiak egiteak badu ezer egin aurretik garbitu beharreko auzia, alegia, zein hizkuntza-eskubide aitortu behar zaie herritarrei, eta gure kasuan, euskaldunei?

Izan ere, euskararen lurraldea hedaduraz txikia izanik ere, euskal hizkuntza-komunitatea bost-zazpi status juridikoren mende dago, eta euskaldunari bizi den tokiaren arabera aitortzen zaizkio hizkuntza-eskubideak. Horrela, euskaldunon hizkuntza-eskubideei buruzko diagnosis egun indarrean dauden ordenamendu juridikoen arabera eginez gero, hainbat kasutan eskubideak ez direla urratzen ondoriozta genezake. Izan ere, eremu batzuetan legeak berak arautzen dituelako eskubideen urraketak. Hizkuntza-eskubideen diagnosi orekatua egiteko, beraz, ezinbestekoa da beste erreferentzia bati lotzea.


Bestalde, hizkuntza-eskubideen gaia gutxiengoei lotuta agertu da beti, izan ere, talde horietako kideek pairatzen dituzte eskubide ezaren ondorioak. Hartara, hizkuntza nagusi bati buruz, edo Estatuetako hizkuntzez, ari bagara zalantzarik ez dago arras bermatuta dituztela erabilera, errespetua zein biziraupena, eta horren ondorioz, ez dela beharrezkoa horien babeserako neurririk abian jartzea.

Berezko hizkuntza erabiltzeko eskubidea norberari datzekiona da eta norberaren duintasunaren barruan kokatu behar dugu. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren lehenengo artikuluaen arabera: *Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.* Horrela, hizkuntza erabiltzeko eskubidea gizabanakoon oinarriko eskubidea da, gizabanakoon nortasuna eta duintasunari lotzen zaion eskubidea.

Baina hizkuntzak ez zaizkie pertsoneri bakarrik lotzen, alegia, norbanakoek ez ezik hiztun taldeek ere izan behar dituzte hizkuntza-eskubideak. Hizkuntza-eskubidea, beraz, indibiduala eta kolektiboa da. Ez dago hizkuntzaren kontzeptua ulertzerik hizkuntza hori mintzo den jendartetik bereizita. Hizkuntzak duen ikuspegi komunitarioa da talde bakoitzak zeinek bere hizkuntza erabiltzeko duen eskubidea arautzeko oinarria.

Nazioartean eremuan ez dugu hizkuntza-eskubideen inguruko definizio argirik aurkitu araudi batean ere; ez eta hizkuntza-eskubideak zerrendatzen dituen nazioarteko tresnarik ere.

Ez da Behatokia izan hizkuntza-eskubidea kontzeptuaren adiera hori proposatu duen lehena, ez eta bakarra ere. 1966an Bartzelonan PEN Club International eta CIEMEN (Centre International Escarré per a les Minories Ètniques i les Nacions) erakundeek sustatu eta UNESCO erakundeak babestutako Hizkuntz Eskubideei buruzko Mundu Mailako Biltzarrean Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zen. Bertan 66 Gobernu Kanpoko Erakunde, PEN International erakunde 41 zentro eta hizkuntza-eskubideen inguruko 41 aditu bildu ziren eta Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zuten.



Deklarazioaren arabera hizkuntza-eskubideen izaera indibiduala eta kolektiboa banaezina da. Are gehiago, elkarren osagarri dira, hizkuntza komunitate batean garatzen baita eta, aldi berean, komunitate horren barruan norbanakoak erabiltzen baita eta hartaz baliatzen baita. Horrela, norbanakoaren hizkuntza-eskubideak bermatuko dira baldin eta hizkuntz komunitate guztien hizkuntza-eskubideak modu berean errespetatzen badira.

Beste alde batetik, gurea bezala, Estatu eta egitura administratibo desberdinetan bizi diren hizkuntzei dagokienez, Deklarazioaren arabera hizkuntza-eskubideak ezin dira geratu status politiko-juridiko edo administratibo baten mende, edota hiztun kopurua bezalako irizpideen mende ere. Hartara, hizkuntza komunitate guztiek eskubide berdinak dituztela adierazten du, eta bereizketarik ezin egin daitekeela agertzen du. Gainera hizkuntza-eskubideen subjektu gisa hartzen ditu hizkuntz komunitateak, alegia, edozein gizarte, historian zehar lur eremu zehatz batean finkatua, bere burua herrizat daukana eta hizkuntza komun bat garatu duena.

Tamalez, Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalak ezin izan dio jarraitu hasieran ezarritako ibilbideari

1.3. BEHATOKIAREN PROIEKTUAK

Babesgai den objektu horretan eta lehen puntuan aipatutako xedeetan oinarriturik Behatokiak zenbait lan alor jorratzen ditu:

- “Euskararen telefonoa” zerbitzu publikoa
- Hizkuntza-eskubideen egoerari buruzko txostenen prestakuntza
- Hizkuntza-eskubideen inguruko hausnarketaren sustapena.
- Hizkuntza-eskubideen egoera nazioartean zabaltzea.


a). EUSKARAREN TELEFONOA

2001eko abenduaren 21ean abian jarritako zerbitzu publikoa dugu “Euskararen telefonoa”. Halaber, 2005eko irailean herritarrek kexak, zoriontzeak edota kontsultak helarazteko tresna berri bat jarri zuen herritarren eskura. Horrela, www.euskararentelefonoa.com web gunearen bidez herritarrek arinago eta erosoago helaraz ditzakete haien bizipenak, eta Behatokiak are azkarrago bidera ditzake horiek guztiak.

“Euskararen telefonoa” zerbitzuaren bidez hiru motatako deiak bideratzen ditu Behatokiak: Kexa egiteko deiak –euskara erabiltzeko eskubideak errespetatu ez bazaie–, zoriontzeko deiak –hizkuntza-eskubideak bereziki ongi zaintzen dituzten erakunde publiko zein pribatuen jokabide eredugarria zoriondu nahi izanez gero– eta argibidea eskatzeko deiak –hizkuntza-eskubideen inguruko aholkularitza hartzeko–. Horrela, Behatokiak herritarren deiak modu sistematiko batez biltzen ditu.

Edozein herritarren eta elkarteren eskura jarri du Behatokiak “Euskararen telefonoa”. Halaber, telefonoz ez ezik, herritarrek web gunearen bidez ere helaraz diezazkiokete Behatokiari kexak, argibide eskaerak edota zoriontzeak.

Proiektua abian jarri zenetik 3.500 espediente baino gehiago bideratu izan dira zerbitzu horri esker, eta 2006 urtetik aurrera kopurua emendatzea espero dugu.



Behatokiak espedientea irekitzen dio kasu bakoitzari, eta erregistro zenbakia esleitzen dio: espediente zenbakia/urtea, adibidez, 1/2005. Espedientea zabaldukoan, aztertu egiten du eta izaera ematen dio kexatzea edota zoriontzea bada. Ondoren, ahalik eta datu gehien jasotzen saiatzen da eta, ahal izanez gero, izaera emateko justifikazioa bilatzen du; esate baterako, web gune baten inguruko kexa baldin bada, Behatokiak egiaztatuko du herritarrak helarazitakoa benetakoa dela. Hizkuntza-eskubideen urraketen zantzurik ez badago, Behatokiak ez dio espedienteari kexaren izaera ematen, nahiz eta espedientea gorde egingo duen.

Espedienteari izaera esleitutakoan kexa edo zoriontzea eragin duen administrazio edo erakundeari horren inguruko erreklamazioa helarazten dio; herritarrari, berriz, espedienteak jarraituko duen prozeduraren berri ematen zaio, bai eta kexa edo zoriontze izaerarik aitortu ez bazaio ere.

Behatokiak ez du kexa anonimorik onartzen eta horrelakoak jaso izan dituenean ez die espedienterik zabaldu ere egin. Hala ere, Behatokiak konfidentzialtasun osoz jokutzen du eta ez du herritarren daturik zabaltzen, ez eta erakundeak edo administrazioak berriaz eskatuta ere. Oso gertaera larria izanez gero eta Behatokiak bide judicialari eusteko asmoa badu, herritarren baimen idatzia eskatzen du.

b). HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN EGOERARI BURUZKO TXOSTENEN PRESTAKUNTZA



Behatokiak prestatzen dituen txostenak bi motakoak dira: txosten berezituak eta Urteko txostena.

Txosten berezituak

Txosten berezitueta gai monografikoak lantzen ditu Behatokiak. Unean uneko gai interesgarrienak edota, Behatokiaren aburuz, larriak diren gaiak hautatu eta horien azterketa berezitua paratzen du. Urtero bi txosten berezitu argitaratu ohi dira.

Urteko txostena

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak urtero egoeraren inguruko argazkia egiteko ardura hartu zuen sortu zen unetik. Hartara, *Urteko txostenean* jasotako kasu guztietan oinarriturik hizkuntza-eskubideen egoeraren diagnostia egiten du Behatokiak. Ekarpen horri esker

Behatokiak euskal hizkuntz komunitateari haren egoera erreala hautemateko adierazleak eskaintzen dizkio

Urteko txostena herritarrek berek helarazitako esperientzietan oinarritutako dokumentua da. Horrela, diagnostiak pisu handiagoa hartzen du ez delako Behatokiak bere kasa induzitutako egoeren isla. Bestalde, Behatokiak euskal hizkuntz komunitateko kideei begira erabiltzen duen berdintasun irizpideari esker, aipatu diagnostian ez da herritarren arteko bereizkeriarik egiten, egun geure hizkuntz komunitatea status juridiko desberdinetan banatuta dagoen arren.

Erakunde publikoei haien jarduera hobetzeko laguntza eskaini nahi die

Behatokiak hizkuntza-eskubideen eremuan dauden beltzuneak, gabeziak... agerian jartzen ditu urteko txostenaren bidez. Kasu batzuetan, hizkuntza-eskubideak bermatzeko *corpus* juridiko desegokia dela, beste batzuetan, legeen inplementazioa gertatu ez dela, herritarrei hizkuntza-eskubideak urratu egiten zaizkie Euskal Herri osoan. Hartara, Behatokiak diagnosi hori ekarpen gisa aurkeztu nahi die erakunde publikoei, pribatuei zein euskalgintzako edota gizarte eragileei ere.

c). HIZKUNTZA ESKUBIDEEN INGURUKO HAUSNARKETAREN SUSTAPENA

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak oso garrantzitsutzat jotzen du hizkuntza-eskubideen inguruko hausnarketa sustatzea. Batetik, kontuan izan behar dugu, arestian aipatu bezala, Euskal Herritar guztiek ez dituztela legez aitortuta eskubidea eta horren ondorioz, eskubide gabeturik daudela uste dute. Bestalde, hizkuntza-eskubideen urraketa zabal eta sistematikoak euskal hiztunek euren hizkuntza-eskubideez duten pertzepzio subjektiboan du eragina eta horrexegatik Euskal Herrian euskaldun jendeak luzez bizi izandako legezko gutxiagotasun eta menpekotasunak egungo egoera naturalizatzea ekarri du.

Egoera hori kontuan harturik, Behatokiak hainbat ekimen bultzatu ditu. Batetik, hizkuntza-eskubideak gaztetxoekin lantzeko tresna bat eskaini zuen, hain zuzen ere, gaztetandik hizkuntza-eskubideen inguruko kontzientzia sustatzeko eta geure hizkuntz komunitateko kide diren heinean, hizkuntza-eskubideen aldeko mezua barneratzeko. Horrela, Behatokiak hizkuntza-eskubideak, hizkuntza-aniztasuna, egungo ordenamendu juridikoa... lantzeko unitate didaktikoa argitaratu du.

Bestalde, Behatokiak eztabaidarako foro berri bati eman zion hasiera Nazioarteko I. Sinposioaren bidez. Bertan Euskal Herriko zein kanpoko profesionalak bildu zituen eta elkarren esperientzien berri trukatzeko aukera eskaini nahi izan zen, hizkuntza-eskubideen inguruko hausnarketa sustatzeko eta hezkuntza-sistemak hizkuntza-eskubideak bermatzeko abian jarri behar dituen mekanismoak definitzeko.

Azkenik, hizkuntza-eskubideen mezua eta hizkuntza-eskubideen urraketak gizareratzeko dibulgazio/publizitate kanpaina bat eman dio hasiera Behatokiak. Kanpaina horren bidez Behatokiak herritar euskaldunei beren eskubideen berri eman nahi izan die, eskubideen urraketak nola ematen diren azalduz, herritarrek eskubideen aldarrikatzaile aktibo bihurtuz eta "Euskararen telefonoa" zerbitzua erabil dezaten bultzatuz.



c). HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERA NAZIOARTEAN ZABALTZEA


Azkenik, Behatokiaren lan ildo garrantzitsuenetako bat hizkuntza-eskubideen egoera nazioartean zabaltzea da. Ezinbestekoa da nazioartean euskaldunoi eta hizkuntza-eskubideen egoerari buruzko informazio zuzena helaraztea eta nazioarteko guneetan gure hizkuntza-komunitatearen ahotsa barreiatzea. Horretarako zenbait bide baliatzen ditu behatokiak.

Batetik, lau hilero Euskal Herriko hizkuntza-eskubideen inguruko aldizkari digitala argitaratzen du. Behatokia *Newsletter* izeneko aldizkaria munduko osoko 400 pertsona eta erakundek jasotzen dute modu sistematikoan.

Behatokiak mundu mailako biltzarretan eta erakundeetan Euskal Herriko hizkuntza-eskubideen egoeraren berri ematen du. Hartara,



Behatokia nazioarteko hainbat erakundetan izan da, besteak beste, Europako Parlamentua edota Nazio Batuen Erakundeetan; bai eta beste zenbait forotan ere: Londonen, Oxforden, Triesten, Tarragonan, Bartzelonan, Strassburgen etab. Horretaz gain, hizkuntza-eskubideen egoerari buruzko azterketa berezituak prestatu eta zabaltzen ditu.



Azkenik, hizkuntza gutxiagotuen eskubideen alde lan egiten duten beste erakundeekin lankidetzak sustatzen ditu.

2.1. HERRITARREN JATORRIA

2005 urtean zehar Hizkuntza Eskubideen Behatokiak **813** kasu bildu ditu. Kasu horietatik **805**, herritarrek "Euskararen telefonoa" zerbitzuaren bidez helarazitako informazioarekin Behatokiak osatu eta bideratutako espedienteak izan dira. Espediente horietatik **729** keaxak izan dira, **38** txalotzeak edo zoriontzeak, eta **16** kontsultak.


Bestalde, Behatokiaren ekimenez zabaldutako hainbat espediente ere izan dira, **8** hain zuzen ere. Espediente horiek Behatokiaren lan ildoan den prebentzio edo alde zuzeneko lanari dagozkie. Horrela, eragin handiko tokietan edo ekimenetan euskararen presentzia soziala bermatzeko saiakera egiten du Behatokiak, eta ondorioz, hizkuntza-eskubideak ez urratzeko neurriak eskatzen ditu, beti ere, ekimen edo zerbitzua abian jarri aurretik.

2005 urtean gora egin du herritarrek helarazitako eta Behatokiak zabaldutako espedienteen kopuruak Horretarako arrazoi nagusia, segurki, udazkenean webgune berria abian jartzea izan da. Izan ere, webgune horri esker herritarrek arinago eta erosoago helaraz ditzakete beren bizipenak eta harreman usuagoa lortzen dute Behatokiarekin.


Gauzak horrela, oso pozgarria da urtez urte Behatokiara jotzen duten herritarren kopuruak gora egiten duela ikustea, eta gizartearen esku jarri genuen zerbitzuak gero eta arrakasta handiagoa duela egiaztatzea.

Datu kuantitatiboak dagokienez, hona hemen azken lau urteotan izandako bilakaera. 2001 urtea ez dugu kontuan hartzen, Behatokiak 3 hilabetez jardun bazuen ere, Euskararen telefonoa zerbitzua 10 egunez besterik ez zelako egon eskuragarri eta orotara **93** espediente besterik ez zelako zabaldu.

1. grafikoa: Espedienteen bilakaera 2002-2005 urteetan zehar




KONTSULTEN BILAKAERA



Beste urte batez gogoratu nahi dugu espedienteen inguruko balorazioa egiten dugunean, ez diogula irizpide kuantitatiboari erreparatuko. Hau da, keaxak eta eskubideen urraketak baloratzeko Behatokiak propio ezarritako irizpide kualitatiboan arabera egingo du irakurketa. Dena den, interesgarria da zerbitzua erabiltzen duten herritarren jatorriari buruzko datuak ere kontuan hartzea.


2. grafikoa: "Euskararen telefonoa" zerbitzuaren erabiltzaileen jatorria, herrialdeka Hego Euskal Herrian



Irizpide kuantitatiboari soilik erreparatuz gero, Gipuzkoan hizkuntza-eskubideak gehiago urratzen direla ondoriozta baliteke ere, hori ez da egungo errealitatearen isla. Horrexegatik, Behatokiak ez du herritarren jatorriari buruzko datua erabiltzen diagnosis egiteko. Hala ere, interesgarria da ikustea zein den "Euskararen telefonoa" zerbitzua erabiltzen duten herritarren jatorria, neurri batean bada ere, hizkuntza-eskubideen urraketen pertzepzio handiagoa non dagoen erakusteko aldagai bat delako.

Beste urte batez, Iparraldeko datuak ez ditugu bertan txertatu. "Euskararen telefonoa" zerbitzua abian jarri arte ezin dugu azterketa konparatiborik egin, eta ohiko moduan Behatokiak Iparraldeko eragileekin egindako kontrasteen ondoriozko azterketa egingo dugu aurtien ere.

3. grafikoa: "Euskararen telefonoa" zerbitzuaren erabiltzaileen jatorriaren bilakaera 2002-2005 urteetan



Azkenik, hona hemen "Euskararen telefonoa" zerbitzuaren erabiltzaileen jatorriari buruzko datu xeheagoak, hiriburuetako eta herrietako erabiltzaileen batez bestekoa zein bere herrialdeari eta Euskal Herriari dagokienez:

ARABA

Gasteiz

2002		2003		2004		2005	
Ara. %	EH %	Ara. %	EH %	Ara. %	EH %	Ara. %	EH %
72,06	5,79	67,46	15,78	51,72	11,52	30	4,01

Gainerako herriak

2002		2003		2004		2005	
Ara. %	EH %	Ara. %	EH %	Ara. %	EH %	Ara. %	EH %
27,94	2,24	33,54	7,65	48,28	10,75	70	9,94

BIZKAIA

Bilbo

2002		2003		2004		2005	
Biz. %	EH %	Biz. %	EH %	Biz. %	EH %	Biz. %	EH %
20,20	4,84	26,36	3,50	21,54	4,30	35,86	7,18

Gainerako herriak

2002		2003		2004		2005	
Biz. %	EH %	Biz. %	EH %	Biz. %	EH %	Biz. %	EH %
79,80	19,13	73,64	11,34	78,46	15,67	34,14	12,85

GIPUZKOA

Donostia

2002		2003		2004		2005	
Gip. %	EH %	Gip. %	EH %	Gip. %	EH %	Gip. %	EH %
31,29	12,04	49,20	17,02	46,05	16,13	59	24,03

Gainerako herriak

2002		2003		2004		2005	
Gip. %	EH %	Gip. %	EH %	Gip. %	EH %	Gip. %	EH %
68,71	26,45	51,80	18,38	53,95	18,89	41	16,44

NAFARROA

Iruñea

2002		2003		2004		2005	
Naf. %	EH %	Naf. %	EH %	Naf. %	EH %	Naf. %	EH %
78	23,02	53,93	14,25	27,03	6,14	18	4,70

Gainerako herriak

2002		2003		2004		2005	
Naf. %	EH %	Naf. %	EH %	Naf. %	EH %	Naf. %	EH %
22	6,49	46,07	12,17	72,97	16,59	82	20,06


2.2. ESPEDIENTEEN IZAERA

Ondoren aurkeztuko dugun taulan 2005 urtean zabaldu diren espedienteen izaera ematen da:

JATORRIA	MOTA	KOPURUA
Herritarrek helarazitakoak	Kexak	729
	Zoriontzeak	38
	Izaera gabeak	20
	Kontsultak	16
	Dokumentazioa faltan	2
Behatokiaren ekimenak	Aldez aurreko lana	8
	KASUAK OROTARA	813

Kexen esparruari dagokionez, erakunde pribatu eta publikoek jasotako kopuruaren azken urteotako bilakaera jasotzen du honako grafiko honek:

4. grafikoa: Bideratutako kexen bilakaera 2002-2005 urteetan, eremu publiko edo pribatuaren arabera



2.3. "EUSKARAREN TELEFONOA" ZERBITZUAREN BIDEZ JASOTAKO DATUAK

2.3.1. KEXAK EREMU PUBLIKOAN

Erakunde publikoei dagokienez, hona hemen herritarren kexak hartu dituzten erakundeak 2005 urtean:

ERAKUNDEA	KOPURUA
Espainiako Estatuko Administrazioa	40
Frantziako Estatuko Administrazioa	6
Eusko Jaurlaritza	87
Legebiltzarrak	5
Nafarroako Gobernua	49
Arabako Foru Aldundia	2
Bizkaiko Foru Aldundia	20
Gipuzkoako Foru Aldundia	28
Udalak	121
Bestelakoak	1
OROTARA	359

Jarraian, alor administratibo zein erakunde bakoitzak jasotako kexa kopurua eta horien espediente zenbakia azalduko dugu:

ALOR ADMINISTRATIBOA **ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA** 40 KEXA

Gobernuaren ordezkari EAEn → 1
418-2005, 585-2005

Instituto Nacional de la Seguridad Social → 7
88-2005, 282-2005, 297-2005, 368-2005, 369-2005, 370-2005, 372-2005

Ministerio de Agricultura y Pesca → 1
308-2005

Ministerio de Cultura → 1
183-2005

Ministerio de Educación → 3
200-2005, 558-2005, 586-2005

Ministerio de Justicia → 2
666-2005, 667-2005

Ministerio del Interior. Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia → 2
185-2005, 566-2005

Ministerio del Interior. Polizia Zuzendaritza Nagusia → 2
207-2005, 587-2005

Ministerio del Interior. Trafiko Zuzendaritza Nagusia → 5
76-2005, 141-2005, 514-2005, 519-2005, 696-2005

Ministerio de Sanidad → 1
521-2005

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia → 3
512-2005, 796-2005, 803-2005

CORREOS → 8
107-2005, 108-2005, 134-2005, 181-2005, 212-2005, 333-2005, 336-2005, 395-2005

Hauteskunde Batzordea → 2
179-2005, 256-2005

Registro de Asociaciones → 1
184-2005

ALOR ADMINISTRATIBOA **FRANTZIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA** 6 KEXA

Ministère de la Justice → 2
572-2005, 575-2005

Ministère de l'Education → 1
802-2005

LA POSTE → 1
793-2005

SNCF → 1
805-2005

TRÈSOR PUBLIQUE → 1
792-2005

ALOR ADMINISTRATIBOA **EUSKO JAURLARITZA** 87 KEXA

Lehendakaritza → 2
83-2005, 271-2005

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako saila → 4
23-2005, 411-2005, 412-2005, 542-2005

Herrizaingoa. Ertzaintza → 11
87-2005, 165-2005, 263-2005, 281-2005, 576-2005, 617-2005, 618-2005, 698-2005, 764-2005, 765-2005, 786-2005

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila → 5
91-2005, 135-2005, 394-2005, 549-2005, 785-2005

Industria, Turismo eta Merkataritza saila → 4
110-2005, 508-2005, 719-2005, 720-2005

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza saila → 5
138-2005, 205-2005, 405-2005, 431-2005, 560-2005

Kultura Saila → 10
331-2005, 535-2005, 580-2005, 603-2005, 604-2005, 605-2005, 606-2005, 611-2005, 613-2005, 656-2005

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen saila → 1
597-2005

Nekazaritza eta Arrantza saila → 1
404-2005

Ogasun eta Herri Administrazio saila → 2
493-2005, 509-2005

Osasun Saila. OSAKIDETZA → 17
125-2005, 155-2005, 255-2005, 315-2005, 338-2005, 339-2005, 346-2005, 380-2005, 410-2005, 426-2005, 450-2005, 489-2005, 515-2005, 579-2005, 643-2005, 728-2005, 790-2005

Doako Laguntza Juridikoaren Batzordea → 1
172-2005

Enplegurako Gaitasuna Sortzeko Lana EGAILAN → 1
38-2005

Euskal Herriko Unibertsitatea. EHU → 14
75-2005, 325-2005, 326-2005, 327-2005, 332-2005, 417-2005, 511-2005, 599-2005, 633-2005, 634-2005, 635-2005, 642-2005, 691-2005, 707-2005

Euskal Irrati Telebista. EITB → 4
10-2005, 67-2005, 71-2005, 637-2005

EUSKOTREN → 5
120-2005, 318-2005, 541-2005, 624-2005, 687-2005

ALOR ADMINISTRATIBOA **LEGE BILTZARRAK**

5 KEXA

Eusko Legebiltzarra → 3
19-2005, 20-2005, 52-2005

Nafarroako Parlamentua → 1
415-2005

EAEko Arartekoa → 1
536-2005

ALOR ADMINISTRATIBOA **NAFARROAKO GOBERNUA**

49 KEXA

Lehendakaritza, Justizia eta Barne departamentua → 4
4-2005, 74-2005, 428-2005, 641-2005

Ekonomia eta Ogasun departamentua → 8
191-2005, 233-2005, 234-2005, 235-2005, 316-2005, 319-2005, 409-2005, 591-2005

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria departamentua → 4
3-2005, 32-2005, 743-2005, 780-2005

Herrilan, Garraio eta Komunikazioen departamentua → 3
140-2005, 402-2005, 596-2005

Hezkuntza departamentua → 5
203-2005, 600-2005, 716-2005, 783-2005, 804-2005

Kultura eta Turismo departamentua → 6
65-2005, 186-2005, 187-2005, 206-2005, 232-2005, 694-2005

Osasun departamentua. OSASUNBIDEA → 16
54-2005, 78-2005, 133-2005, 161-2005, 162-2005, 208-2005, 284-2005, 290-2005, 347-2005, 447-2005, 480-2005, 517-2005, 520-2005, 631-2005, 659-2005, 779-2005

Nafarroako Unibertsitate Publikoa. NUP → 2
300-2005, 345-2005

Iruñeko Planetarioa → 1
28-2005

ALOR ADMINISTRATIBOA **ARABAKO FORU ALDUNDIA**

2 KEXA

Arabako Biltzar Nagusiak → 1
146-2005

Nekazaritza saila → 1
403-2005

ALOR ADMINISTRATIBOA **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**

20 KEXA

Herri Lan eta Garraioak saila → 5
80-2005, 119-2005, 129-2005, 391-2005, 487-2005

Kultura saila → 1
209-2005

Ogasun eta Finantzak saila → 3
22-2005, 241-2005, 699-2005

BEHARGINTZA → 1
287-2005

INTERBIAK → 7
293-2005, 385-2005, 397-2005, 484-2005, 486-2005, 490-2005, 531-2005

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea → 1
700-2005

BILBAO EXHIBITION CENTRE. BEC → 2
24-2005, 25-2005

ALOR ADMINISTRATIBOA **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

28

Foru Diputatu Nagusia → 1
9-2005

Bide Azpiegiturarako departamentua → 1
429-2005

Fiskaliterako eta Finantzarako departamentua → 9
131-2005, 176-2005, 177-2005, 192-2005, 193-2005, 239-2005, 240-2005, 242-2005,
329-2005

Gizarte eta Erakunde Harremanetarako departamentua → 1
718-2005

Kultura zuzendaritza → 1
772-2005

BIDEGI → 14
69-2005, 70-2005, 167-2005, 292-2005, 303-2005, 312-2005, 314-2005, 330-2005,
351-2005, 389-2005, 479-2005, 483-2005, 485-2005, 557-2005

FICOBA → 1
715-2005

ALOR ADMINISTRATIBOA **ARABAKO UDALAK**

14 KEXA

Gasteizko Udala → 10
14-2005, 15-2005, 16-2005, 17-2005, 55-2005, 258-2005, 289-2005, 311-2005, 364-
2005, 568-2005

Aguraingo Udala → 1
21-2005

Dulantziko Udala → 1
673-2005

Gopegiko Udala → 1
461-2005

Zigoitiko Ur Partzuergoa → 1
375-2005

ALOR ADMINISTRATIBOA

BIZKAIKO UDALAK

44 KEXA

Bilboko Udala → 15
27-2005, 127-2005, 166-2005, 171-2005, 343-2005, 407-2005, 408-2005, 478-2005,
630-2005, 679-2005, 686-2005, 725-2005, 732-2005, 739-2005, 740-2005

Abadiñoako Udala → 1
559-2005

Barakaldoko Udala → 8
33-2005, 34-2005, 35-2005, 46-2005, 83-2005, 150-2005, 614-2005, 615-2005

Basauriko Udala → 2
570-2005, 571-2005

Bermeoko Udala → 1
11-2005

Derioko Udala → 5
190-2005, 265-2005, 285-2005, 286-2005, 473-2005

Durangoko Udala → 1
564-2005

Ermuko Udala → 2
649-2005, 650-2005

Getxoko Udala → 1
748-2005

Leioako Udala → 1
257-2005

Lekeitioko Udala → 1
152-2005

Portugaleteko Udala → 3
26-2005, 425-2005, 640-2005

Santurtziko Udala → 1
639-2005

Sestaoko Udala → 1
245-2005

Zallako Udala → 1
794-2005

ALOR ADMINISTRATIBOA

GIPUZKOAKO UDALAK

34 KEXA

Donostiako Udala → 23
104-2005, 126-2005, 159-2005, 302-2005, 337-2005, 390-2005, 392-2005, 393-2005,
406-2005, 433-2005, 491-2005, 492-2005, 516-2005, 573-2005, 574-2005, 584-2005,
621-2005, 628-2005, 657-2005, 722-2005, 771-2005, 787-2005, 788-2005,

Aretxabaletako Udala → 1
163-2005

Arrasateko Udala → 1
601-2005

Azkoitiko Udala → 2
400-2005, 784-2005

Errenteria-Oreretako Udala → 2
723-2005, 724-2005

Hernaniko Udala → 1
677-2005

Oiartzungo Udala → 3
648-2005, 726-2005, 727-2005

Ordiziako Udala → 1
371-2005

ALOR ADMINISTRATIBOA

LAPURDIKO UDALAK

3 KEXA

Baionako Herriko Etxea → 2
72-2005, 791-2005

Miarrizeko Herriko Etxea → 1
432-2005

ALOR ADMINISTRATIBOA

NAFARROAKO UDALAK

26

Iruñeko Udala → 4
398-2005, 419-2005, 731-2005, 801-2005

Iruñerriko Mankomunitatea → 2
68-2005, 676-2005

Baztango Udala → 4
414-2005, 427-2005, 439-2005, 529-2005

Olaztiko Udala → 13
401-2005, 751-2005, 752-2005, 753-2005, 754-2005, 755-2005, 756-2005, 757-2005,
758-2005, 759-2005, 760-2005, 761-2005, 762-2005

Orkoiengo Udala → 1
750-2005

Uharte-Iruñeko Udala → 1
178-2005

Zizur Nagusiko Udala → 1
636-2005

ALOR ADMINISTRATIBOA

BESTELAKOAK

1

Bizkaiko Merkataritza Erregistroa → 1
738-2005

2.3.2. KEXAK EREMU PRIVATUAN

Erakunde pribatuei dagokienez, hona hemen herritarren kexak hartu dituzten alorrak edo esparruak 2005 urtean:

ERAKUNDEA	KOPURUA
Interes orokorreko zerbitzuak	65
Merkataritza gune handiak, kateak denda erraldoiak	86
Aisialdia	62
Aseguruak eta finantzak	50
Mundu asoziatiboa	58
Elikadura eta ostalaritza	17
Profesionalak eta zerbitzuak	32
OROTARA	370

Jarraian, esparru sozioekonomikoko zein erakunde edota enpresa bakoitzak jasotako kexa kopurua eta horien espediente zenbakia azalduko dugu:

INTERES OROKORREKO ZERBITZUAK → 65 KEXA

KOMUNIKAZIO ENPRESAK	22 KEXA
EUSKALTEL	8-2005, 189-2005, 474-2005, 638-2005, 782-2005
MOVISTAR	477-2005, 497-2005, 595-2005, 736-2005
RETENA	367-2005
TELE 2 TELECOMMUNICATION SERVICES	437-2005
TELEFONICA	132-2005, 137-2005, 210-2005, 230-2005, 243-2005, 248-2005, 252-2005, 320-2005, 340-2005
UNI2 TELECOMUNICACIONES	441-2005
VODAFONE	627-2005

ENERGIA HORNITZAILEAK

9 KEXA

ACESOL	169-2005
CAMPSA	609-2005
IBERDROLA	139-2005
NATURGAS	174-2005, 175-2005, 266-2005, 506-2005, 692-2005
REPSOL	616-2005

OSASUNGINTZA

10 KEXA

CENTRO SANITARIO VIRGEN DEL PILAR	797-2005, 798-2005
DYA	565-2005
GURUTZE GORRIA	66-2005, 582-2005
GIPUZKOA POLIKLINIKA	102-2005
IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO	128-2005
NUUESTRA SRA. DE OKON ZAHARRETxea	149-2005, 470-2005
PERLA TALASOTERAPIA	510-2005

HEZKUNTZA

10 KEXA

ACTIVA	358-2005
ASMOZ FUNDAZIOA	352-2005
BAI & BY	626-2005
BIZKAIKO AUTOESKOLEN ELKARTEA	84-2005, 85-2005
DOP. DISTRIBUCIÓN DE OPOSICIONES PÚBLICAS	742-2005
TXIKI TXOKO HAURTZAINDEGIA	225-2005
URTIXINTXA ESKUALDEKO FORMAIZIOA	344-2005
ZUBELDIA PRESTAKUNTZA	267-2005, 313-2005

GARRAIOBIDEAK ETA GARRAIO ENPRESAK

14 KEXA

ALSA	335-2005
AZKAR	703-2005
BANATU	81-2005
EGUISA. ESTACION, GUIPUZCOANOS	49-2005
EL TRANSBORDADOR DE BIZKAIA S. L.	543-2005, 682-2005
ESTACION. URBANOS DEL NORTE	366-2005
GIPUZKOAKO ANBULANTZIAK	164-2005
INTERPARKING HISPANIA	662-2005
METRO BILBAO	737-2005
SEUR. SERV. URGENTE DE TRANS.	92-2005, 211-2005, 620-2005
TÜV RHEINALND	237-2005

MERKATARITZA GUNE HANDIAK, KATEAK, DENDA ERRALDOIAK

86 KEXA

AKI	216-2005, 261-2005
ALCAMPO	619-2005, 623-2005, 647-2005
BIDARTE MERKAT. GUNEA	607-2005
C - SYSTEM	374-2005
CARREFOUR	220-2005, 264-2005, 503-2005, 525-2005, 735-2005
COVIRAN	226-2005, 295-2005, 457-2005
DECATHLON	160-2005, 213-2005, 430-2005, 610-2005, 652-2005, 770-2005, 776-2005
DECORAMA	550-2005
E. LÉCLERC	354-2005, 502-2005
ELKAR	481-2005, 747-2005
EL CORTE INGLÉS	655-2005, 693-2005
EROSKI	7-2005, 109-2005, 121-2005, 122-2005, 124-2005, 217-2005, 246-5005, 249-2005, 307-2005, 377-2005, 386-2005, 451-2005, 460-2005, 664-2005, 688-2005
ESCALERA EUROPEA	13-2005
EUROMUEBLE	551-2005
EXPOSOFAS	322-2005
FAGOR	37-2005, 247-2005, 581-2005
FEU VERT	458-2005
FLEX	522-2005
FNAC	569-2005, 671-2005

IF IN FARADIS	214-2005, 734-2005, 795-2005
IKEA	90-2005, 532-2005, 598-2005, 651-2005, 695-2005, 713-2005, 714-2005
KIABI	524-2005
LAKUA MERKAT. GUNEA	766-2005
LEROY MERLIN	317-2005
LIDL	215-2005, 775-2005
MASTER CADENA	219-2005
MEDIA MARKT	6-2005, 218-2005
MEGACALZADO	555-2005
METRO CUADRADO	459-2005
MONTTE	103-2005
PEUGEOT	143-2005, 388-2005, 562-2005
PLUS SUPERDESCUENTO	501-2005
SABECO	533-2005, 534-2005
SAUNIER DUVAL	238-2005
SOFÁS Y COLCHONES	709-2005
SUPER AMARA	708-2005
SUPER BM	195-2005
TEXTIL HOGAR TALLUNTXE	500-2005

AISIALDIA → 62 KEXA

AISIALDIA 25 KEXA

ANTZERKIOLA	353-2005
AURUM EKOIZPENAK	507-2005
BIDARTE ZINEMAK	654-2005
BILBOKO ITSAS ADARRA	260-2005
MUSEOAREN FUNDAZIOA	
CIVICAN	561-2005, 612-2005
COLISEO ZINEMAK	608-2005
DONOSTIAKO ZINEMALDIA	538-2005, 539-2005, 540-2005
ELEKTRONIKALDIA	622-2005
GOLEM	89-2005
HIKATENEO	363-2005
MARSANS BIDAIK	39-2005, 40-2005
METAL WAY JAIALDIA	498-2005
OSCAR TXINGUDI ZINEMAK	602-2005
OSCAR BRETXA ZINEMAK	663-2005
R. M. O. ELKARTEA	45-2005
SARAKO MUSIKA	513-2005
HAMABOSTALDIA	
SENDAVIVA	504-2005
UNIDA. SERVICIOS	275-2005
INTEGRALES DE TUR.	
VIAJES SEVARO	279-2005
YELMO CINEPLEX	117-2005
ZINEGOAK 2005	48-2005

KIROLA 18 KEXA

ASEGARCE	668-2005
ASPE	669-2005
BASKONIA	306-2005, 556-2005
BESTE IRUÑA	1-2005
BIARRITZ OLYMPIQUE	153-2005

BILBAO URBAN CITY	373-2005, 462-2005, 475-2005
BIZKAIKO SAKIBALOI	678-2005
FEDERAZIOA	
DONIBANE - ZIBURUKO UR	563-2005
KIROLAK	
ERREALA. REAL SOCIEDAD DE	98-2005
FÚTBOL	
EUSKAL PILOTA	136-2005, 684-2005
FEDERAKUNDEA	
FORTUNA KIROL ELKARTEA	690-2005
GIPUZKOAKO FUTBOL	660-2005
FEDERAZIOA	
OSASUNA	221-2005, 378-2005

KULTURA 9 KEXA

ANDRA MARI KATEDRALA	57-2005, 113-2005, 272-2005, 361-2005, 482-2005
FUND.	
ARTIUM MUSEOA	60-2005, 147-2005, 201-2005
ORDOÑEZ FALCÓN FUNDAZIOA	488-2005

ARGITALPENAK 2 KEXA

GOLDBERG EDICIONES	188-2005
BRIDGESTONE FIRESTONE	420-2005
HISPANIA	

HEDABIDEAK 8 KEXA

DEIA	180-2005
DIARIO DE NOTICIAS	262-2005, 323-2005
DIGITAL +	689-2005
DONOSTIAKO HERRI IRRATIA	670-2005
DUPLEX ALDIZKARIA	97-2005
EL SEMANAL	328-2005
KISS FM	51-2005

ASEGURUAK ETA FINANTZAK → 50 KEXA

ASEGURU ETXEAK 10 KEXA

DIRECT SEGUROS	554-2005
KMI ASEGURU ARTEKARITZA	168-2005
LAGUN ARO	93-2005, 334-2005, 383-2005, 749-2005, 778-2005
OCASO	445-2005
PAKEA	452-2005, 453-2005

FINANTZAK 40 KEXA

BANCO ATLÁNTICO	444-2005
BANCO DE SABADELL	446-2005
BANCO SANT. CENTRAL	436-2005, 769-2005
HISPANO	
BANKOA	465-2005
BILBAO BIZKAIA KUTXA. BBK	274-2005, 685-2005
CAIXA GALICIA	321-2005
CREDITOS NORTENOS S.A.	355-2005

CENORSA EUSKADIKO KUTXA	250-2005, 251-2005, 277-2005, 376-2005, 379-2005,
HISPAMER KUTXA	442-2005 746-2005
LA CAIXA	268-2005
MBNA. EUROPE BANK LIMITED	41-2005, 42-2005, 43-2005
MORGAN STANLEY	443-2005
NAFARROAKO KUTXA	194-2005, 278-2005, 505-2005, 629-2005
NAFARROAKO RURAL KUTXA	552-2005
VITAL KUTXA	56-2005, 111-2005, 142-2005, 156-2005, 197- 2005, 198-2005, 269-2005, 359-2005, 399- 2005, 448-2005, 463-2005, 545-2005, 767- 2005, 768-2005

MUGIMENDU ASOZIATIBOA → 58 KEXA

MUNDU ASOZIATIBOA	32 KEXA
AER- ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS DE LA RIBERA ABOKATUTZAREN EUSKAL KONTSEILUA	5-2005 674-2005
AMBA. ARABAKO ARTE EDER. ETA ARTIUM MUSEOAREN LAGUNAK	59-2005, 114-2005, 148-2005, 288-2005, 468- 2005, 471-2005
AUSENSI GURASO ELKARTEA BIZKAIKO OSTALARIEN ELKARTEA	357-2005 94-2005, 95-2005
CÁMARA NAVARRA CÁRITAS	151-2005 12-2005, 423-2005, 789-2005
EUSKAL ARTZAIN TXAKURRAREN ELKARTEA	50-2005
EUSKAL HERRIKO ARKITEKTU OFIZIALEN ELKARGOA	62-2005, 116-2005, 273-2005, 360-2005, 469- 2005, 697-2005
EUSKAL SOZIOLOGIA ELK. EUSKALIT	123-2005 733-2005, 763-2005
GIPUZKOAKO SAGARDO NATURALAREN ELKARTEA	701-2005
IRUÑEKO NOTARIOEN ELK. LAHAR ELKARGOA	30-2005 672-2005
MOVIMIENTO ANTITAURO PLATAFORMA PARA LA IMPLANTACION RACIONAL DE LA ENERGIA EOLICA EN EUSKADI	567-2005 362-2005
REAL AUTOMÓVIL CLUB VASCO NAVARRA	661-2005
UNIÓN CICLISTA NAVARRA	301-2005

MUGIMENDU SOZIOPOLITIKOAK → 24 KEXA

ALDERDIEN KOALIZIOAK	58-2005, 63-2005, 202-2005, 270-2005, 546- 2005
ARALAR	381-2005
DENOK HAUTESLEEN ZERRENDA	729-2005

EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTEA. EHNE	341-2005
EUSKO ALKARTASUNA. EA	61-2005, 365-2005
EUZKO ALDERDI JEL. EAJ	115-2005, 144-2005, 382-2005, 467-2005
EZKER BATUA. EB	18-2005
PARTIDO POPULAR	305-2005, 396-2005
PSE-EE	77-2005, 472-2005
UNIÓN DE AGRICULTORES Y GANADEROS DE ÁLAVA. UAGA	64-2005, 112-2005, 280-2005, 464-2005, 547- 2005

ERLIJIOA → 2 KEXA

BILBOKO GOTZAITEGIA	730-2005
BERRIOZARKO DONEZTEBE PARROKIA	537-2005

ELIKADURA ETA OSTALARITZA → 17 KEXA

ELIKADURA	4 KEXA
AU'SOME CANDIES EUROPE	244-2005
GOSHUA	518-2005
IGARA PLATOS COMBINADOS	705-2005
KAIKU	100-2005

OSTALARITZA → 13 KEXA

AUTOGRILL	683-2005
CASA VERGARA JATETXEA	706-2005
DONOSTIAKO TENIS ELKARTE	413-2005
ERREALA KUTXA	384-2005, 435-2005
MASUSTA TABERNA	99-2005
HOME FOOD SERVICE	781-2005
ÑAM JATETXEA	223-2005
PANS & COMPANY	228-2005, 294-2005
PIZZA HUT	578-2005
SANSONATEGI JATETXEA	702-2005, 712-2005
TELEPIZZA	

PROFESIONALAK ETA ZERBITZUAK → 32 KEXA

ABC – MICROS	421-2005
APP INFORMÁTICA	777-2005
ASTIGARRAGA KIT LINE	744-2005
BRONTE OPTIKA	106-2005
CARPINTERÍAS BASKONGADA	342-2005
COLCHONES ATSEDEN	773-2005
COLORE	454-2005
E - BUSINESS	530-2005
EUSKALIT	304-2005
GERTU ITURGINTZA	86-2005
INSERT COIN	710-2005
IRUÑEKO ERRUKI ETXEA	422-2005
IWER NAVARRA S.A.	298-2005, 356-2005, 548-2005
KENA S.A.	721-2005

LA TIENDA DEL ABUELO	224-2005
LICEMAT	553-2005
MANPEL	387-2005
NOTARITZA ALTSASU	29-2005
OBEGISA	79-2005
REFORMAS AMURRIO	199-2005
REINN S. L.	253-2005, 309-2005
RICOH	36-2005, 291-2005, 588-2005
TISCALI ESPAÑA S. L. U.	440-2005
TRAVEL CLUB	774-2005
VIDEO NET	711-2005
VULCO NEUMÁTICOS	101-2005
WEB TIME	589-2005

2.3.3. ZORIONTZE EDO NABARMENTZE POSITIBOAK

2005 urtean ere herritarrek zenbait zoriontze helarazi dituzte Behatokira, hainbat erakundek herritarren eskubideak bermatzeko eman dituzten aurrerapausoei dagokienez.

Zoriontzeen zio nagusietako bat propaganda euskaraz ere zabaltzea izan da, eta aipagarria da horrelako neurriak hartu dituzten enpresa gehienak Donostialdekoak izan direla.

Bestalde, arras bitxia gertatu zaigu Kataluniako zenbait enpresak euskaldunen hizkuntza-eskubideekiko erakutsitako jarrera adeitsua, izan ere, lurralde horretako enpresek hainbat zoriontze jaso dute, besteak beste, hiru herritarren zoriontzeak izan dituen Vueling Airlines konpainiak.

Erakundea:	KUTXA
Arrazoa:	<i>Erakusketa bateko azalpenetan euskara lehenetsi dute.</i>
Espedienteak:	2-2005, 47-2005
Erakundea:	PEDRO LUIS KONTSERBAK (Nafarroa)
Arrazoa:	<i>Web gunea euskaraz ere badago</i>
Espedientea:	73-2005
Erakundea:	LA VACA JATETXEA (Donostia-Gipuzkoa)
Arrazoa:	<i>Ele bietan argitaratzen du propaganda</i>
Espedientea:	96-2005
Erakundea:	AMARA ATEAK (Donostia-Gipuzkoa)
Arrazoa:	<i>Ele bietan argitaratu du propaganda</i>
Espedientea:	105-2005
Erakundea:	BILBOKO KOMUNITATE ISLAMIARRA
Arrazoa:	<i>Meskitaren atarian euskara erabiltzen dute oharretan, bai eta auzokoei zuzendutako idatzizko oharretan ere.</i>
Espedientea:	130-2005
Erakundea:	LA CAIXA
Arrazoa:	<i>Gasteizen antolatutako Hegan egin erakusketan, idatzizko euskarri guztiak euskaraz ere egon dira.</i>
Espedientea:	157-2005
Erakundea:	DEPASO-CEPSA (Itziar-Gipuzkoa)
Arrazoa:	<i>Gasolindegiko hornigailuetan grabatutako mezuak euskaraz daude.</i>
Espedientea:	158-2005
Erakundea:	DEPASO-CEPSA (Itziar-Gipuzkoa)
Arrazoa:	<i>Gasolindegian dagoen giroko musika euskaraz izaten da.</i>
Espedientea:	196-2005
Erakundea:	DAITEKE, ETENGABEKO ORIENTAZIOA ETA GAITASUNEN GARAPENA (Donostia-Gipuzkoa)
Arrazoa:	<i>Propaganda ele bietan zabaldu dute.</i>
Espedientea:	204-2005

Erakundea:	NATUR HOUSE (Donostia)
Arrazoa:	<i>Denda iragartzeko publizitatea euskaraz ere badago.</i>
Espedienteak:	222-2005
Erakundea:	BORDELEKO NAZIOARTEKO FERIA
Arrazoa:	<i>Zabaldu duten eskuorria ele bietan dago.</i>
Espedienteak:	229-2005
Erakundea:	FAGOR
Arrazoa:	<i>Matxura bat zuela eta, hainbat aldiz deitu behar izan du eta zerbitzua euskaraz eman diote ia guztietan.</i>
Espedienteak:	231-2005
Erakundea:	MAHALA ESNEKIAK
Arrazoa:	<i>Produktuetako etiketak euskara hutsean daude.</i>
Espedienteak:	254-2005
Erakundea:	ITURBE SUKALDEAK(Urnieta-Gipuzkoa)
Arrazoa:	<i>Maiatzean eta azaroan banatutako propaganda euskara modu orekatuan agertzen zen.</i>
Espedienteak:	276-2005 717-2005
Erakundea:	GENERAL OPTICA
Arrazoa:	<i>Iruñeko dendako errotiluak euskaraz ere badaude.</i>
Espedienteak:	310-2005
Erakundea:	EUSKADIKO KUTXA
Arrazoa:	<i>Propaganda euskara hutsean igorri dio herritarri.</i>
Espedienteak:	348-2005
Erakundea:	AZKUE Y CIA. S.A.
Arrazoa:	<i>Kamioiek atzealdean daramaten errotilua euskara hutsean dago.</i>
Espedienteak:	349-2005
Erakundea:	TELEFÓNICA
Arrazoa:	<i>Propaganda euskara hutsean igorri dio enpresa bati.</i>
Espedienteak:	424-2005
Erakundea:	VUELING AIRLINES
Arrazoa:	<i>Web gunea euskaraz ere badute, eta informazio guztia eskaintzen dute euskaraz.</i>
Espedienteak:	434-2005 476-2005 593-2005
Erakundea:	NAFARROAKO EHIZA FEDERAZIOA
Arrazoa:	<i>Kodes mendizerrako bordan txartelak ele bietan jarri dituzte.</i>
Espedienteak:	438-2005
Erakundea:	AMETS LEIHOAK (Donostia-Gipuzkoa)
Arrazoa:	<i>Postontzietan zabaldutako propaganda euskaraz dago.</i>
Espedienteak:	455-2005
Erakundea:	RICKY POLLOS (Donostia-Gipuzkoa)
Arrazoa:	<i>Postontzietan zabaldutako propaganda euskaraz dago.</i>
Espedienteak:	456-2005

681-2005

Erakundea:	TURISME RURAL GIRONA
Arrazoa:	<i>Elkarteak argitaratzen duen liburuxka euskaraz ere badago.</i>
Espedienteak:	494-2005
Erakundea:	CARREFOUR (Oiarzun)
Arrazoa:	<i>"Eraman 3, ordaindu 2" kanpainako propagandarako orriean euskara modu orekatuan erabili da.</i>
Espedienteak:	495-2005
Erakundea:	UDC ROCHAPEA (Iruñea-Nafarroa)
Arrazoa:	<i>Etxera bidalitako informazioa euskaraz ere badago.</i>
Espedienteak:	496-2005
Erakundea:	SPANAIR
Arrazoa:	<i>Hegazkinak lurra hartzean, euskaraz ere eman zituzten bozgorailu bidezko oharak.</i>
Espedienteak:	499-2005
Erakundea:	LASAO EGURREZKO ALTZARIAK (Azpeitia-Gipuzkoa)
Arrazoa:	<i>Propaganda liburuxkan euskara modu orekatuan agertzen da.</i>
Espedienteak:	523-2005
Erakundea:	ALTACUOTA
Arrazoa:	<i>Euritako kaparen azalpenak euskaraz ere badaude.</i>
Espedienteak:	526-2005
Erakundea:	BORDER DE GRAUS KANPINA (Tavascan-Lleida)
Arrazoa:	<i>Faktura euskaraz ere luzatu zioten herritarri.</i>
Espedienteak:	527-2005
Erakundea:	NAFARROAKO KUTXA
Arrazoa:	<i>Arrotxapeako San Cristobal kaleko bulegoan euskaraz artatu zuten.</i>
Espedienteak:	590-2005
Erakundea:	ALOKATU S.L.
Arrazoa:	<i>Aupa Etxebeste izeneko filma ekoizteagatik eta herritarrek euskarazko filmak ikusteko eskubidea bermatzeagatik.</i>
Espedienteak:	594-2005
Erakundea:	XABIROI KOMIKIA
Arrazoa:	<i>Gazteentzako euskarazko eta kalitatezko komiki bat argitaratzeagatik.</i>
Espedienteak:	646-2005
Erakundea:	MIKEL LUZEA ILEAPAINDEGIA (Iruñea-Nafarroa)
Arrazoa:	<i>Euskaraz artatu zuten eta errotilu gehienak euskaraz ere badaude.</i>
Espedienteak:	653-2005

Bestalde, badira zorientze izaera gabe herritarrek helarazi dituzten jarrera txalogarriak. Horietako biri ez diegu zorientze izaera esleitu, talde horrek oharra bi aldiz ele bietan igorri arren ondoren gaztelania hutsean ere igorri zuelako.

Bigarrena erakunde publikoa izanik, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea berez dagokion betebeharra da, eta beraz, ez du zorientze izaerarik.

Erakundea:	EUZKO ALDERDI JELTZALEA . EAJ
Arrazoa:	<i>Arabako Biltzar Taldeak prentsa oharra bi aldiz ele bietan bidali du, baina ondoren, jarraitu izan du gaztelania hutsean igortzen.</i>
Espedientea:	118-2005 466-2005

Erakundea:	BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOA
Arrazoa:	<i>Erakunde publikoa den neurrian betebeharra du.</i>
Espedientea:	350-2005

2.3.4. KEXA IZAERA GABEKO ESPEDIENTEAK

Herritarrek kexa helarazita, Behatokiak zioaren azterketari ekiten dio. Zenbaitetan, herritarrek eskubidea urratu zaiola uste badu ere, ez da horrela izan; bestetan, herritarra ez da ohartu eskubidea bermatzeko bitartekoak bazirela. Hortaz, kasu horiei guztiei ez zaie kexaren izaera eman.

Ondoren, kexa izaera izan ez duten espedienteak jaso ditugu. Ohikoa denez, ez dugu enpresa edota erakundearen izena agertu kexek izaerarik ez dutelako:

Arrazoa: *Euskarazko eskuorriak ere badaude herritarren eskura.*
Espedientea: 44-2005

Arrazoa: *Akats bat egiteagatik ezin ondoriozta daiteke interes falta dagoenik.*
Espedientea: 53-2005

Arrazoa: *Ele bietan egotea ez da eskubideen urraketa.*
Espedientea: 145-2005

Arrazoa: *Euskal Herrian zabaldu ez den euskarria da.*
Espedientea: 170-2005

Arrazoa: *Erakunde publikoa den heinean betebeharra da.*
Espedientea: 227-2005

Arrazoa: *Ez dago hizkuntza-eskubide urraketa argirik. Zerbitzua euskaraz jaso du.*
Espedientea: 259-2005

Arrazoa: *Webgunea bi hizkuntzetan dago*
Espedientea: 324-2005

Arrazoa: *Ez dago hizkuntza-eskubide urraketarik, zerbitzua euskaraz eman diote.*
Espedientea: 449-2005

Arrazoa: *Ele bietan egin dute pankarta.*
Espedientea: 577-2005

Arrazoa: *Euskaraz zerbitzua jasotzerik bazegoen.*
Espedientea: 583-2005

Arrazoa: *Webguneak badu euskarazko bertsioa*

Espedientea: 592-2005

Arrazoa: *Herritarrek euskaraz egin ditzake gestioak.*
Espedientea: 632-2005

Arrazoa: *Pertsona ezinduek ez dute arazorik euskarazko eskoletara bertaratzeko.*
Espedientea: 645-2005

Arrazoa: *Euskara ere modu orekatuan agertzen da.*
Espedientea: 665-2005

Arrazoa: *Erakundeak igorritako informazioaren arabera, euskaraz ere badago.*
Espedientea: 675-2005

Arrazoa: *Euskarazko inprimakiak ere eskuragarri daude.*
Espedientea: 704-2005

Arrazoa: *Euskaraz ere eskaintzen du zerbitzua.*
Espedientea: 745-2005

2.3.5. KONTSULTAK

“Euskararen telefonoa” zerbitzuaren bidez herritarrek hizkuntza-eskubideen inguruan dituzten kontsultei ere erantzun egiten zaie. Horrela, Behatokiak aholkularitza jurilinguistikoa eskaini nahi die herritarrei, besteak beste, hizkuntza-eskubideen urraketen aurrean duten babes juridikoa, eskubideak bermaratzeko jarduerak eta abar.

Hona hemen 2005 urteko kontsultak jasotzen dituen taula:

Espedientea:	31-2005
Galdera:	<i>Bizkaian administrazioetako dokumentuak euskara hutsean jasotzeko aukera.</i>
Espedientea:	154-2005
Galdera:	<i>Osakidetzan zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidea.</i>
Espedientea:	173-2005
Galdera:	<i>Euskarazko irratian gaztelaniaz dauden e-mailak irakurtzeko joera.</i>
Espedientea:	182-2005
Galdera:	<i>Erakunde publiko batek kontratazioetan euskararen ezagutza merezimendu gisa baloratzeko erabili duen irizpidea.</i>
Espedientea:	236-2005
Galdera:	<i>Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko proben edukia.</i>
Espedientea:	283-2005
Galdera:	<i>Euskaraz lan egiteko eskubidea.</i>
Espedientea:	296-2005
Galdera:	<i>Lanpostu bati kendutako derrigortasunezko euskararen ezagutza.</i>
Espedientea:	299-2005
Galdera:	<i>Karrera amaierako oroit idazkia euskaraz aurkezteko eskubidea.</i>

Galdera:	Liburuzainen lan deialdian erabilitako hizkuntza-irizpideak.	Espedientea:	416-2005
Galdera:	Udal batek gaztelania hutsean argitaratzen dituen dokumentuak atzera bueltatzeko aukera.	Espedientea:	528-2005
Galdera:	Udal batek beste udal bati gaztelaniaz igorritako eskutitza itzultzeko aukera.	Espedientea:	544-2005
Galdera:	Bide seinaleetako hizkuntza-irizpideak.	Espedientea:	625-2005
Galdera:	Lan deialdi batean euskararen derrigorrezko ezagutza kentzeko saiakera.	Espedientea:	644-2005
Galdera:	Testamentua euskaraz egiteko aukera.	Espedientea:	658-2005
Galdera:	Nafarroako legeria.	Espedientea:	680-2005
Galdera:	Antroponimoak euskaraz jartzeko eskubidea.	Espedientea:	741-2005

2.3.6. OSATZEKO DOKUMENTUAK FALTA DITUZTEN ESPEDIENTEAK

Kasuren batean Behatokiak ezin izan du espedientea bideratu oinarrizko datuak edo dokumentuak falta zituelako. Horrelakoetan, herritarrekin harremanetan jarri eta beharrezkoak diren datuak igortzeko eskatu zaio.

Ondokoak izan dira datu edo dokumentu osagarririk gabe Behatokiak ez bideratzea deliberatu dituen espedienteak:

ESPEDIENTEAK

799-2005	Kexa non izan den ez du argitu herritarrak
800-2005	Kexa non izan den ez du argitu herritarrak

2.4. BEHATOKIAREN EKIMENAK

Orain arte urteko txostenean islatu ez badugu ere, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak alde zuzeneko edo prebentzioa izeneko lan ildoari ekin izan dio sorreratik bertatik. Lan ildo horretan eragin handiko eta sortzear edo egitear dauden espazio, jarduera, erakunde eta abarretan herritarren hizkuntza-eskubideen urraketak ez gertatzeko bitartekoak jartzeko eskatzen zaie arduradunei.

Izan ere, errazagoa izan daiteke espazio edo jarduera bat abian jarri aurretik beharrezko neurriak hartzea ondoren gerta litezkeen urraketak saihesteko.

Prozedurari dagokionez, Behatokia enpresa edo erakunde horiek harremanetan jarri da herritarren hizkuntza-eskubideen bermea kontuan har dezatela eskatzeko. Bestalde, legea aldekoa denean, administrazioetako arduradunei ere horren berri helarazi zaie esku har dezaten. Izan ere, Behatokiarentzat oso garrantzitsua da herri eragileen eta administrazioen arteko elkarlana eta guztiok batera ekinez gero, emaitza aski onak izango genituzke.

Hona hemen 2005 urtean Behatokiak burutu dituen alde zuzeneko ekimenak:

Espedientea:	P200501
Erakundea:	Ministerio de Sanidad, Eusko Jaurlaritza Nafarroako Gobernua
Arrazoa:	Onartu beharreko tabakoaren legearen baitan derrigorrezko errotuluak ele bietan egoteko eskaera.

Espedientea:	P200502
Erakundea:	Azti Begia elkarteak
Arrazoa:	Abian jarri behar duten Info7 irratian euskarak presentzia orekatua izateko eskaera.

Espedientea:	P200503
Erakundea:	FNAC
Arrazoa:	Donostian zabaldu beharreko dendan herritarren hizkuntza-eskubideen bermea kontuan hartzeko eskaera.

Espedientea:	P200504
Erakundea:	EL CORTE INGLÉS
Arrazoa:	Iruñean zabaldu beharreko dendan herritarren hizkuntza-eskubideen bermea kontuan hartzeko eskaera.

Espedientea:	P200505
Erakundea:	PAKEA MUTUA
Arrazoa:	Beste mutua batekin egin beharreko fusio prozesuren ondorioz sortuko den MUTUALIAN herritarren hizkuntza-eskubideen bermea kontuan hartzeko eskaera.

Espedientea:	P200506
Erakundea:	DONOSTIAKO UDALA
Arrazoa:	Zubieta auzoan sustatu beharreko hainbat hiri proiektutan euskararen presentzia orekatua bermatzeko eskaera.

Espedientea:	P200507
Erakundea:	VIKESA. EUSKO JAURLARITZA
Arrazoa:	Arabán, Bizkaian eta Gipuzkoan eraikitzen diren babes ofizialeko etxeetan euskararen presentzia orekatua bermatzeko eskaera.

Espedientea: **P200508**

Erakundea: **EUSKO JAURLARITZA.**
JOKO ETA IKUSKIZUN ZUZENDARITZA

Arrazoia: *Apustu-etxeetako lizentzien esleipenetan hizkuntza-eskubideen bermea derrigorrezko irizpide gisa agertzeko eskaera.*

3. DATUEN AZTERKETA: Metodologia

3.1. DATUAK IRAKURTZEKO IRIZPIDEAK

Aurreko urteetan egindako egoeraren diagnosian bezalaxe, 2005 urtekoan ere Behatokiak datuak irakurtzeko erabili dituen irizpideei buruzko argibideak eman nahi ditu, amaieran aurkeztuko diren ondorioetara nola iritsi den jakinarazteko.

2005. urtean jasotako eta bideratutako espedienteak beste modu batez helarazi nahi izan dizkio Behatokiak gizarteari. Aurreko urteetako txostenek eskaintzen zuten irakurketa alde batera utzi, eta erronka berri bati ekin nahi izan dio aurtengo diagnosian.

Hori dela eta, datuak bi eremu nagusitan eskainiko ditugu, hain zuen ere, eremu publikoaren edo pribatuaren araberrako azterketa berezituak jaso ditugu aurten.

2005 urteak agertzen duen beste berrikuntza bat sektoreen araberrako irakurketa kualitatiboa izan da. Hartara, aurreko urteetan eremu publikoari zegozkion kexak erakundeka edo administrazioka lantzen genituen, eta eremu pribatuari zegozkionak, aldiz, guztiak multzo berean.

Azterketa hori interesgarria bada ere, sektoreen araberrako azterketa erabilgarriagoa izan daitekeelakoan dago Behatokia. Modu horretara, irakurleak administrazioaren atal bakoitzean euskaldunon eskubideak zertan diren aztertu ahal izango du, alegia, justizian hizkuntza-eskubideak zertan diren jakin ahal izateko ez du jo behar izango eskuduntzen araberrako administrazioetara, guztiak bilduta izango ditu.

Horrek ez du esan nahi sektorekako azterketak egin direnean administrazioen araberrako baloraziorik egin ez denik. Aitzitik, 2005 urteko txostenak sektorez sektore administrazio bakoitzari buruzko laburpen txikia txertatu du.

Hala ere, badira sektorekako azterketa horretatik geratu diren bi eremu: UDALAK eta IPARRALDEA. Udalen kasuan zaila da udal kopurua kontuan harturik, horien banaketa egitea, edota eremu administratibo horiei buruzko kexak sektore orokorretan kokatzea. Iparraldeari dagokionez, berriz, Behatokiak ez du abian jarri "Euskararen telefonoa" zerbitzua, eta, beraz, bertako eragileek helarazitako urraketa larrien irakurketa egin dugu.

Eremu pribatuan ere antzeko metodologiari eutsi dio Behatokiak. Kontuan harturik, urterik urte, eremu horretako gero eta kexa gehiago jasotzen dela, aurreko urteetan erabilitako prozedura desegokia dela ondorioztatu da. Horrexegatik 2005 urtean jasotako datuak eremuka eta eremu horien barruan sektoreka sailkatu eta landu dira.

Bestalde, urterik urte, datuak irakurtzeko irizpideetan jaso izan den oinarri nagusia aurtengoan ere islatu egin da, alegia, datuen azterketa kualitatiboa.

2005 urtean **813** espediente kudeatu ditu Behatokiak, eta horien artean 805 herritarrek helaraziak. Bestalde, **805** horietarik **729k** kexaren izaera izan dute.

Hortaz, **729** bizipen edo eskubide-urraketetan oinarritutako diagnosia da ondoren aurkeztuko dena.

Bost urtez hizkuntza-eskubideei buruzko diagnosiak egin izanak nolabaiteko eskarmentua eman dio Behatokiari datuen gero eta irakurketa zorrotzagoa eta zuzenagoa egiteko, izan ere, 2005 urtean jasotako 729 kexa horiez gain, aurreko urteetan bideratutako **2500** espedienteak ere azterketarako baliagarri izan zaizkio, hain zuzen ere, bilakaerari buruzko hausnarketa egin ahal izateko.

3.2. SAILKAPENA

Herritarrek helarazitako kexak, beraz, bi eremu nagusitan sailkatu ditu Behatokiak: eremu publikoa eta eremu pribatua.

Eremu publikoan administrazioak kokatu ditugu, alegia, erabat publikoak diren erakundeak eta pribatuan, aldiz, erabat pribatuak direnak, baita nolabaiteko laguntza publikoak dituztenak ere.

Hona hemen eremu bakoitzean egindako banaketa:

EREMU PUBLIKOA	EREMU PRIBATUA
Justizia Lana eta Gizartea Ogasuna eta Ekonomia Barne saila Hezkuntza Herri Lana eta Garraioa Osasungintza Kultura Bestelakoak ¹ UDALAK IPARRALDEA	Interes orokorreko zerbitzuak Merkataritza guneak, kateak, denda handiak Aisialdia Aseguruak eta Finantzak Mundu asoziatiboa Elikadura eta ostalaritza Profesionalak eta zerbitzuak

¹ Atal horretan beste sektoreetan sar ez zitezkeenak kokatu dira. Izan ere, horietako bakoitzarekin sektore berri bat egin liteke. Hala ere, sektore berean dauden arren, azterketa berezituak egin zaizkie.

Horrekin batera, eremu pribatuko sektoreak esparruka banatu dira:

EREMU PRIBATUKO SEKTOREAK ETA ESPARRUAK	
Interes orokorreko zerbitzuak	Komunikazio enpresak Energia hornitzaileak Osasungintza Hezkuntza Garraibideak eta garraio enpresak
Merkataritza gune handiak, kateak	<i>Ez dago esparrurik</i>
Aisialdia	Aisialdia Kirola Kultura Argitalpenak Hedabideak
Aseguruak eta finantzak	Aseguru etxeak Finantzak
Mugimendu asoziatiboa	Mundu asoziatiboa Mugimendu soziopolitikoak Erljioa
Elikadura eta ostalaritza	Elikadura Ostalaritza
Profesionalak eta zerbitzuak	<i>Ez dago esparrurik</i>

3.3. ADIERAZLEAK

Arestian esan bezala, Behatokiak lehenetsi egiten du kexen irakurketa kualitatiboa, eta horretarako 2001 urtez geroztik azterketa horretarako adierazleak definitu zituen:

AZTERKETA KUALITATIBORAKO ADIERAZLEAK

Izaera	Hizkuntza-eskubidearen urraketa gertatu den erabakitzea. Ondoren, egungo ordenamendu juridikoaren arabera lege urraketerik gertatu den erabakitzea.
Puntualtasuna / Sistematikotasuna	Errepikakortasuna Gertaera baten inguruko kexa asko jaso badira. Erabilera Erabilera idatzi eta ahozkoaren bermea: ahozko zerbitzu pertsonala edo herritarrei zuzenean esaten zaizkienak; eskutitz pertsonalizatua edota errotulazioa etab.
Larritasuna	Eskubidea baliatzeagatik kalterik izan bada, edo beste eskubideren bat urratu bada.

3.4. EREMUZ EREMUKO AZTERKETAREN AURKEZPENA

Datuak baloratzeko adierazleak eta eremuen antolaketa azalduta, hona hemen 2005 urteko txostenak jasotzen dituen eremuz eremuko azterketen egitura:

EREMU Pribatuaren
INTERES OROKORREKO ZERBITZUAK

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 10
 2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

3.1. Sinesia
 3.1.1. Espediente kopurua
 3.1.2. Adierazlearen arabera
 3.1.3. Erabileraren arabera

3.2. Datuak / Informazioa
 3.2.1. Erabileraren arabera
 3.2.2. Datuak

3.3. Lantzerak
 3.3.1. Erabileraren arabera
 3.3.2. Datuak

Eremuaren izenburua eta jasotako kexa kopurua adierazi da lehenik eta behin

Ondoren, azterketa kualitatiboari eutsi zaio, 3.3. puntuan azalduko adierazleen arabera. Erabileraren atalean kexen zioak jasotzen dituen taula txertatu da.

3.4. Erabileraren arabera
 3.4.1. Erabileraren arabera
 3.4.2. Datuak

Administrazioaren araberako balorazioa ere egin da. Lehenik eta behin administrazio bakoitzak jasotako kexa-kopurua eskaini da eta ondoren, datuen irakurketa.

3.5. Administrazioaren araberako balorazioa

Administrazioa	Kexa kopurua
1. Administrazioa	10
2. Administrazioa	10
3. Administrazioa	10
4. Administrazioa	10
5. Administrazioa	10
6. Administrazioa	10
7. Administrazioa	10
8. Administrazioa	10
9. Administrazioa	10
10. Administrazioa	10

4. ERANTZUNAK

4.1. Erantzunen arabera
 4.2. Erantzunen arabera
 4.3. Erantzunen arabera

Kexa jaso duten administrazioek Behatokia helarazitako erantzunen balorazioa egin da 4. atalean.

5. SINOPSISIA: INTERES OROKORREKO ZERBITZUAK

5.1. Sinopsia
 5.2. Sinopsia
 5.3. Sinopsia

Amairan, eremuan landutako kexa guztien sinopsia bildu da.

Eremu pribatuaren dagokionez, antzeko moduan aurkeztu dira datuak:

EREMU Pribatuaren
JUSTITZIA

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 10
 2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

3.1. Sinesia
 3.1.1. Espediente kopurua
 3.1.2. Adierazlearen arabera
 3.1.3. Erabileraren arabera

3.2. Datuak / Informazioa
 3.2.1. Erabileraren arabera
 3.2.2. Datuak

3.3. Lantzerak
 3.3.1. Erabileraren arabera
 3.3.2. Datuak

Eremuaren izenburua eta jasotako kexa kopurua adierazi da lehenik eta behin

Ondoren, azterketa kualitatiboari eutsi zaio, 3.3. puntuan azalduko adierazleen arabera. Erabileraren atalean kexen zioak jasotzen dituen taula txertatu da.

3.4. Erabileraren arabera
 3.4.1. Erabileraren arabera
 3.4.2. Datuak

Esparruaren araberako balorazioa ere egin da. Lehenik eta behin esparru bakoitzak jasotako kexa-kopurua eskaini da eta ondoren, datuen irakurketa.

3.5. Administrazioaren araberako balorazioa

Administrazioa	Kexa kopurua
1. Administrazioa	10
2. Administrazioa	10
3. Administrazioa	10
4. Administrazioa	10
5. Administrazioa	10
6. Administrazioa	10
7. Administrazioa	10
8. Administrazioa	10
9. Administrazioa	10
10. Administrazioa	10

Kexa jaso duten enpresek Behatokia helarazitako erantzunen balorazioa egin da 4. atalean.

4. ERANTZUNAK

4.1. Erantzunen arabera
 4.2. Erantzunen arabera
 4.3. Erantzunen arabera

Amairan, eremuan landutako kexa guztien sinopsia bildu da.

4. DATUEN AZTERKETA: Eremu publikoa

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 10

2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

2.1. Izaera

Bideratutako espediente guztiek dute eskubide urraketa izaera, bai eta lege urraketa izaera ere.

2.2. Puntueltasuna / sistematikasuna

2.2.a. Errepikasuna

Justizia eremuan bi kexa mota izaten dira ohikoenak; batetik justizia administrazioetik helarazten diren jakinarazpenak: bertaratzeko zedulak, epaiak eta abar gaztelania hutsean egotea. Bestetik, prozedura juridiko bat lehen fasetik amaiera arte euskaraz ezin egitea da bigarrena. Aurreko urteetako espedienteekin erkatuz gero, beraz, antzeko egoerak eta urraketak gertatu direla ohar gaitzke.

Bestalde, behin eta berriz errepikatu izan da herritarrei jakinarazpenak gaztelania hutsean igorri izana: zitazio-zedulak direla, epaiak direla etab.

2.2.b. Erabilera

KEXEN ZIOA

Zerbitzua gaztelaniaz

Idatzizko jakinarazpen pertsonalizatua gaztelaniaz

Justiziaren eremuan egiturazko urraketa dagoela esan dezakegu. Egun, Justiziak gaztelania hutsean funtzionatzen du eta beraz, zerbitzua euskaraz nahi duen herritarra salbuespen gisa tratatzen dute. Hartara, prozedura batean izaten diren urrats guztiak *de facto* gaztelaniaz egiten dira: jakinarazpenak, ahozko epaketak, dokumentazioa, frogak etab. Herritarrak edo bere abokatuak propio eskatu behar du euskaraz hizkuntza-eskubidea berma dakion.

Bestalde, erabat harrigarria iruditzen zaigu jakinarazpenak gaztelania hutsean igortzen jarraitzea, kontuan harturik, egun badirela euskarazko ereduak. Beraz, ezinbestekoa iruditzen zaigu horren aurrean neurriak hartzea, eskubideen urraketa saihesteko modu erraza baitago.

2.3. Larritasuna

Alboko kalte ondorioak oso larriak izan daitezke justiziaren eremuan, kontuan harturik herritar orok babeserako duen eskubidea edota defentsa judizial eraginkorrerako eskubidea ere urratu ahal direla.

Horretaz gain, erabat larria da Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari euskarazko abokatua eskaturik, abokatu elebakarra esleitu eta herritarrek berak itzuli behar izatea gaztelaniara hainbat idazki.

Bestela ere, herritarrek salaketa bat euskaraz azaldu eta horren akta gaztelania hutsean jasotzea ere defentsarako eskubidearen urraketatzen har dezakegu, izan ere, ez dago konstantziarik herritarrek zuzenean esan duenari buruz. Horrela, berezko hizkuntza ofiziala erabilia ez da bermatzen esandakoa hitzez hitz jasoko denik.

Edo nola ulertu euskaraz deklaratzeko ukatzen zaion eta gaztelania hutsezko dokumenturik sinatuko ez duen herritarri jarritako behin-behineko neurria ere ez jakinaraztea eta ofiziozko abokatuaren bidez jakin behar izatea?

Azkenik, zenbait epaileren jarrera ere erabat deitoragarria da, izan ere, zitaziozedula gaztelania hutsean egotea herritarra jakinarazteko nahikoa dela adierazi baitute, eta beraz, epaileek berek hausten dute indarrean dagoen ofizialtasun bikoitza.

3. ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BALORAZIOA

ADMINISTRAZIOA	
ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA	2
BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA	3
EUSKO JAURLARITZA	3
BESTELAKOAK	2

Justizia Administrazioaren pisurik handiena, edo urraketa larrienak eragiten dituena, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren baitan dago. Izan ere, gogoratu behar dugu Epaile eta Magistratuak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren esku daudela, Fiskalak Ministerio Fiskalaren esku eta Idazkari Judizialak Espainiako Justizia Ministerioaren esku eta bestelako langileak Eusko Jaurlaritzaren esku 1996tik aurrera.

Zoritzarrez, aurrerapausorik ez da izan Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren edota Ministerio Fiskalaren zein Justizia Ministerioaren baitan. Are gehiago, 2005eko irailean Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak propio jaso zuen sistema judizialean hizkuntza-eskubideak bermatzeko neurrien

beharrak Erregio zein Gutxiengo Hizkuntzen Europako Itunaren inguruan Espainiako Estatuari egin zizkion gomendioetan.

Are gehiago, beste administrazio batzuek hizkuntza-normalkuntzarako prestatzen ari diren planei buruzko kontrako txostenak onartu dituzte. Gogora dezagun 2005eko urrian Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Eusko Jaurlaritzak prestatu duen normalkuntza-dekretuaren aurkako txostena onartu zuela, besteak beste, epaile eta fiskalei euskararen derrigorrezko ezagutza eska dakiekeela agertzen duelako.

4. ERANTZUNAK

Justizia administrazioan bideratutako kexak izan dira erantzun gehien jaso dituztenak, nahiz eta hizkuntza-eskubideak bermatzeko aurrerapausoen zantzurik agertu ez.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bidalitako erantzun batzuetan datu gehiago eskatu izan dute eta bestetan, gure datuei kontrajartzen zaizkien baieztapenak agertu dituzte. Kontseiluaren arabera bertaratzeko zedulak eta ebazpen batzuk ele bietan igortzen dira beti. Hori egiazkoa ez dela egiaztatu ahal izan du Behatokiak herritarrek helarazitako dokumentuei esker.

Justizia Ministerioak, bere aldetik, onartu egiten du herritarrek dokumentazioak euskaraz jasotzeko duten eskubidea.

5. SINOPSIK: JUSTIZIA

Zenbakia: 666/2005	Erakundea: MINISTERIO DE JUSTICIA	Bizkaia
Arazoia:	Herritarra salaketa bat jartzera joan zen Barakaldoko Instrukzio Epaitegira urriaren 17an. Berak adierazpenak euskaraz egin arren gaztelania hutsean eman zioten salaketaren kopia.	
Zenbakia: 667/2005	Erakundea: MINISTERIO DE JUSTICIA	Bizkaia
Arazoia:	Herritarrek gaztelania hutsean jaso ditu Barakaldoko Instrukzioko 2. epaitegitik bidali dioten aurretiazko eginbideen kopia.	
Zenbakia: 184/2005	Erakundea: REGISTRO DE ASOCIACIONES	Nafarroa
Arazoia:	Erakunde batek euskaraz aurkeztu zituen elkarteen erroldan erregistratzeko aurkeztu beharreko agiriak (estatutuak). Gaztelaniazko itzulpena eskatu diote erregistratu ahal izateko.	
Zenbakia: 512/2005	Erakundea: BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA	Bizkaia
Arazoia:	Erdal justiziarekiko intsumisio jarrera hartu duen herritarra deklaratzeko izan da Gernikako epaitegia. Epaileak euskaraz deklaratu nahiko zuela eta ez zuela gaztelaniaz idatzitako orririk sinatu nahiko eta kalera bidali zuen, 15ean behin sinatzera joan behar zuenik ere jakinarazi gabe. Ofiziozko abokatuari esker jakin ahal izan zuen betebeharrak hori ezarri ziola epaileak.	
Zenbakia: 796/2005	Erakundea: BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA	Gipuzkoa
Arazoia:	Eibarko Instrukzioko 2. epaitegiak gaztelania hutsean bidali dio zitazioa herritarri.	
Zenbakia: 803/2005	Erakundea: BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA	Gipuzkoa
Arazoia:	Herritarri ez zaio bermatu epaiketaren zuzenean euskaraz izateko eskubidea. Bestalde, jakinarazpenak gaztelania hutsean igorri izana ez da eskubide urraketa epailearen arabera.	
Zenbakia: 138/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA	Gipuzkoa

Arrazoa:	2005eko martxoaren 30ean Tolosako Epaitegiko instrukzioko 3. epaitegiko langile batek zakar erantzun dio herritarrari euskaraz mintzatzeagatik.	
Zenbakia: 205/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA	Bizkaia
Arrazoa:	Barakaldoko epaitegitik bidali zioten zitazioa gaztelania hutsean zegoen. Epaitegian kexa jarri zuen euskaraz bidaltzeko eskatuz. Bere eskaerari erantsun diote gaia aztertuta ez dela konpontzeko moduko irregulartasunik edo disfuntziorik ikusi Epaitegiaren jardunbidean.	
Zenbakia: 172/2005	Erakundea: DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOAREN BATZORDEA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Doako laguntza Juridikoaren Batzordearen aurrean abokatu euskalduna eskatu du bere defentsarako. Ez diote abokatu euskalduna eskaini eta euskaraz aurkeztu zituen idazkiak itzuli egin behar izan ditu abokatuak ez zituelako ulertzen.	
Zenbakia: 738/2005	Erakundea: BIZKAIKO MERKATARITZA ERREGISTROA	Bizkaia
Arrazoa:	Bizkaiko Merkataritza Erregistroan elkarte bati ez diote notarioak euskara hutsez eginiko eskritura onartu. Gaztelaniazko itzulpena erantsi behar diotela esan diete.	

EREMUA: PUBLIKOA

LAN ETA GIZARTE ARLOA

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 22

2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

2.1. Izaera

Kexa guztiek hizkuntza-eskubideen izaera dute, bai eta lege urraketaen izaera ere.

2.2. Puntueltasuna / sistematikotasuna

2.2.a. Errepikakortasuna

Oro har, espedienteak kexa desberdinei buruzkoak dira, kasu batean izan ezik. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailak ikerketa bat egin zuen Ikertalde enpresaren bidez. Zenbait herritarrek enpresa horretan zerbitzua euskaraz eskaintzen ez dutela salatzen dute.

2.2.b. Erabilera

KEXEN ZIOA

Telefono bidezko informazioa gaztelaniaz
 Idatzizko jakinarazpen pertsonalizatua gaztelaniaz
 Idatzizko jakinarazpen orokorrak gaztelaniaz
 Eskuorriak gaztelaniaz
 Inkestak gaztelaniaz
 Errotulazioa gaztelaniaz
 Webgunea gaztelaniaz
 Ahozko zerbitzua gaztelaniaz
 Bestelakoak

Lan eta gizartearen eremuan mota guztietako kexak jaso izan ditugu 2005ean. Batetik, informazio zuzena euskaraz ezin jasotzea izan da arrazoi nagusienetako bat, baina bai eta idatzizko jakinarazpenak ere. Horietan azpimarratu beharko genuke herritarrak euskara hutsean egindako eskaerari erantzuna gaztelania hutsean igorri izana.

2005. urtean oraindik badira errotuluak eta txartelak gaztelania hutsean dituzten administrazioetako egoitzak, edota ele bietan zeudenak aldatu izan dituenak.

Herritarren arretarako telefono zenbakietan euskarazko zerbitzurik ez, dokumentazio eskatzeko gutun pertsonalizatua gaztelania hutsean, kanpaina berezietako informazio liburuxkak..., finean, era guztietako hizkuntza-eskubideen urraketak.

2.3. Larritasuna

Herritarrek administrazioetatik zerbitzu egokia jasotzeko eskubidea urratu egin da eremu honetan jasotako hainbat kasutan. Hala ere, larria iruditu zaigu herritarrek sentitu beharreko defentsa eza beharginen aurrean. Espediente batean agertu bezala, langileak herritarrari ulertu gabe erantzuten zion, presio moduan, eta azkenean herritarrak hizkuntza aldatu behar izan zuelarik.

3. ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BALORAZIOA

ADMINISTRAZIOA	
ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA	7
EUSKO JAURLARITZA	8
NAFARROAKO GOBERNUA	4
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	2
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	1

Espainiako Estatuko Administrazioak dokumentazioa gaztelania hutsean bidaltzen jarraitu du 2005ean. Halaber, beste urte batez herritarrari informazio zuzena euskaraz helarazteko aukerarik ez dago hainbat bulegotan.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, biziki kezkatu gaitu erakunde horrek kontratatutako enpresek zerbitzuak euskaraz ez ematea. Derrigorrezkoa beharko luke izan, zerbitzuak eman behar dituen edozein enpresa kontratatzeke baldintzetan hizkuntza-eskubideak bermatu beharra propio jasotzea, izan ere, enpresa horietara jotzen dugunean, horretarako derrigortasunik ez zutela izan adierazi dute.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak jarraipena eman dio duela urte batzuk hasitako gutxiagotze instituzionalari eta lehen ele bietan zeuden errotuluak gaztelania hutsean paratu ditu berriz ere.

4. ERANTZUNAK

Espainiako Estatuko Administrazioak erantzun izan die Behatokiak helarazitako kexei, baina ez du bat egin helarazitako zioarekin eta bulego horietan euskarazko zerbitzua bermatzen dela jakinarazi dute.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, nahiko sistematikoki erantzun die kexei. Zenbaitetan kasu zehatza bidaltzeko eskatzen diote Behatokiari, horren inguruko erantzuna emateko. Aipatzekoa da puntu horri dagokionez Behatokiak behurik eta berriz adierazi izan diena, alegia, helburua ez dela guregana jo duen herritarrari bideratu beharreko dokumentazioa euskaraz ere egotea, aitzitik, herritar guztiei helarazten dizkieten dokumentu eta jakinarazpen oro ele bietan egotea.

Nafarroako Gobernuak eta Aldundiek ez diete erantzun eremu honetako kexei.

5. SINOPSIK: LAN ETA GIZARTE ARLOA

Zenbakia: 88/2005	Erakundea: GIZARTE SEGURANTZAREN INSTITUTU NAZIONALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Zarauzko Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren bulegora kontsulta egitera joan zen herritarrak. Euskaraz zuzendu zitzaion bertan zegoen langile bakarrari eta honek, aurpegi txarra jarri eta gaztelaniaz hitz egiteko esan zion.	
Zenbakia: 282/2005	Erakundea: GIZARTE SEGURANTZAREN INSTITUTU NAZIONALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Gizarte Segurantzaren Altxortegi Nagusitik gaztelania hutsean bidali diote jakinarazpena Kontseiluari.	
Zenbakia: 297/2005	Erakundea: GIZARTE SEGURANTZAREN INSTITUTU NAZIONALA	Araba
Arrazoiak:	Gizarte Segurantzaren Altxortegi Nagusiaren Arabako Bulegoak gaztelania hutsean bidali dio agiria elkarte bati.	
Zenbakia: 368/2005	Erakundea: GIZARTE SEGURANTZAREN INSTITUTU NAZIONALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Gizarte Segurantzaren Altxortegi Nagusitik gaztelania hutsean bidali diote gutuna eremu euskalduneko herritarrari.	
Zenbakia: 369/2005	Erakundea: GIZARTE SEGURANTZAREN INSTITUTU NAZIONALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak "2005eko jakinarazpena langileei" deritzaion kanpaina dela eta lan-bizitzaren agiria gaztelania hutsez bidali du.	
Zenbakia: 370/2005	Erakundea: GIZARTE SEGURANTZAREN INSTITUTU NAZIONALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Gizarte Segurantzaren Altxortegi Nagusitik eskatu gabeko jakinarazpena bidali diote herritarrari gaztelania hutsez.	
Zenbakia: 372/2005	Erakundea: GIZARTE SEGURANTZAREN INSTITUTU NAZIONALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Herritarrak duela 10 urte abizenak aldatu zituen arren, Gizarte segurantzak bidaltzen dizkion jakinarazpen guztietan abizenak erdal grafiaz daude.	
Zenbakia: 405/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Eusko Jaurlaritzan Donostiako Antiguako Enplegu eta Prestakuntza Bulegora joan zen tramitazio bat egitera. Herrerera egin zion langileak ez zuten euskara ongi menderatzen. Euskaraz egin eta esandakoa ulertu gabe gaztelaniaz erantzuten zuten. Azkenean, gaztelaniaz egitera behartuta ikusi zuten bere burua, tramiteak zuzen bideratu ahal izateko.	
Zenbakia: 431/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Giza Baliabideen Zuzendaritzatik gaztelania hutsean erantzun diote herritarrak euskaraz egindako eskaerari.	
Zenbakia: 560/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Eusko Jaurlaritzak Donostiako Antiguako Enplegu eta Prestakuntza Bulegora Herritarrak jarritako helegite bat dela eta, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak dokumentazio osagarria eskatzeko gutuna bidali dio gaztelania hutsez, berak igorri duen dokumentazio guztia euskaraz zegoen arren.	
Zenbakia: 23/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA	Bizkaia
Arrazoiak:	Bizkaiko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Lurralde Ordezkaritzan herritarrei begira jarritako aldi baterako errotulu asko gaztelania hutsean zeuden 200ko abenduaren 30ean, besteak beste, <i>pasar sin ticket, parejas de hecho (ventanilla 12), Información de vivienda (ventanillas 13-14-15-16), Justicia, Empleo y Seguridad Social (ventanillas 17-18-19-20), registro de asociaciones (ventanillas 21-22)</i> ziotenak.	
Zenbakia: 411/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA	Gipuzkoa

Arrazoa:	Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza eta Gizarte Galetako Sailak gutun bat bidali zion herritarri babes ofizialeko etxebizitzaren inguruan egiten ari ziren ikerketa baten berri emateko. Bertan telefono zenbaki batera deitzeke eskatzen zioten. Deitu zuenean IKERTALDE enpresako langile batekin jarri zuten harremanetan. Herritarra euskaraz zuzendu zitzaion langileari eta honek gaztelaniaz hitz egiteko eskatu zion, eta enpresa horretan langile euskaldunik ez zegoela jakinarazi zion, modu zakarrear, antza denez. Eskubide urraketa honen berri emateko Jaurilaritzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzara deitu zuenean esan zioten erreklamazioa idatzi egiteko eta babes ofizialeko etxebizitza horretan bizi zela erakusten zuen zerbaiz bidaltzeko, bestela espedientea irekiko ziotela.	
Zenbakia: 412/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GALETAKO SAILA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza eta Gizarte Galetako Sailak gutun bat bidali zion herritarri babes ofizialeko etxebizitzaren inguruan egiten ari ziren ikerketa baten berri emateko. Bertan telefono zenbaki batera deitzeke eskatzen zioten. Deitu zuenean IKERTALDE enpresako langile batekin jarri zuten harremanetan. Herritarra euskaraz zuzendu zitzaion langileari eta honek gaztelaniaz hitz egiteko eskatu zion, eta enpresa horretan langile euskaldunik ez zegoela jakinarazi zion, modu zakarrear, antza denez.	
Zenbakia: 542/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GALETAKO SAILA	Bizkaia
Arrazoa:	Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza eta Gizarte Galetako Sailak deialdi bat bidali du Lea-Artibaiko hedabide batera gaztelania hutsez.	
Zenbakia: 38/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU GAITASUNA SORTZEKO LANA. EGAILAN	Gipuzkoa
Arrazoa:	INEMetik Eusko Jaurilaritzak bideratutako lan eskaintza bati buruzko informazio saio batera joateko deia luzatu zioten herritarri. Informazio guttia gaztelania hutsean eman zuten, bai hitzez eta bai idatziz. Ondoren, inkesta pasa zieten eta hura ere gaztelania hutsean zegoen.	
Zenbakia: 3/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA DEPART.	Nafarroa
Arrazoa:	Mendi eta Eskalada Kirolen Nafarroako Federazioak mendiko istripuei aurrea hartzeko Nafarroako Gobernuarekin batera antolatutako duen kanpainaren barruan federatuei bidali dizkien galdetegia, esku-orrria eta federatzeko kuoten prezioak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 32/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA DEPART.	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Ongizate Institutuan errotulazioa berri dute, eta lehen elebidunak ziren errotuluak orain gaztelania hutsean jarri dituzte.	
Zenbakia: 743/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA DEPART.	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuaren Gizarte Ongizatea, Kirola eta Gazteriaren Departamentuak ENAJ delakoak antolatzen dituen ikastaroetan izena emateko webgunean jarri duen orria gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 780/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA DEPART.	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuko Kirol eta Gazteria Institutuak 2006rako bidali duen agenda 4 hizkuntzatan dago, euskara ez da ageri, ordea.	
Zenbakia: 287/2005	Erakundea: BEHARGINTZA. TXORIERRI	Bizkaia
Arrazoa:	Txorierriko Behargintzak ideia-lehiaketaren berri emateko argitaratutako euskarrian gaztelaniaz ez dago akatsik, baina euskaraz zenbait aurki daitezke.	
Zenbakia: 700/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA	Bizkaia
Arrazoa:	Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak erabiltzaileen harrera-unitateko lanpostuan hizkuntz eskakizuna ez da derrigorrezkoa.	
Zenbakia: 718/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. GIZARTE ETA ERAKUNDE HARREMAN. DEPART.	Gipuzkoa
Arrazoa:	Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuko 943 112 469 telefono zenbakira deituta telefona hartu duen langileak gaztelaniaz hitz egiteko eskatu dio herritarri, ez ziolako ulertzen.	

EREMUA: PUBLIKOA

OGASUNA ETA EKONOMIA

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 22

2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

2.1. Izaera

Bideratutako espediente guztiek kexa izaera dute eta beraz, eskubide urraketak izan dira. Halaber, lege urraketak izan dira kasurik gehienetan.

2.2. Puntualtasuna / sistematikotasuna

2.2.a. Errepikakortasuna

Ekonomia eta Ogasunaren eremuan behin baino gehiagotan errepikatu diren kexak daudela ondoriozta dezakegu 2005ean kudeatutako kasuak azterturik. Errenta aitorpenean autolikidaziorako proposamena gaztelania hutsean igorri zaie behin eta berriro herritarrei, beraiek horrela jasotzea eskatu ez badute ere.

Bestalde zenbait tokitan errentari buruzko informazioa emateko zabaldu dituzten telefono zenbakietan euskarazko zerbitzua ez jasotzea ere izan da errepikatu egin den kexa.

2.2.b. Erabilera

KEXEN ZIOA

Ahozko zerbitzua

Idatzizko jakinarazpen pertsonalizatua

Idatzizko jakinarazpen orokorrak, argibideak etab.

Inprimakiak

Aldizkariak

Txarteltxoak eta abar

Arestian esan bezala, kexa gehienak hizkuntza-eskubidearen ikuspegi pasiboaren urraketak izan dira, hau da, administrazioak herritarrekin duen harremanean. Horrela, idatzizko jakinarazpen pertsonalizatuak gaztelania hutsean egotea izan da ziorik nagusia. Hala ere, informazio orokorra jasotzen duten aldizkariak gaztelania hutsean egotea ere izan da kexarako arrazoi.

Horretaz gain, kasuren batean herritarrei banatzen zaien txandarako txarteltxoa edota alde baterako errotulua gaztelaniaz egotea ere izan dira.

Ahozko zerbitzuari dagokionez Nafarroako Gobernuak errenta aitortpena egiteko garaian herritar guztiei begira zabaldutako informazio telefonoak aipatu behar ditugu, izan ere, hainbat herritarrek helarazitakoaren arabera, ez dago informazioa euskaraz jasotzerik.

2.3. Larritasuna

Bitxia izan da errenta aitortpenaren likidazioa gaztelania hutsean jaso duen herritarrari erreklamazioa jartzeko eskubidea ukatu izana. Hartara, administrazioak legea bete ez arren, herritarrari euskaraz eskatzeko epea iraungita dagoela adierazi zaio eta hurrengo urtean eskatzeko adierazi diote.

3. ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BALORAZIOA

ADMINISTRAZIOA	
EUSKO JAURLARITZA	2
NAFARROAKO GOBERNUA	8
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	3
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	9

Ohikoa denez, kezarik gehienak Foru Aldundiei helarazi zaizkie, bertatik kudeatzen delako herritarren errenta aitortpena eta horrekin lotutakoak izan baitira kezarik gehienak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak nahiko sistematikoki igortzen ditu autolikidaziorako gaztelaniazko jakinarazpenak, herritarrek propio eskatu badute ere. Horrexegatik, Behatokiak ezer adierazi ez duten herritarrei gutxienez ele bietan igortzeko gomendioa luzatu dio.

Nafarroako Gobernuak urtean zehar zergen kitapena egiteko erakundeei igortzen dizkien inprimakiak gaztelania hutsean igortzen jarraitu izan du, zenbait erakundek euskaraz igortzeko zuzenean eskatu badiote ere.

4. ERANTZUNAK

Ogasun eta Ekonomiaren eremuan erantzun gehienak jaso ditu Behatokiak administrazioaren aldetik, batik bat Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako arduradunengandik.

Zenbait kasutan Behatokitik helarazitako kexari konponbidea eman diote ulean bertan eta beste zenbaitetan halakorik ez gertatzeko neurriak abian jarriko dituztela adierazi dute.

Ez Eusko Jaurlaritzak ez eta Nafarroako Gobernuak ere ez dute erantzunik bidali.

5. SINOPSIK: EKONOMIA ETA OGASUNA

Zenbakia: 493/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA	Bizkaia
Arazoia:	Eusko Jaurlaritzak derrigorrezko aurrejubilazio planei buruzko informazioa dakarren ITZARRI-EPSV aldikaria bidali dio herritarrari uztaillean. Aldizkaria gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 509/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA	Bizkaia
Arazoia:	ITZARRI-EPSV bidalitako eskutitza jaso zuen herritarrak 2005eko abuztuaren lean. Amaierako agurra kenduta gainerako guztia gaztelania hutsean idatzita dago.	
Zenbakia: 191/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA	Nafarroa
Arazoia:	Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamentutik gaztelania hutsean bidali dizkiote erakunde bati errenta aitortpena egiteko epeei buruzko jakinarazpena eta 715 eta 759 ordain gutunen inprimakiak.	
Zenbakia: 233/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA	Nafarroa
Arazoia:	Nafarroako Gobernuaren Ogasun Departamentutik gaztelania hutsean bidali dio eremu eskalduneko herritarrari 2004. urteko errenta aitortpenaren autolikidazioa, bere onspena eman dezan. Errenta aitortpenaren inprimakia, jakinarazpen orria eta argibideen liburuxka, hirurak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 234/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA	Nafarroa
Arazoia:	Nafarroako Gobernuak igorritako 2004. urteko errenta aitortpen proposamena jaso du etxean eremu eskalduneko herritarrak. Gaztelania hutsean jaso du dena, bai argibide orria, aurkezpen gutuna eta baita aitortpena bera ere.	
Zenbakia: 235/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA	Nafarroa
Arazoia:	Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamentutik gaztelania hutsean bidali dio herritarrari errenta aitortpen proposamena. Euskaraz bidaltzeko eskatuta, hizkuntza horretan nahi izatekotan aitortpena internet bidez egin beharko duela esan diote eta heldu den urtean proposamena euskaraz jaso nahi izanez gero, eskaera idatziz aurkezteko.	
Zenbakia: 316/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA	Nafarroa
Arazoia:	Nafarroako Gobernuak errenta aitortpena egiteko txanda hartzeko herritarren zerbitzura jarri duen telefonoa (901 505 152) hartzen duen langileak zaitasunak ditu euskaraz erantzuteko.	
Zenbakia: 319/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA	Nafarroa
Arazoia:	Nafarroako Gobernuak errenta aitortpenari buruzko argibideak emateko herritarren eskura jarri duen telefono zenbakian (901 505 152) ezin da zerbitzua euskaraz jaso.	
Zenbakia: 409/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA	Nafarroa
Arazoia:	Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun Departamentutik gaztelania hutsean bidali dizkiote erakunde bati errenta aitortpena egiteko epeei buruzko jakinarazpena eta 715 eta 759 ordain gutunen inprimakiak.	
Zenbakia: 591/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA	Nafarroa
Arazoia:	Nafarroako Gobernuaren Ogasun Departamentutik gaztelania hutsean bidali dizkiote erakunde bati BEZaren aitortpena egiteko agiriak.	
Zenbakia: 22/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. OGASUN ETA FINANTZAK SAILA	Bizkaia
Arazoia:	Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Saillean, 2004ko irailean, txanda hartzeko zenbakiaren txarteltxoa gaztelania hutsean zegoen, eta herritarrei begira aldi baterako jarritako errotulua ere bai.	
Zenbakia: 241/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. OGASUN ETA FINANTZAK SAILA	Bizkaia
Arazoia:	Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Saitetik errenta aitortpena eginda bidali zioten etxera. Errenta aitortpena gaztelania hutsean zegoen. Euskaraz eskatu eta erreklamazioak egiteko epea iragan dela eta datorren urtean gaztelaniaz jasotzen badu epe barruan euskaraz eskatzeko erantzun diote.	
Zenbakia: 699/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. OGASUN ETA FINANTZAK SAILA	Bizkaia

Arrazoa:	Bizkaiko Foru Aldundiak errenta aitortpenaren kanpainarako kontratatzen dituen langileen lanpostuek ez dute hizkuntz eskakizunik.	
Zenbakia: 131/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. FISKALITATE ETA FINANTZETARAKO DEPAR-	Gipuzkoa
Arrazoa:	Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitate eta Finantzatarako Sallak gaztelania hutsean bidali dio herritarrari 2004ko ekitaldiari dagokion 10-T agiria.	
Zenbakia: 176/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. FISKALITATE ETA FINANTZETARAKO DEPAR-	Gipuzkoa
Arrazoa:	Gipuzkoako Foru Aldunditik eginda bidali diote errenta aitortpena. Aurkezpen gutuna eta gainerako azalpenak euskaraz ere badaude; argibideak jasotzeko telefonoan euskaraz erantzuten dute, baina errenta aitortpena bera gaztelania hutsean ageri da.	
Zenbakia: 177/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEP.	Gipuzkoa
Arrazoa:	Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun sailetik gaztelania hutsean bidali diote errenta aitortpenaren autolikidazio proposamena.	
Zenbakia: 192/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEP.	Gipuzkoa
Arrazoa:	Errenta aitortpenerako Gipuzkoako Foru Ogasunaren telefono zerbitzuak agurra bakarrik egiten du euskaraz.	
Zenbakia: 193/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEP.	Gipuzkoa
Arrazoa:	Gipuzkoako Foru Ogasunak gaztelania hutsean bidali dio errenta aitortpenaren autolikidazio proposamena.	
Zenbakia: 239/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEP.	Gipuzkoa
Arrazoa:	Apirilaren 30ean errenta aitortpena egitera joan zen herritarra Gipuzkoako Foru Aldundira. Errenta egin zion langilearekin euskaraz egin zuen, baina etxera joan eta hara non ohartzen den aitortpenaren inprimakiak gaztelania hutsean daudela.	
Zenbakia: 240/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEP.	Gipuzkoa
Arrazoa:	Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarrari bidali zion errenta aitortpen autolikidazio proposamena gaztelania hutsean zegoen.	
Zenbakia: 242/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEP.	Gipuzkoa
Arrazoa:	Gipuzkoako Foru Aldundiak errenta aitortpena eginda bidali dio etxera, eta gaztelaniaz dago.	
Zenbakia: 329/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEP.	Gipuzkoa
Arrazoa:	Gipuzkoako Foru Aldundiak errenta aitortpena eginda bidali dio etxera, eta gaztelaniaz dago.	

EREMUA: PUBLIKOA

BARNE SAILA - HERRIZAINGOA

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 25

2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

2.1. Izaera

Jasotako espediente guztiek eskubide urraketaren izaera dute. Gehienek bai eta lege urraketaren izaera ere.

2.2. Puntualtasuna / sistematikotasuna

2.2.a. Errepikakortasuna

Oro har 2005 urtean jasotako kekek ez dira errepikatu, hau da, gertaera desberdinei buruzko kekek jaso ditugu.

2.2.b Erabilera

KEXEN ZIOA

Telefono bidezko informazioa gaztelaniaz
 Idatzizko jakinarazpen pertsonalizatua gaztelaniaz
 Inprimakiak, dokumentazioa etab. gaztelaniaz
 Euskaraz hitz egiten debekatzea
 Jakinarazpen orokorrak gaztelaniaz
 Ahozko zerbitzua gaztelaniaz
 Web orria gaztelaniaz
 Bestelakoak

Erabilerari dagokionez, hainbat arrazoirengatik jo dute herritarrek Behatokia eremu honen gaineko kekek helarazteko. Ahozko zerbitzuari dagokionez, herritarrari ez zaio euskaraz artatua izateko eskubidea bermatzen, eta beste batzuetan, informazio orokorrerako telefonoetan euskarazko zerbitzurik ezin jaso daiteke.

Idatzizko komunikazioetan, beste behin ere, egun praktikan jartzen den elebitasuna izan da herritarrek helarazi dizkiguten kexen zioa. Horrela, hainbat kasutan jakinarazpenaren inprimakia ele bietan egon arren, horren gainean idatzitako informazio gutzia gaztelania hutsean agertzen da.

Horrekin batera, koofizialtasuna ezarrita dagoen eremuetan jakinarazpenak gaztelania hutsean igortzea ere ohiko bihurtu da azken urteotako bilakaera kontuan harturik.

Beste batean, herritarrak salaketak euskaraz jartzeko aukera ukatu egin zaio eta beraz, behartuta jarri behar izan du salaketa berak hautatu ez duen hizkuntzan.

Eremu honetan aipatzekoa da herritar bati euskaraz hitz egiteko debekua ere ezarri zaiola kexa baten arabera.

Azkenik, hainbat inprimaki edo agiri berritan, aldi baterako gidatzeko baimena esaterako, euskarazko bertsioa ulergaitza da. Horrela, zenbait kasutan, euskararen presentzian aurrerapausoak eman badituzte ere, ez diote erreparatzen hizkuntzaren kalitateari.

2.3. Larritasuna

Seguruenerik, herrizaingo zein barne sailari dagozkion kexak 2005 urtean landu ditugunen artean larrienetarikoak direla esan dezakegu. Bai kexen zioa eragin duen urraketarengatik, baina bai eta eskubide urraketa horien ondorioz herritarrek pairatutako alboko kalte-ondorioengatik ere.

Bereziki salagarria da euskara baliatu nahi izan duten herritarrek Ertzainen aldetik jasotako tratu zakarra. 2001 urtetik ikusi izan dugun jarrera da eta 2005ean ere berretsi ahal izan dugu herritarrek eremu horretan ofiziala eta berezkoa den hizkuntza baliatu nahi izateak ondorio larriak eragiten dizkiola.: tratu txarrak, irainak, kolpeak...

Halaber, hainbat kasutan ertzain bat baino gehiago egonik ere, batek ere ez du hizkuntza-gaitasun egokia izan herritarrari zerbitzua euskaraz emateko eta herritarrak berak hautatu ez duen hizkuntzan helarazi behar izan ditu gertaerak salaketa batean.

Beste alde batetik, 2005 urtean ere herritar bati euskaraz egiteko debekua egiaztatu ahal izan du Behatokiak. Horrela, hizkuntza-eskubideen urraketek adierazpen askatasunaren beraren urraketa eragin izan dute herritarrek helarazitako kasu batean. Guraso bati gaztelaniaz kasik hitz egiten ez dakien alabarekin berezko hizkuntzan hitz egitea debekaturik, oinarritzko eskubideen eta askatasunen kontra jotzea dela ondorioztatu behar dugu.

3. ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BALORAZIOA

ADMINISTRAZIOA	
ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA	11
EUSKO JAURLARITZA	11
NAFARROAKO GOBERNUA	1

ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

Urteroko joerari jarraiki, Espainiako Estatuko Administrazioak eskubideak sistematikoki urratzen jarraitu izan du 2005ean ere. Ahozko zerbitzua dela, inprimakiak direla, jakinarazpenak direla... mota guztietako kexak. Corpusari dagokionez ere euskarazko bertsioak akatsak dituzte eta egun ofizialak ez diren toponimoak erabiltzeari eusten diote.

Espainiako Estatuko Administrazioan barne sailaren eremua izan da 2005ean kexa gehien jaso dituen eta ikuspegi kualitatiboaren arabera, kexa larrienak sortu dituen ere.

EUSKO JAURLARITZA

Progresibitate argirik ez da islatzen 2005 urtean egindako azterketan. Are gehiago, Herrizaingo sailean azken bost urteotan izandako gertaerarik larrienak ikusi ditugu.

Bestalde, herritar guztiei zabalduko zerbitzuetan: 112 telefono zenbakia, errepedeen berri izateko zerbitzua... informazioa euskaraz ezin jasotzeak ere zer pentsatu ematen du eta horrela, lehentasunezko neurriak hartu behar dituztelakoan gaude.

NAFARROAKO GOBERNUA

Datu nahikorik ez dugu Nafarroako Gobernuaren politika baloratzeko

4. ERANTZUNAK

Espainiako Estatuko Administrazioek helarazitako erantzunetan azpimarratzekoa da Nafarroako kexa bati emandako erantzuna. Izan ere, herritarrek euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortzen duela adierazten badute ere, administrazioak euskaraz erantzuteko beharrik ez dutela dio. Erabat ulertezina da euskaraz zuzentzen den herritarrari eskubidea bermatzea langile elebakarraren bidez.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailetik ez zaio kexa bati ere erantzunik eman.

5. SINOPSIK: HERRIZAINGOA

Zenbakia: 76/2005	Erakundea: MINISTERIO DEL INTERIOR. TRAFIKO ZUZENDARITZA NAGUSIA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Trafiko Zuzendaritzaren Gipuzkoako ordezkari-tzaren informazioarako leihatilan dagoen langilea ez da gai zerbitzua euskaraz emateko. Hala jakinarazten du eta gaztelaniaz egitera behartzen ditu herritarrak.	
Zenbakia: 141/2005	Erakundea: MINISTERIO DEL INTERIOR. TRAFIKO ZUZENDARITZA NAGUSIA	Nafarroa
Arrazoa:	Trafiko Zuzendaritza Nagusiak gaztelania hutsean bidali dio isunaren jakinarazpena.	
Zenbakia: 514/2005	Erakundea: MINISTERIO DEL INTERIOR. TRAFIKO ZUZENDARITZA NAGUSIA	Nafarroa
Arrazoa:	Barne Ministeriooko Trafiko Zuzendaritzak ematen duen aldi baterako gidatzeko baimena bost hizkuntzatan idatzita dago, euskara horien artean. Dena den, gainontzeko gutzia zuzena den arren, euskarazko azken esaldia hain dago gaizki idatzita non ulergaitza den ('Bailio bailio du gidatzeko baimen baliagarria izateko identifikazio agiriren').	
Zenbakia: 519/2005	Erakundea: MINISTERIO DEL INTERIOR. TRAFIKO ZUZENDARITZA NAGUSIA	Nafarroa
Arrazoa:	Trafiko zuzendaritzatik eremu euskalduneko herritarrari gida baimena berri-ru behar duela jakinarazteko bidali dioten jakinarazpen-inprimakia gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 696/2005	Erakundea: MINISTERIO DEL INTERIOR. TRAFIKO ZUZENDARITZA NAGUSIA	Bizkaia
Arrazoa:	Trafiko Zuzendaritza Nagusiak herritarrari gidatzeko baimena iraugitze-ru duela esateko jakinarazpena bidali dio. Idatzia ele bietan dago, baina euskarazko zatian akatsak daude.	
Zenbakia:185/2005	Erakundea: MINISTERIO DEL INTERIOR. ESPETXEETARAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Huelvako kartzelan preso bati zazpi asteburuko isolamendu-zigorra jarri diote etxera egindako telefono deian hiru urteko alabari hitz batzuk euskaraz egiteagatik.	
Zenbakia: 566/2005	Erakundea: MINISTERIO DEL INTERIOR. ESPETXEETARAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA	Lapurdi
Arrazoa:	Valdemoroko kartzelan preso dagoen herritar euskaldun bati ez dizkiote familiak eta lagunek eramandako jantziak ematen euskarazko inskripzioak dituztelako eta funtzionarioek ez dituztelako ulertzen.	
Zenbakia: 207/2005	Erakundea: MINISTERIO DEL INTERIOR. POLIZIA NAZIONALA	Nafarroa
Arrazoa:	Iruñeko Bergamin kaleko DNI eta Pasaportearen bulegoan, nortasun agiria berritze-ru behar diren agiri-ru buruzko informazioa gaztelania hutsean dago. Euskarazkorik baduten galdetuta ezetz erantzun dute, ez daudela behartuta.	
Zenbakia: 587/2005	Erakundea: MINISTERIO DEL INTERIOR. POLIZIA NAZIONALA	Nafarroa
Arrazoa:	Irungo komisaldegira nortasun agiria berritzera joan zen herritarra eta agiri berrian Gipuzkoa idatzeko eskatu zuen, Guipúzcoaren orde. Bila joan zenean, orde, Guipúzcoa idatzita eman zioten.	
Zenbakia: 87/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO SAILA.	Bizkaia
Arrazoa:	2005eko otsailaren 23an Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo sailak errepideen inguruko informazioa emateko duen telefono zenbakira deitu (902112088) eta ezin izan zuen zerbitzua euskaraz jaso.	
Zenbakia: 165/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO SAILA.	Nafarroa
Arrazoa:	Aritzetako atsedengusean isuna jarri zioten herritarrari gaizki aparkatzeagatik. Jakinarazpen inprimakia ele bietan zegoen, baina gaztelania hutsean bete dute inprimakia.	
Zenbakia: 263/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO SAILA.	Araba
Arrazoa:	Ertzaintzaren web orrian prentsa oharrak gaztelania hutsean jartzen dituzte.	
Zenbakia: 281/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO SAILA.	Bizkaia
Arrazoa:	Larrialdietako zerbitzuetako 112 telefono zenbakira deitu eta inork ere ezin izan zion euskaraz erantzun herritarrari 2005eko maiatzaren 22an.	
Zenbakia: 576/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO SAILA.	Gipuzkoa
Arrazoa:	Herritarra irailaren 23an Donostiako Easo Plazako ertzainetxera bertaratu zen prozedura bat egitera, eta bertan artatzeko zegoen ertzainak eta ondoren etorri zen beste bat ere gaztelaniaz aritu zitzaizkion herritarrak hasieratik euskaraz egin arren. Azkenean herritarrak ere gaztelaniaz egitera pasa behar izan zuen artatua izango bazen.	
Zenbakia: 617/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO SAILA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Ertzaintzak Donostian atxilotu zuen herritar bat bortizki kolpatu eta iraindu zuten Ertzaintzaren Antiguako komisaldegian ertzain bati euskaraz erantzuteagatik.	
Zenbakia: 618/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO	Bizkaia
Arrazoa:	Ertzain batek kolpeka eta bultzaka hartu du Barakaldon identifikatzera joan eta euskaraz zuzendu zaion herritarra.	
Zenbakia: 698/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO	Nafarroa
Arrazoa:	Eusko Legebiltzarreko atean zeuden ertzainek ez zekiten euskaraz eta herritarrak, euskaraz eskatu arren, gaztelaniaz egin behar izan du sarrera tramitea. Gertatzen zaion 3. aldia da.	
Zenbakia: 764/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO	Bizkaia

Arrazoa:	Herritarra Ertzaintzak Bilboko Zabalburu plazan duen ertzainetxera joan zen lapurreta baten salaketa egitera. Harrera egin zioten bi ertzainetatik bakarrik ere ezin izan zion zerbitzua euskaraz eman eta salaketaren kopia gaztelania hutsean luzatu zioten.	
Zenbakia: 765/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO	Bizkaia
Arrazoa:	Herritarra salaketa bat jartzera joan zen Durangoko ertzainetxera. Euskaraz hitz egin arren, gaztelaniaz erantzun zioten. Salaketaren kopia ere gaztelania hutsean eman zioten. Erreklamazio orria eskatu du eta orria eman ondoren bizkarra eman eta ertzainak 'txotxolo' deitu zion.	
Zenbakia: 786/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HERRIZAINGO	Gipuzkoa
Arrazoa:	Abenduaren 6an, Orion egin zen kale bilkura baten ostean Ertzaintzak identifikatzeko eskatu zion herritarrari. Gaztelaniaz zuzendu zitzaizkion, eta euskaraz hitz egiteko eskatuta ezin zutela erantzun zioten, ez zutela hizkuntza ongi menderatzen.	
Zenbakia: 4/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPAR.	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuak mendiko istripuei aurre hartzeko ematen dituen gomendioen esku-orria gaztelania hutsean bidali du.	
Zenbakia: 179/2005	Erakundea: HAUTESKUNDE BATZORDEA	Bizkaia
Arrazoa:	Bilboko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak gaztelania hutsean luzatu zion hautesmahai bateko kide bati Eskualdeko Hauteskunde Batzordeko Idazkariak sinatutako 9. akta.	
Zenbakia: 256/2005	Erakundea: HAUTESKUNDE BATZORDEA	Bizkaia
Arrazoa:	EAEko Legebiltzarreko hauteskundeetan Cervantes hauteslekuan herritarrak ezin izan zuten bozkatze eginkizuna euskaraz burutu, hautesmahaiko kideek ez baitzekiten euskaraz.	
Zenbakia: 418/2005	Erakundea: ESPAINIAKO GOBERNUAREN ORDEZKARIORDETZA GIPUZKOAN	Gipuzkoa
Arrazoa:	Donostiako Gobernu Zibilean jendaurreko lanpostuetan dauden langile guztiak erdaldunak dira: ateko polizia, zortzi arretaguneetako langileak eta informazioan dagoena.	

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 27**2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA****2.1. Izaera**

Bideratu diren espedienteetatik 1 eskabide administratiboa da, beste batek ez du izaerarik, eta gainerako guztiak kexa izaera dute. Kasu gehienetan gainera, hizkuntza-eskubidearekin batera legea ere urratu da.

2.2. Puntueltasuna / sistematikotasuna***2.2.a. Errepikakortasuna***

Kasurik errepikatuenak idatzizko harremanekin dute zerikusia. Gehienetan herritarrek gaztelania hutsean jaso dituzte jakinarazpenak, eta kasu batean, herritarrak agiriak euskaraz bidali eta gaztelaniaz bidaltzeko eskatu diote.

Kopuru aldetik paretsu dabilta ikasketak euskaraz egiteko aukerarik ez duten herritarren kexak.

Ahozko zerbitzua euskaraz jasotzerik izan ez duten herritarren kasuak ere behin baino gehiagotan errepikatu dira.

Teknologia berrien arloan, oraindik ere gertatzen da webguneetan informazioa euskaraz jasotzerik ez izatea.

2.2.b. Erabilera**KEXEN ZIOA**

Idatzizko komunikazioak gaztelaniaz
Ikasketak euskaraz ezin egin
Ahozko harremana gaztelania hutsean
Weborria gaztelaniaz
Publizitatea gaztelania hutsean
Errotulazioa gaztelaniaz

2005urteko datuek erakusten dutenez, Hezkuntza arloan kexa gehien eragiten duen zioa idatzizko jakinarazpenak euskaraz jasotzeko eskubidearen urraketa da. Eskubide hori, modu pasiboan ez ezik aktiboan ere urratzen da. Horren

adibide dugu, agiriak euskaraz bidali eta gaztelaniaz bidaltzeko eskatu zioten herritarren kasua.

Hezkuntza euskaraz jasotzeko eskubidearen urraketa ere oso larria da oraindik, 2005ean jaso ditugun kexek erakusten dutenez. Unibertsitate ikasketak euskaraz egiteko aukerarik ez duten herritarren kexak asko errepikatu dira. Arlo honetan alipamen berezia egin behar dugu Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen dituen Udako ikastaroen inguruan. 73 ikastaro eskaini ditu guztira, horietatik 7 soilik egin ahal izan dira euskaraz.

Maila ez unibertsitarioko ikasketei dagokienez, Nafarroan oraindik ere, seme-alabak euskarazko eredueta matrikulatu nahi dituzten gurasoak, traba eta oztopo ugari aurre egin beharrean aurkitzen dira. Horren adibide dugu Iruñeko Arrotxapea auzoko Patxi Larraintzar ikastetxearen kasua. Auzoan bi ikastetxe daude: Patxi Larraintzar D ereduko ikastetxea, eta Cardenal Ilundain, I eredukoa. Azken urteotan etxe asko eraiki dira auzoan, bertako populazioa izugarri handitu eta gaztetu da, eta biztanlegoa handitzearekin batera D ereduaren aldeko eskaera nabarmen igo da. Nafarroako Gobernuak ez du inolako aurreikuspenik egin nahi izan etorri bazetorren hazkundearen aurrean eta, 2005-2006 ikasturte hasieran, 18 ikastalderako zen ikastetxean 32 talde sartu behar izan dituzte aurrez fabrikatutako moduluak baliatuz, eta musika gela, liburutegia, hizkuntzetarako gela, bikoizketarako gela, eta abarrerako tokirik gabe. Bitartean, handik 500 metrora, ingelesezko eredu eskaintzen duen Cardenal Ilundain Ikastetxean, 7 gela hutsik daude.

2005 urtean oraindik sarri jasotzen dira Hezkuntza Administrazioan euskaraz artatua izateko eskubidea errespetatu ez zaien herritarren kasuak. Herritarrak euskaraz hitz egin eta erantzuna gaztelaniaz ematea, azalpenak mesedez gaztelaniaz errepikatuzko eskatzea, erantzungailuan mezuak gaztelania hutsean uztea... Baita, Hezkuntza Administrazioetik oharrak eta jakinarazpenak gaztelania hutsean bidaltzea ere.

Webguneek ere kexa iturri izaten jarraitzen dute. Batzuk aipatzearen, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren webgunean, beka edo ikasketarako laguntzen eskaera-inprimakiak katalanez, galegoz, eta gaztelaniaz aurki daitezke, euskaraz berriz ez. Gasteizko Hizkuntza Eskola Ofizialaren web orriaren euskarazko bertsioan menua soilik ageri da euskaraz, gainerako informazio guztia gaztelania hutsean dago.

2.3. Larritasuna

Larritasunaren ikuspegitik, larria da oraindik ere maila unibertsitarioan ikasketa asko eta asko euskaraz egiterik ez izatea. Baita euskal adarretako irakasleak atzerapenez kontratatzea, edo behar adinako euskara mailarik ez izatea ere.

Unibertsitatera sartzeko probetan filosofiako testu-iruzkina euskarazko bertsioan gaizki erredaktatuta egoteak, desabantailan jartzen ditu proba euskaraz egin nahi duten ikasleak.

Oso adierazgarria da bestalde, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren webgunean, beka edo ikasketarako laguntzen eskaera-inprimakiak katalanez, galegoz eta gaztelaniaz bai, baina euskaraz ez egotea, bazterkeriaz jokatzea da.

Iruñeko Patxi Larrainzar (D eredu) ikastetxeko ikasleen egoera ez da hobea. Haurrak legeak ezartzen dituen gutxieneko segurtasun baldintzak ere betetzen ez dituzten aurrez fabrikatutako moduluetan eskolatuta daude, Nafarroako Gobernuaren aurreikuspen faltagatik eta arazoa bideratzeko gogo ezagatik. Horrekin batera musika gela, liburutegia, bikoizketarako gela, laguntzarako gela eta antzeko zerbitzurik gabe hasi behar izan dute ikasturtea, azken orduan, korrika eta presaka egokitutako solairuak ez duelako Udalaren lizentziarik erabilia izateko. Bitartean auzo bereko Cardenal Ilundain ikastetxean (I eredu) Gobernuak eredu hori bultzatzeko eman dituen erraztasunak emanda ere, 7 gela hutsik daude.

3. ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BALORAZIOA

ADMINISTRAZIOA	
HEZKUNTZA ETA ZIENTZIA MINISTERIOA	3
EUSKO JAURLARITZA	5
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	15
NAFARROAKO GOBERNUA	3
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA	2

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Inolako zalantzarik gabe Euskal Herriko Unibertsitatea izan da kexa gehien jaso dituen erakundea. Kexen arrazoiak era guztietakoak izan dira, baina ikasketa asko euskaraz egiteko eskubidea ez bermatzea izan da guztien artean gehien nabarmendu dena. Ez da harritzekoa, izan ere, EHUK ezagutzera eman berri duen ikerketa baten arabera, EHUen lehenengoz izena ematen duten ikasleen %40 euskarazko adarretan matrikulatzen diren arren unibertsitateko irakasleen herenak soilik baitaki euskaraz.

Bestalde, eta ildo beretik, Euskal Herriko Unibertsitateak 2005ean antolatu dituen Udako ikastaroetan euskaraz eskaini diren ikastaroen kopurua ez da %10era iritsi.

Horrekin batera, Euskal Herriko Unibertsitatearen jardunean ohikoa izaten jarraitzen du ofizialtasun bikoitza ez errespetatzea eta erabiltzaileekiko harremanak, bai ahozkoak, baita idatzizkoak ere, gaztelania hutsean burutzea.

EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, gaur egun, oraindik ere, Hezkuntza Sailera jotzen duten herritarrei ez zaie beti bermatzen zerbitzua haiek aukeratutako hizkuntzan jasotzeko eskubidea, eta euskaraz hitz egiten dutenean gaztelaniaz egiteko eskatzen zaie, edo euskaraz egin arren gaztelaniaz erantzuten. Idatzizko jakinarazpenak ele bietan bidaltzea ere ez dago guztiz sistematizaturik, eta herritarrek gaztelania hutsean jasotzen dituzte oraindik hainbat jakinarazpen. Webguneetan ere ez da guztiz bermatzen elebitasuna, eta oraindik badira euskarazko orriaren informazioa gaztelania hutsean ematen duten erakundeak.

Hizkuntza-eskubideen ikuspegitik ezin ditugu aipatu gabe utzi, Euskal Autonomia Erkidegoan Hezkuntza Eredu ezberdinen bidez lortzen den euskararen ezagutza maila neurtzeko eginiko ikerketak eman dituen emaitzak. Euskal Autonomia Erkidegoan eskolatutako ikasleen %60k ez du derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan euskara erraztasunez eta arazorik gabe erabiltzeko adinako hizkuntza gaitasunik lortzen. Hori horrela, euskara ikasi eta erabiltzeko eskubidea ez dago guztiz bermatuta.

NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako Gobernuak jaso dituen kexek erakusten dutenez erakunde horrek ez du inolaz ere bermatzen elebitasuna herritarrekiko harremanetan, ezta legez harremanak euskaraz izateko eskubidea aitortua duten herritarrekin ere.

Hezkuntzaren ikuspegitik, berriz, Nafarroako Gobernuak euskarazko irakaskuntza higitzeko politika planifikatu eta iraunkorra garatzen ari da, baliabide ekonomikoak gaztelaniazko hezkuntza pribatura zuzenduz, eta euskarazko irakaskuntzaren hautuaren aurkako gero eta neurri eraginkorragoak abiaraziz. Horrela, ikastola “alegalak” juridikoki pribatuak izan arren ekonomikoki itozten jarraituko du eta euskarazko eskola publikoaren kasuan, ongi kalkulaturiko inbertsio eta planifikaziorik ezaren estrategia baliatuko du euskarazko irakaskuntza publikoaren kalitatea baldintzatuz, haren aldeko hautua geldiarazteko.

Inbertsio ezak ikastetxeak hondatu eta zaharkitzea ekarri du mendialde osoan. Garraldako ikastetxea esaten ari garen honen adibide garbia dugu. Nafarroako Gobernuaren urte luzeetako utzikeria dela eta, gurasoek auzolanean egin behar izan dituzte ikasturte berrirako eskola txukundu eta egokitzeko lanak. Bestalde, inbertsio ezak berrikuntza pedagogiko eta teknologikoa baldintzatuko ditu eta lehiakortasun baldintza kaskarragoetan aritzera behartuko ditu ikastetxe hauek. Irakasleen egonkortasun eza arazo handia da mendialdeko ikastetxeetan. Urterik urte irakasle ezberdinekin ari diren ikastetxeetan oso zaila egiten da proiektu pedagogiko bat landu eta garatzea.

Iruñerrian berriz, aspaldiko urteetan ez da ikastetxe berririk eraiki, eta daudenak guztiz masifikatuta daude, zenbait kasutan taldeko 25 ikasleko ratioak gaindituz. Masifikazioak bestalde, kalitatearen galera ekarri du. Ikasleei lekua egitea lehentasun bihurturik, beste hainbat baliabide (liburutegia, musika gela, bikoizketarako gela, eta abar) sakrifikatu behar izan dira sarritan. Horrekin

batera, ikasleen arteko bizikidetzara arazoak areagotu egiten dira beti ere heziketa kaltetuz.

Guzti honek erakusten du legez euskarazko irakaskuntza bermatu behar duenean ere, Nafarroako Gobernuak erabaki administratiboen bideari eusten diola euskarazko irakaskuntza berdintasun baldintzetan bermatzeko duen betebeharrari muzin egiteko.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

Nafarroako unibertsitateak ez du ofizialtasun bikoitza errespetatzen herritarrekiko harremanetan, eta jakinarazpenak gaztelania hutsean bidaltzen jarraitzen du.

Horrekin batera aipatzekoa da oraindik badirela, estatutuek ezarritakoaren aurka, euskaraz egin daitezkeen irakasgai gutxi horietan ere, ebaluaketarako lanak euskaraz onartu nahi ez dituzten irakasleak.

2004ko abenduaren 21ean NUPeko Gobernu Kontseiluak euskara Nafarroako gizartean eta Unibertsitatean errealitate bat den heinean unibertsitatean hizkuntza plangintza baten beharra zegoela onartu zuen eta hala "hizkuntza plangintza diseinatzeko oinarriak" onartu zituen, dagoen eskaerari egokitasun eta kalitate irizpideetan oinarrituz erantzun ahal izateko.

Oinarri horien arabera, lehen helburua unibertsitateko kideen euskara ezagutza neurtzea izango da, direla ikasle, irakasle zein administrazio eta zerbitzuetako langileak. Horrekin batera, irakasleek euskarazko irakaskuntzan eta ikerlanean duten esperientzia, administrazio eta zerbitzuetan nahitaezko hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko den lanpostuak zein izango diren, irakaskuntzaz kanpoko euskarazko jarduerak, azken urteotako lan eskaintzetan euskararen ezagutza nahitaezkoa izan duten lanpostuak, eta aurrera begira, datozen urteotako euskarazko hezkuntza-eskaeraren aurreikuspena aztertzea izango dira lehen eginkizunak.

Oinarrietan unibertsitateko sektore bakoitzean abiarazi beharreko ekintzak zehazten dira gainera. Ikasleei dagokienez, lan merkatuak eskatzen duen hizkuntza gaitasuna lortzeko begira, euskarazko irakasgaietan oinarritutako ibilbideak proposatzen ditu titulazio bakoitzean, eta euskarazko irakasgaiak, ikastaroak, mintegiak,... proposatzea, ikasleek irakaskuntza euskaraz jaso ahal izateko eta hizkuntzarekin harremanetan jarraitzeko.

Edonola ere, euskaraz eskainiko diren kredituen portzentaiak matrikula egin eta euskaraz ikasi nahi duten ikasle euskaldunen portzentaiarekin bat egitera joko du.

Irakasleei dagokienez, euren hizkuntza gaitasuna hobetzeko jarduerak antolatuz, euskaraz irakasteko gaitasuna duten irakasleei buruzko informazio eguneratua izateko mekanismoak ezartzeko, eta euskarazko irakaskuntza-

eskaerari erantzuteko irakasle beharrak zehazteko proposamenak egitea, izango dira oinarriak.

Administrazio eta zerbitzuetako langileei dagokienez, haien hizkuntza gaitasuna hobetzeko jarduerak, euskararen ezagutza nahitaezkoa izango duten lanpostuak zehaztea, lanpostu horiek gaur egun nola beteta dauden aztertzea eta pertsona euskaldunen harrera bideratzeko egun dauden administrazio zirkuituak aztertzea eskatzen du.

Behin oinarriak onartuta, Hizkuntza Plangintzarako Batzordeak, 2005-2006 ikasturteko euskarazko irakasgaien eskaintza aurkeztu, eta unibertsitateak horretarako gai diren zenbat irakasle dituen aztertu behar zuen.

NUPeko Gobernu Kontseiluak apirilaren hasieran erabaki behar zuen 2005-2006 ikasturterako ikasgaien eskaintza. Euskara Batzordea eskaintza hori aztertzen ari zen, euskarazko ikasgaien eskaintza gutxika-gutxika zabaltzen joateko: lehendabiziko maila guztietan gutxienez euskarazko irakasgai bat; hurrengoan bi, hirugarren urtean hiru... Helburua euskarazko eskaintza titulu guztietara iristea zen, baina dauden 23 titulazioetatik 8 ikasgaiarik gabe geratu ziren. Hori horrela, errektoreari gaia azaldu eta zulo horiek betetzeko asmoz, hezkuntza eskaintza erabakitzeko epea luzatzeko eskatu zion Batzordeak. Errektorea eta errektoreordea hasiera batean ados agertu baziren ere, azken unean erabakia Gobernu Kontseiluaren esku uztea erabaki zuten. Errektoretza taldearen plangintza gauzatzen hasteko borondate eza ikusita, NUPeko Euskararen plangintza diseinatzeko batzordeko buruek dimisioa aurkeztu zuten 2005eko martxoaren amaieran. Geroztik ez da inolako aurrerapausorik izan egoera desblokeatzeko.

Eskaintza

Hizkuntza Plangintzarako Batzordean izandako gora beheren ondorioz, 2005-2006 ikasturteko eskaintza honela gelditu da.

2005EAN EUSKARAZKO ESKAINTZARIK EZ DUTEN IKASKETAK: aukera askekoak aintzat hartu gabe	
FAKULTATEA EDO ESKOLA	TITULAZIOA
Telekomunikazio eta Industria Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoa	Telekomunikazio Ingeniaritza Informatikako Ingeniaritza (2. Zikloa) Kudeaketako Informatikako Ing. Tek.
<i>Osasun ikasketen Unibertsitate Eskola</i>	Erizaintzako Diplomatura

Jarraian 2004/2005 eta 2005/2006 ikasturteetan euskaraz eskaini diren kredituen kopurua agertuko dugu.

IKASGUA	Ikasketak	KREDITOAK				
		Eskaintza	Orot.	%		
<i>Ekonomia eta Enpresa Zientzien</i>	Ekonomia liz.	18	30	312	5,77	9,62
	EAZL	18	36	312	5,77	11,54

Fakultatea						
	Enpresa		12	207	5,80	
	EAZL+ Zuzen.	7,5	13,5	436,5	1,73	3,10
	Zuzenbide liz.	7,5		304	2,47	
	Soziologia liz.	6		300	2,00	
	Lan Harr. D. (*) ₁	0	6	205,5	0	2,44
	Gizarte Lana	6	10,5	207	2,90	5,08
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea	Irakasletza. Atzerriko Hizk.	6		205	2,93	
	Irakasletza Musika	6	0	205	2,93	0
	Irakasletza H.H	207		207	100	
	Irakasletza L.H	206,5		206,5	100	
Industria eta Telekomunikazio Ingeniaritzako Goi Mailako Eskola Teknikoa	IIT Elektrizitate	7,5	13,5	225	3,34	6
	IIT Mekanika	0	12	225	0	5,34
	IIT Telekomun.	0	6	225	0	2,67
	Industri Ingen.	0	15	375	0	4
Nekazaritza Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoa	Nekazal Ingen.	16,5		375	4,40	
	NIT Ustiapenak	9	19	225	4	8,45
	NIT Industria	9	19,5	225	4	8,67
	NIT Baratzain.	6	16,5	225	2,7	7,34

Hortaz, Irakasletza Diplomaturako bi espezialitateak kenduta, ikasgairan bat eskaini duten ikasketen batez bestekoa % 5.1ekoa izan da.

Aukera askeko irakasgaiak dagokienez, urterik urte eskaintza handitzen doan arren, oso irakasgai gutxi sartzen dira aukera honetan, eta gainera ezinbestekoa da gutxieneko matrikula kopurua iristea.

Arlo honetan 4 sail bereizi behar dira:

- 1. Aukera askeko irakasgai espezifikoak:** Gobernu Kontseiluak onartutako hasierako eskaintza 7 irakasgaitara mugatzen da. Euskaraz proposatutako irakasgai guztiak 6 kreditukoak dira. Gutxieneko matrikula kopurua 15 ikaslekoa da. Batzuetan ordutegi berean elkartzeko dira irakasgai ezberdinak. Onetsita egon arren Atzoko Euskal Literatura irakasgaia ez da eskaini ere egin, ez 2004-2005 ikasturtean, ezta 2005-2006 ikasturtean ere. 04-05 ikasturtean hasierako eskaintza 36 kreditukoak izan zen, 05-06 ikasturtean 42koa.
- 2. Eskola eta Fakultateek ikasleen aukeran jartzen dituzten irakasgaiak:** Eskola eta Fakultateek ikasketa-plangintza ezberdinetako ikasleei edo beste eskola edo fakultateetako konfigurazio askeko kredituetan matrikulatzeko aukera zabaltzen diete. Gehieneko bat ezartzen da eta jatorriko ikasketen arabera onartzen dira ala ez ikasleak, eta batzuetan aurrez beste irakasgai bat gaindituta izatea eskatzen da. Irakasgai hauetako batzuk euskaraz eskaintzen dira. Akademikoki zailagoak dira baina handitu egiten dute konfigurazio askeko kredituen hasierako eskaintza. Enborrezko edo nahitaezko irakasgaiak ezin dira aukera askeko bezala hautatu ikasketa plangintza beraren barruan. 2004-2005 ikasturtean Nekazaritza Ingeniaritzako kimika irakasgaia hautatzeko aukera ez zen eskaini ez euskaraz ezta gaztelaniaz ere. 05-06 ikasturtean gauza bera gertatu da. Espainiako Zuzenbidearen Historia izeneko irakasgaia, eskaera egon arren ez zen euskaraz zabaltu 04-05 ikasturtean. 05-06 ikasturtean egin daiteke.
- 3. Hizkuntza Titulu ofizialengatik edo Goi Mailako Hizkuntza Eskolan ikasteagatik ematen diren kredituak:** Bai 04-05, bai 05-06 ikasturtean

Nafarroako unibertsitate Publikoko Goi mailako Hizkuntza Eskolan euskara ikasten dutenek aukera askeko 6 kreditu arte eskuratu ahal izango dituzte. Irakasle eskolako espezialitateetan, 6 kreditu aitortzen dira euskara gaitasun agiri ofizialengatik.

- 4. Partekatutako G9 Campus birtuala:** G9 deituriko taldea osatzen duten unibertsitateek konfigurazio askeko irakasgaiak ikasteko programa partekatua eskaintzen diete beren ikasleei. NUP eta EHU 9 horien artean daude. Unibertsitate bakoitzak irakasgai bat edo gehiago eskaini ditzake programa honen barruan. Irakasgai hauek guztiz telematikoak dira. Ebaluaketa ikaslea ofizialki matrikulatuta dagoen unibertsitatean egiten da. Gutxieneko matrikula kopurua 10ekoa da. EHUk 04-05 uikasturtean Zientzia eta Teknikaren Auzi Etikoak XXI. Mendean izeneko 6 kredituko asignatura eskaini zuen eta NUPek bere ikasleei eskaini zien. 05-06 ikasturtean EHUk ez du irakasgai hori eskaini. Aurten EHUk G9 Campus partekatua programan eskaini dituen irakasgaietatik bakarra ere ez dago euskaraz.

Ondorioak

2005-2006 ikasturteko eskaintzan, ikasle, irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako langileen lan saiatu eta bateratuari esker, titulazio batzuetan (Ekonomia, LADE eta Nekazaritza Ingeniaritzan), 1998ko erabaki Iragankorre ezarritako 18 kredituko muga gainditzea lortu da eta euskarazko irakasgaien eskaintzak gora egin du orokorrean. Hala ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoan egun euskara hutsean ikas daitezkeen titulazio bakarrak irakasle-eskolako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza dira.

Eskaintza handitzeak irakasle eta ikertzaile euskaldunak irakaskuntzarako aktibatzea ekarri badu ere, Unibertsitateak ez du inolako urratsik eman irakasle berriak kontratatatzeko norabidean. Dimisioa aurkeztu zuen NUPeko Hizkuntza Plangintzarako Batzordeburuaren esanetan, ez da etorkizunerako hizkuntza proiekturik egin nahi. Euskarazko irakasgaiak emateko plangintza egiten bada, irakasle horiek seguruenik elebidunak izango dira, euskaltzaleak, agian abertzaleak, eta egun unibertsitatean dagoen 'oreka' euskararen aldeko dinamika batean sartzeko arriskua saihesten ari dira. Horiek dira hizkuntza plangintza abiarazi nahi ezaren arrazoiak.

Administrazioako langileen kontratazioari dagokionez, 2005 urteko Administrazio Laguntzaileen eskalako lan eskaintzan 45 langile sartu dira. Horietatik 5 soilik dira euskaldunak (3 karrerakoak eta 2 behin-behinekoak). Zerbitzuen Eskalan berriz, 2 funtzionario euskaldun sartu dira.

Udako ikastaroetan, beste urte batez, ikasgai bat bera ere ez da eskaini euskaraz.

Unibertsitatean antolatzen diren kultur jardueren inguruan, 2005-06 ikasturtean euskarazko tailerrak antolatu dira lehen aldiz: antzerkia, bertsolaritza, sukaldaritza eta txalaparta izango dira landuko diren jarduerak.

Esku artean ditugun datuek erakusten dutenez, beste urte batez, Nafarroako unibertsitate publikoak ez du urrats eraginkorrik eman ikasle euskaldunen jasaten duten bereizkeria gainditu eta haien hizkuntza eskubideak bermatzeko. Aldiz, Hizkuntza Plangintza abiarazteko borondate eza nagusitu da berriz ere Nafarroako Unibertsitate Publikoko agintarien erabakietan eta jardunean.

ESTATUKO ADMINISTRAZIOA – HEZKUNTZA MINISTERIOA

Hezkuntza Ministerioari dagokionez, esanguratsua da bere webgunean beka edo ikasketetarako laguntzen eskaera-inprimakiak katalanez, galegoz eta gaztelaniaz edukitzea, baina ez euskaraz. Espainiako Estatuaren kontraesana oso agerikoa da: Europan euskara, katalana eta galegoarentzat ofizialtasuna aldarrikatzen ari den bitartean, praktikan gaztelania dauka administrazio zentralarekiko harremanetarako baliozko hizkuntza bakartzat. Agiriak euskaraz bidali zituen herritarri gaztelaniaz bidaltzeko eskatzea dugu horren adibiderik garbiena. Ildo beretik Hezkuntza eta Zientzia Ministeritzaren mende dagoen Iruñeko UNEDeko egoitzan euskarari ematen zaion trataera (errotulazioa, jendaurreko harrera, harreman idatziak eta ikastaroak gaztelania hutsean dira guztiak) adierazgarri samarra da, Nafarroan, eremu batzuetan bederen, euskara ere ofiziala izanik.

4. ERANTZUNAK

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak ez dio Behatokiak bideratutako kexa bakar bati ere erantzun.

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara errektoreordeak argitalpen zerbitzuak gaztelania hutsean bidalitako informazio-orriaren kasuari soilik erantzun dio, eta argitalpena gaztelaniazkoa denean gaizki ulertuak saihesteko informazioa ere gaztelania hutsean emateko irizpideari jarraitzen diotela jakinarazi du.

Nafarroako Gobernuak, ohikoa duen moduan, ez du erantzunik eman.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioiko Idazkariordeak honela azaldu du Ministerioaren webgunean beka edo ikasketetarako laguntzen eskaera-inprimakiak katalanez, galegoz eta gaztelaniaz bai baina euskaraz ez egotearen arrazoa. Beka deialdian ezartzen denari jarraikiz, gaztelania omen da Ministeritzaren beka eskatzeko erabili behar den hizkuntza, legez Estatu Administrazio Orokorrarekiko harremanetarako hizkuntza gaztelania baita. Hala ere, herritarrei informazioa eta inprimakiak betetzea erraztu nahian nonbait, aipatu inprimakiak Autonomia Erkidegoetako hizkuntza ofizialetera itzuli dira, euskarara salbu, Euskal Autonomia Erkidegoak beken eskumenaren zatirik handiena aspaldi transferitua duelako, eta bekok Eusko Jaurlaritzak kudeatzen

dituelako. Hezkuntza idazkariordeak ahaztu egin du ordea, eskuduntza horiek transferitu gabe dituen Estatu beste Autonomi Erkidego batean ere euskara ofiziala, Nafarroan alegia. Ala, Nafarroako herritarrek ez dute informazioa eta eskaera-inprimakiak estatuko gainerako erkidegoetako herritarrek ez dute informazioa eta inprimakiak errazago ulertzeko moduan eskuratzeko eskubiderik?

5. SINOPSIK: HEZKUNTZA

Zenbakia: 91/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak elurteak direla eta, eskoletan eragindakoak azaltzeko bidali dituen faxak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 135/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA	Bizkaia
Arrazoa:	Hainbat gurasok Ermuko Anaitasuna ikastolan egin zuten umeen aurrematrikula. Hezkuntza sailak adierazi die 46 ikaslerentzako tokiak besterik ez dagoela, eta beraz, 16 ikasle B eredu dagoen eskola batera bidali nahi dituzte (beraiek D eredu egongo diren arren). Horrek umeen euskalduntzea zalduko duela eta, kexa agertu dute gurasoek, are gehiago, eremu erdaldunean bizi direla kontuan hartuta.	
Zenbakia: 394/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA	Araba
Arrazoa:	Gasteizko Hizkuntz eskola ofizialak duen web orriaren euskarazko bertsioan menua baino ez da euskaraz agertzen. Gainerako dokumentazio eta azalpen guztiak gaztelania hutsez daude. http://www.eoivitoria-gasteiz.com	
Zenbakia: 549/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA	Bizkaia
Arrazoa:	2005eko irailaren 6an telefonoz deitu du herritarrek Fibariko Hizkuntz Eskola Ofizialera. Galderak euskaraz egin ondoren gaztelaniaz errepikatze eskatu diote.	
Zenbakia: 785/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Herritarrek abenduaren 22an Hezkuntza saileko Gasteizko delegaritzara (945 01 72 05) deitu zuen informazioa eskatzeko. Euskaraz hitz egiten hasi eta 'ni hobeto erderaz' erantzun zion telefonoa hartu zuen langileak. Herritarrek berak euskaraz nahiago zuela esatean beste pertsona bat jarriko zela esan zion, baina bigarren hau ere gaztelaniaz zuzendu zitzaion. Euskaraz kasu egingo zion inor ez al zegoen galdetuta ezetz erantzun zioten.	
Zenbakia: 75/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. EHU	Gipuzkoa
Arrazoa:	Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzuak gaztelania hutsean bidali du erakunde batera La tierra de los pilares izeneko liburuari buruzko promozio orria.	
Zenbakia: 325/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. EHU	Gipuzkoa
Arrazoa:	UPV/EHUK antolatutako 2005eko udako ikastaroen eskuorrian gaztelania lehentasuna du, elebitasunaren irizpide aintzat hartu ordez ikastaro bakoitza zein hizkuntzatan emango den hartzen baitu kontuan. Horrekin batera euskarazko eta gaztelaniazko ikastaroen kopurua ez da batera orekatua.	
Zenbakia: 326/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. EHU	Gipuzkoa
Arrazoa:	UPV-EHUKo udako ikastaroen interneteko domeinua eta helbide elektronikoa gaztelaniaz daude.	
Zenbakia: 327/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. EHU	Gipuzkoa
Arrazoa:	2005eko maiatzaren 31n UPV/EHUn udako ikastaroetako idazkaritzara deitu zuen herritarrek matrikula bati buruzko kontsulta egiteko. Harreza gaztelaniaz egin zioten berak bere azalpena euskaraz egin arren.	
Zenbakia: 332/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. EHU	Gipuzkoa
Arrazoa:	EHUK antolatutako 73 uda ikastaroetatik 7 soilik dira euskaraz eskaintzen direnak.	
Zenbakia: 417/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. EHU	Gipuzkoa
Arrazoa:	2005eko ekainaren 6an unibertsitate sartzeko probetako Filosofia Iiko azterketako testuak akatsa zuen eta azterketaren muna testu iruzkina da. Testuak honako hau zioen: "(...) Etika, ezer izatekotan, naturaz gaindikoa da, eta gure hitzek ez dituzte egintzak adierazten ditzakete". Testuak esan beharko lukeena: "(...) Etika, ezer izatekotan, naturaz gaindikoa da, eta gure hitzek egintzak bakarrik adieraz ditzakete". Agerikoa da goiko esaldiak, ezer ulertu eta esatekotan, justu kontrakoa esan eta ulertarazten duela.	
Zenbakia: 511/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. EHU	Gipuzkoa

Arrazoa:	EHU Ikusentzunezko Komunikazioa euskaraz ikasten ari den ikasle batek gaztelania hutsean jaso du kreditu eta ikasgaien informazioa ematen duen gutuna.	
Zenbakia: 599/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. EHU	Bizkaia
Arrazoa:	Irakaskuntzarako Gaitasun Ziurtagiria lortzeko ikastaroan matrikula egiterako orduan, Teknologiaran adarriari dagokion irakasgairako aukeraketan Bizkaian ez dago euskarazko talderik, aukera bakarra gaztelaniaz egitea da.	
Zenbakia: 633/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. EHU	Bizkaia
Arrazoa:	Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) hainbat herritarri bidalitako gutunak gaztelania hutsean idatzita daude.	
Zenbakia: 634/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. EHU	Bizkaia
Arrazoa:	Herritarrak EHUKo doktorego programa batean eman zuen izena. Traila aldean Soziologia fakultatek deitu zioten dokumentu batzuk igorri behar zituela esateko. Hiru aldiz deitu zuen eta beti ere gaztelaniaz eman zizkioten mezuak.	
Zenbakia: 635/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. EHU	Gipuzkoa
Arrazoa:	EHUKo Eskola Politeknikoan bi ikasgaiak (Sistema pneumatiko eta olio hidraulikoa eta potentziaren elektronika) euskarazko taldea eta gaztelaniazkoa elkartu dituzte eta eskolak gaztelaniaz ematen dituzte (bigarrenaren kasuan, unibertsitateak dioenez, aurrekontu nahikorik ez dagoelako).	
Zenbakia: 642/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. EHU	Gipuzkoa
Arrazoa:	Donostiako Irakasle Eskolan Gizarte Zientziak eta bere Didaktika irakasgaia emateko irakaslea astebeteko atzerapenez iritsi da. Irakaslek ez du euskara maila egokirik.	
Zenbakia: 691/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. EHU	Bizkaia
Arrazoa:	EHUK duela 3 edo 4 urte jarri zituen abian Arkitektura Teknikoko ikasketak Donostiako Campusean. Azken bi urteetan EHUK ez du ikasketa horiek euskaraz egiteko aukerarik eskaini.	
Zenbakia: 707/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA. EHU	Bizkaia
Arrazoa:	Filologia Fakultateko idazkaritzatik gaztelania hutsean bidali diote herritarrari ikasgaien baliozkotzearen gaineko orrialde biko gutuna. Baliozkotzeak eskatu zituen euskaraz egin zuen eta, beraz, euskaraz eta gaztelaniaz edo euskara hutsean erantzutea espero zuen.	
Zenbakia: 600/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA.	Nafarroa
Arrazoa:	Orain arte Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ikasle nafarrei zuzendutako musika kontzertuak eskaintzen zituen gaztelaniaz eta euskaraz. Ikasturte honetan eskaintzen dituen guztiak gaztelania hutsean dira.	
Zenbakia: 716/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA.	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak gaztelania hutsean erantzun dio herritarrak euskaraz aurkeztu zuen eskaerari.	
Zenbakia: 804/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA.	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuak hainbat oztipo jarri dizkie Patxi Larrainzar eskolan D ereduan matrikulatu diren ikasleei.	
Zenbakia: 300/2005	Erakundea: NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA. NUP.	Nafarroa
Arrazoa:	Irakasle Gaitasun Agirirako praktiken oroit idazkia euskara hutsez aurkezteko eskabidea.	
Zenbakia: 345/2005	Erakundea: NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA, NUP	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Unibertsitate Publikotik gaztelania hutsean bidali diote galdetegi bati erantzuteko eskaera-gutuna.	
Zenbakia: 200/2005	Erakundea: MINISTERIO DE EDUCACIÓN	Bizkaia
Arrazoa:	2005eko apirilaren 11n, Goi mailako formakuntza ziklo bat egiteko matrikula egiterakoan konbalidazioak egiteko Madrilera paper batzuk bidali behar zituela esan zioten herritarrari. Herritarrak euskaraz bidali zituen agiriak, orain arteko ikasketak euskaraz egin dituelako eta agiriak ere halaxe eman dizkiotelako. Ministeritzatik gutuna bidali diote bertako harreman hizkuntza gaztelania dela eta gaztelaniaz bidaltzen eskatuz.	
Zenbakia: 558/2005	Erakundea: MINISTERIO DE EDUCACIÓN	Nafarroa
Arrazoa:	Hezkuntza Eta zientzia Ministerioaren webgunean, beka edo ikasketetarako laguntzen eskaera-inprimakiak, katalanez, galegoz, eta gaztelaniaz aurki daitezke, euskaraz berriz ez.	
Zenbakia: 586/2005	Erakundea: MINISTERIO DE EDUCACIÓN, UNED	Nafarroa
Arrazoa:	UNEDen Iruñeko egoitzan errotulazio guztia gaztelania hutsean dago, ezin da jendaurreko harrera euskaraz hartu, ikastaro guztiak gaztelaniaz dira eta jakinarazpenak eta informazioa gaztelania hutsean bidaltzen dituzte.	

EREMUA: PUBLIKOA

HERRI LANA ETA GARRAIOA

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 35

2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

2.1. Izaera

Bideratutako espediente guztiak dute kexa izaera. Hala, kasu guztietan urratu da hizkuntza-eskubidea, eta baita legea ere.

2.2. Puntueltasuna / sistematikotasuna

2.2.a. Errepikakortasuna

Herri Lan eta Garraio Sailek 2005urtean hartu dituzten kexak aztertuta, kexarik gehien sortu dituen gertaera errepideetako argizko paneletan mezuak gaztelania hutsean agertzea izan da.

Ohikoa izan den beste kexa bat, Euskotreneko trenetan megafonia bidezko mezuak gaztelania hutsean eman izana da.

Horiei, bideetako seinale edo garraio bideetako errotulueta herrien gaztelaniazko toponimoak soilik agertzea, eta euskarazko webgunean atal batzuk gaztelania hutsean egotea gehitu behar zaizkie.

2.2.b. Erabilera

KEXEN ZIOA

Ahozko mezuak gaztelania hutsean

Bide-seinaleak gaztelania hutsean

Idatzizko jakinarazpen personalizatua gaztelaniaz

Weborria gaztelania hutsean

Errotuluak gaztelania hutsean

Lehen aipatu bezala, kexa gehienetan ikuspegi pasibotik urratu da eskubidea herritarrarekiko harremanean.

Ahozko zerbitzuari dagokionez, oraindik ere zerbitzu publiko askotan herritarrari ez zaio informazioa euskaraz jasotzeko duen eskubidea bermatzen, eta ahazko mezuak gaztelania hutsean ematen dira.

Gauza bera gertatzen da idatzizko informazioarekin. Unean uneko intzidentzien berri emateko errepideetako argizko paneletan jartzen diren mezu gehienak gaztelania hutsean idatzen dira. Meteorologiak eragindako egoera aldakorretan ere, oso ohikoa da errepideak itxita edo zabalik dauden jakinarazteko seinaleetan aldi baterako ezartzen diren inskripzioen euskarazko bertsioek akatsak izatea.

Bide seinaleen kasuan, oraindik ere sarri ikusten dira herriaren gaztelaniazko izendapena soilik ageri duten errotuluak.

Webgune batzuetan berriz, maiz gertatzen da euskarazko bertsioan hainbat atal gaztelania hutsean egotea.

2.3. Larritasuna

Larria iruditzen zaigu, EUSKOTRENEan unean uneko aldaketen berri emateko megafoniaz esaten dituzten mezuak ele bietan idatzitan egon arren, langileek gaizki irakurtzearen beldurrez eta ulergarritasunaren izenean, gaztelaniaz bakarrik ematen dituztela jakitea. Nola da posible beldurra betebeharraren, eta herritarrak informazioa euskaraz jasotzeko duen eskubidearen gainetik jartzea?

Gutziz bidegabea eta onartezina iruditzen zaigu, era berean, bere eginkizuna bete ez duen gidariak mezuak euskaraz ere emateko eskatu zion bidaiariari emandako erantzun lotsagabe eta harroa: alegia, berak nahi zuena egiten zuela eta nahi izanez gero kexa jartzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Saileko Bideak Zaintzeko zerbitzuak Hizkuntza Eskubideen Behatokiari hainbat bide seinaleetan euskarazko azalpenak akatsak zituztelako helarazitako kexari gaztelania hutsean erantzun izana, zerbitzu horrek elebitasun bikoitzari eskaintzen dion arretaren erakusle da.

3. ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BALORAZIOA

ADMINISTRAZIOA	
EUSKO JAURLARITZA	5
NAFARROAKO GOBERNUA	3
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	15
GIPUZKOAK FORU ALDUNDIA	12

Eusko Jaurlaritzak jaso dituen kexa guztiak EUSKOTRENEi zuzenduak izan dira. Kexa gehien eragin duen zioa, megafoniako mezuak gaztelania hutsean eman izana da. Kexa honen inguruan aipatu nahi dugu, ezusteko kasuetan herritarrak informazioa euskaraz jasotzeko duen eskubidea ezin dela inolaz ere mezua eman behar duen langileak euskaraz aritzeko duen segurtasunaren mende geratu, eta horrenbestez horrelako egoerak gainditzeko neurri eraginkorrak ahalik eta arinen abiarazi beharko lituzkeela EuskoTrenek.

Gainerakoak webgunearen euskarazko bertsioan atal batzuk gaztelania hutsean egoteagatik eta Santurtzi-Leioako Unibertsitateko autobus lineako errotuluan Santurtziren gaztelaniazko izena soilik agertzeagatik izan dira.

Nafarroako Gobernuak, duela urte batzuk abiatutako gutxitze instituzionalari segida emanez, euskararen zantzu oro ezabatzeko bideari eutsi dio aurten ere, errepideetako bide-seinaleetatik herrien euskarazko izendapenak kenduz, eta errepideetako mezuak gaztelania hutsean emanez eremu euskaldunean ere.

BIDEGIRi dagokionez, esan behar dugu arlo honetan kexa gehien jasotzen duen erakundea izaten jarraitzen duela. Bidegik sistematikoki urratzen jarraitzen du errepideetako gorabeherei buruzko informazioa ele bietan emateko duen betebeharra, eta Behatoki honek 2001 urtetik hasi eta gaur arte helarazi dizkion gomendioei ez die inolako jaramonik egin.

INTERBIAKEn aldetik ere, lege-urraketa sistematikoa da. Bidegiren atzetik kexa gehien jaso duen erakundea da, oraindik ere bidaiariari zuzendutako mezu asko gaztelania hutsean idatzen jarraitzen duelako.

4. ERANTZUNAK

Eusko Jaurlaritzak sistematikoki erantzun die Behatokiak helarazitako kexei. Webgunearen kasuan kexa konponduta geratu da eta webguneko erreklamazio-orria euskaraz dago bere osotasunean.

Megafoniaz gaztelania hutsean ematen diren mezuen inguruan argudiatutakoa bitxia da: *“EuskoTrenek ahoz ematen dituen mezu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz grabatu eta horrela ematen dira. Hala ere, zenbaitetan, oharra unean uneko egoerari erantzuteko erabiltzen direnean, grabatu gabe daude eta langileek eurek irakurri behar izaten dituzte oharrok. Horrelakoetan, nahiz eta ele bietan idatziak izan, euskaldundu gabeko langileek, gaizki irakurtzearen beldurrez eta ulergarritasunaren izenean, mezuak gaztelaniaz bakarrik ematen dituzte.”*

Sailburuak kexa horien inguruan emandako azalpenaren arabera, gisa honetako egoerak langileen euskalduntze planaren garapenarekin batera joango dira desagertzen. Alde horretatik Behatokiak positibotzat jo du sailburuaren erantzuna.

Foru Aldundiei dagokienez, haiena da errepideen kudeaketaren ardura, ez BIDEGIK, ez INTERBIAKek ez diote kexa bakar bati ere erantzun.

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionez, Herri Lan eta Garraio Saileko Errepideen Zaintza eta Ustiapen Zerbitzuko Zuzendariak gaztelania hutsean bidali du Behatokiak gaztelania hutsezko inskripzioa zuten bide-seinaleen inguruan eginiko kexen erantzuna. Bertan, seinale horien ardura Ertzaintzari dagokiola jakinarazten du.

5. SINOPSIAK: HERRI LANAK ETA GARRAIOA

Zenbakia: 120/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. EUSKOTREN	Gipuzkoa
Arrazoa:	2005eko martxoaren lehen, Euskotrenek gaztelania hutsean eman zuten berriz ere Usturibilean transbordoa egin behar zela jakinarazteko oharra. Herriarrak treneko gidariarengana jo zuten euskaraz ere egin zezan eskatuz. Gidariak zakar erantzun zion, berak nahi zuena egiten zuela eta nahi bazuen salaketa jartzeko.	
Zenbakia: 318/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. EUSKOTREN	Nafarroa
Arrazoa:	Eusko trenbideen euskarazko web orriaren erreklamazio-orriaren atal gehienak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 541/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. EUSKOTREN	Bizkaia
Arrazoa:	Euskotrenean Santurtzi - Leioako Unibertsitatea lineako autobusaren errotuluan herriaren izena gaztelania hutsean ageri da, Santurce alegia.	
Zenbakia: 624/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. EUSKOTREN	Gipuzkoa
Arrazoa:	Euskotreneko Añorgako geltokian Bilbotik Donostiara doan treneko (07:38an ateratzen da trena Zarauztik) megafoniatik eman duten mezu gaztelania hutsean izan da: "Vamos a permanecer en Añorga 10 minutos debido a un arrollamiento".	
Zenbakia: 687/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. EUSKOTREN	Gipuzkoa
Arrazoa:	Treanean zihola, Oriotik Usurbilerako tartean transbordoa egin behar zela jakinarazteko megafonia-mezua gaztelania hutsean esan zuten.	
Zenbakia: 140/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. HERRILAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIOEN DEPART.	Nafarroa
Arrazoa:	Agoitz aldean bide seinale berriak jartzeko ari dira eta gaztelaniaz daude.	
Zenbakia: 402/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. HERRILAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIOEN DEPART.	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuak Agoitzerako bidean eta Agoitzen paratu dituen bide seinale berrietan ez da herriaren euskarazko toponimo ofiziala agertzen.	
Zenbakia: 596/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. HERRILAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIOEN DEPART.	Nafarroa
Arrazoa:	Urriaren 4an, goizeko 9:30ak aldera, Belateko tuneletako argizko panelek gaztelania hutsean ageri zuten mezu: 'modere su velocidad'.	
Zenbakia: 80/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. HERRI LAN ETA GARRAIOAK SAILA	Bizkaia
Arrazoa:	Bizkaian, Otxandiotik Dimaranzko irteeran eta Mañaritik Urkiolaranzko irteeran errepide alboan dauden bi karteletan ZABALIK ipini beharrean ZABALIZ idatzita dago.	
Zenbakia: 119/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. HERRI LAN ETA GARRAIOAK SAILA	Bizkaia
Arrazoa:	Bilboko A8 autopistako irteeretan errotulu berriak jarri dituzte. Euskarazko toki izen batzuk ez daude zuzen idatzita, hala 'Bihotz Sakratu' ageri da 'Bihotz Sakratua' edo 'Jesusen Bihotzaren monumentua' ren ordez.	
Zenbakia: 129/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. HERRI LAN ETA GARRAIOAK SAILA	Bizkaia
Arrazoa:	Duransotik Urkiolarako bidean, Durangoko irteeran bertan, mendatesa zabalik edo itxita dagoen adierazten duen bide-seinalea dago. Seinalea ele bitan dago, baina akats ortografikoa du euskarazko adierazpenean. Gaztelaniaz 'abierto' dioen lekuan, euskaraz 'zabaliz' dio. Bi urte badira horrela dagoela.	
Zenbakia: 391/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. HERRI LAN ETA GARRAIOAK SAILA	Bizkaia
Arrazoa:	2005eko ekainaren hasieran Ermua eta Berriz arteko tunela baino lehen, bi norabideetan zuden argizko panelek mezu gaztelania hutsez zuten.	
Zenbakia: 487/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. HERRI LAN ETA GARRAIOAK SAILA	Bizkaia
Arrazoa:	Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio sailatik gaztelania hutsean bidali diote erantzuna Behatokiari.	
Zenbakia: 293/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INTERBIAK	Bizkaia
Arrazoa:	Maiatzaren 26an, Bizkaian, A-8 autopistan, Donostiako norabidean hainbat panelek gaztelania hutsean azaltzen zituzten mezuak: 18:20, Durango, 'atención en Km 75' 18:30, Durango-Eibar arteko tunela baino lehen, 'atención modere la velocidad'	
Zenbakia: 385/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INTERBIAK	Bizkaia
Arrazoa:	A-8an mezu hau zuten Zaldibarko tunela baino lehen dagoen argizko panelak: "atención, modere la velocidad". gainera, INTERBIAK enpresako kamioi baten panelean "máquina segando" jartzeko zuten 2005eko ekainaren 16ko 9:45ean.	
Zenbakia: 397/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INTERBIAK	Bizkaia
Arrazoa:	2005eko ekainean A-8 autopistan, Donostiatik Bilborako norabidean, Ermua inguruan jarri zuten panel elektronikoan gaztelania hutsean agertzen ziren mezuak.	
Zenbakia: 484/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INTERBIAK	Bizkaia

Arrazoa:	A-8 bidean, Zaldibarko tunelaren ondoren, Donostiarantz, 20:30etan, INTERBIAK enpresaren kamioi batek argizko panelek mezu gaztelania hutsez eman zuten: "atención obstaculo en calzada".	
Zenbakia: 486/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INTERBIAK	Bizkaia
Arrazoa:	Uztailaren 27an, 11:20etan, Zornotza eta Durango artean, INTERBIAK enpresaren kamioi batek argizko panelean gaztelania hutsezko mezu ageri zuten: modere, limpiando.	
Zenbakia: 490/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INTERBIAK	Bizkaia
Arrazoa:	Uztailaren 27an, 11:25ean, Durangoko ordain-lekuan, argizko panel batek mezu gaztelaniaz ageri zuten: "en km 75".	
Zenbakia: 531/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. INTERBIAK	Bizkaia
Arrazoa:	A-8 autopistan, Durango parean, Donostiarantz, INTERBIAK enpresaren kamioiaren argizko panelak mezu gaztelania hutsez zuten: 'modere velocidad maquinas segando' zioen.	
Zenbakia: 429/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDE AZPIEGITURETARAKO DEPARTAMENTUA	Gipuzkoa
Arrazoa:	N-1 bidean, Belartzako irteeran, 17:30etan, Foru Aldundiaren ibilgailu baten argizko panelak mezu gaztelania hutsez eman zuten: "personal en arcén".	
Zenbakia: 69/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDEGI	Gipuzkoa
Arrazoa:	2005eko otsailaren lehen Donostia-Bilbo norabidean, Itziarren, arratsaldeko 18:45etan argizko panelak testua gaztelania hutsean ageri zuten "atención en Km. 57".	
Zenbakia: 70/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDEGI	Gipuzkoa
Arrazoa:	2005eko otsailaren 2an, Donostia-Bilbao norabidean, Aieteko tunelean, goizeko 8:55ean argizko panelak gaztelania hutsean ageri zuten mezu: "accidente en Km. 24".	
Zenbakia: 167/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDEGI	Gipuzkoa
Arrazoa:	2005eko apirilaren 18an, goizeko 9:30ean, Aieteko tunelean, Gasteizerako norabidean, argizko panelak gaztelania hutsean ageri zuten: "Atención en Km. 23" mezu,	
Zenbakia: 292/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDEGI	Gipuzkoa
Arrazoa:	Maiatzaren 26an, A-8 autopistan, Bilborako norabidean, nahiz Donostiarako norabidean argizko panelek gaztelaniaz soilik azaltzen zituzten mezuak honako puntu hauetan: 15:40, Itziar, 'atención en Km 58' 15:45, Mendaroko irteeran, 'atención en Km. 76' 15:55, Eibar-Durango arteko tunela baino lehen, 'atención modere la velocidad' 15:55, Eibar-Durango arteko tunela baino lehen, furgoneta, 'atención vehiculo averiado' 19:00, furgoneta Aieteko tunela baino lehen, 'atención retención'	
Zenbakia: 303/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDEGI	Gipuzkoa
Arrazoa:	9:30etan Donostiako saihesbidean, Zuatzun dagoen argizko panelak ez du euskarazekiko oreka gorde: kontuz, atención en km 34	
Zenbakia: 312/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDEGI	Gipuzkoa
Arrazoa:	Bidegi enpresak bide-artapenean erabiltzen dituen kamioien argizko panelek informazioa gaztelania hutsean ematen dute: "atención personal en arcen".	
Zenbakia: 314/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDEGI	Gipuzkoa
Arrazoa:	Bilbo-Donostia autopistan zehar dauden panel elektronikoetan mezuak gaztelania hutsean ageri dira.	
Zenbakia: 330/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDEGI	Gipuzkoa
Arrazoa:	A-8 autopistan, tunelaren sarreretan garaiera neurtzeko tresnak ipini dituzte kamioientzat. Horiek adierazteko txartelak ipini dituzte eta txartel guztiak gaztelania hutsez daude "exceso de galibo" jartzeko dute.	
Zenbakia: 351/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDEGI	Gipuzkoa
Arrazoa:	Bidegi enpresako kamioi batek zeraman argizko panelak "atención retención" gaztelania hutsezko leloa erakutsi zuten 05/06/06ean, 19:45etan, Zuatzun.	
Zenbakia: 389/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDEGI	Gipuzkoa
Arrazoa:	A-8 autopistan, Donostiako Polloeko tunelean, Irun aldera, BIDEANen ibilgailu baten argizko panelak mezu gaztelania hutsez eman zuten: "atención accidente".	
Zenbakia: 479/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDEGI	Gipuzkoa
Arrazoa:	A-8 bidean, La Salle parean, 15:45ean, Irun aldera, BIDEANen ibilgailu baten argizko panelak mezu gaztelania hutsez eman zuten: "personal en arcen".	
Zenbakia: 483/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDEGI	Gipuzkoa
Arrazoa:	A-8 bidean, Amarako irteeran, 21:00etan, BIDEANen ibilgailu baten argizko panelak mezu gaztelania hutsez eman zuten: "carril izquierdo cortado"	
Zenbakia: 485 /2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. BIDEGI	Gipuzkoa
Arrazoa:	Uztailaren 16an, A-8 autopistan, Zuatzun, Bilborantz, 9:45etan, argizko panelak gaztelaniaz bakarrik ematen zuten informazioa: "Bilbao Urban Circuit, parking en BEC"	

EREMUA: PUBLIKOA

OSASUNGINTZA

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 34

2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

2.1. Izaera

Bideratutako espediente guztiek dute kexa izaera, eta beraz kasu guztietan urratu da hizkuntza-eskubidea. Era berean, kasurik gehienetan eskubidea ezezik legea ere urratu da.

2.2. Puntueltasuna / sistematikotasuna

2.2.a. Errepikakortasuna

2005urtean bideratu ditugun kexei erreparatuz gero, osasun arloan behin eta berriz, eta gehien errepikatzen den kexa zerbitzua euskaraz ezin jaso izatea da (34tik 14).

Horren atzetik kexa gehien eragin dituen zioa idatzizko jakinarazpenak (zitazioak, egiaztagirak, gutunak, e.a.) gaztelania hutsean jaso izana da.

Sistematikotasunari begira, esan behar dugu, zerbitzua euskaraz jasotzeko aukerarik ez izateak kexa egin duten herritarrez harago, erabiltzaile-kopuru zabalagoan duela eragina. Hori horrela, hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa dela esan dezakegu osasun zerbitzuak ematerako garaian.

2.2.b. Erabilera

KEXEN ZIOA

Ahozko zerbitzua
Idatzizko jakinarazpen pertsonalizatua
Idatzizko jakinarazpen orokorrak
Inprimakiak
Publizitatea
Errotulazioa
Bestelakoak

Lehen aipatu bezala, kexa gehienetan eskubidea ikuspegi aktibo nahiz pasibotik urratu da herritarrekiko harremanean.

Ahozko zerbitzuari dagokionez, herritarrari ez zaio euskaraz artatua izateko eskubidea bermatzen, ez telefonoz, ezta aurrez-aurreko zerbitzua ematerakoan ere, (dela harreran, dela kontsulta orokor nahiz espezializatuan, dela ospitaleko aldi baterako egonaldietan). Kasu batzuetan atzerapausoak eman dira gainera, lanpostuan zeuden langile elebidunak langile gaztelaniadun ele bakarrekin ordezkatu dituztelako.

2005eko espedienteek erakusten digutenez, elebitasuna ez da bermatzen herritarrekiko komunikazioan. Hala, kexarik gehienetan, jakinarazpen pertsonalak gaztelania hutsean jaso dituzte herritarrek, kasu batzuetan herritarra aurrez administrazioarengana euskaraz zuzendu arren. Aipatzekoa da bestalde, euskaraz egiten diren komunikazioetan ez dela beti hizkuntzaren zuzentasuna bermatzen.

Informazio orokorrari dagokionez, 2005ean bideratutako espedienteek erakusten digute, informazio orokorreko hainbat orri oraindik ere gaztelania hutsean idazten direla.

Bestalde, kontsultan izan direla egiaztatzeko agiriak gaztelania hutsean jaso izanagatik bideratu diren kexen kopurua ere esanguratsua da. Kasu batzuetan inprimakiak dira gaztelania hutsean daudenak. Beste batzuetan, inprimakia euskaraz edo ele biz egon arren gaztelaniaz beteta eman zaie herritarrei. Bada bere osasun txartelean abizenen euskarazko grafia errespetatzen ez zaion herritarrik ere.

Errotuluei dagokienez, osasun etxe batzuetan lehen ele bietan zeuden errotuluak kendu eta gaztelania hutsezkoak jarri dituzte 2005 urtean.

Bukatzeko, esan behar dugu administrazio batzuk oraindik gaztelania hutsean argitaratzen dituztela jendeari zuzendutako publizitate kanpainen euskarriak.

2.3. Larritasuna

Larritasunaren ikuspegitik, oso larria deritzogu gaztelaniaz ez dakien 6 urteko haurrak psikologoaren beharra izan eta bere eskualdean psikologo euskaldunik ez dagoelako itzultzaile baten zerbitzua eskaintzea, edo bestela zerbitzua psikologo euskalduna duen beste eskualde batean hartzeko aukera, baina amari Osakidetzaren kontu dagokion osasun eskualdean psikologo euskaldun pribatua hartzea ukatuz.

Lehenik eta behin psikologo baten beharra duen haurrari itzultzailea eskainiz haurraren osasunerako eskubidea jartzen da arriskuan. Kasu honetan profesionalaren eta gaixoaren arteko komunikazioan datza hain zuzen ere diagnostikoaren eta terapiaren gakoa, eta itzulpen sistemak tratatu egin dezake profesionalarentzat edo haurarentzat funtsezkoa izan daitekeen informazioa (sentimendu eta bizipenei loturiko informazioa batik bat).

Bestalde, euskara ofiziala den lurraldean herritarrari izaera asistentzialeko zerbitzu batean euskaraz egin ahal izateko itzultzailea eskaintzea, herritarra eskubide gabetu eta atzeritarrak baillitza tratatzea da.

Zerbitzua euskaraz jaso ahal izateko beste eskualde batera mugitu behar izateak, berriz, argi uzten du, gaur egun oraindik Euskal Herrian zer nolako kalte erantsiak dakartzkion euskaldunari euskaraz bizi nahi izateak: zerbitzua bizilekutik urrun, joan-etorrian ibili beharra, horrek eskatzen duen denbora, eta sortzen dituen zailtasunekin, (laneko baimenak, istripu arriskuak, denbora...). Ez dugu aipatu gabe utzi nahi, hizkuntza-eskubidea baliatu nahi izateak euskaldunarentzat sarritan dakarren eraso emozionala bera.

Larritasunaren ikuspegiarekin jarraituz, herri batean 20 urte baino gehiago daraman familia-medikuak oraindik gaixoak gaztelaniaz bakarrik artatzen dituela jasotzen duen kasua oso esanguratsua iruditu zaigu, edo Zestoa bezalako herri euskaldun batean pediatra erdalduna izatea, edota Leitzara lehen zegoen mediku euskaldunaren ordezkari mediku erdalduna bidaltzea bezalaxe. Azken kasu honetan gainera atzerapauso zantzia ezin nabarmenagoa da.

Herritarrek zerbitzua euskaraz eskatzeagatik telefonoz, nahiz aurrez-aurre jasotako tratatu zakarren berri ematen duten kexak gehitu behar zaizkie aurrekoei, larritasunari dagokionez. Euskaldunak bizi duen eraso emozionala etengabea da.

3. ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BALORAZIOA

ADMINISTRAZIOA	
ESPAINIAKO ESTATUKO ADMINISTRAZIOA	1
EUSKO JAURLARITZA	17
NAFARROAKO GOBERNUA	16

2005 urtean Espainiako Estatuko Administrazioak publizitate kanpainen euskarriak gaztelania hutsean argitaratzen jarraitzen du, oraindik ere.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, 2005ean hainbeste atzeratu den Osakidetzako Euskara Plana onartu eta abiarazi bada ere, ez da ondorio nabaririk ikusi herritarrei begirako zerbitzuan, eta Osasun Arloak beltzune izaten jarraitzen du Euskal Autonomia Erkidegoan. Osakidetza da, bosgarren urtez kexarik gehien jaso duen saila.

Nafarroako Gobernuak bere aldetik, duela urte batzuk hasitako gutxiagotze instituzionalaren bidetik jarraitzen du, ele bietan zeuden errotuluak gaztelania hutsean jarriz, eremu euskalduneko herrietara mediku erdaldunak bidaliz, eremu euskalduneko herritarrei jakinarazpenak gaztelania hutsean bidaliz, eta argitalpenak gaztelania hutsean plazaratuz.

4. ERANTZUNAK

Espainiako Estatuko Administrazioak ez dio erantzun Behatokiak helarazitako kexari.

Eusko Jaurlaritzak bideratutako kexen erdiari erantzun die. Kasu gehienetan, kexaren berri ez dutela eta kexa egin duen herritarraren datuak eta gertaeraren inguruabarrak eskatzen dituzte kexa egiaztatu eta erantzuna eman ahal izateko. Behatokiak herritarrekin duen konfidentzialtasun konpromisoari eutsiz, herritarraren nortasun datuak izan ezik, gertaerak identifikatzeko eskura dituen datu guztiak zehazten ditu bere kexetan, eta alde horretatik, behin eta berriz jakinarazi dio Osakidetzari, helburua ez dela kexa eragin duen kasu zehatzari konponbidea ematea, baizik eta horrelakorik berriro gerta ez dadin neurri eraginkorrek hartzea.

Osakidetzak bestalde, Osakidetzaren Euskara Plana onartu eta abian jarri izana osasungintza euskalduntzeko lagungarri izango dela azpimarratzen du, baina urte batzuetako prozesu bat beharko dela argudiatzen du euskarazko asistentzia nonahi eta noiz nahi bermatu ahal izateko.

Deigarria iruditu zaigu bestalde, Osakidetzako Euskalduntzeko Plana abian jarri den honetan, Planaren jarraipena egiteko organo bat sortu ez izana, eta jarraipen horren ardura zentro bakoitzeko zuzendaritzaren esku dagoela jakinaraztea, Zentro baten kudeaketaren barnean Euskara Plana bigarren mailako arazotzat uztea ekar dezakeelako.

Nafarroako Gobernuak ez dio kexa bakar bati ere erantzun.

5. SINOPSIK: OSASUNGINTZA

Zenbakia.: 125/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Bizkaia
Arazoia:	Arrigorriagako osasun zentroan ez dago pediatria zerbitzua euskaraz jasotzerik.	
Zenbakia: 155/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Araba
Arazoia:	Herritarraren 6 urteko semeak psikologoaren premia du eta ez zaio zerbitzu hau euskaraz eskaintzen, ez bere eskualdean ez eta inguruoetan ere. Eskualdetik kanpora joan behar du edo itzultzailea baliatu.	
Zenbakia: 255/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Gipuzkoa
Arazoia:	Osakidetzak gaztelania hutsean bidali zion mamografia noiz egin behar zuten jakinarazteko gutuna. Herritarrak mezua utzi zuen ezin joan zitekeela esateko. Egun batzuk geroago Osakidetzatik deitu zioten beste hitzordu bat emateko, eta ezin izan zuen zerbitzua euskaraz jaso.	
Zenbakia: 315/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Araba
Arazoia:	Maiatzaren 31n, goizeko 9ak aldera Txagorritxu Ospitaleko zentralitara deitu eta harrera egin zion langilea gaztelaniaz oildartu zitzaion herritarrari euskaraz zuzentzeagatik. Euskaraz harrera egiteko inor ez ote zegoen galdetuta, ezetz erantzun zioten.	
Zenbakia: 338/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Gipuzkoa
Arazoia:	zestoako osasun etxeko harreraren dagoen langile batek gaztelaniaz hitz egitera behartzen ditu herritarrak, berak ez baitaki euskaraz.	

Zenbakia: 339/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Gipuzkoa
Arazoia:	Zestoako pediatria erdalduna denez ez dago pediatria zerbitzuak euskaraz jasotzerik	
Zenbakia: 346/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Gipuzkoa
Arazoia:	Donostia Ospitaleko Etika Batzordeak gaztelania hutsean bidali du hainbat zentrotara ikertzaile eta sustatzaileei zuzendutako informazioa.	
Zenbakia: 380/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Araba
Arazoia:	Donostiako Arantzazu ospitalean tratamendu bat baimentzeko sinatu beharreko agiria gaztelania hutsean zegoen.	
Zenbakia: 410/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Araba
Arazoia:	Herritarrak astebete pasa behar izan zuen Donostia ospitalean ekainaren hasieran, osasun arazo bat tarteko. Artatu zuten pertsona eta zerbitzuen aldetik izan zuen hizkuntza tratamendua honako hau izan zen: larrialdietan, garraioetan, Gipuzkoa erietxean eta Arantzazu ospitalean artatu zuten 37 pertsonatatik 7 besterik ez ziren euskaldunak eta bi nola edo hala moldatzen zirenak. Gainontzeko guztiekin gaztelaniaz hitz egin behar izan zuen herritarrak. Gainera, idatzizko dokumentu guztiak gaztelaniaz idatzen zituzten inprimaki elebidunetan eta gauza bera menuekin, charrekin, etab.	
Zenbakia: 426/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Gipuzkoa
Arazoia:	Herritarrak euskaraz betetako eskaera orria bidali zuten Osakidetzara eta Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako Osasun Sailetik gaztelania hutsean bidali zioten erantzuna. Bestalde traumatologoak gaztelaniaz bete zion errezeta-orri elebiduna.	
Zenbakia: 450/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Gipuzkoa
Arazoia:	Herritarrak tratamendu batek sortutako gastuak itzultzeko eskatu dio Osakidetzari. Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako Osasun Sailetik gaztelania hutsean bidali diote erantzuna.	
Zenbakia: 489/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Gipuzkoa
Arazoia:	Abizenak duela 10 urte euskaratu zituen arren, Osakidetzak bidali dion txartelean erdal grafiaz ageri dira. Telefonoz deitu du datuak aldatzeko eta agiriak bidaltzeko eskatu diote.	
Zenbakia: 515/2005	Erakundea: OSASUN SAILA OSAKIDETZA	Gipuzkoa
Arazoia:	Zumalako osasun etxeko familia-mediku batek ez du zerbitzua euskaraz emateko gaitasunik, lanean hogeitaz urtez jardun arren.	
Zenbakia: 579/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Bizkaia
Arazoia:	Herritarrak Durangoko osasun etxera hurbildu zen mediku aldaketa egitera. Eskaera egitean, gaztelaniaz erantzun zion, herritarraren esanetan, zakar.	
Zenbakia: 643/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Bizkaia
Arazoia:	Herritarrak Osakidetzari jarritako kexari euskara negargarrian erantzun diote Basurtuko Ospitaletik. Honela dio: 'Basurtuko ospitalean aurkeztutako kexari dagokionez non zure ezadostasuna agertzen duzun zure urologoaren zorigaitzoko hedagarriagatik, zure kontsiderazioak Urologiako Zerbitzuburuari bidali dizkiogula jakinarazi nahi dizugu, egoera ezagutu, eta pazientearenganako osasun-laguntza izan behar den moduan neurriak hartzeko. Zure haserre sentitzen dugu eta egoera hau berriro gertatu ez dadila, espero dugu. Eskerrak ematen dizkizugu iragartzeagatik, alde horretan aurrerantzean hobetzeko'.	
Zenbakia.: 728/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Gipuzkoa
Arazoia:	Azaroaren 24an, eguerdiko 15:30 inguruan, Osakidetzaren Zumarragako Ospitaletik deitu diote herritarrari, kontsultarako emana zuten eguna aldatzeko. Langilea gaztelaniaz zuzendu zaio, eta herritarrak berak euskaraz erantzun diezaiokeen galdetzean, NO erantzun dio.	
Zenbakia: 790/2005	Erakundea: OSASUN SAILA. OSAKIDETZA	Bizkaia
Arazoia:	Herritarrak Mungiako osasun etxera joan zen azaroaren 25ean. Ez harreraren eta ez medikuak ere, ez zioten euskaraz eman zerbitzua.	
Zenbakia: 54/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arazoia:	Urtarrilaren 31n Uharte Arakilgo mediku kontsultan gaztelania hutsean luzatu zioten bertan izan zela egiaztatzeko eskatu zuten agiria. Inprimakia gaztelania hutsean zegoen. Euskaraz ez zuten galdetuta ezetz erantzun zioten. Medikuek berak ere gaztelania hutsean bete zituen datuak.	
Zenbakia: 78/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arazoia:	Medikuaren kontsultan izan dela egiaztatzen duen agiria eskatu du eremu euskalduneko herritarrak. Inprimakia gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 133/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arazoia:	Osasunbideak mediku erdaldunari esleitu dio lanpostua Leitzaan.	
Zenbakia: 161/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arazoia:	Osasunbideak gaztelania hutsean bidali dio zitazio-orria eremu euskalduneko herritarrari.	
Zenbakia: 162/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa

Arrazoa:	Proba egin aurreko gomendioak eta probari buruzko informazioa gaztelania hutsean eman dizkiote.	
Zenbakia: 208/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arrazoa:	Elxarri-Aranazko emakumearen zentroko sexu-hezitzailea euskalduna izan da lanpostua sortu zenetik. Sexu-hezitzailearen lanpostua finke bihurtzea erabaki zenean ez zitzaionez inolako hizkuntz eskakizunik ezarri. Ordezkoa erdaldua da. Hortaz, Sakanako ikastetxeek lehen euskaraz jasotzen zituzten zerbitzuak gaztelaniaz soilik eskaintzen dira gaur egun, nahiz eta eskualde honetan D ereduari matrikulatuta dauden ikasleen kopurua %80 ingurukoa izan.	
Zenbakia: 284/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arrazoa:	Osasunbideak gaztelania hutsean bidali dio jakinarazpena herritarri. Gainera, herriaren gaztelaniazko izena soilik ageri da helbidean.	
Zenbakia: 290/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arrazoa:	Gorraitzen zabaldu berri duten kontsultorioan errotulu guztiak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 347/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arrazoa:	Elizondoko emakumeen harrera zentroan gaztelania hutsean luzatu zioten bertan izan zela egiaztatzeke agiria. Lehen orri inprimatuak erabiltzen zituzten eta euskarazko aleak edukitzen zituzten. Berriki, informatizatu egin dute eta programak ez die euskaraz egiteko aukerarik eskaintzen. Langileek euskaraz ere egin ahal izatea eskatu dute, baina ezin dela erantzuten diete.	
Zenbakia: 447/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arrazoa:	Osasunbideak gaztelania hutsean bidali dio eremu euskalduneko herritarri espezialistarekin hitzordua emateko jakinarazpena.	
Zenbakia: 480/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arrazoa:	Medikuarenean izan dela egiaztatzeke agiria eskatu du herritarrek Uhartetarako osasun etxean. Agiria gaztelania hutsean luzatu diote.	
Zenbakia: 517/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arrazoa:	Osasunbideako arreta espezializatuko "Principe de Viana" osasun etxetik gaztelania hutsean bidali diote zitzazioa, eremu euskaldunetan bizi den arren.	
Zenbakia: 520/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arrazoa:	'Principe de Viana' osasun etxetik gaztelania hutsean bidali diote jakinarazpena herritarri.	
Zenbakia: 631/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arrazoa:	Arrosadiako Osasun Etxera deitu zuen herritarrek eta mediku euskaldun batekin hitz egin nahi zuela adierazi zuen. Osasun etxe guztian mediku euskaldun bat ere ez dagoela esan zioten.	
Zenbakia: 659/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arrazoa:	Herritarra OSASUNBIDEARA joan zen 2005eko irailaren 16an sexu orientatzailearekin hitz egitera eta lehen zegoen euskaldunaren ordez, euskaraz ez dakien langilea jarri dute lanean.	
Zenbakia: 779/2005	Erakundea: OSASUN DEPARTAMENTUA. OSASUNBIDEA	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak 2006rako egutegiak gaztelania hutsean bidali ditu.	
Zenbakia: 521/2005	Erakundea: MINISTERIO DE SANIDAD	Gipuzkoa
Arrazoa:	Ministerioak alkohol kontsumoaren aurka argitaratu duen kartela gaztelania hutsean dago.	

EREMUA: PUBLIKOA

KULTURA

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 26

2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

2.1. Izaera

Bideratutako espediente guztiak dute kexa izaera. Hala, kasu guztietan urratu da hizkuntza-eskubidea, eta legea gehientsuenetan.

2.2. Puntueltasuna / sistematikotasuna

2.2.a. Errepikakortasuna

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak argitaratutako *Hizkunea* aldizkari elektronikoaren harpidetza egindakoan, zerrenda nola erabili azaltzeko herritarrei mezua gaztelania hutsean bidali izana izan da kexa gehien eragin dituen gertaera.

ETB-1ek Eusko Legebiltzarrean eta Madrilgo Diputatuen Kongresuan ia gaztelania hutsean eginiko saioak zuzenean emateak ere kexa bat baino gehiago sortu du.

Goian aipatutakoez gain, oro har, espedienteak kexa desberdinei buruzkoak dira, besteak beste euskarazko inprimaki edo argitalpenik eskura ez izatea, ahozko zerbitzua euskaraz jasotzeko aukerarik ez izatea eta gutunak eta jakinarazpenak gaztelania hutsean jasotzea izan dira gehien errepikatu direnak.

2.2.b. Erabilera

KEXEN ZIOA

Idatzizko jakinarazpen orokorrak
 ETB-1en gaztelaniazko emanaldiak
 Ahozko zerbitzua
 Idatzizko jakinarazpen pertsonalizatuak
 Inprimakiak
 Irudi korporatiboa
 Web orria

Kultura arloan era guztietako kexak jaso ditugu 2005 urtean. Hala ere idatzizko informazioa euskaraz ez jasotzea izan da arrazoi nagusia. Honen barruan,

bereziki aipatzekoa da herritarrek HPSren euskarazko aldizkari elektroniko batean harpidetza egindakoan zerrenda nola erabili azalduz jaso zuten mezua gaztelania hutsean egotea.

ETB-1eko gaztelaniazko emankizunek ere kexa bat baino gehiago eragin dituzte. Eusko Legebiltzarrean eta Madrilgo Diputatuen Kongresuan ia gaztelania hutsean egin ziren saioak oso-osorik eta zuzenean emititu zituen euskara hutsezko telebista kate bakarrak, ETB-1ek alegia.

Ahozko zerbitzuari dagokionez, oso ohikoa da oraindik ere herritarrek zerbitzua eurek hautatutako hizkuntzan jasotzeko aukerarik ez izatea eta gaztelaniaz egitera behartuta sentitzea ere. Hala erakusten du dirulaguntza deialdi batean proiektua euskaraz aurkeztzen hasi eta gaztelaniaz egin behar zuela jakinarazi zioten herritarren kasuak.

Idatzizko harremanetan praktikan jartzen den elebitasunak ere, kexa ugari eragiten jarraitzen du. Hala, oraindik ere ohikoa da euskara ofiziala den eremuetan jakinarazpenak gaztelania hutsean jasotzea.

Webgune batzuetan, ez dago oraindik informazioa euskaraz eskuraterik, eta beste batzuetan, gaztelaniaren presentzia nabaria da euskarazko bertsioetan.

Euskararen presentzia publikoari dagokionez, erakunde batzuek euskararen zantzu oro ezabatzen nabarmendu dira. Horren erakusle dira errotulu, irudi korporatibo eta inprimaketatik erakundearen euskarazko izendapena desagertu izana salatzen duten espedienteak.

2.3. Larritasuna

Larritasunaren ikuspegitik, oso larria deritzogu Euskal Herrian euskara hutsez emititzen duen telebista kate publiko bakarrak gaztelania hutsezko saioak emititu izanari. Gertaera are larriagoa da, erakunde horrek emanaldiok gaztelaniazko katearen bidez eskaintzeko aukera zuela kontuan hartzen badugu.

Era berean, bereziki larria da, bere eginkizun nagusitzat euskararen biziraupena ziurtatu eta euskararen erabilera suspertzea duen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak sortutako aldizkari elektronikoan harpidetza egin zuten harpidedunei mezua gaztelania hutsean bidali izana, edo Nafarroako Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzatik agiria gaztelania hutsean bidaltzea, Departamentuko gutunazaleetatik erakundearen euskarazko izendapena kentzea oso esanguratsua den bezalaxe.

Dirulaguntza deialdira aurkeztutako proiektua euskaraz azaltzen hasi eta epaimahaiko kideak erdaldunak zirelako proiektua gaztelaniaz aurkeztu behar izan zuen herritarren kasua ere azpimarratzeko modukoa iruditzen zaigu. Berdin jokatu luke epaimahaia azalpena gaztelania hutsean ematen duen herritarrekin?

3. ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BALORAZIOA

ADMINISTRAZIOA	
MINISTERIO DE CULTURA	1
EUSKO JAURLARITZA	14
NAFARROAKO GOBERNUA	8
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	1
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	1
IRUÑEKO PLANETARIOA	1

Espainiako Estatuko Administrazioaren hizkuntza-politika bitxia da. European Estatuan ofizialkideak diren hizkuntzentzat ofizialtasuna aldarrikatzen duen bitartean, berak oraindik ere gaztelania hutsean dauzka herritarren eskura jartzen dituen formulario eta inprimakiak, hizkuntza-eskubideak ezezik, legeak ere urratuz.

Eusko Jaurlaritzak jaso dituen kexek erakusten dutenez, Kultura Sailak ez du oraindik elebitasuna bermatzen herritarrekiko harreman idatzietan. Ahozko harremanean ere, oraindik urratu egiten da herritarrek berak hauta dezan hizkuntzan artatua izateko duen eskubidea. ETBri zuzendutako kexek berriz, agerian jartzen dute, herritarrek informazioa edo telebistako emankizunak euskaraz jasotzeko duten eskubidea ere, behin baino gehiagotan urratzen dela.

Nafarroako Gobernuak bere aldetik, duela urte batzuk abiatu zuen eremu publikotik euskararen presentzia oro ezabatzeko bideari eutsi dio. Horrela, inprimakien idazpuru eta errotuluetatik euskarazko izendapenak kentzea, zerbitzua euskaraz ezin jaso izatea, jakinarazpenak lege ezarritako eremu euskaldunera ere gaztelania hutsean igortzea, informazio orokorreko orriak gaztelania hutsean argitaratzea,... eguneroko urraketa bihurtu dira, Nafarroako Arartekoak eta Europako instantziek eginiko gomendio guztien gainetik.

Bizkaiko Foru Aldundiak jaso duen kexak berriz, adierazten du erakunde horrek kudeatzen dituen zerbitzu guztietan ez direla oraindik herritarrekiko harremanak euskaraz bermatzen.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea urratu da, euskarazko bertsioan azalpenak gaztelaniaz emateagatik.

Iruñeko Planetarioak berriz, ez ditu euskaldunen hizkuntza-eskubideak aintzat hartu, sarreak gaztelania hutsean inprimatuta baitaizka.

4. ERANTZUNAK

Espainiako Ministerioak ez dio erantzun Behatokiak helarazitako kexari.

Eusko Jaurlaritzak, nahikoa sistematikoki erantzun die Behatokiaren jakinarazpenei. *Hizkunearen* harpidetzaren kasuan, kexa jaso bezain laster erantzun zuen barkamena eskatuz. Ez zuten mezua gaztelania hutsean bidaltzen ari zirenen berririk, kanpoko erabiltzaileei bidaltzen zaizkien mezuen jarraipenik ez dutelako egiten. Hala ere, okerra ahalik eta lasterren konpontzen ahaleginduko zirela jakinarazi zuten, eta hala egin bide zuten, kexa gehiagorik ez baita jaso Behatokian.

Auzolandegian parte hartu zuen herritarrak galdetegia eta e-maila gaztelania hutsean jaso zituen kasuari dagokionez, Gazteria Zuzendaritzaren esanetan Jaurlaritzak INJUVE eta EAEko gazteen arteko bitartekari lana besterik ez du egin. INJUVEk gaztelania hutsean bidali zuen galdeketa, eta bere ustez inertiak eragin zuen e-maila ere gaztelania hutsean idaztea. Gazteriaren Zuzendaritzak INJUVEri aurrerantzean EAEko herritarrentzat prestatzen dituzten komunikazioetan lurraldean ofizialak diren bi hizkuntzak erabiltzeko eskakizuna egingo diela jakinarazi du.

Bi erantzun hauetan argi gelditzen da administrazioako langileek oraindik ere ez dutela behar bezain barneratua herritarrei bidaltzen dizkieten jakinarazpenak ele bietan egiteko duten betebeharra, baldin eta hauek espresuki hizkuntza bakar batean egitea eskatzen ez badute. Oro har, inertzia horiek euskaldunen hizkuntza-eskubideak kaltetzen dituzte ia gehienetan.

Nafarroako Gobernuak, ohikoa duen moduan, ez dio Behatokiak helarazitako kexa bakar bati ere erantzun. Ez da harriztekoa, Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak euskarari eremu mistoan eremu euskaldunean ematen dion babesaren parekoa emateko eskaera egin arren, Hizkuntza Politikarako Zuzendariaren irakurketaren arabera, txostenean Nafarroako Gobernuak legea ongi betetzen duela esaten baita.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Urduñako Aterpetxean zerbitzua euskaraz jasotzerik izan ez zuen herritarraren kasuari erantzunez azaldu du, gazte aterpetxeetan egiten den informazioa euskaraz eta gaztelaniaz egoten dela eta Urduñako aterpetxean ematen den informazio ofizial guztia euskarara itzulita dagoela (informazio-orria, oharrak, errotuluak). Informazio-arretarako langileek informazioa euskaraz eman ahal izateko legezko eskakizun guztiak betetzen omen dituzte gainera. Gaztelania hutsezko inprimakia eman izana giza akats bat izan liteke Kulturako Foru Diputatuaren ustez, euskarazkoa ere bai baitago. Ez du azaltzen ordea, zergatik ez zitzaion herritarrari harrera euskaraz egin.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jakinarazi digunez "XIX. Mendeko Albuma" web orriaren euskarazko bertsioan hainbat atal gaztelania hutsean badaude, lana fase ezberdinetan burutzen ari delako da, eta webgunearen euskarazko bertsioa otsailaren erdirako egongo da prest.

Iruñeko planetarioak ez dio kexari erantzun.

5. SINOPSIK: KULTURA

Zenbakia: 183/2005	Erakundea: MINISTERIO DE CULTURA	Gipuzkoa
Arazoia:	ISBN lortzeko harremanetarako sistema guztiak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 331/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA	Gipuzkoa
Arazoia:	DKUBIDETik bidali dituzten inprimakiekin batera iritsi zaien gutuna gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 535/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA. HABE	Gipuzkoa
Arazoia:	2005eko abuztuaren 25ean HABEK Donostian duen liburutegiko harreraren zegoen langilea erdalduna zen.	
Zenbakia: 580/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA	Gipuzkoa
Arazoia:	Herritarrak Eusko Jaurlaritzaren Auzolandegietako programan parte hartu ondoren, koordinatzaileak e-mail bana bidali zien guztiei, esperientziaren inguruko galdeketa batekin batera. E-maila eta galdeketa gaztelania hutsean zuden.	
Zenbakia: 603/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA	Bizkaia
Arazoia:	Hizkunea aldizkari elektronikoaren harpidetza egin du herritarrak. Harpidetza egindakoan mezu elektronikoak igorri diote zerrenda nola erabili ahal izateko. Mezua gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 604/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA	Gipuzkoa
Arazoia:	Hizkunea aldizkari elektronikoaren harpidetza egin du herritarrak. Harpidetza egindakoan mezu elektronikoak igorri diote zerrenda nola erabili ahal izateko. Mezua gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 605/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA	Nafarroa
Arazoia:	Hizkunea aldizkari elektronikoaren harpidetza egin du herritarrak. Harpidetza egindakoan mezu elektronikoak igorri diote zerrenda nola erabili ahal izateko. Mezua gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 606/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA	Gipuzkoa
Arazoia:	Eusko Jaurlaritzako HPSK argitaratu berri duen Hizkunea aldizkari elektronikoaren harpidetza egiterakoan, Jaurlaritzaren zerrenden kudeaketarako webgunearen informazioa gaztelaniaz eta ingelesez agertzen da, euskaraz ez. Harpidetzaren konfirmazioa igorri diotenean, mezua gaztelania hutsean (eta gaia ingelesez) jaso du.	
Zenbakia: 611/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA	Bizkaia
Arazoia:	Herritarrak alta eman du HOSK kudeatzen duen zerrenda batean. Horren inguruko argibideak helarazi dizkiote mezu baten bidez, gaztelania hutsean	
Zenbakia: 613/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA	Gipuzkoa
Arazoia:	Hizkunea aldizkari elektronikoaren harpidetza egin du herritarrak. Harpidetza egindakoan mezu elektronikoak igorri diote zerrenda nola erabili ahal izateko. Mezua gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 656/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA	Gipuzkoa
Arazoia:	Urriaren 26an, musika ekoizpenaren modalitateko dirulaguntza baten proiektua epaimahaiaren aurrean defendatu behar izan zuen. Aurkezpena egitera zihoala, gaztelaniaz egin behar zuela adierazi zitzaion. Herritarrak euskaraz egiteko eskubideari etsi zion eta euskaraz egin zuen aurkezpena. Laburpen bat egin behar izan zuen gaztelaniaz, erdaldunek uler zezaten. Behartuta egiten ari zela adierazi zien eta berehala moztu zioten.	
Zenbakia: 10/2005	Erakundea: EUSKAL IRRATI TELEBISTA. EITB	Gipuzkoa
Arazoia:	ETB-lek abenduaren 30ean Eusko Legebiltzarrean egin zen saioa oso-osorik eman zuen, parlamentari gehienak gaztelania hutsean aritu ziren arren.	
Zenbakia: 67/2005	Erakundea: EUSKAL IRRATI TELEBISTA. EITB	Bizkaia
Arazoia:	Juan Jose Ibarretxe 2005eko otsailaren lehen Espainiako parlamentuan egin duen agerraldia ezezik bilkura osoa eskaini du zuzenean ETB-lek. Gormutuentsako hizkuntza kontuan izan du, baina dena gaztelaniaz egin dute.	
Zenbakia: 71/2005	Erakundea: EUSKAL IRRATI TELEBISTA. EITB	Nafarroa
Arazoia:	2005eko otsailaren lehen euskarazko katean Espainiako Kongresuaren osoko bilkura zuzenean eskaini zuten, nahiz eta bertako interbentzio guztiak gaztelaniaz hutsez egin.	
Zenbakia: 637/2005	Erakundea: EUSKAL IRRATI TELEBISTA. EITB	Gipuzkoa
Arazoia:	2005eko urriaren 20an herritarrak EITBra deitu zuen programazioan egondako aldaketa baten inguruan kexa adierazteko. Iurretako telefonora deitzez esan zioten (946031000). Zenbaki horretara deitu eta emakume batek erdaraz hitz egin zion. Herritarrak eskatu zuten, mesedez, euskaraz zekien norbaitekin pasatzeko eta emakume honek esan zion gaztelaniaz hitz egin ezean telefonoa eskegiko zuela.	
Zenbakia: 203/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. UNIB. ETA HIZ. POL.	Nafarroa

Arrazoa:	Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikako Zuzendaritzak gaztelania hutsean bidali dio orain urte t' erdi egin zuen ikastaroaren ziurtagiria.	
Zenbakia: 783/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA. UNIB. ETA HIZ. POL.	Nafarroa
Arrazoa:	Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusitik bidali duten jakinarazpena zekarren gutunazala gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 65/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. KULTURA ETA TURISMO DEPARTAMENTUA	Nafarroa
Arrazoa:	Kultura eta Turismo Departamentuaren liburuen legeko gordailua eskatzeko inprimaketan lehen ele bietan zeuden idazpuruak gaztelania hutsean ageri dira.	
Zenbakia: 186/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. KULTURA ETA TURISMO DEPARTAMENTUA	Nafarroa
Arrazoa:	2005eko apirilaren 19an Baluarteen Pekingo Ballet nazionalaren emanaldian sarrerak hartzen zegoen langilea ez zen euskalduna, megafoniako mezuak gaztelania hutsean eman zituzten, eta ekitaldiari buruzko informazio liburuak ere gaztelania hutsean zegoen.	
Zenbakia: 187/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. KULTURA ETA TURISMO DEPARTAMENTUA	Nafarroa
Arrazoa:	Baluartek programazioa ezagutarazteko herritarren eskura jartzen dituen egitarauak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 206/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. KULTURA ETA TURISMO DEPARTAMENTUA	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuaren Argitalpen fondoan saltokira joan da herritarra eta ezin izan du zerbitzua euskaraz jaso. Erosi dituen liburuen faktura gaztelania hutsean luzatu diote eta liburua sartzeko eman dioten poltsa korporatiboa ere gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 232/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. KULTURA ETA TURISMO DEPARTAMENTUA	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Gobernuko Kultura Departamentuak Nafarroako irudi turistiko berriaren aurkezpen ekitaldira joateko legeak ezarritako eremu euskalduneko erakunde bati bidali dion gonbidapena gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 694/200	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. KULTURA ETA TURISMO DEPARTAMENTUA	Nafarroa
Arrazoa:	Kultura Kontseilariak gaztelania hutsean bidali dio herritarri erakusketa baterako gonbidapena.	
Zenbakia: 28/2005	Erakundea: IRUÑEKO PLANETARIOA	Nafarroa
Arrazoa:	Iruñeko planetarioak gaztelania hutsean luzatzen ditu sarrera-txartelak.	
Zenbakia: 209/2005	Erakundea: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. KULTURA SAILA	Bizkaia
Arrazoa:	Urduñako aterpetxean ezin izan zioten harrera euskaraz egin. Hortaz gain bertan dauden informazio-orri, ohar eta errotuluetan ez da euskararik ageri.	
Zenbakia: 772/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. KULTURA ZUZENDARITZA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Gipuzkoako Foru Aldundiaren www.albumsiglo19mendea.net orrian jarri dituzten grabatuen azalpenak gaztelaniaz daude. Adibidez: <i>Notak: Escala. Leyenda. Orientación representada con una cruz. Inscripción: Leve geométricamente en 1794. Inscripciones manuscritas en el verso y reverso. Están dibujadas las líneas de disparo desde las diferentes baterías.</i>	

EREMUA: PUBLIKOA

BESTELAKOAK

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 31

Atal honetan hainbat administrazio edo erakundetako kexak landu ditugu, hain zuzen ere, aurreko eremuetan ahokaterik ez zeuden administrazio eta erakundeei bideratutakoak.

2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

2.1. Izaera

Kexa guztiek herritarren hizkuntza-eskubideak ez ezik, gehienek egungo legeria ere urratzen dute.

2.2. Puntueltasuna / sistematikotasuna

2.2.a. Errepikakortasuna

Hainbat erakundetako kexak direla kontuan harturik, ez dugu datu nahikorik errepikakortasunari buruzko iruzkina agertzeko. Hala ere, aurreko urteetan jasotako kexak eta aurtengoak kontuan harturik, Bilbao Exhibition Center-BEC erakustazokak eta CORREOS erakundeak aipamen berezia merezi dute.

BEC eraikinean Gabon Parkean beste behin ere hainbat kartel eta ohar gaztelania hutsean jarri izan dituzte eta hainbatetan umeein dauden begiraleak ere ez dira elebidunak. Kexa horiek aurreko urtean ere jaso eta bideratu zituen Behatokiak.

Bestalde CORREOS erakundeari bideratutako kexak ere aipatzekoak dira. Behin eta berriz errepikatzen dira zenbait kexa, eta beraz, hizkuntza-eskubideak bermatzeko aurrerapausorik ematen ez dutela ondorioztatzen dugu. Are gehiago, kexa gehien zioak azken bost urteetan jaso ditugula kontuan hartuta.

2.2.b. Erabilera

KEXEN ZIOA

Idatzizko komunikazioak

Ikasketak

Ahozko harremana

Eskuorriak

Inprimakiak
Errotulazioa

Erabilerari dagokionez hainbat kexa-mota jaso ditugu. Hala ere, ohikoenak idatziko jakinarazpenak izan dira.

Aipagarria da, esaterako Nafarroako Gobernuak epaitegietan hartutako erabakia irmo egiteko urratsa behin eta berriro atzeratzea, hain zuzen ere, Orkoiaren herriko toponimo ofizialari buruz. Izan ere, Aldizkari Ofizialean argitaratzea besterik ez da falta horretarako eta Gobernuak gaztelaniazko toponimoa erabiltzen jarraitzen du.

Egun, oraindik, inprimakiak, errotulazioa... gaztelania hutsean daude CORREOS enpresaren bulegoetan; are gehiago, eskutitzei jartzen dieten zigilua ere gaztelania hutsean egoten jarraitzen du. Horrek ez du esan nahi lehenagoko elementuetara besterik mugatzen direla urraketak, 108/2005 espedienteak agertu bezala, bulego horretan txanda hartzeko jarri dituzten makina berrietako txartelak ere gaztelania hutsean daude. Hortaz, nahiko argi geratzen da erakunde horrek ez diela erreparatzen ez hizkuntza ofizialtasunari, ez eta eskubideen bermeari ere.

Errotulazioari dagokionez, berriki eraiki diren egoitzetan ere, BEC kasu, gaztelania hutsean jarri dituzte larrialditarako hainbat txartel ere. Gogoan izan dezagun, errotuluak direla hizkuntza-eskubideen babesean esfortzu gutxien, eta halaber, hizkuntza paisaia eragin handia duen elementua.

2.3. Larritasuna

Oso larria da Eusko Jaurlaritzako Industria, Turismo eta Merkataritza sailak euskarazko dokumentaziorik onartu ez izana. Egun, sail horrek kudeatzen du patenteen bulegoa, eta eskaerak Madrilera igorri behar badira ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bitartekoak jarri beharko lituzke herritarrak eskaera euskaraz egin badu, hori onartu eta itzulpenaz arduratzeko. Ezin uka dakioke herritarrari euskaraz zuzentzeko eskubidea.

Hori berori CORREOS enpresarekin ere gertatu izan zaio herritar bati, izan ere, erreklamazioak aurrera egin zezan nahi izanez gero, gaztelaniaz bidaltzeko eskatu zion langile batek herritarrari.

3. ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BALORAZIOA

ADMINISTRAZIOA	
CORREOS	8
MINISTERIO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIM	1
EUSKO LEGEBILTZARRA	3
NAFARROAKO GOBERNUA.	3

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEP.	
NAFARROAKO PARLAMENTUA	1
EUSKO JAURLARITZA	2
LEHENDAKARITZA	
EUSKO JAURLARITZA.	4
INDUS., TURISMO ETA MERKATARITZA SAILA	
EUSKO JAURLARITZA	1
LUR. ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA	
EUSKO JAURLARITZA	2
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA	
ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK	1
FICOPA	1
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	1
DIPUTATU NAGUSIA	
BEC. BILBAO EXHIBITION CENTRE	2
EAEKO ARARTEKOA	1

Lehen esan bezala atal honetan hainbat administrazio txertatu badugu ere, bi erakunde aipatu nahiko genituzke. Batetik, CORREOS enpresa izango genuke, izan ere, hizkuntza normalkuntzari eta hizkuntza-eskubideen bermeari begira erakutsi duen jarreraren atzerapauso zantzuak daudela esan baitezakegu. Bestetik, BEC aipatu behar dugu; izan ere, Euskal Herriko zein nazioarteko erreferentea izanik, ez dago onartzerik, oinarritzko elementuetan euskarari emandako trataera, edota aurreko urteetan argitaratzen zuen aldizkarian euskarari tokirik egin ez izana.

4. ERANTZUNAK

Atal honetan aztertutako kasuei dagokienez, gehienetan erantzuna bidali dute kexa jaso duten erakundeek. Oro har, erantzun guztietan Behatokiak egindako lana onetsi egin dute, bai eta eskertu ere kexak bidali izana.

Zenbait kasutan, CORREOSek, esaterako, beraiei dagokien kexa konponduko dutela adierazten zaio Behatokiari, baina zerbitzuetarako kontratatzen dituzten enpreei ere hizkuntza-irizpideak kontuan hartzeko eskatuko dietela azaltzen dute.

Beste zenbait erakundek, besteak beste Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailak edo Eusko Legebiltzarrak, horrelakorik gerta ez dadin neurriak hartzen ari direla adierazi dute; bai eta bidean ari direla ere. Horrelakoetan ere, Behatokiak begi onez hartu ditu erantzunak, izan ere, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko prestutasun handia azaltzen da

Azkenik, beste kasuren batean, FICOBAn esaterako, akatsa izan dela jakinarazi eta konpondu egin dutela adierazi dute, izan ere, materiala euskaraz egonik ere Nafarroara gaztelaniaz besterik ez zuten bidali. Edota Euskal Autonomia Erkidegoko Arartekoaren kasua, herritarrari inkesta gaztelaniaz

igorri zitzaion, eta haiek azaldu bezala, akatsa besterik ez zen izan, euskarazko bertsioa bidaltzen dietelako erreklamazioa euskaraz egiten duten herritarrei. Kasu horietan ere, Behatokia bezalako erakunde lanaren garrantzia islatzen da, konponbide ahalik eta azkarrena emango dela bermatzeko.

Nafarroako Gobernutik zein Parlamentutik erantzunik ez da izan.

5. SINOPSIK: BESTELAKOAK

Zenbakia: 107/2005	Erakundea: CORREOS	Gipuzkoa
Arrazoa:	Donostiako Urdaneta kaleko Posta Bulegoan erabiltzaileen eskura jarri duten eskuorri-egutegia gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 108/2005	Erakundea: CORREOS	Gipuzkoa
Arrazoa:	Donostiako Urdaneta kaleko posta bulegoan txanda hartzeko makinak jarri dituzte. Makina horrek luzatzen dituen txarteletan gaztelania da nagusi.	
Zenbakia: 134/2005	Erakundea: CORREOS	Gipuzkoa
Arrazoa:	Donostiako posta bulego nagusian errotulazio guztia gaztelania hutsean dago, baita inprimaki batzuk ere.	
Zenbakia: 181/2005	Erakundea: CORREOS	Nafarroa
Arrazoa:	Lizarrako postetxean erreklamazio bat jartzera joan zen herritarra. Herritarrek euskaraz idatzi zuen erreklamazioa. CORREOSEko enplegatuak ez zuten erreklamazio hartu nahi izan eta erreklamazio gaztelaniaz idatzera behartu zuen herritarra.	
Zenbakia: 212/2005	Erakundea: CORREOS	Gipuzkoa
Arrazoa:	Donostiako posta bulego batean erabiltzaileen eskura dauden inprimaki guztiak (burofaxak, errenboltoak, giroak) gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 333/2005	Erakundea: CORREOS	Araba
Arrazoa:	Laneko kontu batengatik erreklamazio bat bidali zuen herritarrek Gasteizko Posta eta Telegrafo buruari zuzenduta eta euskaraz idatzita. Telefonoz deitu eta berak ez zekiela euskaraz eta ezta zertan jakinik ere jakinarazi zion herritarri modu txarrean eta erreklamazioak aurrera egitea nahi bazuen gaztelaniaz idatzi beharko zuela berak faxez bidaliko zion inprimakian. Inprimakia iristen ez eta herritarrek telefonoz deitu zuen. Bitartean keza bideratu zutela jakinarazi zioten. Hala ere inprimakia eskatu zuen. Inprimakia gaztelania hutsean jaso zuen.	
Zenbakia: 336/2005	Erakundea: CORREOS	Nafarroa
Arrazoa:	Lantokian jaso dudun gutunaren azaleko zigilu-marka gaztelania hutsez dago gutuna Bizkaitik datorren arren.	
Zenbakia: 395/2005	Erakundea: CORREOS	Bizkaia
Arrazoa:	Correosen giro postala jartzera joan zen herritarra eta giroa egiteko inprimakiak gaztelania hutsean zeuden.	
Zenbakia: 308/2005	Erakundea: MINISTERIO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN	Araba
Arrazoa:	Maiatzean Baskoniaren partida batean Nekazaritza ministerioaren kanpaina baten berri eman zuten eta horretarako inkesta bat eman ziguten partidara joan ginen guztioi. Inkesta hori gaztelania hutsez zegoen	
Zenbakia: 19/2005	Erakundea: EUSKO LEGEBILTZARRA	Araba
Arrazoa:	2005eko urtarilaren 3an Eusko Legebiltzarreko Lehendakariatzatik gaztelania hutsean bidali zuten hedabideetara prentsa oharra.	
Zenbakia: 20/2005	Erakundea: EUSKO LEGEBILTZARRA	Araba
Arrazoa:	Eusko Legebiltzarreko ZABALIK zerbitzutik gaztelania hutsean bidali dute jakinarazpena eta informazioa hedabideetara.	
Zenbakia: 52/2005	Erakundea: EUSKO LEGEBILTZARRA	Bizkaia
Arrazoa:	Eusko Legebiltzarretik gaztelania hutsean bidali zuten Legebiltzarrean onartutako Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoa eraberritzeko proposamena eskuratu ahal izateko egin beharrekoari buruzko informazioa.	
Zenbakia: 536/2005	Erakundea: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARARTEKOA	Bizkaia
Arrazoa:	Arartekoak herritarrek bidalitako keaxaren erantzunarekin batera galdesorta bat bidali dio. Galdetegia gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 82/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. LEHENDAKARITZA	Gipuzkoa

Arrazoa:	http://www.kzgunea.net webgunean euskarari tratamendu axolagabea ematen zaio. hainbat eduki gaztelania hutsean daude, estekak adibidez, euskarazko orriari esanik, gaztelaniazko orriari esanik ematen dute lotura batzuk (Foroa adibidez). Lehen orriari esanik hain gaztelaniaz dago soilik: entrada accesible euskera accesible castellano accesible entrada general euskera no accesible castellano no accesible... eta abar.	
Zenbakia: 271/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. LEHENDAKARITZA	Araba
Arrazoa:	Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiak 2005eko maiatzean zehar 3 komunikazio bidali ditu gaztelania hutsean hedabideetara	
Zenbakia: 74/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPART.	Nafarroa
Arrazoa:	Eremu euskalduneko herritar batek 2005eko otsailaren 10ean, arratsaldeko 18:30etan, Nafarroako Gobernuko zentralitara deitu du eskaera baten inguruko zehaztapenak behar zituelako. Herritarra euskaraz zuzendu zaio zentralitako langileari. Honek 3 aldiz eseki dio inolako azalpenik eman gabe. Laugarrenez deitu eta gaztelaniaz galdetu dio ea euskaraz mintzatzeagatik eseki dion aurrekoetan, eta telefonistak baietz erantzun dio, horrexeagatik beragatik eseki diola.	
Zenbakia: 428/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPART.	Nafarroa
Arrazoa:	Etzarri-Aranazko liburuzain lanpostuari inolako hizkuntz eskakizunik ezartzen ez dion lekualdatze-lehiaketaren aurkako helegitea.	
Zenbakia: 641/2005	Erakundea: NAFARROAKO GOBERNUA. LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPART.	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Auzitegiak ORKOIEN toponimoaren aldeko epaia eman arren, Nafarroako Gobernuak ORCOYEN erabiltzen jarraitzen du NAOn.	
Zenbakia: 415/2005	Erakundea: NAFARROAKO PARLAMENTUA, LEHENDAKARITZA	Nafarroa
Arrazoa:	Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeko lan saioan parte hartzeko gonbidapen eskutitza gaztelania hutsez jaso du herritarrek. Orriaren eta faxaren idazpuruak ere gaztelania hutsez daude.	
Zenbakia: 110/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. INDUSTRIA, TURISMO ETA MERKATARITZA SAILA	Araba
Arrazoa:	2005/02/11n Eusko Jaurlaritzak Gasteizko Samaniego kalean duen 'Europar Kontsumo Bulegoan' ez garrerako segurtasuneko langileak, ez garrerako funtzionarioak, ezta bulego barnean kontsumitzailearen kezak kudeatu behar dituenak ere, ez zekiten euskaraz. Azkena beste norbaitekin bila jeiki zen, eta beste erdaldun batekin etorri zitzaion herritarriari.	
Zenbakia: 508/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. INDUSTRIA, TURISMO ETA MERKATARITZA SAILA	Bizkaia
Arrazoa:	Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Oficina Española de Patentes y Marcasen Bulegoan marka erregistratzeko ematen dituzten inprimaki gaztelania hutsean daude. Euskarazkorik baduten galdetuta ezetz erantzun diote herritarriari. Gainera, espedienteak atzera bota dute eskaera euskaraz idatzita bidaltzeagatik	
Zenbakia: 719/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. INDUSTRIA, TURISMO ETA MERKATARITZA SAILA	Bizkaia
Arrazoa:	Industria, Merkataritza eta Turismo Sailako Nazioarteko Zuzendaritzatik enpresa bati bidali dioten agiriaren euskarazko bertsioak akats ditu.	
Zenbakia: 720/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. INDUSTRIA, TURISMO ETA MERKATARITZA SAILA	Bizkaia
Arrazoa:	Industria, Merkataritza eta Turismo Sailerik enpresa bati bidali dioten jakinarazpenean, Sailarekin sinatu beharreko lankidetzaren arabera euskarazko eta gaztelaniazko aleak, biak sinatzeko eskatu diote.	
Zenbakia: 597/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA	
Arrazoa:	Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduko Sailaren ordezkarietan dirulaguntza baten eskaerarako dokumentazioa aurkezterakoan herritar batek bertako langileari euskaraz egin zion arren, honek gaztelaniaz erantzun zion eta azkenean gaztelaniaz hitz egiten bukatu zuten.	
Zenbakia: 404/2005	Erakundea: EUSKO JAURLARITZA. NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA	Araba
Arrazoa:	Vital Kutxak 2005eko Mahats Bilketaren XXII. Festako kartelaren aurkezpena egiteko prentsaurrekorako oharra bidali zuten hedabideetara. Bertan Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailako ordezkari batek parte hartu zuen. Prentsa ohar hau gaztelania hutsean bidali zuten hedabideetara.	
Zenbakia: 403/2005	Erakundea: ARABAKO FORU ALDUNDIA. NEKAZARITZA SAILA	Araba
Arrazoa:	Vital Kutxak 2005eko Mahats Bilketaren XXII. Festako kartelaren aurkezpena egiteko prentsaurrekorako oharra gaztelania hutsez idatzita zegoen. Bertan Arabako Nekazaritza Foru Diputatuak parte hartu zuen. Prentsa ohar hau gaztelania hutsean bidali zuten hedabideetara.	
Zenbakia: 146/2005	Erakundea: ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK	Araba
Arrazoa:	Prentsa arduradunak gaztelania hutsean bidali ditu hedabideetara prentsa deialdia eta prentsa oharra 2005eko martxoaren 11n.	
Zenbakia: 9/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. FORU DIPUTATU NAGUSIA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Diario Vasco egunkariak "blog-amp;roll" izeneko lehiaketa antolatu dute. Maiatzaren 3tik aurrera Diario Vasco egunkarian sortutako blog saritzeko lehiaketa da. Interfaze delakoa gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 715/2005	Erakundea: FICOPA	Nafarroa

Arrazoa:	FICOBak Nafarroako Nekazaritza Produkzio Ekologikoaren Kontseiluko bazkide diren ekoizleei 2006ko maiatzaren 26, 27 eta 28an egingo den Bioterra 2006 azokaren berri emanez bidali dien informazioa gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 24/2005	Erakundea: BILBAO EXHIBITION CENTER. BEC	Bizkaia
Arrazoa:	BEceko Gabon Parkean barraketan jarri dituzten errotulu batzuk gaztelaniaz hutsean daude, hala nola, "no está permitido el acceso a los menores de 8 años si no van acompañados de un adulto", "prohibido comer en esta zona" eta abar.	
Zenbakia: 25/2005	Erakundea: BILBAO EXHIBITION CENTER. BEC	Bizkaia
Arrazoa:	BEceko eraikin guztietan, larrialdietako irteeren errotulazio finkoa gaztelania hutsean dago.	

EREMUA: PUBLIKOA

UDALAK

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 121

2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

2.1. Izaera

Bideratutako espediente guztiek dute kexa izaera, eta beraz, kasu guztietan urratu da hizkuntza-eskubidea. Era berean, kasurik gehienetan eskubidea ez ezik legea ere urratu da.

Udal administrazioa eta udalerrria arautzen dituen ordenantzak ere kasu askotan urratu izan dira.

2.2. Puntueltasuna / sistematikotasuna

2.2.a. Errepikakortasuna

Kontuan harturik Euskal Herriko udalei buruzko azterketa egiten ari garela, zaila da puntueltasun edo sistematikotasunaz hitz egitea modu orokorrean, hala ere, zenbait udaletan horren zantzuak daudela egiaztatu ahal izan dugu. Are gehiago, zenbait toki administrazioetan atzerapausoak ere eman izan dira.

2.2.b. Erabilera

KEXEN ZIOA

Ahozko zerbitzua gaztelaniaz
 Idatzizko jakinarazpen pertsonalizatua gaztelaniaz
 Idatzizko jakinarazpen orokorrak gaztelaniaz
 Inprimakiak gaztelania hutsean
 Publizitatea gaztelania hutsean
 Errotulazioa gaztelania hutsean
 Webguneak gaztelania hutsean
 Lanpostuetako derrigortasunak kentzea
 Kultur ekitaldirik ez euskaraz
 Ikastarorik ez euskaraz
 Bestelakoak

Zenbait udalek hedabideekin duten idatzizko harremanetan gaztelania besterik ez erabiltzea da askotan errepikatzen den kexen zioa. Bestalde, herritarrei

helarazten zaizkien jakinarazpenetan gaztelania besterik ez agertzea ere ohikoa da, kasu askotan inprimakia ele bietan egon arren.

Aipatzekoa da, hainbat udal administraziook hedabideei igortzen dizkieten jakinarazpenak behin eta berriz gaztelaniaz izaten direla, edota Udalak argitaratzen dituen aldizkarietan euskararen presentzia atzerriko hizkuntzen presentziaren parekoa izatea...

Bestalde, kartelak, oharrak, iragarkiak eta abar gaztelania hutsean jartzeak ere kexen zio nagusienetakoa izaten jarraitzen du, ondorioz, aurreko urteetan jasotako joerari eutsi egin zaio berriz ere.

Azkenik, udalak eskaintzen dituen hainbat zerbitzutan euskararen eta gaztelaniaren arteko orekari ez egotea behin eta berriro salatu dute herritarrek: euskarazko ikastaro gutxiago eskaintzea...

2.3. Larritasuna

2005 urtean Euskal Herriko udaletan izandako eskubide urraketen larritasunak aurreko urteetakoa gainditu duela esan behar dugu. Horrela, herritarren arteko bereizkeria kasu oso agerikoak izan direla egiaztatu ahal izan dugu.

Hona hemen horien arteko batzuk:

- Ume euskaldunentzako musika ikastarorik ez eskaintzea.
- Umeentzako jardueretan hezitzaile elebidunik ez egotea
- Euskaraz egindako eskaeren erantzunak izugarri atzeratzea.
- Udalak helduentzat eskaintzen dituen ikastaroetatik %1,56 besterik ez izatea euskaraz.
- Bandoak sistematikoki gaztelaniaz argitaratzea, lehen ele bietan argitaratzen ziren arren.

3. ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BALORAZIOA

ADMINISTRAZIOA

GASTEIZ 10	ZALLA 1
AGURAIN 1	DONOSTIA 23
GOPEGI 1	ARETXABALETA 1
DULANTZI 1	ARRASATE 1
ZIGOITIKO UR PARTZUER. 1	AZKOITIA 2
BILBO 15	ERRETERIA-ORERETA 2
ABADIÑO 1	HERNANI 1
BARAKALDO 8	OIARTZUN 3
BASAURI 2	ORDIZIA 1
BERMEO 1	BAIONA 2
DERIO 5	MIARRITZE 1
DURANGO 1	IRUNEA 4

ERMUA 2	IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA 2
GETXO 1	BAZTAN 4
LEIOA 1	OLAZTI 13
LEKEITIO 1	ORKOEN 1
PORTUGALETE 3	UHARTE-IRUÑA 1
SANTURTZI 1	ZIZUR NAGUSIA 1
SESTAO 1	

Udal horiek guztiek eragindako hizkuntza-eskubideen urraketak kontuan harturik, Behatokiak horietarik zenbait propio agertu nahi izan ditu larritasunarengatik:

Azkoitiko Udala

Udalak izendatutako arkitekto-tekniko zerbitzu-buruak ez zuten lanpostu horri dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu. Halaber, hizkuntzaren ezagutza egokia ez ezik, lanpostu horri dagokion A mailako titulaziorik ez zuten, baina horri ez zion erreparatu Behatokiak

Behatokiak landutako informazioaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak honakoa jaso zuen hartutako neurriari buruz egindako txostenean:

Egia esan, erabat larri, araz kontrakoa eta baita Azkoitiko Euskararen Udala Plangintzaren aurkako neurria da, udal-arkitekto/zerbitzu-buru lanpostua betetzerakoan lanpostuak ezarrita duen 4. HE-ren egiaztagiria lortuta ez daukanik horretarako izendatu gura izatearen proposamena egitea.

Izan ere, aipatu neurria indarrean dagoen legeriaren aurka zetorren, besteak beste, 86/1997 Dekretuaren aurka, Euskal Autonomia Elkarte herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena; edota 6/1989 Funtzio Publikoaren Legearen aurka.

Behatokiak oso larritzat jo zuen hartutako neurria, izan ere, udalaren funtzionamendua euskaraz izateko oztupo berria baitzen.

Basauriko Udala

Basauriko Udalak derrigorrezko hizkuntza ezagutza kendu zion Giza Balaibide Atal Buruari.

Gertaeren hurrenkerari buruzko pare bat datu ematearren, hona hemen aipatu lanpostuaren derrigorrezko hizkuntza eskakizunari buruzko gorabeherak:

- 2005eko otsailaren 8ko Euskara Batzordearen bileran, Lehendakariak langile bati euskararen ezagutzaren derrigortasun data bi urtez

atzeratzeko proposamena egin zuen. Bi jarreraren artean berdinketa izan zenez, Lehendakariaren botoak erabaki zuen. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara proposamenaren berri helaraziko zitzaioela adierazi zuten.

- Bai Euskara Teknikariaren txostenaren arabera, bai eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik igorritako txostenaren arabera, derrigortasun dataren aldaketa bidezkoa ez zela agertu zuten.
- Halaber, langileak 2003ko irailaren 30ean derrigortasunetik salbuetsita egotea eskatu zuen. 2004ko azaroaren 19an erantzunik jaso ez zuenez isiltasun administrazioa eskatu zuen.
- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak horren inguruan prestatutako txostenaren arabera, langileari ezin zaio hizkuntzaren ezagutzarengatik salbuespenik eman.
- 2005ko ekainaren 8an onartu egin zitzaion isiltasun administratiboa, eta ondorioz, langileak euskararen derrigorrezko ezagutzatik salbuetsi dute.
- Horrela, lanpostuari derrigorrezko hizkuntza eskakizuna kentzea izan da honen atzean egon den azken helburua, bide desberdinak erabili edo baliatu badituzte ere.

Kontuan harturik Giza Baliabide Atal Buruaren funtzioak, ez zegoen ulertzerik Alkatetzak kalte ondorioz izango ez zela ondorioztatzea, eta beraz, salbuespena ematea. Lanpostu horri derrigorrezko hizkuntza eskakizuna kendurik, herritarren eta langileen hizkuntza-eskubideen urraketek bidea eman zitzaioela uste dugu, bai eta Udalean hizkuntzaren normalizazioari galga edo balazta jarri ere.

Donostiako Udala

Donostiako Udalarik dagokionez, bi eremu dira agertu nahiko genituzkeenak: batetik, langileen hizkuntza eskakizunekin lotutako kekek eta, bestetik, udal ordenantzarik jarraitzen ez dioten txartelak.

Lehenari dagokionez, bi kasu berezi landu dira 2005 urtean. Lehena Kirol Patronatuko Antolamendu eta Giza Baliabideetarako Arduradunaren lanpostuari hizkuntzaren ezagutza maila 4. hizkuntza eskakizunetik 3.era jaitsi izana izan da.

Oraingoan ere, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005eko irailean igorritako txostenaren arabera, lanpostu horri 4. hizkuntza eskakizuna zegoen.

Donostiako Udalak erabilitako argudioa: 4. HE eskatuz gero ez ote da hautagai kopuru murrizta egongo. Baina legearen arabera 4. eskakizuna jaitsi daiteke, baldin eta aurkezten diren guztiek maila hori gainditu ez eta 3.a egiaztatzen badute. Hortaz, ez zegoen zertan jaitsi hizkuntza eskakizuna; are gehiago, 1. hizkuntza eskakizuna jarri gero, segurki, hautagai gehiago izango zen, lanpostuak eskatzen duen hizkuntza gaitasunik izan ez arren.

Bestalde 2005eko urtarrilean Udal Batzak onartu zuen Instalazio Arduradunetako 6 lanpostuetan 2. hizkuntza eskakizuna ezartzea, bai eta horien iraungitze data ere. Kasu horretan irailean Udalbatzak bi lanposturi derrigortasuna kentzea erabaki zuen.

Patronatua euskararen erabilera eta normalizazio plan berezi baten barruan dago; are gehiago, estrategikotzat hartu zen Patronatuen normalizazioaren aldeko apustua egitea. Hartara, ulertezina gertatu da estrategikoa den eremu batean hizkuntza eskakizunen derrigortasunak kentzea.

Bigarrenari dagokionez, kezka handiz hartu du Behatokiak hiriko paisaian hain ohikoak diren txarteletan euskararen presentzia eskasa. Donostiako Udal Ordenantzak, 23, 24 eta 25. artikuluetan, arautu egiten du publizitatean eta bide seinaleetan euskarak izan behar duen trataera. Hala ere, behin eta berriro, eta nahikoa sistematikoki, gaztelania hutsezko txartelak jarri izan dira 2005 urtean Donostian zehar: bide seinaleak, ekimen kulturaletako ikuskizunetan etab.

Lesakako (eta Lakuntzako) Udala

2004ko uztailean legeak ezarritako eremu euskalduneko hainbat udal eta mankomunitateko ordezkariak bildu ziren eta Foru Aginduen proiektua aztertu zuten. Proiektuak lanpostu horietako euskara nahitaezko baldintzat jotzen ez zuela ikusirik, udalei mozioa bidaltzea erabaki zuten, behin onartutakoan, Parlamentuko taldeen aurrean aldaketa-proposamena gisa aurkeztu eta idazkari eta kontu hartzaileen lanpostuetarako euskararen ezagutza nahitaezko baldintza izatea lortzeko.

Mozioan zera jaso zen:

Idazkari edo kontu hartzailea lanpostuak betetzeko **euskara jakitea ezinbestekoa** izanen da, plaza beteko den toki entitatearen plantilla organikoan horrela zehaztuta dagoenean.
Horrela, **lanpostu horiek bete nahi dituztenek Euskararen Gaitasun Agiria edo haren agiri baliokidea izan beharko dute...**

Lesakako Udaleko Alkateak 2004ko abuztuaren 27an Ebazpena onartu zuen eta horren arabera, Foru Aginduen proiektuan aldaketak eskatzeko eskatu zuen, besteak beste, idazkari eta kontu-hartzaileetarako lanpostuetan EGA izateko derrigortasuna. Lakuntzako Udalak, aldiz, 2004ko ekainaren 25ean egindako Osoko Bilkuran gauza bera onartu zuten.

Ondoren Lesakako Udalak, 2005eko otsailaren 4an onartu zuen plantilla organikoa eta horren arabera idazkari eta kontu hartzailearen lanpostuetan euskaraz jakitea eskatu zen, ahoz eta idatziz. Lakuntzako Udalak 2005eko otsailaren 25eko osoko bilkuran onartu zuen plantilla organikoa, eta horren arabera, euskara jakitea ezinbestekoa da.

Hala ere, 2005ko apirilaren 15eko Osoko Bilkuran Lesakako Udalak moldatu egin zuen plantilla organikoa eta idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuetan 1. jakite-maila eskatzea deliberatu zuten.

Horren ondorioz, 2004ko abuztuaren 27an Nafarroako Parlamentuari eskatu ziotena ez diote beren buruari aplikatzen. Are gehiago, Nafarroako Gobernuak argitaratutako Aginduak aukera irekia utzi zien Udalei egoki ikusten zuten ezagutza maila eskatzeko. Hortaz, udalen esku geratu zen hizkuntzaren ezagutza maila zehaztea. Azkenean, ez zen lortu Nafarroako Gobernuak idatziz jasotzea derrigortasuna, hala ere, udalen esku utzi zuten.

Lesakako Udalak hartutako erabakia hilabete batzuk lehenago Nafarroako Parlamentuari eskatu ziotenari kontrajarri zitzaion. Alegia, Nafarroako Parlamentuari eskatu egiten zioten EGA derrigorrezko maila izatea eta beraiek ez zuten bete nahi izan.

Hori dela eta, Behatokiaren iritziz, Lesaka eta Lakuntzako udalek aurrera eramane zuten Nafarroako Gobernuak zuen asmo murriztailea, haien interesen alde, eta udalak euskaraz funtzionatu ahal izateari galga jarri zioten.

Portugaleteko Udala

Guraso talde batek helarazitako kexaren arabera, Udal Musikaren eskaintzan euskaraz ez du ia tokirik, izan ere, musika tresna jakin batzuetan trebatzeko bakarkako saio batzuk kenduta, gainerako gai guztiak gaztelaniaz soilik irakasten dira.

Egun Portugaleteko LMHko ikastetxeetan ikasleen %62,8 D ereduan daude matrikulatuta eta DBHko ikastetxeetan %44,25.

Hartara, Portugaleteko Musika Eskolak egiten duen eskaintzak ez du bat egiten ikasleen hizkuntza gaitasunarekin eta ikasleek hautatutako hizkuntzan zerbitzua jasotzeko eskubidearekin.

Duela hogeitau urte baino gehiago euskarari esleitutako ofizialtasunaren ondoriozko eskubidea da gurasoek aldarrikatzen dutena. Halaber, euskaraz ikasi nahi duten ikasleek bereizkeria larria gertatzen dela ondorioztatu zuten Behatokiak, hain zuzen ere, gaztelaniaz ikasi nahi dutenekin alderatuz gero, aukera gutxiago eskaintzen zaielako.

Iruñeko Udala

Iruñeko Udalarik dagokionez, izandako kekez gain, oso aipagarria da euskararen erabilera arautzeko udal ordenantzaren egindako aldaketak. Hartara, 2005ean Udaltzako Ordenantzaren zazpi artikuluko aldatzea erabaki zuten. Horrela, Ordenantzaren 7, 13, 14, 15, 20 eta 21. artikuluko aldatu zituzten.

Hona hemen aldaketa horien ondorio nagusiak:

- Udaleko langileak: Udaleko 36 langilek (%2,5) euskaraz derrigorrez jakin beharko dute. Orotara, 1400 langile baino gehiago dago.
- Hizkuntza-eskakizunak zehazteko batzordea eta euskarazko toponimia finkatzeko batzordea desegingo dira.
- Udaletxean euskaraz artatua izateko eskubidea galduko da.
- Toponimoetan euskararen presentzia ez da derrigorrezkoa izango.
- Kale izendegiek ele bietan egoteari utziko diote, aurrerantzean izenak gaztelaniaz besterik ez baitira agertuko.
- Udaleko gobernu taldeak hainbat erabaki hartzeko eskumenak izango ditu, ez, ordea, Udaltzakoak.

Iruñeko Udalak, Nafarroako Gobernuak lehenago egin bezala, legeak ezartzen dizkion betebeharrak onartu beharrean legea bera aldatzearen aldeko apustua egin zuten euskararekiko konpromisoak saihesteko. Oraingoan ordenantzak dira. Azken horien betetzea eza sistematikoa epaitegietan behin eta berriro erakusteak ekarritako ondorio politikoa ordenantzak aldatzea izan da. Euskaldunak, beraz, haien eskubideak betearazi nahi badituzte irteerarik gabeko kalean aurkitzen dira, izan ere, epaitegietan salatuz gero, ordenantza aldatzen dute; salatzen ez badugu, berriz, ez dute betetzen.

Ordenantza aldaketa onartuta, Iruñeko euskaldunen hizkuntza-eskubideak, orain arte bezala, urratu gertatuko dira eta ez dugu epaitegietara jotzeko euskarri legal nahikorik izango. Ondorioz, Udalak zigorgabetasun edo inpunitate osoz joki lezake.

Aldaketa proposamenean zerbitzua euskaraz bermatzeko plangintzak desagertzen dira. Beraz, agerikoa da Udalaren asmoa epe eta helbururik gabe ez baitago aurrerapausorik ematerik.

Benetan esanguratsua da herritarren arreta kudeatzen duten lanpostuen aipamenaren desagertzea. Inondik hasi behar bada zerbitzua euskalduntzen bertatik da, dudarik gabe. Hala ere, ordenantzatik kendu dute.

Atzerapauso berri baten aurrean gaude. Udalak euskaldunon hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa betikotzeko oinarria jarri du jada, aldaketak onartu egin baitziren.

Olaztikoko Udala

2005eko otsailaren 16an Nafarroako Aldizkari Ofizialak Olaztikoko Udalarik onartutako euskararen erabilaren ordenantza berria argitaratu zuten.

Ordenantza berriak Euskararen Legearen irakurketa murrizari eusten dio eta atzerapausoak eragingo ditu hizkuntzaren normalizazioan. Hortaz, juridikoki helegiteko zirikiturik utzi ez arren, nahiko argia da horren atzean dagoen asmoa.

Are gehiago, ordenantza aldatuta ere Olaztiko Udalak sistematikoki urratu du berak ezarritako ordenantza berria ere. Horrela, Udalak herritarren esku jarritako bando, erabaki, jakinarazpen, agiri eta ebazpen gehienak gaztelania hutsean eman izan ditu argitara urte osoan zehar.

4. ERANTZUNAK

Udalei helarazitako kexen erantzunak udalen arabekoak izan dira. Horrela, zenbait udalek kexa bidali eta jarraian erantzun izan diote Behatokiari kexaren inguruan, eta horietarik askotan horrelakorik berriz ere ez gertatzeko edota zioa konpontzeko mekanismoak abian jarri dituztela jakinarazi dute. Horietan apagarriak dira, esaterako, Hernani, Abadiño zein Aretxabaleta.

Bestela, badira kasu guztiei ez, baina zenbaiten inguruko argibideak eman dituzten udalak, Bilbokoa, Donostiakoa edo Iruñerriko Mankomunitatea kasu. Hala ere, badira inoiz ere erantzun ez dutenak, kexa larriak izan diren arren, besteak beste, Gasteiz, Barakaldo, Portugalete.

5. SINOPSIK: UDALAK

ARABA

Zenbakia: 14/2005 Arrazoa:	Erakundea: GASTEIZKO UDALA Gasteizko Udalak 2005eko urtarrilaren 5ean gaztelania hutsean bidali zuen hedabideetara Erregeen etorrieraren berri eman nahi duten komunikabideentzako ezarritako jarraibideei buruzko prentsa-oharra.	Araba
Zenbakia: 15/2005 Arrazoa:	Erakundea: GASTEIZKO UDALA Gasteizko Udaltzaingoa 2005eko urtarrilaren 5ean gaztelania hutsean bidali zuen hedabideetara udaltzaingoa esku-hartzei buruzko informazioa.	Araba
Zenbakia: 16/2005 Arrazoa:	Erakundea: GASTEIZKO UDALA Gasteizko Udalak 2005eko urtarrilaren 5ean gaztelania hutsean bidali zuen hedabideetara suhiltzaileen esku-hartzei buruzko informazioa.	Araba
Zenbakia: 17/2005 Arrazoa:	Erakundea: GASTEIZKO UDALA Gasteizko Udaleko Kultur Plangintza eta Programazio Zerbitzuak 2005eko urtarrilaren 5ean hedabideetara bidali zuen prentsa-oharrea euskara eta gaztelaniaren presentzia ez da oreakatu.	Araba
Zenbakia: 55/2005 Arrazoa:	Erakundea: GASTEIZKO UDALA Gasteizko Udalak gaztelania hutsean bidali ditu hedabideetara Txinako Zirkon Nazionala aurkezteko prentsaurrekorako deialdia eta oharra.	Araba
Zenbakia: 258/2005 Arrazoa:	Erakundea: GASTEIZKO UDALA Megafonia abisuak gaztelania hutsean eman zituzten Gasteizko autobus getokian 2005eko maiatzaren 12an.	Araba
Zenbakia: 289/2005 Arrazoa:	Erakundea: GASTEIZKO UDALA Gasteizko Udalak gaztelania hutsean bidali zituen hedabideetara maiatzaren Hiriko hondakinen 2004 urteko balantzea eta 2004 urteko orot idazkia.	Araba
Zenbakia: 311/2005 Arrazoa:	Erakundea: GASTEIZKO UDALA Gasteizko Udalak semaforo gehienetan jarri du oinezkoentzako sistema bat semaforoetako argiak aldatzeko. Bertan honako testu hau irakur daiteke gaztelania hutsez: PULSE PEATON, ESPERE VERDE.	Araba
Zenbakia: 364/2005 Arrazoa:	Erakundea: GASTEIZKO UDALA 2005eko ekainean Luis Ararburu Musika Eskolako gaztelania hutsezko prentsa ohar bat bidali zuen hedabideetara.	Araba
Zenbakia: 568/2005 Arrazoa:	Erakundea: GASTEIZKO UDALA Gasteizko Udalen AM/ISA enpresak egiten duen publizitatean ez dira kontuan hartzen udalak ezarritako hizkuntz irizpideak, iragarkiak gaztelania hutsez izaten baitira.	Araba

Zenbakia: 21/2005 Arrazoa:	Erakundea: AGURAINGO UDALA Aguraingo eskualdeko alkateek Vital Kutxari zuzenduriko protesta gutuna gaztelania hutsean bidali zuten hedabideetara.	Araba
Zenbakia: 461/2005 Arrazoa:	Erakundea: GOPEGI UDALA Zigolito Kirinko Euskara Taldeak hitzaldi bat antolatzeko eskaera idatzia egin zion udalari, euskaraz. Erantzuna gaztelania hutsean jaso zuten eta gainera hitzaldia egin behar zeneko eguna pasatu ondoren. Eskaera gaztelaniaz egin zuten gero berehala erantzuten omen du udalak.	Araba
Zenbakia: 673/2005 Arrazoa:	Erakundea: DULANTZIKO UDALA Dulantziko Udalak gaztelania hutsez argitaratu zuen iragarkia prentsan.	Araba
Zenbakia: 375/2005 Arrazoa:	Erakundea: ZIGOITIKO UR PARTZUERGOA Zigolito Ur Partzuegoak gaztelania hutsean bidali die jakinarazpena herritarrei.	Araba

BIZKAIA

Zenbakia: 27/2005 Arrazoa:	Erakundea: BILBOKO UDALA Bilboko Udalak gaztelania hutsean bidali dizkio bi jakinarazpen elkarte bati.	Bizkaia
Zenbakia: 127/2005 Arrazoa:	Erakundea: BILBOKO UDALA ARRIAGA ANTZOKIko euskarazko weborrian sarrerak erosteko esteka sakatu eta delako orria gaztelaniaz agertu zitzaion herritarri.	Bizkaia
Zenbakia: 166/2005 Arrazoa:	Erakundea: BILBOKO UDALA Bilboko Udaleko Txurdinaga Kiroldegian hainbat txartel gaztelania hutsean idatzita zeuden.	Bizkaia
Zenbakia: 171/2005 Arrazoa:	Erakundea: BILBOKO UDALA Bilboko La Casilla parkean XIX. mendeko zaldiko-maldikoa dago. Oso txartel politak dituzte tiketak saltzeko kabinan, baina euskara traketsen: "Ven a disfrutar del tióvivo de madera del siglo XIX" eta euskaraz "Zatoz IXI.mendeko egunero zaldiko maldikoa gozatzera"	Bizkaia
Zenbakia: 343/2005 Arrazoa:	Erakundea: BILBOKO UDALA Salaketa bat jartzera joan zen Bilboko Udalerari. Herrerako langileak ez zekien euskaraz. Hala ere, salaketa Udaltzaingoa komisaldegian jarri behar zuela jakinarazi zion. Komisaldegiko harreraren zegoen udaltzainak ere ez zekien euskaraz. Hurrengo langileari euskaraz eman zizkion azalpenak. Salaketaren kopia, ordea, gaztelania hutsean luzatu zitzaion.	Bizkaia
Zenbakia: 407/2005 Arrazoa:	Erakundea: BILBOKO UDALA Bilboko Udalak san Joan gaua ospatzeko Artxanda mendian antolatutako Akelarre jaian euskararen presentzia eskasa izan zen oso. Umeentzako pailazoak gaztelaniaz aritu ziren, hurrekin jolasean zebiltzan begiraleak erdaldunak ziren eta jolasean azalpenak gaztelania hutsean zeuden. Gainera, bertan zeuden txosnetan musika erabat erdalduna zen.	Bizkaia
Zenbakia: 408/2005 Arrazoa:	Erakundea: BILBOKO UDALA 2005eko ekainaren 19an Bilboko El Fango Kiroldegian dantza erakustaldi bat egon zen. Jaialdia aurkeztu zuen pertsonak ez zuen euskaraz hitz erdirik esan. Gainera, euskal dantzek oso leku txikia hartu zuten eta ez zen abesti bakar bat euskaraz entzun.	Bizkaia
Zenbakia: 478/2005 Arrazoa:	Erakundea: BILBOKO UDALA Uztailaren 6an, arratsaldeko 6ak aldera Bilboko Bidebarrieta kaleko udal liburutegira joan zen herritarra eta Didaktekako harreraren zegoen langileak gaztelaniaz erantzun zion bera euskaraz zuzendu arren.	Bizkaia
Zenbakia: 630/2005 Arrazoa:	Erakundea: BILBOKO UDALA Herritarrek 2005eko urriaren 13an Bilboko Udaltzaingora deitu zuen eguerdiko 12etan. Telefona hartu zuenak ez zekien euskaraz. Gero, Galdutako Gaian Departamentura deitu eta han ere ez zegoen euskaraz zekien langilerik.	Bizkaia
Zenbakia: 679/2005 Arrazoa:	Erakundea: BILBOKO UDALA Erriberako Plazan erroto luze guztiak gaztelaniaz jartzen dituzte: oharrak, ordutegiak, ...	Bizkaia
Zenbakia: 686/2005 Arrazoa:	Erakundea: BILBOKO UDALA Herritarra Bilboko Udalak Barreinkua kalean duen Barruti Kontseilura joan zen azaroaren 8an. Herreraren zegoen langileari euskaraz zuzendu zitzaion eta honek ez zionez ongi ulertzen gaztelaniaz hitz egin behar izan zuten.	Bizkaia
Zenbakia: 725/2005 Arrazoa:	Erakundea: BILBOKO UDALA Arriaga Antzokitik elkarte bati e-mailez bidali zion informazioa gaztelania hutsean dago pare bat esaldi kenduta.	Bizkaia
Zenbakia: 732/2005	Erakundea: BILBOKO UDALA	Bizkaia

Arrazoa:	Bilboko Udalak "Bilboko Hiri Antolaketakarako Egitamu Orokorra: Zorrotzaurreko Eraidaketarako irizpide, helburu eta soluzio orokorrak" aildatzeko alegazio opea zabaldu zuen eta aurkeztutako txostena gaztelania hutsez zegoen. Alegazio bat egin dute eta prosua berriro egiteko eskatu dute ,harik eta euskaraz egon arte. Erantzunik ez dute jaso.	
Zenbakia: 739/2005	Erakundea: BILBOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Vitoria-Gasteiz eta Olano kaleen arteko bidegurutzean jarritako seinalea gaztelaniaz dago 'Calle cortada... por obras'.	
Zenbakia: 740/2005	Erakundea: BILBOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Bilboko Udalak Kontzezio eta Olano kaleek bat egiten duten lekuan jarritako seinalea gaztelaniaz dago: 'Calle cortada. Acceso por ...'	
Zenbakia: 559/2005	Erakundea: ABADIÑOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Abadiñoako udal igerilekuak eskaintzen dituen jardueren berri ematen duen publizitateaz zabaldu dute herriko postontzietan eta gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 33/2005	Erakundea: BARAKALDOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Barakaldoko Udalak 'Barakaldo Foro Vivienda' delako jardunaldietarako bidali duen propaganda gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 34/2005	Erakundea: BARAKALDOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Barakaldoko Udalak herritar baten eskabideari eman dion erantzunaren arabera, ez du inolako hizkuntza-irizpiderik ezartzen Udalerrian jartzen diren errotulu eta bide seinaleen inguruan.	
Zenbakia: 35/2005	Erakundea: BARAKALDOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Barakaldoko Udalak argitaratu duen Barakaldoko gidan, euskararen erabilera hutsaren hurrengoa da, \$5 hain zuzen ere, ingelesari ematen zaion tokiaren parekoa.	
Zenbakia: 46/2005	Erakundea: BARAKALDOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Barakaldoko Antzokiaren 2004 urteko programazio ofizialaren barruan antolatutako 131 ekitalditik 3 besterik ez dira izan euskaraz, eta horiek eskolamendi zuzenduak eta goizeko ordutegian.	
Zenbakia: 83/2005	Erakundea: BARAKALDOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Herritarrak Inguraldek, Udalak eta Amaya Fernández zinegotziak sinatutako 'Barakaldo te sonríe- Barakaldok irri egiten du. Rebajas \$ ' izeneko eskuorria jaso du postontzian. Euskararen erabilera \$5ekoa da. Gaztelaniarena \$95ekoa.	
Zenbakia: 150/2005	Erakundea: BARAKALDOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Barakaldoko Udaleko Kultura eta Gazteria Arloak gaztelania hutsean bidali dio herritarrari "Emozio" izeneko jardunaldien informazioa.	
Zenbakia: 614/2005	Erakundea: BARAKALDOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Barakaldoko Udalak argitaratzen duen "Barakaldoko Gida" delakoan euskararen erabilera ez da batera onartua eta euskarak ofiziala ez den hizkuntza baten, ingelesaren, trataera bera dauka.	
Zenbakia: 615/2005	Erakundea: BARAKALDOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Barakaldoko Udak Kirol Erakundeak argitaratzen duen 'Barakaldo kirolak' izeneko egunkariko uztailako alean (2. zkia) artikulu bat eta erdi baino ez dago euskaraz.	
Zenbakia: 570/2005	Erakundea: BASAURIKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Basauriko Udalean lanpostu batzuei euskararen ezagutzaren derrigortasuna kendu diete eta beste batzuei jarri.	
Arrazoa:	Basauriko Udalean hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun data ezarria zuen lanpostuan ari zen langileari salbuespena onartu diote.	
Zenbakia: 571/2005	Erakundea: BASAURIKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Basauriko Udalean hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun data ezarria zuen lanpostuan ari zen langileari salbuespena onartu diote.	
Zenbakia: 11/2005	Erakundea: BERMEOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	2004ko maiatzaren 11n isuna jarri zioten portuan. Jakinarazpenaren inprimakia ele bitan egon arren, gaztelania hutsean idatzita zegoen. Jakinarazpenak euskaraz jaso nahi zituela jakinarazi zion Udalari. Alegazioak aurkeztu izan balitu bezala erantzun zioten. Hori baliatuz bere alegazioak aurkeztu zituen. Handik denbora batera, euskaraz jasotzeko agertu zuen nahia errespetatu gabe euskaraz eta gaztelaniaz jaso zuen isunaren jakinarazpena, tartean alegaziorik aurkeztu izan ez balu bezala gainera. Haserrea agertzera joan zenean, gaztelaniaz ez al zuen ulertzen eta antzekoak entzun behar izan zituen. Aurrerago Alkatearen eskutitza jaso zuen. Jakinarazpena ele bitan bidali zitzaioela eta ez zitzaioela inolako hizkuntza-eskubiderik urratu zioen. Urrian oporretara joan zen eta lagun bati utzi zion isuna ordaintzeko dirua. Bueltan etorri zenean zur eta lur gelditu zen ordainagiria gaztelaniaz idatzita zegoela ikusita.	
Zenbakia: 190/2005	Erakundea: DERIOKO UDALA	Bizkaia

Arrazoa:	Derioko Udala eta hainbat gizarte eragile Agenda XXI egitasmoa garatzen ari dira. 2005eko apirilaren 20an herritar foro bat egin zen eta Udalak gaztelania hutsean bidali du bilkura horren akta.	
Zenbakia: 265/2005	Erakundea: DERIOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Derioko Udalak gaztelania hutsean bidali dio erakunde bati Foro XXIeko dokumentazioa.	
Zenbakia: 285/2005	Erakundea: DERIOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Derioko Udalak udal aldizkariaren hainbat ale argitaratzen ditu urtean zehar. Aurtengo lehenbizikoan euskarari eman zaion tartea hutsaren hurrengoa izan da.	
Zenbakia: 286/2005	Erakundea: DERIOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Derioko Udalak aurtun argitaratu duen aldizkariaren bigarren alean euskarak gaztelaniak baino leku gehiago hartzen du, baina hain euskara traketsean ezen ez baitago ezer ulertzerik.	
Zenbakia: 473/2005	Erakundea: DERIOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	BEITU Derioko udal aldizkariak euskarari ematen dion trataera begirune eskasekoa da, bai proportzioan, bai eta erabiltzen duen euskara ulergaitzagatik ere.	
Zenbakia: 564/2005	Erakundea: DURANGOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Joan den irailaren 3an Durangoko Kultural futbol taldea eta Erreal B taldeen artean jokatu zen partidaren megafoniatik esandako gutzia gaztelaniaz adierazi zen.	
Zenbakia: 649/2005	Erakundea: ERMUKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Ermuko Udalak egindako Udaltzain laguntzaile/Trafiko Laguntzaileen lan-poltsa osatzeko deialdian euskararen ezagutza ez da derrigorrezkoa, merezimendu modura baloratuko dute (puntuazioaren \$14,28).	
Zenbakia: 650/2005	Erakundea: ERMUKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Ermuko Udalak liburutegiko laguntzaileen lan-poltsa osatzeko egin duen deialdian euskararen ezagutza ez da derrigorrezkoa. Merezimendu gisa baloratuko dute (puntuazioaren \$7.69)	
Zenbakia: 748/2005	Erakundea: GETXOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Getxoko Udaleko kirol sailetik inkesta bat bidali dute Getxoko ikastola batera. Hitz bat bera ere ez dago euskaraz.	
Zenbakia: 257/2005	Erakundea: LEIOAKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Martxoaren 22an Leioako Udak Kiroldegira joan zen herritarra eta leihatilan ezin izan zioten zerbitzua euskaraz eman.	
Zenbakia: 152/2005	Erakundea: LEKEITIOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Lekeitioko Udalaren izenean bi langile bertaratu dira taberna batera argitaratutako Gida Turistikoko bati buruzko informazioa ematera. Bi langileak erdaldunak zirene eta ezin izan dizkiote azalpenak euskaraz eman.	
Zenbakia: 26/2005	Erakundea: PORTUGALETEKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Portugaleteko Udalaren webgunea www.portugalete.org atariko orria gaztelania hutsean dago. Gune batzuk euskaraz ere badaude, baina beste batzuk gaztelania hutsean .	
Zenbakia: 425/2005	Erakundea: PORTUGALETEKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Portugaleteko Udaleko Zerbitzu eta Ingurumen arloko zinegotziak gaztelania hutsean bidali ditu hainbat dokumentu ikastetxe batera.	
Zenbakia: 640/2005	Erakundea: PORTUGALETEKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Portugaleteko Udak Musika Eskolaren eskaintzan euskaraz ez du ia tokirik.	
Zenbakia: 639/2005	Erakundea: SANTURTZIKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Santurtziako Udalaren webgune ofizialaren euskarazko bertsioa, batez ere turismoaren inguruko atala, akatsez josita dago.	
Zenbakia: 245/2005	Erakundea: SESTAOKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Sestaoko Udalak gaztelania hutsean bidaltzen dizkio jakinarazpenak bertako langile bati.	
Zenbakia: 794/2005	Erakundea: ZALLAKO UDALA	Bizkaia
Arrazoa:	Zallako Udalak ez du euskararen ordenantza bete, harrerako langile elebidunaren 2005eko ekaineko 10 eguneko baja ordezkatzeko elebiduna ez den langilea hartu duelako.	
GIPUZKOA		
Zenbakia: 104/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Hedabideetara faxez bidalitako prentsa deialdia gaztelania hutsean zegoen.	

Zenbakia: 126/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	2005eko martxoan Zirkoa etorri da Donostiara eta Donostiako kaleak kartekez josi dituzte. Kartel guztiak gaztelania hutsean daude ia, ez da inondik informazioa euskaraz jasotzen.	
Zenbakia: 159/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Donostiako Udaleko Uren Administrazio Zerbitzuak BANAGUA S.A. UTE-URA enpresari eman dio ur kontagailuak irakurri, jarri, kendu eta konpontzeko lanen kudeaketa. Herritarrek 2005eko apirilaren 13an telefonoz deitu du 943 31 38 00 zenbakira eta telefona hartu duen langileak mesedez gaztelaniaz hitz egiteko eskatu dio, bestela gaizki uler zezakeelako herritarren azalpena.	
Zenbakia: 302/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	EDONOSTIA.NETek (Centro de Nuevas Tecnologías de Altxa) ekainean eskaintzen dituen ikastaroen arteak bi bakarrik dira euskaraz.	
Zenbakia: 337/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	2005eko ekainaren 3an DONOSTI GASera deitu zuen herritarrek gas kontsumoari buruzko datuak emateko. Euskaraz hitz egin arren, enpleguak gaztelaniaz erantzuten zionez, azkenean gaztelaniaz egitera behartuta sentitu zen herritarra.	
Zenbakia: 390/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Anoetako Kiroldegiak Yoldi igerilekuko erabiltzaileei zer nolako eraikuntzak egiten ari diren jakinarazteko bi panel jarri ditu, bat Yoldiko sarreran eta bestea bigarren solairuan. Bertan agertzen den informazio guztia gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 392/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak 2005-2006 ikasturterako antolatu dituen ikastaroetatik \$1,56 soilik egingo dira euskaraz, zehatz esanda 447tik 7.	
Zenbakia: 393/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak 2005eko udarako egin duen eskaintzan, jardueren \$33,5 soilik izango dira euskaraz.	
Zenbakia: 406/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Hiritarra Donostiako udalak Agirre y Miramon kalean duen Zergak Biltzeko Bulegora joan zen. Txanda hartu eta egokitu zitzaion langilea oldartu egin zitzaion euskaraz hitz egin zionean. Herritarrek euskaraz jarraitu zuen eta langileak gaztelaniaz egiteko edo bestela ilarara itzuli eta langile euskaldunak kasu egin ahal izan arte itxaroteko erantzun zion, zakar. Herritarrek ez zuen hau onartu, harrera euskaraz egingo zion norbait etortzea nahi zuelako. Azkenean berak eman behar izan zuen amore.	
Zenbakia: 433/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Altxa osoa CIRCO MUNDIAL delakoaren kartel erdaldunez josia agertu da, farolaz farola, Herreretatik hasi eta Errotetan barrena. Udal arauak urratu dituzte zirkoak eta udalak	
Zenbakia: 491/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Donostiako Tranbia Konpainiako Pio Baroja-Boulevard ibilbidea egiten duen autobusetako batean ibilbidea adierazten duen kartela gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 492/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Kursaal erakustokiak antolatu duen "Un mundo sobre 2 ruedas" erakusketa dela eta, kalean banatu dituzten eskuorriak ia osorik gaztelania hutsean daude. Euskarari italiararen trataera bera eman diote	
Zenbakia: 516/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Donostiako ospitaleen aurrean errepideko karrilak aldatu dituzte, autobus eta taxientzako karril berezia sortuz. Gaztelania hutsez jarri dute ordea, "Solo bus taxi".	
Zenbakia: 573/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Donostiako Kirol Patronatuak Giza Baliabide, Administrazio eta Antolakuntzako arduradunari hizkuntza-eskakizuna jaitzi dio Udalak, 4.Hetik 3.Hera	
Zenbakia: 574/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Donostiako Kirol Patronatuak mantenimenduko 2 lanposturi hizkuntz eskakizunaren derrigortasun data atzeratu egin diete. (Data iraungita zuten)	
Zenbakia: 584/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Herritarra Okendo Kultur etxera joan zen eta mostradorean zegoen langileak gaztelaniaz erantzun zion berak euskaraz egin arren.	
Zenbakia: 621/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Donostiako autobusak garajera joaten direnean ondoko hau jartzen du: 'Cocheras'.	
Zenbakia: 628/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa

Arrazoiak:	Donostiako aparkalekuen inguruan gaztelania hutsean jartzen dituzte kaleko errotiluak: libre eta completo.	
Zenbakia: 657/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Herritarra Donostiako Udaleko KTEren orrian sartu da eta euskaraz nabigatzeko aukera bai, baina lotsagarri dago, akatsez betea eta tarteka euskarazko testuak falta dira.	
Zenbakia: 722/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Donostiako Udaleko Sustapena sailaren menpe dagoen E-Donostiak e-postaz bidali dio herritarri ikastaroen informazioa. Informazio hori gaztelaniaz dago nagusiki, eta euskaraz akatsak ditu.	
Zenbakia: 771/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Udaletik (auzoak eta herritarren partaidetzarako bulegoa) eskutitza bidali diote elkarte bati gaztelania hutsez. Euskaraz azken agurrean besterik ez dute erabili.	
Zenbakia: 787/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Donostiako Tranbia Konpainiako autobusetan, gabonetan, Madril ezagutzeko gonbidapena egiten zuten iragarkiak gaztelania hutsean zeuden.	
Zenbakia: 788/2005	Erakundea: DONOSTIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Donostiako autobus geltokietan panel elektronikoak daude. Urte Zahar egunerako jarri dituzten zerbitzuak iragartzeko mezuak gaztelaniaz bakarrik eman dituzte.	
Zenbakia: 163/2005	Erakundea: ARETXABALETAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Aretxabaletako Udaltzaingoa isuna jarri zion herritarri autoa behar ez zen tokian aparkatzeagatik. Isunaren jakinarazpena gaztelaniaz idatzita zegoen.	
Zenbakia: 601/2005	Erakundea: ARRASATEKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Herritarrek Arrasateko kiroldegira deitu du zerbitzu bat eskatzeko eta telefonoz artatu duenak ez zekien euskaraz. Azkenean, gaztelaniaz esan behar izan dio dena.	
Zenbakia: 400/2005	Erakundea: AZKOITIKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Azkoitiko Udalak arkitektu tekniko zerbitzu burua izendatzeko erabakia hartu du. Lanpostu horrek duen derrigorrezko hizkuntz eskakizunari ez diote errepertatu.	
Zenbakia: 784/2005	Erakundea: AZKOITIKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Azkoitiko Udalak, Maxi Eroski handitzea onartzeko Arau lagungarrien aldaketa bat onartu zuen osoko bilkuran. Aldaketa gaztelania hutsean jarri zuen jendaurrean. Herritarrek alegazioa eginik, Udalak gaztelania hutsean bidali die erantzuna, Udalak ez duela zertan horren txosten konplikatuak euskaratu argudiatu du.	
Zenbakia: 723/2005	Erakundea: ERRENTERIA-ORERETAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Herritarrek agiri bat eskatu zion Errenteriako Udalari. Eskara euskaraz egin zuen arren, Udalak gaztelania hutsean bidali zion agiria.	
Zenbakia: 724/2005	Erakundea: ERRENTERIA-ORERETAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Herritarrek Udaletxean aurkeztutako proiektu bati euskaraz egin zion alegazioari gaztelania hutsean erantzun dio Errenteriako Udalak.	
Zenbakia: 677/2005	Erakundea: HERNANIKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Hernaniko Udalak urtero antolatzen du Antzerkiaren inguruan bizpahiru eguneko programazioa banatzen du postontzietan. Aurten ere hala izan da. Eskuorria gaztelania hutsean egon da: euskaraz hitz batzuk solte azaltzen dira. Euskarazko hitz apur horiek akatsez beteta daude. Dena gaztelaniaz egonik, ez dago modurik zein lan izango den euskaraz eta zein ez jakiteko. Izan ere, izenburua ele bietan agertzen den arren, sinopsiak gaztelaniaz agertzen dira.	
Zenbakia: 648/2005	Erakundea: OIARTZUNGO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Oiartzungo Udalak jendaurrean jarri duen arau subsidiarioen aurrerapide fasearen dokumentazioa gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 726/2005	Erakundea: OIARTZUNGO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Oiartzungo Udalak 2005eko azaroan jendaurrean jarri duen arau subsidiarioen aurrerapena gaztelania hutsean dago. Ez dago euskarazko bertsiorik.	
Zenbakia: 727/2005	Erakundea: OIARTZUNGO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Oiartzungo Udalak Arau Subsidiarioen aurre-proiektua gaztelania hutsean jarri du jendaurrean.	
Zenbakia: 371/2005	Erakundea: ORDIZIAKO UDALA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Ordizia isuna jarri zioten herritarri gaizki aparkatzeagatik. Isunaren jakinarazpena gaztelania hutsean idatzita utzi zioten.	

LAPURDI

Zenbakia: 72/2005	Erakundea: BAIONAKO HERRIKO ETXEA	Lapurdi
Arrazoiak:	Balonan isuna jarri zioten gaizki aparkatzeagatik. Baionako herriko etxetik frantses hutsean bidali diote isunaren jakinarazpena.	
Zenbakia: 791/2005	Erakundea: BAIONAKO HERRIKO ETXEA	Lapurdi
Arrazoiak:	Herritarrek ezin izan zuen Baionako herriko etxeko harrera eta informazio bulegoan zerbitzua euskaraz jaso.	
Zenbakia: 432/2005	Erakundea: MIARRITZEKO HERRIKO ETXEA	Lapurdi
Arrazoiak:	Miarritzeiko Udalak hiria promozionatzeko 2005eko udan argitaratu dituen eskuorriak frantsesez idatzita daude soil-soilik.	

NAFARROA

Zenbakia: 398/2005	Erakundea: IRUÑEKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Iruñeko Udalak gaztelania hutsean zabaldu du eskuorri bat egunkari batean	
Zenbakia: 419/2005	Erakundea: IRUÑEKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Urban Enpresa-Mediatekaren ekaineko Buletinean Iruñeko Udalaren irudi korporatiboa gaztelania hutsean ageri da bi bertsoetan (gaztelaniazko eta euskarazkoan).	
Zenbakia: 731/2005	Erakundea: IRUÑEKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Herritarra birritan joan da Iruñeko Udalatzaindaga salaketa bat jartzera. Bi aldietan ezin izan du harrera euskaraz jaso.	
Zenbakia: 801/2005	Erakundea: IRUÑEKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Iruñeko Udalak 2005ean euskararen udal ordenantzaren 6, 13, 14, 15, 20, 21 eta 22. artikuluko aldatu ditu, euskararen erabileraren kaltetan.	
Zenbakia: 68/2005	Erakundea: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA	Nafarroa
Arrazoiak:	Iruñerriko Mankomunitatearen web orria gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 676/2005	Erakundea: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA	Nafarroa
Arrazoiak:	Iruñerriko Mankomunitateak inkesta bat egin du azaroan Iruñeko hiri garraioaren erabilzaileek zerbitzuari buruz duten iritzia ezagutzeko. Herritarrei ez zaie iritzia euskaraz emateko aukerarik eskaini.	
Zenbakia: 414/2005	Erakundea: BAZTANGO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Bi urtetik hona Baztango Udalak prentsara bidaltzen dituen jakinarazpen guztiak gaztelania hutsez idatzita daude. Halaber, etxera iristen diren jakinarazpenak ere gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 427/2005	Erakundea: BAZTANGO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Baztango Udalak ez dio inolako hizkuntza-eskakizunik ezarri lehiaketa orokorre bezalako den kontuhartzaile lanpostuari.	
Zenbakia: 439/2005	Erakundea: BAZTANGO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Baztango Udalak ustaiaren 23an prentsan argitaratu zituen hiru iragarki ofizial gaztelania hutsean idatzita zeuden.	
Zenbakia: 529/2005	Erakundea: BAZTANGO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	2005eko irailaren 3an Baztango Udalak 11 iragarki ofizial argitaratu zituen egunkarietan gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 401/2005	Erakundea: OLAZTIKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Olaztiko Udalak euskararen erabilera arautzen duten ordenantzak moldatu ditu. Oraingoak murriztagoak dira.	
Zenbakia: 751/2005	Erakundea: OLAZTIKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Olaztiko Udalak gaztelania hutsean argitaratu zuen alkatetzaren 41/2005 ebazpena.	
Zenbakia: 752/2005	Erakundea: OLAZTIKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Olaztiko Udalak euskararen erabileraren ordenantza berria onetsi zuen 2004ko azaroaren 25ean. Ordenantza berria aurrekoa baino murriztailegoa da.	
Zenbakia: 753/2005	Erakundea: OLAZTIKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Olaztiko udalak gaztelania hutsean luzatu dio herritarrei erroldatze agiria.	
Zenbakia: 754/2005	Erakundea: OLAZTIKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Olaztiko Udalak gaztelania hutsean bidali dio interesatuari Alkatetzaren 136/2005 Ebazpenaren berri emateko jakinarazpena.	
Zenbakia: 755/2005	Erakundea: OLAZTIKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Olaztiko Udalak gaztelania hutsean zabaldu du Portlanden aferaren inguruko informazio orria.	

Zenbakia: 756/2005	Erakundea: OLAZTIKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Olaztiko Udalak gaztelania hutsean argitaratu zuen urtarrilaren 11ko ediktua.	
Zenbakia: 757/2005	Erakundea: OLAZTIKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Olaztiko Udalak gaztelania hutsean argitaratu du 2005eko urtarrilaren 27ko osoko bilkuran hartutako erabakien berri emateko ediktua.	
Zenbakia: 758/2005	Erakundea: OLAZTIKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Olaztiko Udalak gaztelania hutsean argitaratu du 2005eko otsailaren 3ko osoko bilkuran hartutako erabakien berri emateko ediktua.	
Zenbakia: 759/2005	Erakundea: OLAZTIKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Olaztiko Udalak gaztelania hutsean argitaratu du 2005eko otsailaren 24ko osoko bilkuran hartutako erabakien berri emateko ediktua.	
Zenbakia: 760/2005	Erakundea: OLAZTIKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Olaztiko Udalak gaztelania hutsean argitaratu du 2005eko martxoaren 21eko osoko bilkuran hartutako erabakien berri emateko ediktua.	
Zenbakia: 761/2005	Erakundea: OLAZTIKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Olaztiko Udalak gaztelania hutsean argitaratu du 2005eko ekainaren 16ko osoko bilkuran hartutako erabakien berri emateko ediktua.	
Zenbakia: 762/2005	Erakundea: OLAZTIKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Olaztiko Udalak gaztelania hutsean argitaratu du 2005eko abuztuaren 10eko osoko bilkuran hartutako erabakien berri emateko ediktua.	
Zenbakia: 750/2005	Erakundea: ORKOIENGO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Orkoiengo Udalak gaztelania hutsean banatu du herritarrei zuzendutako jakinarazpena.	
Zenbakia: 178/2005	Erakundea: UHARTE-IRUÑEKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	UharTE-Iruñeko Udal haurtzaindagi publikoan 2004-2005 ikasturterako G eta D ereduak eskaini zituzten. Herritarrek alabarentzat D ereduak aukeratu zuen arren, bertan matrikulatu ziren gainerako haur guztiek bezala, bi hizkuntzetan hartu ditu eskolak, pertsona bat hizkuntza bat oinarritzko printzipio pedagogikoa hautsiz irakasle berak bi hizkuntzak erabili baititu haurrekin.	
Zenbakia: 636/2005	Erakundea: ZIZUR NAGUSIKO UDALA	Nafarroa
Arrazoiak:	Zizur Nagusiko Kultur Etxeak egin duen egitarauan agertzen diren azalpen guztiak gaztelania hutsez daude, bai eta euskarazko ikuskizunenak ere.	

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 7

2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

2.1. Izaera

Bideratu diren espediente guztiek dute kexa izaera. Lege urraketarik ez da gertatu, Frantziako Estatuan Errepublikako hizkuntza bakarra, Legez, frantsesa baita. Berezikeria berriz, agerikoa da, Frantziako Estatuko berezko beste hizkuntzetako hiztunei sistematikoki ukatzen zaizkielako hizkuntza eskubideak.

2.2. Puntueltasuna / sistematikotasuna

2.2.a. Errepikakortasuna

Ipar Euskal Herrian euskaldunon hizkuntza eskubideen urraketa sistematikoa da, lehen aipatu dugun moduan, babes juridikorik ez dagoelako, eta ondorioz administrazioek eskubide horiek bermatzeko betebeharririk ere ez dutelako.

Gainera, estatu bat hizkuntza bat printzipioaren inguruko irmotasunak hizkuntzen normalizaziorako urrats oro galarazten du.

Horiek horrela, 2005 urtean, zoritxarrez, Behatokiak azken urteetan bideratu dituen kasuen arrazoiek bere horretan dirautela egiaztatu baino ez dugu egin, hau da, ez da inolako neurririk abiarazi eskubide urraketa horiek gainditzeko.

2.2.b. Erabilera

KEXEN ZIOA

Ahozko harremana
Hizkuntza paisaia
Irakaskuntza hizkuntza

Datuek erakusten dutenez, 2005 urtean Frantziako Estatuko Administrazioarekin edo haren erakunde autonomoekin zerikusia izan duten kexen artean justizia prozeduretan ahozko harremana euskaraz egiteko ezintasunarekin loturikoak izan dira nagusi (4).

Kexa gehienak, oro har, zerbitzuak euskaraz jasotzerik ez izatearekin dute zerikusia (SNFC, TRÉSOR PUBLIC, LA POSTE) edo hizkuntza paisaia euskararen arrastorik ez agertzearekin.

2.3. Larritasuna

Larritasunari begira, esan behar dugu atzerapausu zantzu nabarmenak aurkitu ditugula aurten bideratu ditugun kasuetan.

Justiziaren arloan defentsarako eskubidea eta babes judizial eraginkorrerako eskubidea urratzen jarraitu ezezik, 2005ean euskararen erabilera kriminalizatzeko jauzia ikusi dugu, epailearen galderei euskaraz erantzun edo erantzun nahi izana terroristen helburuekin bat etortzearekin lotu baitute fiskalek, eta presoaren espetxealdia luzatzeko baliatu, kasu batean bederen.

Hezkuntza arloan ikasketa ibilbide guztia euskaraz egin duten ikasleek baxoa proba frantsesez egitera behartuak izateak, berdintasun printzipioaren urraketa dakar, sistemak desabantailan jartzen baititu euskaraz ikasten duten ikasleak.

Beste alde batetik, euskaraz ikasten duten ikasleen kopurua urtetik urtera gora doan arren, Gobernuak euskararen transmisioa oztopatzen duten erabakiak zorrotz egin ditu, hizkuntzaren biziraupena ziurtatzeko eskubidea bera ere kolokan jarritz.

3. ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO BALORAZIOA

ADMINISTRAZIOA	
MINISTÈRE DE LA JUSTICE	3
MINISTÈRE DE L'ÉDUCATION	2
LA POSTE	1
SNFC	1
TRÉSOR PUBLIQUE	1

MINISTÈRE DE LA JUSTICE

575-2005 espedientean jaso dugun gertaeran Ipar Euskal Herriko euskaldunekiko bereizkeria ezin argiagoa da. Poissyko espetxeko hormara igo zireneko ekintzan parte hartu zuten Demo eta Zuzen taldeetako kideek Versailleseko Auzitegian deklaratu behar izan zuten irailaren 27an. Zuzen Ekintza taldeko kideek euskaraz deklaratzeko eskubidea izan zuten, epaileak euskaraz edo gaztelaniaz deklaratu nahi zuten galdetu zien. Demoek aldiz ez zuten horrelako aukerarik izan, frantsesez egin behar izan zuten ezinbestean.

572-2005 espedientearen kasuan, Pariseko Court D'Appelko epailearen galderei euskaraz erantzun izana terrorismoaren helburuekin bat etortzearekin lotu dute eta presoaren espetxealdia luzatzeko baliatu..

Ildo beretik, 2005eko maiatzean Parisen eginiko epaiketa batean 14 euskal preso zeuden deklaratzera deituak. Prokuradorea euskaraz deklaratu eta itzultzailea baliatzeko zuten eskubidearen aurka agertu zen, euskaraz mintzatzea ETaren aldarrikapena dela argudiatuz eta euskaraz hitz egin nahi izatea ETaren helburuekin bat etortzea zela ondorioztatuz.

805-2005 espedientean ikus dezakegunez, argudio horiek berriz errepikatuko dira azaroaren 16an Pariseko epaitegi batean 3 euskal presoren aurka eginiko epaiketan.

Jauzia esanguratsua da, defentsa eskubidea eta babes judizial eraginkorrerako eskubidea urratu ezezik, praktikan hizkuntza baten erabileraren kriminalizazioa bultzatzen ari baita.

MINISTÈRE DE L'ÉDUCATION

802-2005 espedientean ageri zaigun eran, eskola ibilbide guztia euskaraz burutu duten ikasleei unibertsitaterako sarbidea ahalbidetzen duen baxoa izeneko proba euskaraz egiteko eskubidea ukatu egiten zaie oraindik ere, eta frantsesez egin behar izaten dute, nahitaez. Erabaki horrek berdintasun irizpide oro urratzen du, euskaraz ikasi duten ikasleak desabantailan jartzen dituelako. Nola ulertu behar da, ikasketak euskaraz eginik ikasketa horien emaitzak neurtzeko probak ikas-hizkuntzan ezin egin izatea?

Hezkuntzaren arloa utzi gabe, 2005 urtea mobilizazio urtea izan da Ipar Euskal Herrian, izan ere Frantziako Gobernuaren erabakiek Seaskaren garapena ekiditeaz gain, gelak ixteko arriskua eragiten dutelako. Euskaraz eskolatzen diren ikasleen kopurua nabarmen emendatu den arren, Frantziako Gobernuak Hezkuntza agintariek ez dute Sehaskako lehen mailako irakasle kopurua emendatu, eta bigarren mailari 20 ordu kendu dizkio.

Beste alde batetik, eskoletako irakasle izateko CAPES agiria lortzeko eskaintzak lehengoan jarraitzen du, nahiz eta beharrak eta eskaera handitzen doazen.

Ministeritzak baliabideak murrizteko, eta frantsesa beste hizkuntzarik ez balitz bezala jokatzeko politika irmoak ez du batere laguntzen hizkuntzaren biziraupenerako eskubidea bermatzen.

LA POSTE

793-2005 espedienteak erakutsi bezala, Ipar Euskal herriko hainbat eta hainbat postetxetan ezinezkoa da oraindik ere zerbitzua euskaraz jaso ahal izatea.

'Zerbitzu publikoetan euskaraz' aldarrikapena ez da berria Ipar Euskal Herrian. 2003ko uztailan jada, euskalgintzako eragileek gutun bat igorri zioten Pirinio Atlantikoetako Postako zuzendariari hitzordu bat eskatuz, baina ez zuten erantzunik jaso. 2003eko urrian Ipar Euskal Herriko 35 postetxetatik idatzi zioten berriro ere, baina erantzunaren zain jarraitzen dute oraindik. Eskaera honen harira, 2005eko otsailan Demoek elkarretaratzeak deitu zituzten Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako 24 postetxetan. Ekimenak hainbat alderdi politiko eta sindikaturen sostengua izan zuen. Gainera postako langileekin harremanak izan zituzten ekimenaren helburuak azaltzeko. Sindikatuetakoa ordezkariek jakinarazi zieten Postetako zuzendaritzak nahi izanez gero arazorik ez legoke zerbitzua euskaraz bermatzeko. Izan ere, ekimena burutu zen herri gehienetako postetxeetan euskaraz zekiten langileak aurkitu zituzten, eta normaltasunez egin zieten harrera.

TRÈSOR PUBLIC

792-2005 espedientearen adierazi bezala, TRÈSOR PUBLICeko bulegoetan ez da euskarazko zerbitzurik bermatzen. Ingelesean eta gaztelaniaz bai, aldiz.

Harrigarria badirudi ere, berriz ere, tokiko edo berezko hizkuntza da baztertzeko dena. Legeak status ofizialik aitortu ez arren, ez dago ukatzerik euskara berezko hizkuntza dela Ipar Euskal Herrian. Hala ere, behin eta berriz ikusiko dugu, Frantziako estatuko erakunde administratiboetan inolako statusik eta berezotasunik ere ez duten hizkuntzak nola lehenesten diren bertakoen aurrean.

Tokiko hizkuntzaren hitzunen eskubideak babestu eta indartu ordez, atzerriko hitzunen eskubideak lehenesten ditu TRÈSOR PUBLIC erakundeak.

SNFC- Société Nationale des Chemins de Fer

805-2005 espedientearen ageri denez, SNFC erakundeak ez du euskarazko zerbitzurik eskaintzen Hendaiko geltokian.

Gogora dezagun SNFC tren konpainian hizkuntza-eskubideak bermatzeko ekimenak 2000. urtean abiatu zirela, izan ere, konpainia honek Ipar Euskal Herriko tren-geltoki guztietan frantsesez soilik eskaintzen baititu zerbitzuak: ahozko informazioa, errotulazioa, publizitatea, txartelak, oharak, agiriak...

Euskalgintzako eragileak hainbat bilera eta eskabide egin dizkiete urte hauetan zehar erakundeko arduradunei, baina erakundeak ez du eskaera bakar bat ere aintzat hartu. 2003ko ekainean Eskualdeko Kontseiluko lehendakariorde eta eskualdeko garraioen arduradunak zer egiteko prest zeuden jakinaraziko zutela eta SNFCko arduradunei haien jarrera berraztertze eskatuko zutela jakinarazi zuen. Horrekin batera Donibane Garazi eta Baiona arteko geltokietan toponimoak euskaratuko zituztela ziurtatu zuen. Ez bata, ez bestea, ez du egin oraindik.

SNFCko lehendakariak berriz, Euskal Herriko geltoki handietan euskara erabiltzeko asmorik ez zuela jakinarazi zuen, atzerriko erabiltzaile asko zutela eta beste hizkuntza bat erabiltzekotan ingelesa edo gaztelania izango zela adierazi zuen. Beraz, bistan denez, bertakoen hizkuntza eskubideak bermatzera jo ordez, bere jarrera gogortu eta atzeritarren hizkuntza eskubideak lehenesteko jarrerari eutsi dio.

Gauzak horrela, Erakunde honek diskriminazio garbia eragiten du euskal hitzunikiko. Euskal hitzunik izan ez balira bezala tratatzen ditu, ikusez bihurtu, bide horretan oinarritzko printzipio eta eskubide guztiak oinpean hartuko baditu ere, legea lagun.

4. ERANTZUNAK

Behatokiak bideratutako kekek ez dute erantzunik jaso Frantziako Estatuko erakundearen aldetik.

5. SINOPSIK:

Zenbakia: 793/2005	Erakundea: LA POSTE	Lapurdi
Arrazoa:	Herritarrak ezin izan du zerbitzua euskaraz jaso Baionako postetxean.	
Zenbakia: 802/2005	Erakundea: MINISTÈRE DE L'ÉDUCATION	Lapurdi
Arrazoa:	Baionako Louis de Poix ikastetxeko BTSeko ikasle batzuek euskara urte bukaerako azterketa euskaraz egiteko eskaera egin zuten. Ikuskaritza akademikotik jaso duten erantzunean adierazi zaie BTS batzuetan euskara aurkez daitekeela baina haiek eskatzen duten gaian ez dela posible.	
Zenbakia: 572/2005	Erakundea: MINISTÈRE DE LA JUSTICE	Bizkaia
Arrazoa:	Parisko Cour D'Appel delakoan epaileen galderei euskaraz mintzatu izana, presoaren espetxealdia luzatzeko arrazoi bat gehiago bezala hartu du epaileak.	
Zenbakia: 575/2005	Erakundea: MINISTÈRE DE LA JUSTICE	Lapurdi
Arrazoa:	Euskal Herriko hainbat herritarraren aurkako epaketan hegoaldekoek euskaraz deklaratu ahal izan zuten. Iparraldekoek, aldiz, ez.	
Zenbakia: 805/2005	Erakundea: SOCIÉTÉ NATIONALE DES CHEMINS DE FER	Lapurdi
Arrazoa:	Hendaiko geltokiko errotulazioaren arretorik ez dago eta langileek ez dute zerbitzua euskaraz eskaintzen.	
Zenbakia: 792/2005	Erakundea: TRÈSOR PUBLIQUE	Lapurdi
Arrazoa:	Herritarrak ezin izan du zerbitzua euskaraz jaso Baionako TRÈSOR PUBLICeko bulegoan	

5.

DATUEN AZTERKETA:

Ereму pribatua

EREMUA: PRIBATUA**INTERES OROKORREKO ZERBITZUAK****1. ESPEDIENTE KOPURUA: 65****2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA****2.1. Izaera**

Jasotako espediente guztiek eskubide urraketaren izaera dute. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako kexei dagokienez, horietarik askok lege urraketaren izaera ere badute. Kontuan izan behar dugu hiru herrialde horietan interes orokorreko enpresei kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko betebeharrak ezarri zitzaizkiela 6/2003 Legearen bidez, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Eskubideak arautzen dituen.

2.2. Puntueltasuna / sistematikasuna***2.2.a. Errepikakortasuna***

Oro har, 2005 urtean jasotako kasuak gertaera askotarikoei buruzkoak izan dira.

2.2.b Erabilera**KEXEN ZIOA**

Argitalpenak gaztelaniaz
 Weborriak gaztelaniaz
 Errotulazioa gaztelaniaz
 Ahozko zerbitzua gaztelaniaz
 Idatzizko jakinarazpenak gaztelaniaz
 Ikastaroak gaztelaniaz
 Fakturak, kontratuak... gaztelaniaz
 Zerbitzua gaztelaniaz
 Publizitatea gaztelaniaz

2.3. Larritasuna

Kontuan izan behar dugu interes orokorreko zerbitzua ematen dituzten enpresak direla, eta beraz, horrelako zerbitzua euskaraz ere jasotzeko eskubidea bermatzea ezinbestekoa dela.

Ohikoa den moduan, herritar euskaldunari ez zaio horretarako aukerarik ematen, eta kasu batzuetan zerbitzua hautatu ez duen hizkuntzan jasotzeaz gain, bestelako kalte-ondorioak ere izan ditu.

Horietan aipagarria da garraio enpresaren zerbitzua kontratatu eta premiazko bidalketa bat egin zuen herritarren paketea heldu ez izana kalearen izena euskaraz jarri zuelako.

Bestalde, komunikazio enpresa batzuek herritarrei emandako erantzunak ere aipatzekoak dira, besteak beste, bezero gutxi euskaraz eskatzen dutenez zerbitzua euskaraz emango ez dutela. Horrek erakusten du hizkuntza gutxiagotuaren hiltunen eskubideen aldeko neurriak zein diren.

Erantzun zakarra era jaso dute herritarrek, esaterako, erantzungailua euskaraz izateagatik, TELEFÓNICA enpresako langile batek utzitako mezua. Bitxia da oso enpresa horretako langile batek horrelako erantzuna ematea, izan ere, enpresa horrek aukera ematen die bezeroei erantzungailua euskara hutsean izateko.

Azkenik, aipatzekoa da euskaraz zerbitzua jaso nahi duten herritarrek egun batez itxaron behar izatea enpresa bateko komertzialaren zerbitzua baliatu nahi baditu.

3. ARLOAREN ARABERAKO BALORAZIOA

EREMUA	
KOMUNIKAZIO ENPRESAK	22
ENERGIA HORNITZAILEAK	9
OSASUNGINTZA	10
HEZKUNTZA	10
GARRAIOBIDEAK - GARRIO ENPRESAK	14

KOMUNIKAZIO ENPRESAK

Komunikazio-enpresa zenbaitek bezeroentzako jakinarazpenak eta mezua gaztelania hutsean bidaltzeari jarraitzen diote. MOVISTAR enpresak, esaterako, publizitate eta propaganda guzti-guztia gaztelania hutsean igortzen du. Egundakoa dagoen RETENAK ez zuela euskara erabiliko jakinarazi zion herritar bati, antza, 20 herritarrek besterik ez zituztelako eskatu fakturak hizkuntza horretan.

Beste batzuetan herritarrek arreta zerbitzura deiturik, ezin izan zaie euskaraz artatu. Noizbait herritarri hurrengo egunean deitzeko eskatu izan zaio arreta zerbitzukoekin euskaraz egin nahi izan badu.

ENERGIA HORNITZAILEAK

NATURGAS enpresak gaztelania hutsean besterik ez dio luzatu kontratua herritar bati, eta beraz, eskubidea ez ezik, enpresa horrek 6/2003 Legeak ezarritakoa ere ez du betetzen. Halaber, enpresa horrek ele bietan dauden inprimakiak erabiltzen dituenean, gaztelaniazko aldea besterik ez du betetzen, eta beraz, ele bietako inprimakiak galdu egiten du bere funtzioa.

IBERDROLA enpresak ere oso gune euskaldunetan herritarrak informatzeko erabili dituen jakinarazpenak gaztelania hutsean zabaldu ditu. Kasu horretan ere Legearen aurka jo dute.

OSASUNGINTZA

Eremu publikoan bezalaxe, eremu pribatuan ere, herritarrari ezin izan zaio zerbitzua euskaraz eman osasun etxe pribatuetan. Gogoratu behar dugu osasungintzak zerbitzu asistentziala egiten duela, eta ondorioz, oso garrantzitsua dela profesionalaren eta herritarren arteko komunikazio zuzena.

Beste kexek osasungintzaren izaera asistentzialarekin loturarik ez duten zioak izan dituzte oinarri.

HEZKUNTZA

Eremu horri lotutako kexa asko hainbat erakunde zabaldu dituzte propagandari buruzkoak izan dira, hain zuzen ere, gaztelania hutsean zeudelako. Bestalde, aipatzekoa da gidatzeko baimena ateratzeko prestakuntza teorikoa euskaraz egin nahi dute ikasleek arazo handiak dituztela materialik ia ez dagoelako.

Bestalde, kasuren batean dirulaguntza publikoa jasotzen duten formazio zentro batek antolatzen dituen ikastaroetatik bat bera ere ez da euskaraz.

GARRAIOBIDEAK – GARRAIO ENPRESAK

Garraio enpresek bezeroei luzatzen dizkieten egiaztariak gaztelania hutsean egotea izan da kexen arrazoietakoa bat. Zenbait aparkaleku ere hizkuntza bakarrean dauden egiaztariak luzatzen dituzte, eta kasu batzuetan udal esleipenen bidez lortu izan dute enpresek aparkaleku horien ustiapena.

Inprimaki eta idatzizko jakinarazpenez gain, kasuren batean, bidaiariei bozgorailuz zuzendutako oharrak gaztelania hutsean zabaldu dituzte. Aurreko urteetan ere jaso izan da bidaiariei bozgorailu bidez emandako oharrak gaztelania hutsean zabaldu izana, eta arazo puntualtzat hartu izan dute garraio enpresek. Dena den, kontuan izan behar dugu arazo puntuala izanik ere, konponbidea eman behar zaiola, urraketa puntuala behin eta berriro gertatzeak sistematikotasuna dakarrelako.

4. ERANTZUNAK

Interes orokorreko zerbitzuak ematen dituzten erakundeek zein enpresek nahiko sistematikoki erantzun izan diete Behatokiak helarazitako kexei.

EUSKALTEL enpresak helarazitako erantzunetan langileei enpresaren hizkuntza politika gogorarazten dietela jakinarazi dute. Halaber, 2005 urtearen amaierarako Euskara Plana prest izango duela adierazi, eta horrekin hizkuntza-eskubideak bermatzeari begirako politika eraginkorragoa jarriko dute abian. Halaber, aipatzekoa da enpresa horrek eskertu egiten duela Behatokiak helarazten dizkion kexak eta bide horretan hobetzeko laguntza gisa hartzen dute.

Bestalde, interesgarria da ESTACIONAMIENTOS DEL NORTE S.L. enpresak esaterako Behatokiaren kexari emandako erantzuna. Aparkaleku horretako txartela gaztelania hutsean zegoela helarazi zion herritar batek Behatokiari. Enpresak, aldiz, tiketa ele bietan zegoela jakinarazi zuten. Behatokiak gaztelania hutsean zegoen ordainagiriaren txartelaren kopia bidalita, ez zioten eskaera berriari erantzun. Behatokiak egindako azterketaren arabera bi txartel desberdinez ari ginen; batetik, aparkalekutik irteteko erabiltzen dena (ele bietan) eta bestetik herritarrarentzako ordainagiria (gaztelania hutsean). Hala ere, lehen esan bezala, ez genuen jaso gure kexari erantzuteko bestelako eskutizik.

5. SINOPSIK: INTERES OROKORREKO ZERBITZUAK

KOMUNIKAZIO ENPRESAK

Zenbakia: 8/2005	Erakundea: EUSKALTEL	Bizkaia
Arrazoiak:	Webgunearen hainbat ataletan ez dago hizkuntza loturarik, euskarazko orriaren barruan gaztelaniaz agertzen da informazioa, besteak beste, zinemari eta futbolari buruzko ataletan.	
Zenbakia: 189/2005	Erakundea: EUSKALTEL	Bizkaia
Arrazoiak:	Zuntz optikoa instalatzen ari dira Lekeition. Bezeroak eskuratzeko etxetik egiten ari diren bileretan gaztelania hutsean ematen dute informazioa.	
Zenbakia: 474/2005	Erakundea: EUSKALTEL	Gipuzkoa
Arrazoiak:	EUSKALTELeK Garbera merkataritza gunea duen saltokian ezin izan zioten harrera euskaraz egin, bertan zeuden bi langileek ez baitzekiten euskaraz. Faktura ere gaztelania hutsean luzatu zioten, eta zerbitzua emateko kontratuaren inprimakia ele bietan egon arren, gaztelaniaz bete zioten.	
Zenbakia: 638/2005	Erakundea: EUSKALTEL	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Herritarrak kontratua sinatu du EUSKALTELeKin. Kontratua egin aurretik izandako lehen deia egin zuena euskalduna zen, baina ondorengo deietan erdalduak izan ziren eta euskaraz hitz egitekotan propio eskatu eta pertsonaz aldatu beharra zegoen. Bestetik, kontratu-orri elebidunarekin batera salmenta-sailak bidalitako gutuna gaztelania hutsean zegoen, bezero honek harremanak euskaraz nahi dituela jakinarazi arren.	
Zenbakia: 782/2005	Erakundea: EUSKALTEL	Bizkaia
Arrazoiak:	EUSKALTELeK Barakaldoko Max Center merkataritza gunean duen saltokian herritarrari harrera egin zion saltzaileak ez zekien euskaraz. Langile horrek luzatu zion informazio-orria ere gaztelania hutsean zegoen.	
Zenbakia: 477/2005	Erakundea: MOVISTAR	Nafarroa
Arrazoiak:	MOVISTAR enpresak kaleratu duen promozio bateko publizitatea gaztelania hutsez jaso du erakunde batek.	

Zenbakia: 497/2005 Arrazoiak:	Erakundea: MOVISTAR MOVISTAR enpresak erakunde bati bidali dion informazio esku orria gaztelania hutsean dago.	Nafarroa
Zenbakia: 595/2005 Arrazoiak:	Erakundea: MOVISTAR 2005eko irailaren hasieran enpresak faktura euskaraz bidali dion arren, propaganda gaztelania hutsean bidali dio.	Nafarroa
Zenbakia: 736/2005 Arrazoiak:	Erakundea: MOVISTAR MOVISTAR enpresak fakturarekin batera bidali dion informazio-orria gaztelania hutsean dago.	Nafarroa
Zenbakia: 367/2005 Arrazoiak:	Erakundea: RETENA Faktura euskaraz helarazteko eskakizumari ezezkua eman diote. Arrazoiak: 20 bezerok besterik ez dutela eskatu eta ez duela merezi.	Nafarroa
Zenbakia: 437/2005 Arrazoiak:	Erakundea: TELE 2. TELECOMMUNICATION SERVICES TELE2 telekomunikazio enpresak bezeroak informazioa eta jakinarazpenak euskaraz bidaltzeko egin dion eskaerari jaramonik egin gabe gaztelania hutsean bidaltzen jarraitzen du.	Nafarroa
Zenbakia: 132/2005 Arrazoiak:	Erakundea: TELEFÓNICA TELEFÓNICAK gaztelania hutsean helarazi die jakinarazpena eskaera birritan eta euskara hutsean egin arren.	Nafarroa
Zenbakia: 137/2005 Arrazoiak:	Erakundea: TELEFÓNICA TELEFONICAK gaztelania hutsean bidali dio erakunde bati zerbitzu berri bati buruzko informazioa.	Bizkaia
Zenbakia: 210/2005 Arrazoiak:	Erakundea: TELEFÓNICA TELEFÓNICAK enpresa bati eskaintza berezi baten berri emateko bidali dizkion propaganda eta gutuna gaztelania hutsean daude.	Bizkaia
Zenbakia: 230/2005 Arrazoiak:	Erakundea: TELEFÓNICA Herritar batek baja emateko eskatu zuen. Etxean ez zela deitu diote hainbat datu eskatzeko. Erantzungailua euskaraz du eta honako mezua utzi diote: " <i>¿No podéis poner la cinta en castellano para que la entendamos todos?</i> ".	Nafarroa
Zenbakia: 243/2005 Arrazoiak:	Erakundea: TELEFÓNICA TELEFONICAK maiatzeko fakturarekin batera bidali duen propaganda gaztelania hutsean dago.	Nafarroa
Zenbakia: 248/2005 Arrazoiak:	Erakundea: TELEFÓNICA TELEFONICAK maiatzeko fakturarekin batera bidali duen propaganda gaztelania hutsean dago.	Nafarroa
Zenbakia: 252/2005 Arrazoiak:	Erakundea: TELEFÓNICA TELEFÓNICA enpresak erakunde bati bidali dion kanpaina berri bati buruzko publizitatea gaztelania hutsean dago.	Nafarroa
Zenbakia: 320/2005 Arrazoiak:	Erakundea: TELEFÓNICA Bezeroarentzako arreta zerbitzura deitu zuen kontsulta bat egiteko. Harrera euskaraz egin zioten, baina informazioa eskuratzeko komertzialarekin hitz egin behar zuela adierazi zioten. Euskaraz egin nahi izatekotan, hurrengo egunera arte itxaron beharko zuela esan zioten.	Nafarroa
Zenbakia: 340/2005 Arrazoiak:	Erakundea: TELEFÓNICA TELEFONICAKo Marketing zuzendariak gaztelania hutsean bidali dio enpresa bati eskaintza berezi baten berri emateko gutuna.	Nafarroa
Zenbakia: 441/2005 Arrazoiak:	Erakundea: UNI2 TELECOMUNICACIONES UNI2 TELECOMUNICACIONES enpresak gaztelania hutsean bidaltzen ditu jakinarazpenak eta informazioa, bezeroak euskaraz ere bidaltzeko egindako eskaerari jaramonik egin gabe.	Nafarroa
Zenbakia: 627/2005 Arrazoiak:	Erakundea: VODAFONE Bezeroarentzako arreta zerbitzura (123 telefonoa) hainbat aldiz deiturik, ez diote inoiz zerbitzua euskaraz eman.	Nafarroa

ENERGIA HORNITZAILEAK

Zenbakia: 169/2005 Arrazoiak:	Erakundea: ACESOL ACESOLEk 2005eko apirilaren 7an Altzako etxeetako postontzietan banatu duen publizitatea gaztelania hutsean dago.	Gipuzkoa
Zenbakia: 609/2005 Arrazoiak:	Erakundea: CAMPSA Bidebietako CAMPSAko gasolindegian, gasolina-makinak ahots baten bidez adierazten dizu zein gasolina-mota aukeratu duzun eta eskerrak ematen dizkizu. Ahots honek gaztelaniaz soilik hitz egiten du.	Gipuzkoa

Zenbakia: 139/2005 Arrazoiak:	Erakundea: IBERDROLA IBERDROLAK martxoaren 29an oharra bidali zien Oiartzungo Petrirena bideko bizilagunei, obrak zirela eta argia moztuko zutela jakinarazteko. Jakinarazpena gaztelania hutsean zegoen.	Gipuzkoa
Zenbakia: 174/2005 Arrazoiak:	Erakundea: NATURGAS NATURGASen propaganda eta eskaintza jaso ditu etxean. Propaganda euskaraz eta gaztelaniaz dago, baina kontratua gaztelania hutsean bidali dute.	Gipuzkoa
Zenbakia: 175/2005 Arrazoiak:	Erakundea: NATURGAS NATURGAS COMERCIALIZADORAK propagandarekin batera kontratua bidaltzeko sartu duen gutunazalean gaztelania hutsean ageri da hiriaren izena.	Gipuzkoa
Zenbakia: 266/2005 Arrazoiak:	Erakundea: NATURGAS NATURGAS enpresatik ikuskapenerako oharra igorri diote. Inprimakia ele bietan dagoen arren, gaztelaniazkoa soilik bete dute. Maiatzaren 12an informazio telefonora deitu zuen eguerdiko 12:30etan kexa jartzeko asmotan eta ezin izan zioten zerbitzua euskaraz eman.	Bizkaia
Zenbakia: 506/2005 Arrazoiak:	Erakundea: NATURGAS Donostiako elkarte batek NATURGASekin sinatu du. Kontratua gaztelania hutsean eman diete.	Gipuzkoa
Zenbakia: 692/2005 Arrazoiak:	Erakundea: NATURGAS NATURGAS enpresak gasaren kontratua gaztelania hutsez bidali dio, euskaraz jaso nahi duela espreski eskatu arren.	Bizkaia
Zenbakia: 616/2005 Arrazoiak:	Erakundea: REPSOL Lintzirineko hotelaren ondoan dagoen REPSOL gasolindegiko hornitzaileen grabatutako ahotsa gaztelania hutsean dago.	Gipuzkoa

OSASUNGINTZA

Zenbakia: 797/2005 Arrazoiak:	Erakundea: CENTRO SANITARIO VIRGEN DEL PILAR CENTRO SANITARIO VIRGEN DEL PILARren urteroko mediku errebisioa egitean bertan betetzeko eman zioten inprimakia gaztelania hutsean zegoen. Euskarazkoa eskatuta ez zutela erantzun zioten.	Gipuzkoa
Zenbakia: 798/2005 Arrazoiak:	Erakundea: CENTRO SANITARIO VIRGEN DEL PILAR CENTRO SANITARIO VIRGEN DEL PILAR delakoan harrera puntu bakar batean ere ez zekiten euskaraz.	Gipuzkoa
Zenbakia: 565/2005 Arrazoiak:	Erakundea: DYA DYAK Galdakaon kotxeen haizetarakoan edanda gidatzeak dituen arriskuez ohartarazteko utzi zituen triangelu-eskuorrietan informazio gutzia gaztelania hutsean dago.	Bizkaia
Zenbakia: 66/2005 Arrazoiak:	Erakundea: GURUTZE GORRIA Asiako lurrikararen hondamendiari aurre egiteko diru bilketa egin zuten EROSKIK eta GURUTZE GORRIAK sustatuta Eroskiko kutxetan. Euro baten truke egutegi bat ematen zuten. Egutegi hori gaztelania hutsean zegoen.	Nafarroa
Zenbakia: 582/2005 Arrazoiak:	Erakundea: GURUTZE GORRIA Donostian, Santa Klara uhartean, irailaren 22an, eguerdiko 12:30etan herritarren biloba eskailera batean irristatu eta zauritu egin zen. Bertan egoten den GURUTZE GORRIko sorospen taldearengana jo zuten. Lauzpabost sorosle zeuden eta bakar batek ere ez zekien euskaraz.	Gipuzkoa
Zenbakia: 102/2005 Arrazoiak:	Erakundea: GIPUZKOA POLIKLINIKA GIPUZKOA POLIKLINIKAK gaztelania hutsean argitaratu du esku orria.	Gipuzkoa
Zenbakia: 128/2005 Arrazoiak:	Erakundea: IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO delakoak artatzen dituen herritarrek ezin dute inolako zerbitzurik jaso euskaraz, ez hitzez, ez idatziz.	Bizkaia
Zenbakia: 149/2005 Arrazoiak:	Erakundea: NUESTRA SEÑORA DE OKON ZAHARRETXEAK NUESTRA SEÑORA DE OKON ZAHARRETXEAK gaztelania hutsean bidali du hedabideetara zaharretxeari buruzko informazioa.	Araba
Zenbakia: 470/2005 Arrazoiak:	Erakundea: NUESTRA SEÑORA DE OKON ZAHARRETXEAK NUESTRA SEÑORA DE OKON ZAHARRETXEAK gaztelania hutsean bidali du hedabideetara prentsa oharra 2005eko uztaillean	Araba
Zenbakia: 510/2005 Arrazoiak:	Erakundea: PERLA TALASOTERAPIA PERLA TALASOTERAPIAN harrera egin dion langileak ezin izan dio zerbitzua euskaraz eman herritarri.	Gipuzkoa

HEZKUNTZA

Zenbakia: 358/2005	Erakundea: ACTIVA	Nafarroa
Arrazoa:	Gaztelania hutsezko propaganda banatu du familia euskaldunen artean.	
Zenbakia: 626/2005	Erakundea: BAI AND BY	Nafarroa
Arrazoa:	Postontzian BAI & BY hizkuntz akademiaren bi eskuorri jaso zituzten. Biak gaztelania hutsez zeuden.	
Zenbakia: 84/2005	Erakundea: BIZKAIKO AUTOESKOLEN ELKARTEA	Bizkaia
Arrazoa:	Herritarrak gidatzeko baimena eskuratu nahi du. Prestakuntza teorikorako materiala euskaraz aurkitu ezinik dabil.	
Zenbakia: 85/2005	Erakundea: BIZKAIKO AUTOESKOLEN ELKARTEA	Bizkaia
Arrazoa:	Gidatzeko baimena ateratzeko prestakuntza teorikorako argitalpenik ez dago euskaraz.	
Zenbakia: 742/2005	Erakundea: DOP. DISTRIBUCIÓN DE OPOSICIONES	Gipuzkoa
Arrazoa:	Herritarrak DOP ikastegiak bidalita eta berak eskatu gabe etxeko postontzian jaso duen publizitate-orria gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 225/2005	Erakundea: TXIKI TXOKO HAURTZAINDEGIA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Gaztelania hutsezko publizitate-esku orria banatu zuen Donostian.	
Zenbakia: 344/2005	Erakundea: URTXINTXA	Gipuzkoa
Arrazoa:	URTXINTXA eskualdeko Formazio Zentroak AULA MENTOR egitasmoaren barnean antolatutako ikastaroetan bakarria ere ez da eskaintzen euskaraz. Ikastaroen berri emateko bidalitako gutuna ere gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 267/2005	Erakundea: ZUBELDIA FORMAKUNTZA S. L.	Gipuzkoa
Arrazoa:	ZUBELDIA FORMAKUNTZA S.L.k erakunde bati bidali dion gutunaren euskarazko bertsioak akats gramatikalak ditu.	
Zenbakia: 313/2005	Erakundea: ZUBELDIA FORMAKUNTZA S. L.	Gipuzkoa
Arrazoa:	Weborriak ez du euskarazko informaziorik eskaintzen.	
Zenbakia: 352/2005	Erakundea: ASMOZ FUNDAZIOA	Bizkaia
Arrazoa:	Asmoz fundazioak Igorritako eskuorria "Heráldica y Genealogía" curso práctico on-line" izeneko gaztelania hutsean dago	

GARRAIOBIDEAK / GARRAIO-ENPRESAK

Zenbakia: 703/2005	Erakundea: AZKAR	Gipuzkoa
Arrazoa:	Herritarrak jaso duen paketearen banaketa-agiria gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 81/2005	Erakundea: BANATU	Gipuzkoa
Arrazoa:	Otsailaren 11n fardela bat bidali zuten BANATU enpresarekin egun berean entregatzeko Iruñeko Oibarre kalean. Helbidea euskaraz idatzi zuten, eta hurrengo egunean, arratsaldean, fardela oraindik entregatu gabe zegoen helbidean idatzita zegoen kalea ez omen zelako existitzen. Kalearen izena gaztelaniaz eman eta biharamunean fardela bueltan eramanean zioten bidaltzaileari, nahi bazuen erreklamazioa jartzeko esanez.	
Zenbakia: 543/2005	Erakundea: EL TRANSBORDADOR DE BIZKAIA S. L.	Bizkaia
Arrazoa:	Bizkaiko zubian jendeari zuzendutako ohar eta jakinarazpen guztiak gaztelania hutsean jartzen dituzte beti.	
Zenbakia: 682/2005	Erakundea: EL TRANSBORDADOR DE BIZKAIA S. L.	Bizkaia
Arrazoa:	Bizkaiko zubiko txartelak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 49/2005	Erakundea: EGUISA. ESTACIONAMIENTOS GUIPUZCOANOS S.A.	Gipuzkoa
Arrazoa:	EGUISA, Donostiako hainbat aparkaleku ustiatzen dituen enpresak, urtero bezala, gaztelania hutsean bidali dio gutuna bezeroari.	
Zenbakia: 366/2005	Erakundea: ESTACIONAMIENTOS URBANOS DEL NORTE	Nafarroa
Arrazoa:	Ordainketa tiketari agurra ez beste guztia gaztelania hutsez dago.	
Zenbakia: 164/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO ANBULANTZIAK	Gipuzkoa
Arrazoa:	Herritarrak GIPUZKOAKO ANBULANTZien zerbitzura deitu du. Harreran zegoen langileak ezin izan dio zerbitzua euskaraz eman.	
Zenbakia: 662/2005	Erakundea: INTERPARKING HISPANIA	Nafarroa
Arrazoa:	Herritarrak Bilboko Alde Zaharreko INTERPARKING HISPANIA aparkalekuan jaso duen ordainagiria gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 737/2005	Erakundea: METRO BILBAO	Bizkaia
Arrazoa:	Azaroaren 23an, goizeko 8:15 inguruan, metroan mezu bat eman zuten bozgorailuz, kanpoko txartela gaizki jarrita zegoela eta Plentziara joan ordez Sestaora zihoala jakinarazteko bidaiari. Meza gaztelaniaz bakarrik eman zuten.	

Zenbakia: 92/2005	Erakundea: SEUR. SERVICIO URGENTE DE TRANSPORTE	Nafarroa
Arrazoa:	SEUR enpresako banatzaileak pakete bat ekarri zion herritarrari. Banaketa enpresaren inprimaki guztiak gaztelania hutsean zeuden.	
Zenbakia: 211/2005	Erakundea: SEUR. SERVICIO URGENTE DE TRANSPORTE	Bizkaia
Arrazoa:	SEUR banaketa enpresak gaztelania hutsean luzatu dio hartzaileari paketearen emate-agiria.	
Zenbakia: 620/2005	Erakundea: SEUR. SERVICIO URGENTE DE TRANSPORTE	Gipuzkoa
Arrazoa:	Garraiolariaren greba dela eta SEUREK bidalitako informazioa gaztelania hutsez dago.	
Zenbakia: 335/2005	Erakundea: ALSA	Bizkaia
Arrazoa:	Ekainaren 20an Bilbo eta Irun arteko garraio zerbitzua ematen duen ALSA enpresak herritarren informazioa duen 902 lineako zenbakira deitu du. Makinak erantzun dio, gaztelania hutsean. Hiru aldiz saiatu da euskaraz, baina askenean etsi eta gaztelaniaz egin behar izan du. Hirugarren saiakera horretan pertsona batekin jarri dute. Horrek ere gaztelaniaz erantzun dioenez, euskaraz harrera egingo zion norbait ez al zuten galdetu dio, eta ezetz esatearekin batera telefonoa eseki dio inolako azalpenik eta informaziorik eman gabe. Berriz saiatu da, baina alferrik, ez diote telefonoa hartu.	
Zenbakia: 237/2005	Erakundea: TÜV. RHEINLAND	Gipuzkoa
Arrazoa:	Irungo ibilgailuen azterketa teknikorako zentroan hainbat ohar jarri dituzte aurrez hitzordua eskatu behar dela gogorarazteko. Denak gaztelania hutsean daude. Azterketa egin ondoren agiriak hartzeko zein leihatilatara joan behar den adierazten duten oharrek ere gaztelania hutsean daude.	

EREMUA: PRIVATUA

MERKATARITZA GUNEA, KATEAK, DENDA ERRALDOIAK...

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 86

2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

2.1. Izaera

Jasotako espediente guztiek eskubide urraketaren izaera dute. Lege urraketari dagokionez, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan izandako zenbait kasutan lege urraketa ere izan da.

2.2. Puntueltasuna / sistematikasuna

2.2.a. Errepikakortasuna

Kasu gehienetan ez da gertaera bati buruzko kexa askorik jaso; gertaera desberdinei buruzkoak baizik.

2.2.b Erabilera

KEXEN ZIOA

Ahozko informazioa gaztelania hutsean
Publizitatea gaztelania hutsean
Fakturak, tiketak... gaztelania hutsean
Webgunea gaztelania hutsean
Bozgorailu bidezko mezuak gaztelania hutsean
Kontratuak gaztelania hutsean
Errotulazioa gaztelania hutsean
Seinaleak gaztelania hutsean
Jarraibideetarako liburuxkak gaztelania hutsean
Katalogoak gaztelania hutsean

2.3. Larritasuna

Kontsumitzaile euskaldunak bigarren mailako herritarrak dira eta ez dute bermatuta (zenbaitetan aitortuta ere) euskaraz artatua edota informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea.

Horrela, sistematikoa da hizkuntza-eskubideak bermatzeko baliabide gehien eta erreferente izan daitezkeen enpresek sistematikoki urratzea. Lasaitasun osoz

urra ditzakete eskubideak, eta are larriagoa dena, lasaitasun osoz egin diezaiokete muzin legeari. Ezinbestekoa da, beraz, legeak babesa ematen duen eremuetan horiek betetzeko neurriak ezartzea; bestela, antzua izango da merkataritza-gune, denda erraldoi eta kateen jokabidea ikusirik.

3. ARLOAREN ARABERAKO BALORAZIOA

Merkataritza-guneak, kateak eta denda erraldoiak izan dira eremu pribatuan kexa gehien jaso dituen eremua. Zoritxarrez, azken urteotan izandako bilakaera kontuan harturik aurrerapausorik ez da izan sektore honek herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko politiketan.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Legeak ezarritakoaren arabera, fakturak, tiketak eta gisa horretako dokumentuak euskaraz jasotzeko eskubidea dute herritarrek. Hala ere, Behatokiak kudeatutako espedienteetan behin eta berriro agertu da eskubide horren urraketa, bai eta lege urraketa ere. Tamalez, lege berria indarrean jartzeak ez du eragin zuzenik izan herritarren hizkuntza-eskubideen bermean, izan ere, zenbait kasutan merkataritza-gune edo denda erraldoi berriei ere ez diote eutsi dagoeneko indarrean zegoen legeari.

Bestalde, biziki kezkatzen gaitu merkataritzagune eta denda erraldoiek publizitate eta propagandan erabiltzen duten hizkuntza politika. Hartara, kasu askotan gaztelania hutsean argitaratzen dituzte eskuorriak zein liburuxkak: LIDL, IF IN FARADIS, DECORAMA, EXPOSOFAS, FNAC, IKEA, MEDIA MARKT, AKI, ALCAMPO, SUPER BM... Bestetan, euskarazko esaldi bat agertzen bada ere, gainerako informazioa gaztelania hutsean ematen dute, apaingarri gisa edo. Kasu horietan ere, euskarari nolako tratamendua ematen zaion aski argi uzten dute enpresek, alegia, erabat anekdotikoa dela.

Horiez guztiez gainera, izan dira, irtenbide erraza egonik ere, eskubide urraketa eragin duten kexak, errotulazioei edo produktuetako txartel informatiboetarako buruzkoak, esaterako. Horrelakoak hainbat dendatan aurkitu dira: Donostiako Gros Auzoko eta Ribabellasoako EROSKIn, IF IN FARADISen eta abarretan.

4. ERANTZUNAK

Merkataritza gune handiek hainbat erantzun igorri dituzte Behatokiari. Ohikoa duen moduan, E. LECLERC hipermerkatuak erantzun egin die Behatokiaren kexei eta legez inolako derrigortasunik ez dutela berretsi dute, nahiz eta etorkizunean gure iradokizunak kontuan har ditzaketela zehaztu.

IKEA dendak ere erantzun egin dio Behatokiari eta etorkizunean, publizitatean euskararen erabilera orekatua lortzeko plan bat abian jarriko dutela azaldu dute. Hala ere, aipurik ez dute egin legeak ezarritako betebeharren urraketari irtenbidea emateari buruz.

FNAC dendari dagokionez, haien argitalpen guztietan euskarari erreferentziaren bat egiten diotela azaldu dute. Behatokiak kudeatutako espedienteetan, aldiz, ez zegoen erreferentzia txikiarik ere.

ELKAR megadendak ere beti erantzun izan die Behatokiaren jakinarazpenei. Aipatzekoa da nola denda handien eremuan euskaraz erantzun duen bakarra ELKAR izan den. Bestalde, Bilboko gertaerari dagokionez, denda horretan langile gaitua dutela jakinarazi dute zerbitzua euskaraz zein gaztelaniaz emateko. Bestalde, herritarren eskubideak bermatzeko eta euskara lan hizkuntza bihurtzeko aurrera daramaten planaren berri helarazi diote Behatokiari.

5. SINOPSIK: MERKATARITZA GUNE HANDIAK, KATEAK, DENDA ERRALDOIAK...

Zenbakia: 216/2005	Erakundea: AKI	Gipuzkoa
Arrazoiak:	AKI kateak Donostiako etxeetan banatu duen publizitatean ez dago euskararen arrastorik.	
Zenbakia: 261/2005	Erakundea: AKI	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Udara begira kaleratu duen publizitate eskuorria gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 619/2005	Erakundea: ALCAMPO	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Txingudiko ALCAMPO gasolindegiko makineta grabatutako mezua gaztelaniaz besterik ez dago.	
Zenbakia: 623/2005	Erakundea: ALCAMPO	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Erakunde batek postontzian ALCAMPOren iragarki liburuxka jaso zuen eta guztia gaztelania hutsez zegoen.	
Zenbakia: 647/2005	Erakundea: ALCAMPO	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Oiartzungo ALCAMPOk gaztelania hutsean banatu du propaganda Errenteria-Oreretako etxeetan.	
Zenbakia: 607/2005	Erakundea: BIDARTE MERKATARITZA GUNEA	Bizkaia
Arrazoiak:	Gune osoan larrialdietarako errotulazioa 4 hizkuntzatan dago, baina ez euskaraz.	
Zenbakia: 374/2005	Erakundea: C-SYSTEM	Nafarroa
Arrazoiak:	C-SYSTEM kateak Irurtunen duen dendaren eta produktuen publizitatea gaztelania hutsean argitaratzen du.	
Zenbakia: 220/2005	Erakundea: CARREFOUR	Gipuzkoa
Arrazoiak:	CARREFOUR kateak Donostian banatu duen publizitatean azalean soilik ematen zaio euskarari tratuera orekatua, barruko orrietan informazio guztia gaztelania hutsean ageri da.	
Zenbakia: 264/2005	Erakundea: CARREFOUR	Gipuzkoa
Arrazoiak:	CARREFOURek Hernaniko etxeetan banatu duen teknologia berrien inguruko propaganda aldizkarian euskara eta gaztelaniaren presentzia orekatua da azalean, ez ordea barneko orrietan, den dena gaztelania hutsean baitago.	
Zenbakia: 503/2005	Erakundea: CARREFOUR	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Donostialdeko etxeetako buzoietan sartu duen publizitate liburuxkak azala euskaraz baldin badu ere, barneko guztia gaztelania hutsez dago.	
Zenbakia: 525/2005	Erakundea: CARREFOUR	Nafarroa
Arrazoiak:	CARREFOUR enpresak Iruñean propaganda gaztelania hutsez banatu du.	
Zenbakia: 735/2005	Erakundea: CARREFOUR	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Golerrin duen hipermerkatuak gaztelania hutsean bidali dio Gabonetako zorian txartela herritarri.	
Zenbakia: 226/2005	Erakundea: COVIRAN	Gipuzkoa
Arrazoiak:	COVIRAN Supermerkatu kateak Donostian dituen dendetako publizitatean euskara leloan besterik ez da agertzen. Gainerako produktuen izenak eta horiei buruzko azalpenak gaztelania hutsean daude, bi hizkuntza hauen arteko egoera desorekatua bihurtuz.	
Zenbakia: 295/2005	Erakundea: COVIRAN	Bizkaia

Arrazoiak:	COVIRANek maiatzaren bukaeran banatu duen publizitatean euskaraz ez du ia tarterik. Promozioan sartzen diren produktu guztiei buruzko informazioa gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 457/2005	Erakundea: COVIRAN	Gipuzkoa
Arrazoiak:	COVIRAN supermerkatuak ekaina eta uztaile arteko promozio eskuorria nagusiki gaztelaniaz kaleratu du. Euskarazko esaldi bakar batzuk agertzen diren arren, ez da bi hizkuntzen arteko oreka mantentzen.	
Zenbakia: 160/2005	Erakundea: DECATHLON	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Belartzako denda egon ziren herritarrek. Bertan neska erdaldun batek artatzeaz gainera, eskura zegoen iragarkia gaztelaniaz besterik ez zegoen.	
Zenbakia: 213/2005	Erakundea: DECATHLON	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Erosleen eskura jartzen dituzten katalogoak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 430/2005	Erakundea: DECATHLON	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Belartzako biribilgunetik bere saltokiraino eta bertan jarri dituen merkealdiko txartel guztiak gaztelania hutsez daude.	
Zenbakia: 610/2005	Erakundea: DECATHLON	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Belartzako denda ezin izan zieten informazioa euskaraz eman.	
Zenbakia: 652/2005	Erakundea: DECATHLON	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Aldian-aldian eskaintzen eta oharren berri emateko gutunak bidaltzen dizkio etxera herritarri, eta jakinarazpen horiek gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 770/2005	Erakundea: DECATHLON	Gipuzkoa
Arrazoiak:	DECATHLONek argitaratzen dituen aldizkariak gaztelania hutsez egoten dira.	
Zenbakia: 776/2005	Erakundea: DECATHLON	Nafarroa
Arrazoiak:	Iruñeko DECATHLONek eskatu gabeko informazioa bidali dio herritarri, gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 550/2005	Erakundea: DECORAMA	Bizkaia
Arrazoiak:	DECORAMA MUEBLES enpresak publizitatea utzi du erakunde bateko postontzian. Bertan ez dago euskarazko hitz bat ere.	
Zenbakia: 354/2005	Erakundea: E. LECLERC	Nafarroa
Arrazoiak:	LECLERC hipermerkatuak bezeroei banatzen dizkien deskontu txartelak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 502/2005	Erakundea: E. LECLERC	Nafarroa
Arrazoiak:	LECLERCek propaganda gaztelania hutsean banatu du.	
Zenbakia: 481/2005	Erakundea: ELKAR	Bizkaia
Arrazoiak:	ELKAR kateak Bilbon zabaldu berri duen megadendara joan zen herritarra liburu bat erostera. Ordainkutan zegoen langileak ez zuen euskaraz ongi ulertzen.	
Zenbakia: 747/2005	Erakundea: ELKAR	Lapurdi
Arrazoiak:	ELKAR kateak Baionako kartadun bezeroari bidali dion ELKAR aldizkariaren gabonetako 1. alean euskarari eskaintzen zaion tartea ez da batera orekatua. Frantsesa da nagusi alde handiz.	
Zenbakia: 655/2005	Erakundea: EL CORTE INGLÉS	Nafarroa
Arrazoiak:	Herritarri bidali dion gutuna gaztelania hutsean idatzita dago.	
Zenbakia: 693/2005	Erakundea: EL CORTE INGLÉS	Nafarroa
Arrazoiak:	Herritarra zoriortzeko gutuna bidali dio, gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 7/2005	Erakundea: EROSKI	Gipuzkoa
Arrazoiak:	EROSKIko propagandaren ohar nagusiak euskaraz badaude ere, eskaintzen diren produktuen izenak eta prezioak gaztelaniaz agertzen dira.	
Zenbakia: 109/2005	Erakundea: EROSKI	Bizkaia
Arrazoiak:	Barakaldoko Max Centerren ondoan Eroski zabaldu berri duen gasolindegian AUTOSERBIZIOA jartzen du	
Zenbakia: 121/2005	Erakundea: EROSKI	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Donostiako Gros auzoko EROSKIIn harategian eta arrandegian salgai dauden produktuen izenak gaztelaniaz besterik ez dira agertzen.	
Zenbakia: 122/2005	Erakundea: EROSKI	Araba
Arrazoiak:	EROSKIren (Araba) Ribabelleseko denda ez dago euskararen arrastorik.	
Zenbakia: 124/2005	Erakundea: EROSKI	Nafarroa
Arrazoiak:	EROSKI FUNDAZIOAK eta GURUTZE GORRIAK Asiako Hego-ekialdeko tsunamiak utzitako hondamendiari aurre egiteko kanpaina antolatu dute. Euro baten truke eskura daitezkeen egutegiak jarri dituzte herritarren eskura EROSKIren establezimenduetan. Egutegiak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 217/2005	Erakundea: EROSKI	Gipuzkoa

Arrazoa:	EROSKI kateak argitaratzen dituen <i>Conecta</i> , Gabonetako jostailuen eta hileroko eskaintzen katalogoetan azaletan soilik erabiltzen du euskara modu orekatuan. Barruko orrietan gaztelania hutsean ageri da informazio guztia.	
Zenbakia: 246/2005	Erakundea: EROSKI	Araba
Arrazoa:	EROSKIK Ribabellosan zabaldu duen saltokian euskarak ez du tokirik, ez hitzez ez eta idatzizko adierazpenetan ere.	
Zenbakia: 249/2005	Erakundea: EROSKI	Gipuzkoa
Arrazoa:	EROSKIK bere saltokietan banatzen duen TRAVEL CLUB aldizkaria gaztelania hutsean dator behin eta berriro.	
Zenbakia: 307/2005	Erakundea: EROSKI	Araba
Arrazoa:	EROSKI BIDAIARAK San Prudentzioren zubirako hainbat eskaintza atera zituen eta horien berri emateko gaztelania hutsezko orria bidali zuen etxeetara.	
Zenbakia: 377/2005	Erakundea: EROSKI	Gipuzkoa
Arrazoa:	2005eko ekainean EROSKIKo poltsetan gaztelaniaz bakarrik agertzen zen promozio bateko testua: " <i>Arriba los frescos, abajo los precios</i> ".	
Zenbakia: 386/2005	Erakundea: EROSKI	Gipuzkoa
Arrazoa:	Herritarrak Urbil Merkatalguneako EROSKIn maleta baten kontsulta egin behar izan zion bertako langile bati. Euskaraz galdetzen hasi zitzaion, baina ez zion ulertzen eta gaztelaniaz hitz egiteko eskatu zion.	
Zenbakia: 451/2005	Erakundea: EROSKI	Gipuzkoa
Arrazoa:	<i>Konekta 05</i> izeneko publizitate eskuorrian euskara azalean bakarrik azaltzen da. Gainerako guztia gaztelania hutsean idatzi dago.	
Zenbakia: 460/2005	Erakundea: EROSKI	Gipuzkoa
Arrazoa:	EROSKIK argitaratu duen " <i>Udan ere...gora freskoak, behera prezioak</i> " izeneko katalogoan azala, lehenengo 6 orriak eta kontra azala kenduta, gainontzeko guztia gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 664/2005	Erakundea: EROSKI	Gipuzkoa
Arrazoa:	Garbera gune komertzialean, kutzara joan eta ezin izan zioten euskaraz artatu.	
Zenbakia: 688/2005	Erakundea: EROSKI	Gipuzkoa
Arrazoa:	Grosetako saltokian osasunari buruzko panel bat jarri du kutxatilen alboan, gaztelania hutsez.	
Zenbakia: 13/2005	Erakundea: ESCALERA EUROPEA	Nafarroa
Arrazoa:	Herritarrak eskatu gabeko propaganda jaso du gaztelania hutsez. Are gehiago, helbidea ere gaztelaniaz jarri dute, toponimoak eta guzti.	
Zenbakia: 551/2005	Erakundea: EUROMUEBLE	Bizkaia
Arrazoa:	EUROMUEBLE enpresak erakunde bateko postontzian gaztelania hutsezko publizitatea utzi du.	
Zenbakia: 322/2005	Erakundea: EXPOSOFAS	Bizkaia
Arrazoa:	EXPOSOFAS enpresak likidazioaren berri emateko Busturialdeko etxeetan banatu duen propaganda orria gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 37/2005	Erakundea: FAGOR	Gipuzkoa
Arrazoa:	Herritarrak FAGOR etxe-tresna erosi du. Argibideen liburuxka eta gainerako agiriak hainbat hizkuntzatan ageri dira, euskaraz izan ezik.	
Zenbakia: 247/2005	Erakundea: FAGOR	Gipuzkoa
Arrazoa:	FAGOR etxe-tresnek dakartzaten jarraibideak hamaika hizkuntzatan daude, gaztelania, portugesa, ingelesa..., euskaraz ez, ordea.	
Zenbakia: 581/2005	Erakundea: FAGOR	Gipuzkoa
Arrazoa:	Herritarrak FAGOR markako etxe-tresna berriak erosi ditu. Tresnen erabilpenerako argibideak eta aholkuak, hainbat hizkuntzatan ageri dira, baina euskaraz ez.	
Zenbakia: 458/2005	Erakundea: FEU VERT	Gipuzkoa
Arrazoa:	Promozio orria nagusiki gaztelaniaz kaleratu du. Euskarazko esaldi bakar batzuk agertzen diren arren, ez zaio bi hizkuntzen arteko orekari eusten.	
Zenbakia: 522/2005	Erakundea: FLEX	Gipuzkoa
Arrazoa:	FLEX markak Donostian dituen dendetako iragarkiak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 569/2005	Erakundea: FNAC	Gipuzkoa
Arrazoa:	Donostiako denda berriaren publizitatea gaztelania hutsez dago	
Zenbakia: 671/2005	Erakundea: FNAC	Gipuzkoa
Arrazoa:	FNACek Donostian bezereen eskura jarri duen aldizkariaren maiatzeko alea gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 214/2005	Erakundea: IF IN PARADIS	Gipuzkoa
Arrazoa:	Donostian banatu duen publizitatea gaztelania hutsean dago.	

Zenbakia: 734/2005	Erakundea: IF IN PARADIS	Araba
Arrazoa:	IF txartela duten bezereen etxeetara bidaltzen dituzten komunikazio guztiak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 795/2005	Erakundea: IF IN PARADIS	Gipuzkoa
Arrazoa:	Hernaniko Ispizua kalean dagoen IF dendan errotulazioa eta propaganda orriak gaztelania hutsean daude. Publizitatea ere gaztelania hutsean izaten da.	
Zenbakia: 90/2005	Erakundea: IKEBA	Bizkaia
Arrazoa:	IKEAK Bizkaiko etxeetan banatu duen propagandan euskararen presentzia esaldi bakarera mugatzen da, gainerako guztia gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 532/2005	Erakundea: IKEBA	Bizkaia
Arrazoa:	IKEA enpresak 2005-2006 ikasterterako argitaratu duen katalogo berria gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 598/2005	Erakundea: IKEBA	Bizkaia
Arrazoa:	IKEAko txartel asko gaztelania hutsean daude. Katalogoa ere gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 651/2005	Erakundea: IKEBA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Sestaoko IKEAn euskararen presentzia oso urria da gaztelaniaren aldean.	
Zenbakia: 695/2005	Erakundea: IKEBA	Gipuzkoa
Arrazoa:	IKEAren weborrian, www.ikea.es, katalogoak gaztelaniaz eta katalanez eskura daitezke, baina euskaraz ez.	
Zenbakia: 713/2005	Erakundea: IKEBA	Bizkaia
Arrazoa:	IKEA merkataritza gunean erosketara egin du herritarrak. Kutxan eman dioten ordainagiria gaztelania hutsean dago	
Zenbakia: 714/2005	Erakundea: IKEBA	Bizkaia
Arrazoa:	IKEAko jatetxea iragartzen duen orritxo gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 524/2005	Erakundea: KIABI	Nafarroa
Arrazoa:	KIABIK Iruñean zabaldu duen propaganda gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 766/2005	Erakundea: LAKUA MERKATARITZA GUNEA	Araba
Arrazoa:	LAKUA CENTRO merkataritza guneak Eguberrietan haurrentzako marrazki lehiaketa antolatu zuen. Horren berri emateko txartela gaztelania hutsean zegoen.	
Zenbakia: 317/2005	Erakundea: LEROY MERLIN	Nafarroa
Arrazoa:	Erosketara egindakoan luzatu ditu ordainagiria gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 215/2005	Erakundea: LIDL	Gipuzkoa
Arrazoa:	LIDL kateak gaztelania hutsean argitaratzen du Gipuzkoako etxeetan banatzen duen publizitatea guztia.	
Zenbakia: 775/2005	Erakundea: LIDL	Nafarroa
Arrazoa:	LIDLek bidalitako propaganda jaso du herritarrak etxeko postontzian. Propaganda orria gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 219/2005	Erakundea: MASTER CADENA	Gipuzkoa
Arrazoa:	MASTER CADENAK argitaratzen duen publizitatea gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 6/2005	Erakundea: MEDIA MARKT	Gipuzkoa
Arrazoa:	MEDIA MARKT enpresak gaztelania hutsean banatzen du bere produktuen publizitatea Donostia inguruan.	
Zenbakia: 218/2005	Erakundea: MEDIA MARKT	Gipuzkoa
Arrazoa:	MEDIA MARKT kateak argitaratzen duen publizitatearen informazio guztia gaztelania hutsean dago, helbidea salbu.	
Zenbakia: 555/2005	Erakundea: MEGACALZADO	Gipuzkoa
Arrazoa:	MEGACALZADO enpresak bere iragarkia postontzietan zabaldu du Altzan eta testua ia guztiz gaztelaniaz dago. Euskaraz jarri dutena, gainera, oker itzulita dago: ' <i>vuelta al cole</i> ', ' <i>ikastetxe etortzean</i> '.	
Zenbakia: 459/2005	Erakundea: METRO CUADRADO	Gipuzkoa
Arrazoa:	METRO CUADRADO enpresak urteurrena dela eta argitaratu dituen eskuorriak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 103/2005	Erakundea: MONTTE	Gipuzkoa
Arrazoa:	MONTTE dendek propaganda guztia gaztelania hutsean egiten dute, baita elkartea euskaldunei zuzendutako idatziak ere.	
Zenbakia: 143/2005	Erakundea: PEUGEOT-AGROMOTOR	Araba
Arrazoa:	AUTOMOCION AGROMOTOR (Peugeot) izeneko kontzesionarioak ibilgailuen azterketa teknikoaren berri emateko gutuna gaztelania hutsez bidali du	
Zenbakia: 388/2005	Erakundea: PEUGEOT-AGROMOTOR	Araba

Arrazoa:	PEUGEOT AGROMOTOREKO bezero bati jakinarazpena bidali diote ibilgailuen azterketa teknikoa egin behar duela gogorazazteko eta aurreko azterketa bertan egiteko aukera eskaintzeko. Gutuna gaztelaniaz idatzita dago.	
Zenbakia: 562/2005	Erakundea: PEUGEOT-AGROMOTOR	Araba
Arrazoa:	AGROMOTORrek kotxearen azterketa egiteko bidalitako gutuna, triptikoa, etab. gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 501/2005	Erakundea: PLUS SUPERDESCUENTO	Nafarroa
Arrazoa:	PLUS SUPERDESCUENTOK supermerkatuen propaganda gaztelania hutsez banatu du.	
Zenbakia: 533/2005	Erakundea: SABECO	Gipuzkoa
Arrazoa:	SABECO enpresak Errenteria-Oreretan ireki duen hipermerkatuak '1 inpaktua' izeneko publizitatea zabaldu du, gaztelaniaz nagusiki.	
Zenbakia: 534/2005	Erakundea: SABECO	Gipuzkoa
Arrazoa:	SABECO enpresak Errenteria-Oreretan ireki duen hipermerkatuaren publizitatea zabaldu du herrian, gaztelaniaz nagusiki.	
Zenbakia: 238/2005	Erakundea: SAUNIER DUVAL	Gipuzkoa
Arrazoa:	Herritarrak galdararen mantenua hitzartu zuen SAUNIER DUVAL enpresarekin. Tekniko eralduna bidali zuten. Kontratuaren izenpetzeko luzatu zizkioten agiriak ere gaztelania hutsean zeuden. Euskarazkoak eskatzeko deitu eta ez zutela erantzun zioten eta gainera honako hau entzun behar izan zuen ' <i>sólo faltaría que cada uno pidiera lo que quiere, uno en inglés, otro en francés... Dile que no hay</i> '. '	
Zenbakia: 709/2005	Erakundea: SOFÁS Y COLCHONES	Gipuzkoa
Arrazoa:	SOFÁS Y COLCHONES enpresak gaztelaniazko eskuorria buzoiratu du.	
Zenbakia: 708/2005	Erakundea: SUPER AMARA	Gipuzkoa
Arrazoa:	San Martin azokako SUPER AMARA saltokiak salgai dituen kroketen etiketak gaztelania hutsez daude	
Zenbakia: 195/2005	Erakundea: SUPER BM	Bizkaia
Arrazoa:	SUPER BM supermerkatuak gaztelania hutsean zabaldu du propaganda.	
Zenbakia: 500/2005	Erakundea: TEXTIL HOGAR TALLUNTXE	Nafarroa
Arrazoa:	TEXTIL HOGAR TALLUNTXE enpresak banatu duen propagandan ez da euskara ageri.	

EREMUA: PRIBATUA

AISIALDIA

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 62

2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

2.1. Izaera

Jasotako espediente guztiek eskubide urraketaren izaera dute. Eremu honetan eskubideen babeserako legerik ez dago.

2.2. Puntueltasuna / sistematikotasuna

2.2.a. Errepikakortasuna

Kexen errepikakortasunik ez da izan kasu batean izan ezik, hain zuzen ere, BILBAO URBAN CITY delako ekitaldiaren antolatzaileei zuzendua. Hainbat herritarrek ekitaldi horretako antolaketa lanetan laguntzeko bete beharreko inprimakian euskarak izan zuen trataera salatu dute. Izan ere, euskarazko itzulpena jarri arren, akatsez josita zegoen eta ulertezina zen testua.

2.2.b Erabilera

KEXEN ZIOA

Saioak gaztelania hutsean
Ekitaldiak gaztelaniaz
Errotulazioa gaztelaniaz
Ahozko zerbitzua gaztelaniaz
Idatzizko jakinarazpenak gaztelaniaz
Ekitaldiak gaztelaniaz

3. ARLOAREN ARABERAKO BALORAZIOA

EREMUA	
AISIALDIA	25
KIROLA	18
KULTURA	9
ARGITALPENAK	2
HEDABIDEAK	8

AISIALDIA

Aisialdiaren eremuari dagokionez, aipatzekoa da zenbait kasutan erakusketa edo ekitaldietan euskarak izaten duen trataera eskaera. BILBOKO ITSAS

ADARRA MUSEOAREN FUNDAZIOAn, esaterako zenbait ikasleri informazioa euskaraz ezin ematea, DONOSTIAKO ZINEMALDIko zenbait ekitalditan eta aurkezpenetan euskara ez erabiltzea.

Bestalde aisialdiko ekitaldiak iragartzean euskararen erabilera eskasa ere izan da kexen beste zio nagusia: txartelak, liburuxkak, eskuorriak... Horrelako kexak jaso ditugu ELEKTRONIKALDIA, METAL WAY JAIALDIA... Halaber, aisialdirako zenbait gunetan euskararen presentzia hutsala agertu izan dute hainbat herritarrek, besteak beste, BITARTE ZINEMAK, CIVICAN...

Azkenik propagandan euskararen erabilerak duen toki eskasa izan da kexen beste arrazoietako bat: MARSAN BIDAIK, VIAJES SEVARO...

KIROLA

Aipagarria da euskaraz lan egin nahi duten elkarteek hori lortzeko izaten dituzten mugak eta arazoak. Euskadiko Pilota Federazioari helarazitako zenbait kexa jaso dugu, herrietako eskolei igortzen dizkieten jakinarazpenaren gainera.

Horretaz gain, aipatzekoa da Gipuzkoako Futbol Federazioak ere arbitro izan nahi duten gaztetxoek esku jartzen duen hainbat material gaztelania hutsean egotea. Egoera horretan funtzioak euskaraz bete ditzaketen herritar elebidunak egonik ere, ez da inolako neurririk hartzen euskaraz jardun ahal izateko erraztasunak ematerakoan.

Gainerakoak propaganda edota publizitatea gaztelania hutsean zabaltzea, edota kirol ekintzetan mintzo izaten direnek euskara ez erabiltzea dira herritarrek helarazitako kexak.

KULTURA

Behatokian jaso diren kexak gertaera sistematiko baten ingurukoak dira gehienbat, alegia, zenbait erakundek hedabideetara igortzen dituzten jakinarazpenak gaztelania hutsean egotea.

Hala ere, esan behar dugu aipatu erakundeak ez duela inolako aurrerapausorik eman kexa hori konpontzeari dagokionez, behin eta berriz gertaeraren berri helarazi bazaio ere.

ARGITALPENAK

Aipatzekoa da BRIDGESTONE FIRESTONE HISPANIAk argitaratzen dituen mapetan euskarazko toponimoei ez erreparatzea, eta zenbaitetan toponimo ez ofizialak erabiltzeko joera.

HEDABIDEAK

Kexek euskarak hedabideetan duen presentzia eskasaren isla agertzen ez badute ere, zenbaitetan euskara erabat baztertu egiten dela egiaztatu ahal izan du Behatokiak: *DIARIO DE NOTICAS* egunkariaren webgunea, KISS FM irrati katea...

4. ERANTZUNAK

Aisialdiaren eremuan erantzun bat jaso du Behatokiak, FORTUNA KIROL ELKARTEAren hain zuzen ere. Elkarteak ez du bat egiten kearen arrazoietakoa batekin, alegia, bozgorailu bidez emandako informazioarekin. Bestalde, informazio karpitetan sartutako mediku aholkuak prestatzen dituen enpresa klinikoari horren berri helaraziko dietela azaldu dute.

Bozgorailu bidez emandako informazioari dagokionez, Behatokiak herritarren fede onean oinarritzen du bere jarduera, eta beraz, ez gara gu alde bati edo besteari arrazoi eman behar dion erakundea. Hori dela eta, gertaerak ez ezik, erakundeak ematen duen erantzuna islatzea ere ezinbestekoa dela uste dugu.

5. SINOPSIK: AISIALDIA

Zenbakia: 353 /2005 Arrazoiak:	Erakundea: ANTZERKIOLA Donostiako euskara talde batek 2005eko irailaren 5etik 22ra Urduñan egingo den nazioarteko 2. Antzerki Topaketei buruzko informazioa eta propaganda gaztelania hutsean jaso ditu.	Nafarroa
Zenbakia: 507/2005 Arrazoiak:	Erakundea: AURUM EKOIZPENAK Donostiako autobus geltoki guztietan 'El sonido del Trueno' filmaren estreinaldia iragartzen duen kartela gaztelania hutsean dago.	Gipuzkoa
Zenbakia: 654/2005 Arrazoiak:	Erakundea: BIDARTE ZINEMAK BIDARTE ZINEMetara joan zen herritarra eta irteerako errotulazio guztia gaztelaniaz zegoen.	Bizkaia
Zenbakia: 260/2005 Arrazoiak:	Erakundea: BILBOKO ITSAS ADARRA MUSEOAREN FUNDAZIOA Herritarra BILBOKO ITSAS MUSEOra joan zen ikasleekin batera, Titanic ontziari buruzko erakusketa ikustera eta ezin izan zuten langile bakar batekin ere euskaraz egin ahal izan.	Bizkaia
Zenbakia: 561/2005 Arrazoiak:	Erakundea: CIVICAN CIVICAN eraikineko errotulu eta seinale guztiak gaztelania hutsean daude. Halaber, ikastaroei buruzko informazioa ere gaztelaniaz bakarrik ageri da.	Nafarroa
Zenbakia: 612/2005 Arrazoiak:	Erakundea: CIVICAN CIVICANeko errotuluak eta ikastaroetan izena emateko informazioa gaztelania hutsean daude.	Nafarroa
Zenbakia: 608/2005 Arrazoiak:	Erakundea: COLISEO ZINEMAK Zinema aretotik irtendakoan dauden kartel guztiak gaztelania hutsean daude.	Bizkaia
Zenbakia: 538/2005 Arrazoiak:	Erakundea: DONOSTIAKO ZINEMALDIA ZINEMALDIAk argitaratzen duen "Festival" egunkaria gaztelaniaz ageri da batez ere.	Gipuzkoa
Zenbakia: 539/2005 Arrazoiak:	Erakundea: DONOSTIAKO ZINEMALDIA ZINEMALDIAn hiru hizkuntzatan eskaintzen dituzte filmeen sinopsiak. Euskarazkoa beste biak baino gutxiago ikusten da, grisean baitago eta besteak beltzean.	Gipuzkoa
Zenbakia: 540/2005 Arrazoiak:	Erakundea: DONOSTIAKO ZINEMALDIA DONOSTIAKO ZINEMALDIAn, irailaren 18an, arratsaldeko 18:00etan sail ofizialeko <i>Summer in Berlin</i> filma eman aurretik, aktore, zuzendari eta gainerakoak bertan zirela egin zen aurkezpenen ez zen euskararik erabili.	Gipuzkoa
Zenbakia: 622/2005	Erakundea: ELETRONIKALDIA	Gipuzkoa

Arrazoiak:	Donostian astebetetz ELEKTRONIKALDIA izeneko jaialdia antolatzen da. Kartelean euskara bazterturik dago, datak eta beste hainbat datu gaztelania hutsez agertzen dira. Hau guztia, Udalaren babesarekin egin da gainera.	
Zenbakia: 89/2005 Arrazoiak:	Erakundea: GOLEM ZINEMAK GOLEM LA MOREA zineetako sarrerak gaztelania hutsean daude. Enpresaren webgunea gaztelania hutsez dago eta sarrerak erosi nahi izanez gero argibide guztiak gaztelaniaz ematen dituzte.	Nafarroa
Zenbakia: 363/2005 Arrazoiak:	Erakundea: HIKATENEO HIKATENEOk 2005eko ekainean Palestina gaitzat zuten jardunaldiei buruzko prentsa-oharra gaztelania hutsean bidali zuen hedabideetara.	Araba
Zenbakia: 498/2005 Arrazoiak:	Erakundea: METAL WAY JAIALDIA Abuztuaren erdialdean Gernikan egin zen METAL WAY izeneko musika jaialdi erraldoiari buruzko informazioa ematen duen webgunea gaztelaniaz eta ingelesez dago. Euskaraz ez dago hitz bat ere.	Bizkaia
Zenbakia: 602/2005 Arrazoiak:	Erakundea: OSCAR TXINGUDI ZINEMAK Herritarrak Txingudi merkataritza-guneako zinema aretoetara joan ziren eta bertako langileei euskaraz hitz egin zieten arren, hauek gaztelaniaz erantzuten zuten etengabe.	Gipuzkoa
Zenbakia: 663/2005 Arrazoiak:	Erakundea: OSCAR BRETXA ZINEMAK OSCAR ZINEek weborri bat dute eta ataria katalanez azaltzen da. Bretxako atalera jo eta gaztelaniaz baino ez dago.	Gipuzkoa
Zenbakia: 45/2005 Arrazoiak:	Erakundea: R.M.O. ELKARTEA R.M.O. ELKARTEAK antolatzen duen <i>Musikaste musicaexmachine</i> egitarauaren euskarriak eta propaganda liburuxka gaztelania hutsean argitaratu ditu.	Bizkaia
Zenbakia: 513/2005 Arrazoiak:	Erakundea: SARAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA SARAKO MUSIKA HAMABOSTALDiko lehen egunean (abuztuaren 17an) Jean Claude Larronde eta Juantxo Iturriaren hitzaldia dago antolatuta. Bi hizlari hauek erabat erdaldunak dira.	Gipuzkoa
Zenbakia: 504/2005 Arrazoiak:	Erakundea: SENDA VIVA SENDA VIVAK banatutako eskuorriak gaztelania hutsez daude. Arrotxapeako igerilekuan utzi zituzten. Webgunea ere gaztelania hutsez dute.	Nafarroa
Zenbakia: 117/2005 Arrazoiak:	Erakundea: YELMO CINEPLEX CURT FICCTIONS YELMO CINEPLEXek gaztelania hutsean bidali zuen prentsa oharra Gasteizko hedabideetara 2005eko otsailean.	Araba
Zenbakia: 48/2005 Arrazoiak:	Erakundea: ZINEGOAK ZINEGOAK jaialdian euskarari oso leku eskasa aitortu zaio. Hasiera ekitaldian eta hurrengo egunetako saioetan euskarak ez zuen ia lekurik izan, eta izan zuen kasu apurretan erabat sinbolikoa.	Gipuzkoa
Zenbakia: 39/2005 Arrazoiak:	Erakundea: MARSANS BIDAIK Etxeko postontzian utzi dion publizitatea gaztelania hutsean dago.	Bizkaia
Zenbakia: 40/2005 Arrazoiak:	Erakundea: MARSANS BIDAIK Agentzian eman dioten informazio liburuxka gaztelania hutsean dago.	Bizkaia
Zenbakia: 279/2005 Arrazoiak:	Erakundea: VIAJES SEVARO Herritarrak etxean jaso du bidaia agentziaren liburuxka bat, gaztelania hutsean	Nafarroa
Zenbakia: 275/2005	Erakundea: UNIDA. SERVICIOS INTEGRALES DE TURISMO Herritarrak bidaia agentziaren publizitatea jaso du gaztelania hutsean.	

KIROLA

Zenbakia: 668/2005	Erakundea: ASEGARCE	Gipuzkoa
Arrazoa:	ASEGARCEK Oiarzunen antolatatu duen azken jaialdian euskara eta gaztelaniaren arteko desoreka oso nabaria izan da, euskararen kaltetan. Intendentek, artekariek eta abarrek gaztelaniari eman diote lehentasuna, sakea aukeratzekoan, apostuak egiterakoan eta abarretan.	
Zenbakia: 669/2005	Erakundea: ASPE	Gipuzkoa
Arrazoa:	ASPE enpresak Oiarzunen antolatatu duen azken pilota jaialdian euskara eta gaztelaniaren arteko desoreka oso nabaria izan da, euskararen kaltetan. Intendentek, artekariek eta abarrek gaztelaniari eman diote lehentasuna (sakea aukeratzekoan, apustuak egiterakoan...)	
Zenbakia: 306/2005	Erakundea: BASKONIA	Araba
Arrazoa:	NEX BASKONIAK prezioen berri emateko ateratzen duen publizitatea gaztelania hutsez dago	
Zenbakia: 556/2005	Erakundea: BASKONIA	Araba
Arrazoa:	Baskoniak aurtengo denboraldiaren berri emateko atera duen egutegia gaztelania hutsez dago.	
Zenbakia: 1/2005	Erakundea: BESTE IRUÑA	Nafarroa
Arrazoa:	Beste Iruñak antolatutako san Silvestre lasterketaren ondoren parte hartzaileei banatutako oroiragrietan euskara ez da ageri.	
Zenbakia: 153/2005	Erakundea: BIARRITZ OLYMPIQUE	Nafarroa
Arrazoa:	Donostiako Anoetako estadioko jokatu zen BIARRITZ OLYMPIQUE eta Munster taldeen partidako sarrerak gaztelaniaz eta frantsesez bakarrik zeuden.	
Zenbakia: 373/2005	Erakundea: BILBAO URBAN CITY	Gipuzkoa
Arrazoa:	BILBAO URBAN CIRCUIT delakoa antolaketa lanetan laguntzeko bete beharreko inprimakia ele bietan dago, baina euskarazko itzulpena akatsez josita dago.	
Zenbakia: 462/2005	Erakundea: BILBAO URBAN CITY	Araba
Arrazoa:	BILBAO URBAN CIRCUIT delakoaren antolaketa lanetan laguntzeko bete beharreko inprimakia ele bietan dago, baina euskarazko itzulpena akatsez josita dago.	
Zenbakia: 475/2005	Erakundea: BILBAO URBAN CITY	Gipuzkoa
Arrazoa:	BILBAO URBAN CIRCUIT delakoaren antolaketa lanetan laguntzeko bete beharreko inprimakia ele bietan dago, baina euskarazko itzulpena akatsez josita dago.	
Zenbakia: 678/2005	Erakundea: BIZKAIKO SASKIBALOI FEDERAZIOA	Bizkaia
Arrazoa:	Bizkaiko Saskibaloit Federazioak bere komunikazio ia guztiak gaztelania hutsean bidaltzen ditu Ikastoletara, Ikastetxetara, etabarretara.	
Zenbakia: 563/2005	Erakundea: DONOSTIA-ZIBURUKO UR KIROLAK	Bizkaia
Arrazoa:	Joan den irailean 3an DONIBANE-ZIBURUKO URKIROLAK taldeak antolatuta egin zen triatloi proban hizlariak orduak eta orduak egin zituen hizketan, baina ez zuen hitz erdirik ere esan euskaraz.	
Zenbakia: 98/2005	Erakundea: ERREALA. REAL SOCIEDAD	Gipuzkoa
Arrazoa:	Mundo Deportivo egunkariak ERREALArekin elkarlanean irakurleei jaka bat eskuratzeko aukera eman zien. Promozioan parte hartzeko txartela gaztelania hutsean zegoen	
Zenbakia: 136/2005	Erakundea: EUSKAL PILOTA FEDERAKUNDEA	Bizkaia
Arrazoa:	Euskadiko EUSKAL PILOTA FEDERAKUNDEAK gaztelania hutsean bidaltzen dizkie jakinarazpenak Pilota Eskolei.	
Zenbakia: 684/2005	Erakundea: EUSKAL PILOTA FEDERAKUNDEA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Bazkideari bidalita txartelean datu gehienak gaztelaniaz daude.	
Zenbakia: 690/2005	Erakundea: FORTUNA KIROL ELKARTEA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Behobia-Donostia herri lasterketako antolatzaile FORTUNA KE-k euskara baztertu zuen. Lasterketa hasi aurretik esataria askoz gehiago jardun zen erdaraz (batik bat gaztelaniaz, baina baita frantsesez ere), euskaraz baino. Izena emandako guztiok luizatutako informazio karpetan aholku medikuak zeuden paper batean, baina gaztelaniaz besterik ez zeuden.	
Zenbakia: 660/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Gipuzkoako Futbol Federazioak arbitro izan nahi duten nerabeei gaztelania hutsez idatzita dauden futbol-arauak ematen dizkiete (liburu baten fotokopia). Ahozko harremanak ere gaztelaniaz gauzatzen dira.	
Zenbakia: 221/2005	Erakundea: OSASUNA FUTBOL CLUB	Nafarroa
Arrazoa:	Udria Zentroak banatzen duen publizitatean zentroaren izena kenduta gaitortzeko gutzia gaztelania hutsean dago, bi hizkuntzen arteko egoera desorekatuan. Gainera, euskaraz "Centroa" ageri da.	
Zenbakia: 378/2005	Erakundea: OSASUNA FUTBOL CLUB	Nafarroa
Arrazoa:	2005eko San Ferminetan jarritako "Carpas Rojilla" delakoaren panfletoak gaztelania hutsean zeuden.	

KULTURA

Zenbakia: 57/2005	Erakundea: ANDRA MARI KATEDRALA FUNDAZIOA	Araba
Arrazoa:	SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOAK 2005eko urtarrilean zehar 6 komunikazio bidali ditu gaztelania hutsean hedabideetara.	
Zenbakia: 113/2005	Erakundea: ANDRA MARI KATEDRALA FUNDAZIOA	Araba
Arrazoa:	STA. Mª KATEDRALA FUNDAZIOAK 2 prentsa ohar bidali ditu hedabideetara gaztelania hutsean 2005eko otsailan.	
Zenbakia: 272/2005	Erakundea: ANDRA MARI KATEDRALA FUNDAZIOA	Araba
Arrazoa:	SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOAK 2005eko maiatzean zehar 5 komunikazio bidali ditu hedabideetara gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 361/2005	Erakundea: ANDRA MARI KATEDRALA FUNDAZIOA	Araba
Arrazoa:	Santa Maria Katedrala Fundazioak 2005eko ekainean zehar 2 komunikazio bidali ditu hedabideetara gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 482/2005	Erakundea: ANDRA MARI KATEDRALA FUNDAZIOA	Araba
Arrazoa:	SANTA Mª KATEDRALA FUNDAZIOAK 2005eko uztailan zehar 2 komunikazio bidali ditu hedabideetara gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 60/2005	Erakundea: ARTIUM MUSEOA	Araba
Arrazoa:	ARTIUMek gaztelania hutsean bidali du prentsa oharra urtarrilaren 17an	
Zenbakia: 147/2005	Erakundea: ARTIUM MUSEOA	Araba
Arrazoa:	ARTIUM ARTE GARAIKIDEKO EUSKAL ZENTRO-MUSEOAK martxoaren 3an hedabideetara bidaltitako prentsa oharra gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 201/2005	Erakundea: ARTIUM MUSEOA	Araba
Arrazoa:	ARTIUM MUSEOAK gaztelania hutsezko bi prentsa ohar bidali zituen apirilean.	
Zenbakia: 488/2005	Erakundea: ORDOÑEZ FALCÓN FUNDAZIOA	Gipuzkoa
Arrazoa:	ORDOÑEZ FALCÓN FUNDAZIOAK mezu elektronikoa bidali dio herritarrari, gaztelaniaz eta ingelesez besterik ez.	
Zenbakia: 188/2005	Erakundea: GODLBERG EDICIONES	Nafarroa
Arrazoa:	GOLDBERG EDICIONES SLk gaztelania hutsean argitaratzen ditu doan banatzen dituen VARIACIONES izeneko musika gehigarriak.	
Zenbakia: 420/2005	Erakundea: BRIDGESTONE FIRESTONE HISPANIA	Bizkaia
Arrazoa:	Herritarrak Firestone -Pirineos T-33 mapa erosi du eta bertan Nafarroa, Ipar Euskal Herria eta EAeko toponimoen grafia ofiziala ez dute errespetatzen. Gainera, duela urte gutxi argitaratu zen R2: NAVARRA, PAIS VASCO Y LOGROÑO mapak zekartzan izendapenak aldatu eta kendu dituzte.	
Zenbakia: 180/2005	Erakundea: DEIA	Bizkaia
Arrazoa:	2005eko apirilaren 17ko egunkariarekin banatu zuen promozio orria gaztelania hutsean zegoen.	
Zenbakia: 262/2005	Erakundea: DIARIO DE NOTICIAS	Nafarroa
Arrazoa:	DIARIO DE NOTICIAS egunkariak duen webgunea gaztelania hutsez dago.	
Zenbakia: 323/2005	Erakundea: DIARIO DE NOTICIAS	Nafarroa
Arrazoa:	Egunkariak gune birtuala jarri du abian diasporako nafarrak bertakoekin harremanetan jar daitezten. Gunea gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 689/2005	Erakundea: DIGITAL +	Nafarroa
Arrazoa:	DIGITAL+ izeneko enpresak herritarrari bidali dion informazio orria gaztelania hutsez dago.	
Zenbakia: 670/2005	Erakundea: DONOSTIAKO HERRI IRRATIA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Donostiako Herri Irratiak gaztelania hutsean eskaintzen ditu hainbat eta hainbat saio, horien artean Albistegiak eta baita Iñaki de Mujikaren kirol saioa ere. Azken honetan kirolari guztiak, baita gaztelaniaz ozta-ozta moldatzen diren hainbat ere, gaztelania hutsean elkarriketatzen dituzte. Beste saio batzuetan, entzuleentzako tarreak zabaltzen dituztenean esatariek gaztelaniara eramaten dituzte euskaraz mintzatzen diren entzuleak.	
Zenbakia: 97/2005	Erakundea: DUPLEX ALDIZKARIA	Gipuzkoa

Arrazoa:	ESPAIX izeneko gida gaztelania hutsean argitaratzen dute.	
Zenbakia: 328/2005	Erakundea: EL SEMANAL	Bizkaia
Arrazoa:	EL SEMANAL gaztelania hutsezko gehigarrian, <i>La cocina de Martín Berasategui</i> liburuari buruzko iruzkinean <i>Guernica</i> idatzi dute <i>Gernikaren orde</i> .	
Zenbakia: 51/2005	Erakundea: KISS FM	Nafarroa
Arrazoa:	KISS FM irratiak Nafarroan ez du hitzik ere esaten euskaraz.	

EREMUA: PRIBATUA

FINANTZAK ETA ASEGURUAK

1. ESPEDIENTE KOPURUA: 50

2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA

2.1. Izaera

Jasotako espediente guztiek eskubide urraketaren izaera dute. Aseguru etxeei dagozkien zenbaitek lege urraketaren izaera ere badute.

2.2. Puntueltasuna / sistematikotasuna

2.2.a. Errepikakortasuna

Eremu honetan jasotako keak desberdinak izan dira eta, beraz, ez dago errepikakortasunaz hitz egiterik. Antzeko erabilerak salatzeke keak badira ere, gertaera desberdinei buruzkoak direlako.

2.2.b Erabilera

KEXEN ZIOA

Publizitatea gaztelania hutsean
Jakinarazpenak gaztelania hutsean
Bezeroentzako aldizkariak gaztelania hutsean
Jendaurreko zerbitzua gaztelania hutsean
Segurtasun gomendioak gaztelania hutsean
Kontratuak gaztelania hutsean

2.3. Larritasuna

Larritasunari dagokionez, hizkuntzarengatiko bereizkeria izan da eremu honetan islatutako alboko kalte-ondorio nagusia. Euskara baliatu nahi duen herritarrak zerbitzua beste hizkuntza batean jaso behar izan du.

3. ARLOAREN ARABERAKO BALORAZIOA

EREMUAK	
ASEGURU ETXEAK	10
FINANTZAK	40

ASEGURU ETXEAK

Urterik urte errepikatzen den kexa izan dugu 2005ean ere, hain zuzen ere, aseguru kontrataturik horren euskarazko bertsioa ezin eskuratzea. Halaber, aseguru etxeek bezeroei igortzen dizkieten jakinarazpenak gaztelania hutsean izaten jarraitzen dute neurri handi batean.

Bestela, azpimarragarria da aseguru etxe batzuek bezeroei igortzen dizkieten aldizkarietan euskarak eta gaztelaniak duten trataera desberdina. Horrela, euskararen erabilera oso eskasa izaten da.

Azkenik, enpresetara igortzen dituzten segurtasun liburuxken aipua ere egin behar dugu, izan ere, beste urte batez gaztelania hutsean banatzen jarraitu izan dute mutuek 2005ean ere

FINANTZAK

Finantzen esparruan aipagarria da hainbat banketxek ez dutela oraindik inolako neurririk herritarren hizkuntza-eskubideak kontuan hartzeko, eta eutsi egiten diote gaztelania hutsean lan egiteari. Horrela, hainbat kasutan banketxeetako errotulazioan ere ez dute euskara txertatu. Beste kasuren batean ere, hizkuntza horrekiko begirunea euskara ez baina beste bost hizkuntzatan bidalitako informazio orrian islatzen da.

Herritarrek helarazitako kexetan adierazitakoaren arabera, propio eskatu izan diete banketxeei mezuak eta bestelakoak euskaraz ere bidaltzeko. Hala ere, banketxeek ez diete bezeroen eskaerei erantzun izan eta dokumentu elebakarrak igortzen jarraitu izan dute.

Horrela, hainbat banketxek hizkuntza-eskubideak aitortu ere ez dizkiete egiten herritarrei eta, beraz, ez dute inolako ekinbiderik abian jartzen horiek bermatzeko. Aipatzekoa da, banketxe batean herritarrari erreklamazioa egiteko orria ere ez ziotela eman nahi izan hizkuntza-eskubideen urraketa horretarako zioa ez zelakoan. Harrigarria oso, baina are harrigarriagoa hizkuntza-eskubideak bermatzeko urrats handienetakoak eman dituen etxea dela kontuan hartuta.

4. ERANTZUNAK

Aseguru eta finantza etxeek sarritan erantzun izan diete Behatokiaren kexei. LAGUN AROK esaterako, herritarren eskubideak bermatzeko hainbat ekimen abian jarri baditu ere, oraindik eremuren batean kale egiten dutela azaldu du. Dena den, euskaldundu gabeko eremuetan ere aurki euskarazko inprimakiak izango direla adierazi dute.

Beste kasu batean, OCASO aseguruak Behatokiak proposatutakoa teknikoki ezin egin dezaketela adierazi dute, hala ere, etorkizunean beharrezko inbertsioak egingo dituztela azaldu du.

GRUPO BANCO SABADELL etxeak bezeroei komunikazioak euskaraz bidealtzearen bideragarritasuna ezagutzeko ikerlana egin zuela eta emaitzek euskara erabiltzea justifikatzen ez zuela adierazi du. Hala ere, etorkizunean eskaerari erantzungo diotela agertu dute.

NAFARROAKO KUTXAK ere nahiko sistematikoki erantzun die Behatokiaren jakinarazpenei. Horrela, 2005eko maiatzetik aurrera bezeroek jakinarazpenak euskaraz ere jasotzeko eskubidea bermatzen hasi direla adierazi dute. Beste zenbait kasutan, kexari buruzko argibide gehiago eskatu dute horren azterketa egin ahal izateko.

SANTANDER CENTRAL HISPANO etxearen jarrera, aldiz, oso bestelakoa da eta Nafarroako Foru Komunitatean euskara erabiltzera derrigortzen dituen inolako hitzarmenik ez dutela jakinarazi dute.

5. SINOPSIK: ASEGURUAK ETA FINANTZAK

ASEGURU ETXEAK

Zenbakia: 554/2005	Erakundea: DIRECT SEGUROS	Araba
Arrazoa:	DIRECT SEGUROSEK Travelclubaren informazioarekin batera igorri duen orria gaztelania hutsez dago	
Zenbakia: 168/2005	Erakundea: KMI ASEGURU ARTEKARITZA	Gipuzkoa
Arrazoa:	KMK CORREDURÍA DE SEGUROS enpresak 2005eko apirilaren 7an Altzako etxeetako postontzietan utzi zuen publizitatea gaztelania hutsean zegoen.	
Zenbakia: 93/2005	Erakundea: LAGUN ARO	Nafarroa
Arrazoa:	Konpainiak gaztelania hutsean bidali dio jakinarazpena, herritarrak behin eta berri euskaraz bidaltzeko eskatua duen arren. Telefonoz kasu egin zion langilea ere gaztelaniara pasatzen zitzaion.	
Zenbakia: 334/2005	Erakundea: LAGUN ARO	Gipuzkoa
Arrazoa:	LAGUN AROK Autonomo, Profesional eta enpresa txikiarentzako argitaratzen duen Kontu aldizkarian euskarari eskaintzen zaien tartea ez da batera oreaktua. 24 orritik 5-6 bakarrik daude euskaraz.	
Zenbakia: 383/2005	Erakundea: LAGUN ARO	Bizkaia
Arrazoa:	LAGUN AROK etxera postaz bidaltzen dizkion jakinarazpenetako helbidean Vizcaya idazten dute Bizkaia beharrez.	
Zenbakia: 749/2005	Erakundea: LAGUN ARO	Bizkaia
Arrazoa:	LAGUN ARO aseguru etxeko bezeroari etxera bidaltzen dizkioten gutunetan helbidean Vizcaya idazten diote berak zuzendu eta Bizkaia idazteko eskaera behin baino gehiagotan egin duen arren.	
Zenbakia: 778/2005	Erakundea: LAGUN ARO	Bizkaia
Arrazoa:	LAGUN ARO aseguru etxeak bere kotxe asegurua inguruko jakinarazpena bidali dio herritarrari. Jakinarazpena gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 445/2005	Erakundea: OCASO	Nafarroa
Arrazoa:	OCASO aseguru etxeak gaztelania hutsean igortzen dizkio jakinarazpenak eta informazioa.	
Zenbakia: 452/2005	Erakundea: PAKEA MUTUA	Gipuzkoa
Arrazoa:	PAKEA mutua 2005eko ekainean bazkideei bidali dien aldizkarian euskarari ematen zaien tartea ez da batera oreaktua.	
Zenbakia: 453/2005	Erakundea: PAKEA MUTUA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Uztailen bazkideei bidali dien Segurtasunerako Gomendioen 256 liburuxka gaztelania hutsean dago.	

FINANTZAK

Zenbakia: 444/2005	Erakundea: BANCO ATLÁNTICO	Nafarroa
--------------------	----------------------------	----------

Arrazoa:	BANCO ATLÁNTICOK informazioa eta jakinarazpenak gaztelania hutsean bidaltzen ditu, bezeroak euskaraz ere bidaltzeko eginiko eskaerari jaramonik egin gabe.	
Zenbakia: 446/2005	Erakundea: BANCO SABADELL	Nafarroa
Arrazoa:	BANCO DE SABADELL eta BAN SABADELL INVERSIÓN jakinarazpenak eta informazioa euskaraz bidaltzeko eskaera egin arren, gaztelaniaz igortzen dizkiote.	
Zenbakia: 436/2005	Erakundea: BANCO SANTANDER CENTRAL HISPANO	Nafarroa
Arrazoa:	BANCO SANTANDER CENTRAL HISPANOK bezeroak informazioa eta jakinarazpenak euskaraz bidaltzeko egin dion eskaerari jaramonik egin gabe gaztelania hutsean bidaltzen dizkio jakinarazpen eta informazio guztiak.	
Zenbakia: 769/2005	Erakundea: BANCO SANTANDER CENTRAL HISPANO	Bizkaia
Arrazoa:	BANCO SANTANDER CENTRAL HISPANO erakundetik gaztelania hutsean bidali diote informazioa herritarrari. Informazioarekin batera promozio baten berri ematen zuen orria ere gaztelania hutsean zegoen.	
Zenbakia: 465/2005	Erakundea: BANKOA. CRÉDIT AGRICOLE	Bizkaia
Arrazoa:	Herritarra duela hamar bat urtera arte BANKOAKO bezeroa izan zen. Garai hartan bere kexa adierazi zien gutunak gaztelaniaz soilik bidaltzen zizkiotelako. Gaur egun dagoeneko ez da banku horretako bezeroa eta berriki gutun bat bidali diote, berriro ere gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 274/2005	Erakundea: BILBAO BIZKAIA KUTXA	Bizkaia
Arrazoa:	BBKK bezero batek etxean jaso duen entitate honen publizitatea gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 685/2005	Erakundea: BILBAO BIZKAIA KUTXA	Bizkaia
Arrazoa:	Herritarra, azaroaren 8an, BBKK Bilboko Kale Nagusian duen bulego nagusira joan zen gestio bat egitera. Hiru langileri zuzendu zitzaion euskaraz, eta hiruetatik bakar batek ere ezin izan zion euskaraz erantzun.	
Zenbakia: 321/2005	Erakundea: CAIXA GALICIA	Bizkaia
Arrazoa:	CAIXA GALICIAK bulego berria zabaldu du Bermeon. Horren berri emateko Bermeoko etxetara bidali duen propaganda gaztelania hutsean dago (gutunazala, gutuna eta propaganda bera).	
Zenbakia: 355/2005	Erakundea: CREDITOS NORTEÑOS S.A.	Bizkaia
Arrazoa:	CENORSA enpresak erakunde bati publizitatea gaztelania hutsean bidali dio. Gainera, helbidean izen ofiziala jarri beharrez Gipuzkoa idatzi dute.	
Zenbakia: 250/2005	Erakundea: EUSKADIKO KUTXA	Nafarroa
Arrazoa:	2005eko maiatzaren 11n, errenta aitortza egiteko garaian EUSKADIKO KUTXAK Sarasate Pasealekuko bulegoan jarritako langileak ez zekien euskaraz, ondorioz, bere agiri guztiak itzuli behar izan zizkion. Honela, errenta aitortza ongi egin duenaren zalantza geratu zaizkio herritarrari.	
Zenbakia: 251/2005	Erakundea: EUSKADIKO KUTXA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Euskadiko Kutxako Weborrian fitxategien transmisioa egiten bada, hortik aurrera badago mezu bat gaztelaniaz segitu behar dela esaten dizuna eta ezin da euskaraz egin. Ez da uneko gabezia, hilabeteak daramatza horrela.	
Zenbakia: 277/2005	Erakundea: EUSKADIKO KUTXA	Araba
Arrazoa:	EUSKADIKO KUTXAK internet bidez eginiko transferentzia gaztelania hutsean baieztatu dio herritarrari posta elektronikoz, herritarrak ohikoa ez dela dakien arren.	
Zenbakia: 376/2005	Erakundea: EUSKADIKO KUTXA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Askatasun hiribideko sukurtsalera joan behar izan zuen errenta aitortza egitera, euskaraz egin nahi zuela adierazi eta ezin izan zuen langile elebidunik ez zegoelako.	
Zenbakia: 379/2005	Erakundea: EUSKADIKO KUTXA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Oineko bulegora joan zen herritarra. Bertan euskaraz mintzatu zitzaion langileari eta horrek gaztelaniaz mintzatzeko eskatu zion. Herritarraren arabera, zuzendariarengana hurbildu eta modu txarrez erantzun omen zion eta ez zizkion erreklamazio orriak eman kexa egiteko.	
Zenbakia: 442/2005	Erakundea: HISPAMER	Nafarroa
Arrazoa:	HISPAMERek informazioa eta jakinarazpenak gaztelania hutsean bidaltzen ditu, bezeroak euskaraz ere bidaltzeko eginiko eskaerari jaramonik egin gabe	
Zenbakia: 746/2005	Erakundea: KUTXA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Herritarra Kutxanet zerbitzuaren erabiltzailea da. Lantokian, PCrik ezean, Mac batetik konektatzen da zerbitzura. Euskarazko zerbitzuak arazo pila bat ematen ditu eta gaztelaniazkoak ez. Askotan gaztelaniazkoak erabili behar izaten du.	
Zenbakia: 268/2005	Erakundea: LA CAIXA	Bizkaia
Arrazoa:	La CAIXAK gaztelania hutsean bidali dio jakinarazpena herritarrari.	
Zenbakia: 41/2005	Erakundea: MBNA. EUROPE BANK LIMITED	Bizkaia
Arrazoa:	Postontzian utzi duten publizitatea gaztelania hutsean dago.	

Zenbakia: 42/2005	Erakundea: MBNA - EUROPE BANK LIMITED	Bizkaia
Arrazoa:	MBNAk herritarraren postontzian utzi duen publizitatearekin batera datorren kontratua gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 43/2005	Erakundea: MBNA - EUROPE BANK LIMITED	Bizkaia
Arrazoa:	Herritarrak eskutitza bidali zion MBNA enpresari aurrerentzean propaganda edo informazioa euskaraz ere bidaltzeko eskatuz. Erantzun egin diote eta 'eskatu bezala' datu basetik ezabatu dutela adierazi dute.	
Zenbakia: 443/2005	Erakundea: MORGAN STANLEY	Bizkaia
Arrazoa:	MORGAN STANLEYk informazioa eta jakinarazpenak gaztelania hutsean bidaltzen ditu, bezeroak euskaraz ere bidaltzeko eginiko eskaerari jaramonik egin gabe.	
Zenbakia: 194/2005	Erakundea: NAFARROAKO KUTXA	Nafarroa
Arrazoa:	NAFARROAKO KUTXAK kreditu txartela euskaraz erabiltzen duten herritarrei aurrerentzean jakinarazpenak, eskutitzak, mugimenduen estraktuak eta gainerakoak euskaraz bideratuko dizkiela jakinarazi eta handik astebetera Igantziko bulegoko zuzendariak gaztelania hutsean bidali die bezeroei errenta aitortpena egiteko epea eta hitzordua hartzeko telefono zenbakiaren berri ematen duen gutun pertsonalizatua.	
Zenbakia: 278/2005	Erakundea: NAFARROAKO KUTXA	Nafarroa
Arrazoa:	Herritarrari iritsi zaion publizitate esku-orrian bost hizkuntza ageri dira, baina ez dago euskararen arrastorik.	
Zenbakia: 505/2005	Erakundea: NAFARROAKO KUTXA	Nafarroa
Arrazoa:	NAFARROAKO KUTXAK erakunde bati bi gutun bidali dizkio gaztelania hutsean: bulego bat obrak zirela eta itxi behar zutela jakinarazten zuena lehenengoa eta obrak bukatu zirela jakinarazteko bigarrena.	
Zenbakia: 629/2005	Erakundea: NAFARROAKO KUTXA	Nafarroa
Arrazoa:	NAFARROAKO KUTXAK bezeroentzat argitaratzen duen Cancha izeneko aldizkariaren iraileko alean ez da hitz bakar bat ere ageri euskaraz.	
Zenbakia: 552/2005	Erakundea: NAFARROAKO RURAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	NAFARROAKO RURAL KUTXAK zerbitzuen berri emateko igorritako gutuna gaztelania hutsez dago.	
Zenbakia: 56/2005	Erakundea: VITAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	VITAL KUTXak 2005eko urtarrilean 13 prentsa ohar bidali ditu gaztelania hutsean hedabide batera.	
Zenbakia: 111/2005	Erakundea: VITAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	VITAL KUTXAK 2005eko otsailen 18 komunikazio bidali ditu hedabideetara gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 142/2005	Erakundea: VITAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	VITAL KUTXAK 2005eko martxoan bost prentsa ohar bidali ditu gaztelania hutsean hedabideetara.	
Zenbakia: 156/2005	Erakundea: VITAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	VITAL KUTXAK Zuloaga margolariaren arte lanen erakusketa antolatu zuen Gasteizen. Bertan, biografiari buruzko oharra, koadroen izenburuak eta gainerako ohar guztiak gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 197/2005	Erakundea: VITAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	VITAL KUTXAK herritarrari "álava desde tu punto de vista" argazki lehiaketari buruzko prentsa oharra gaztelania hutsean bidali dio.	
Zenbakia: 198/2005	Erakundea: VITAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	VITAL KUTXAK herritarrari prentsa oharra bidali dio erakunde horren eta Cáritasen arteko hitzarmenaren berri emateko. Prentsa ohar hau gaztelania hutsez dago.	
Zenbakia: 269/2005	Erakundea: VITAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	VITAL KUTXAK 2005eko maiatzean 22 komunikazio bidali ditu hedabideetara gaztelania hutsean zeuden.	
Zenbakia: 359/2005	Erakundea: VITAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	VITAL KUTXAK 2005eko ekainean 15 prentsa-ohar eta deialdi bidali ditu gaztelania hutsean hedabideetara.	
Zenbakia: 399/2005	Erakundea: VITAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	VITAL KUTXAK 2005eko ekainean bidalitako prentsa oharra gaztelania hutsean dago. 2005eko Mahats Bilketaren XXII. Festako kartelaren aurkezpena egiteko prentsaurrekorako oharra zen. Bertan Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrillako lehendakaria zen parte hartzekoa. Prentsa ohar hori gaztelania hutsean bidali zuten hedabideetara.	
Zenbakia: 448/2005	Erakundea: VITAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	VITAL KUTXako zentralitara (945 162200) deituta ez zioten euskarazko arretarik eskaini.	

Zenbakia: 463/2005	Erakundea: VITAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	VITAL KUTXAK 2005eko uztailean zehar 26 komunikazio bidali ditu hedabideetara gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 545/2005	Erakundea: VITAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	VITAL KUTXAK irailean zehar 5 prentsa ohar bidali ditu hedabideetara gaztelania hutsez.	
Zenbakia: 767/2005	Erakundea: VITAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	VITAL KUTXAK Noticias de la Caja/ Kutxako berriak izeneko buletina bidali du etxeetara eta paragrafo bat izan ezik, gainerako guztia gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 768/2005	Erakundea: VITAL KUTXA	Araba
Arrazoa:	Internet bidez VITAL KUTXaren Weborri nagusian kontsultak euskaraz egiteko aukera badago. Hala ere, Vitalnet deritzon gunean sartuz gero (derrigorrezkoa norbanakoaren kontsulta pribatuak egiteko), den dena gaztelania hutsean dago.	

MUNDU ASOZIATIBOA**1. ESPEDIENTE KOPURUA: 58****2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA****2.1. Izaera**

Bideratutako espediente guztiek eskubide urraketaren izaera dute.

2.2. Puntueltasuna / sistematikotasuna*2.2.a. Errepikakortasuna*

Kexak gertaera askori buruzkoak dira. Kasu batean, hala ere, kexaren hartzaileak desberdinak izan badira ere, segurki, hornitzaile berdina erabili dutelako gertatu izan da. Horrela, zenbait alderdi politikok propaganda bidaltzeko baliatu duten (edota eskaini zaien) enpresak gaztelaniazko toponimoak, ofizialak direnak, erabili izan ditu bidalketak egitean.

*2.2.b Erabilera***KEXEN ZIOA**

Argitalpenak gaztelaniaz
 Prentsa oharrak gaztelania hutsean
 Webgunea gaztelaniaz
 Errotulazioa gaztelaniaz
 Jakinarazpenak gaztelania hutsean
 Erakusketa gaztelania hutsean

2.3. Larritasuna

Nabarmentzeko espedienterik ez da izan.

3. ARLOAREN ARABERAKO BALORAZIOA

EREMUAK	
MUNDU ASOZIATIBOA	32
MUGIMENDU SOZIOPOLITIKOAK	24
ERLIJIOA	2

MUNDU ASOZIATIBOA

Pixkanaka herritarren kontzientzia pizten hasi da parte hartzen duten elkarteek hizkuntza-eskubideen bermeari begira hartzen dituzten neurrietan. Interesgarria da oso herritarren kontzientzia gero eta handiagoa izatea, izan ere, beraiek elkarteetako partaide zuzenak izanik, bertan aldaketak eragiteko subjektu aktibo bihurtu baitaitezke.

Izan ere, egun elkarte askok gaztelania hutsean funtzionatzen dute, eta gaztelania da bazkideekiko duten komunikazio-hizkuntza bakarra, idatzizkoa zein ahozkoa.

Kasuren batean, Euskal Soziologia Elkarteak, esaterako, herritarrek bi urtetan igorri izan digu antzeko kexa. Elkarteak bazkideei informazio guztia gaztelania hutsean igortzen die. Segurki, bazkide gehiagok eskubideak aldarrikatzeko jarrera irmoagoa harturik lortuko litzateke Elkarteak darabilen hizkuntza irizpideak aldarazten hastea.

MUGIMENDU SOZIOPOLITIKOAK

Kexen arrazoia ia bakarra izan da mugimendu soziopolitikoek dagokienez, hedabideetako langileek igorriak, hain zuzen ere. Horien arabera, mugimendu soziopolitiko askok gaztelania hutsean igortzen dituzte komunikazioak, prentsa oharrak eta bestelako jakinarazpenak hedabideetara.

Eremu honetan badago kezkatzen gaituen gertaera bat, izan ere, 2002 urtetik ari gatzazkie mugimendu soziopolitikoek horren berri ematen. Hainbat hedabidek mugimendu soziopolitikoek beren jardueren berri emateko zabaltzeko dituzten oharrak gaztelania hutsean igortzen jarraitzen dutela adierazi digute aurten ere.

ERLIJIOA

Bi kasu besterik ez dira jaso eta ez dira aurreko urteetan jasotako antzekoak.

4. ERANTZUNAK

EHNE sindikatuak erantzun egin dio Behatokiari helarazitako kexaren inguruan, eta gertaera horri, aldizkarian euskarak duen presentzia, irtenbidea emateko plana abian jarri dutela azaldu dute.

UAGA sindikatuak ere erantzun egin die Behatokiaren jakinarazpenei eta egun prentsa buruak hizkuntza gaitasunik ez duela azaldu du. Horrela, egun darabilten hizkuntza politikari eutsi behar diotela jakinarazi dute. Halaber, Behatokiaren jakinarazpena ele bietan egon arren, eskutitza posta elektronikoz bidaltzean sortzen den mezu automatikoa euskara hutsean egotea gaitzetsi du sindikatu horrek.

5. SINOPSIK: MUNDU ASOZIATIBOA

MUNDU ASOZIATIBOA

Zenbakia: 5/2005	Erakundea: AER. ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS DE LA RIBERA	Nafarroa
Arrazoaia:	AER (Asociación de Empresarios de la Ribera) erakundeak argitaratutako aldizkariaren abenduko alean ez da euskararen arrastorik ageri.	
Zenbakia: 674/2005	Erakundea: ABOKATUTZAREN EUSKAL KONTSEILUA	Araba
Arrazoaia:	2000-2001 ikasturtean Arabako Abokatuen Elkargoan euskara ikasteko aukera eskaini zitzaion Arabako abokatu guztiei, eta hala, 12 lagunek talde bat sortu zen. Eusko Jaurilaritzaren Justizia Sailaren eta Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren dirulaguntza zuen ikastaroak. Joan den ikasturtean ABOKATUTZAREN EUSKAL KONTSEILUAK eta Justizia Sailak euskara ikasteko dirulaguntzak bertan behera uztea erabaki zuten inolako arrazoirik eman gabe, eta gerotik ez dute dirulaguntzarik jaso.	
Zenbakia: 59/2005	Erakundea: AMBA. ARABAKO ARTE EDER ETA ARTIUM MUSEOAREN LAGUNAK	Araba
Arrazoaia:	AMBAk 2005eko urtarrilean zehar 3 komunikazio bidali ditu gaztelania hutsean hedabideetara.	
Zenbakia: 114/2005	Erakundea: AMBA. ARABAKO ARTE EDER ETA ARTIUM MUSEOAREN LAGUNAK	Araba
Arrazoaia:	AMBAk 2005eko otsailen gaztelania hutsean bidali zuen hedabideetara Muralgintza tailerrei buruzko prentsa oharra.	
Zenbakia: 148/2005	Erakundea: AMBA. ARABAKO ARTE EDER ETA ARTIUM MUSEOAREN LAGUNAK	Araba
Arrazoaia:	AMBAk gaztelania hutsean bidali du hedabideetara Muralgintza Tailerreko erakusketaren inauguraziorako prentsa-oharra.	
Zenbakia: 288/2005	Erakundea: AMBA. ARABAKO ARTE EDER ETA ARTIUM MUSEOAREN LAGUNAK	Araba
Arrazoaia:	AMBA Elkarteak gaztelania hutsean bidali zuen hedabideetara prentsa oharra 2005eko maiatzean.	
Zenbakia: 468/2005	Erakundea: AMBA. ARABAKO ARTE EDER ETA ARTIUM MUSEOAREN LAGUNAK	Araba
Arrazoaia:	AMBAk 2005eko uztailen gaztelania hutsean bidali du hedabideetara prentsa-oharra.	
Zenbakia: 471/2005	Erakundea: AMBA. ARABAKO ARTE EDER ETA ARTIUM MUSEOAREN LAGUNAK	Araba
Arrazoaia:	ARTIUMek 2005eko uztailen zehar 2 komunikazio bidali ditu hedabideetara gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 357/2005	Erakundea: AUSENSI GURASO ELKARTEA	Nafarroa
Arrazoaia:	AUSENSI GURASO ELKARTEAK eskatu gabeko gaztelania hutsezko informazioa bidali du etxe guztietara haurren bitartez.	
Zenbakia: 94/2005	Erakundea: BIZKAIKO OSTALARIEN ELKARTEA	Bizkaia
Arrazoaia:	BIZKAIKO OSTALARIEN ELKARTEAK gaztelania hutsean bidali dio aldizkaria.	
Zenbakia: 95/2005	Erakundea: BIZKAIKO OSTALARIEN ELKARTEA	Bizkaia
Arrazoaia:	BIZKAIA OSTALARITZAKO ELKARTEra telefonoz deitu zuen eta ezin izan zioten euskaraz erantzun.	
Zenbakia: 151/2005	Erakundea: CÁMARA NAVARRA	Nafarroa
Arrazoaia:	CÁMARA NAVARRAK erakunde bati urteroko memoria gaztelania hutsez bidali dio.	
Zenbakia: 12/2005	Erakundea: CÁRITAS ESPAÑOLA	Araba
Arrazoaia:	CÁRITAS ESPAÑOLAK gaztelania hutsean bidali zuen hedabideetara 545 zenbakidun informazioa, Asiako Hego-ekialderako laguntzen ingurukoa.	
Zenbakia: 423/2005	Erakundea: CÁRITAS IRUÑEA	Nafarroa
Arrazoaia:	Nafarroako CARITASEk Iruñeko tonbolan saltzen dituen boletoen euskara ez da ageri.	
Zenbakia: 789/2005	Erakundea: CÁRITAS BILBO	Bizkaia
Arrazoaia:	Bilboko Elizbarrutiko CARITAS diruz laguntzen duen herritarri gaztelania hutsean bidali dio gutuna erakundeak.	
Zenbakia: 50/2005	Erakundea: EUSKAL ARTZAIN TXAKURRAREN ELKARTEA	Nafarroa
Arrazoaia:	www.pastorvasco.com helbidea duen webguneak ez du aukerarik ematen euskaraz bistaratua izateko.	
Zenbakia: 62/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA	Araba
Arrazoaia:	EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALaren Arabako ordezkarietatik 3 komunikazio bidali dituzte hedabideetara gaztelania hutsean 2005eko urtarrilean zehar.	
Zenbakia: 116/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA	Araba

Arrazoaia:	EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALaren Arabako ordezkarietatik gaztelania hutsean bidali zuten prentsa oharra 2005eko otsailaren 15ean.	
Zenbakia: 273/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA	Araba
Arrazoaia:	EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALAK 2005eko maiatzean 4 komunikazio bidali ditu hedabideetara gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 360/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA	Araba
Arrazoaia:	EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALeko Arabako Delegazioak 2005eko ekainean 4 komunikazio bidali ditu hedabideetara gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 469/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA	Araba
Arrazoaia:	COAVNren ARABAKO ORDEZKARITZatik 2005eko uztailen 2 komunikazio bidali dituzte hedabideetara gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 697/2005	Erakundea: EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA	Araba
Arrazoaia:	Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarrok elkargoaren 75. urteurrena dela eta Baluartean antolatutako Pamplonametropoli erakusketan den-dena gaztelania hutsean dago. Horretaz gain, ez dago euskarazko bisitarik.	
Zenbakia: 123/2005	Erakundea: EUSKAL SOZIOLOGIA ELKARTEA	Gipuzkoa
Arrazoaia:	EUSKAL SOZIOLOGIA ELKARTEAK gaztelania hutsez bidaltzen die bazkideei elkarteari buruzko informazio guztia.	
Zenbakia: 733/2005	Erakundea: EUSKALIT	Araba
Arrazoaia:	EUSKALITek "XII curso en gestión de calidad y excelencia" izenekoaren berri bidali du eta beti bezala, informazio guztia gaztelania hutsez dago.	
Zenbakia: 763/2005	Erakundea: EUSKALIT	Araba
Arrazoaia:	EUSKALITek 2005eko azaroaren 7tik 18ra antolatutako Kalitatearen Europar Astearen euskarri gehienak gaztelania hutsean zuden eta euskaraz ere zuden apurke akatsak zituzten. Gainera EUSKALITek egitarauaren parte hartu duten erakundeek gaztelania hutsean bidali dizkie komunikazioak.	
Zenbakia: 701/2005	Erakundea: GIPUZKOAKO SAGARDO NATURALAREN ELKARTEA	Nafarroa
Arrazoaia:	Herritarra Gipuzkoako sagardotegiaren weborrian sartu da eta euskarazko zatian herri batzuen izenak erdal grafiaz idatziak daudela ikusi du, hau da, gaizki idatziak.	
Zenbakia: 30/2005	Erakundea: IRUÑEKO NOTARIOEN ELKARGOA	Nafarroa
Arrazoaia:	Iruñeko Notarioen Elkargoak ez dio erreparatu nahi izan herritarren eskaerari, Altsasuko notarioaren jarrera diskriminatzailearen aurrean.	
Zenbakia: 672/2005	Erakundea: LAHAR ELKARGOA	Gipuzkoa
Arrazoaia:	Lahar Elkargoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatuta urriaren 17tik 21era Tolosan egin zen Alzheimer-Demencia ikastaroa gaztelaniaz eman zuten.	
Zenbakia: 567/2005	Erakundea: MOVIMIENTO ANTITAUROINO	Gipuzkoa
Arrazoaia:	Abuztuaren 13an zezeketen kontrako manifestazioan pegatinak ez beste guztia gaztelania hutsean zegoen.	
Zenbakia: 362/2005	Erakundea: PLAT. PARA LA IMPLANTACIÓN RACIONAL DE LA ENERGÍA EÓLICA	Araba
Arrazoaia:	PLATAPORMA PARA LA IMPLANTACIÓN RACIONAL DE LA ENERGÍA EÓLICA taldeak 2005eko ekainean hedabideetara bidalitako prentsa oharra gaztelania hutsean zegoen.	
Zenbakia: 661/2005	Erakundea: REAL AUTOMÓVIL CLUB VASCO NAVARRO	Gipuzkoa
Arrazoaia:	RACVN erakundeak urriko alean umeentzako marrazki lehiaketarako erantsi duen orria gaztelania hutsean dago. Aldizkaria bera ere gaztelania hutsean dago, lehendakariaren adierazpenak izan ezik.	
Zenbakia: 301/2005	Erakundea: UNIÓN CICLISTA NAVARRA	Nafarroa
Arrazoaia:	UNION CICLISTA NAVARRAK antolatzen duen Nafarroako itsulia Bortzirietatik pasatu zen maiatzaren 28an. Helmugako pankarta kenduta (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez zegoen) gainerako guztiak gaztelania hutsean ageri ziren (meta volante, premio especial de montaña, ...)	
MUGIMENDU SOZIOPOLITIKOA		
Zenbakia: 58/2005	Erakundea: ALDERDIEN ARTEKO KOALIZIOAK	Araba
Arrazoaia:	Arabako Biltzar Nagusietako EAJ-EA-EB taldeek 2005eko urtarrilean zehar 4 komunikazio bidali zituzten gaztelania hutsean hedabideetara.	
Zenbakia: 63/2005	Erakundea: ALDERDIEN ARTEKO KOALIZIOAK	Araba
Arrazoaia:	2005eko urtarrilaren 10ean EAJ-PNV, EZKER BATUA-IU eta UNIDAD ALAVESAK elkarrekin izenpetutako prentsa-oharra gaztelania hutsean bidali zuten hedabideetara.	
Zenbakia: 202/2005	Erakundea: ALDERDIEN ARTEKO KOALIZIOAK	Araba

Arrazoa:	Arabako Biltzar Nagusietako EAJ-EA-EB taldeek gaztelania hutsean bidali zuten hedabideetara prentsa ohar bat 2005eko apirillean.	
Zenbakia: 270/2005	Erakundea: ALDERDIEN ARTEKO KOALIZIOAK	Araba
Arrazoa:	ARABAKO BILTZAR NAGUSIETAKO EAJ-EA-EB taldeek 2005eko maiatzean zehar 2 komunikazio bidali zituzten gaztelania hutsean hedabideetara.	
Zenbakia: 546/2005	Erakundea: ALDERDIEN ARTEKO KOALIZIOAK	Araba
Arrazoa:	EAJ-EA-EB taldeek gaztelania hutsezko prentsa-ohar bat bidali zuten hedabideetara 2005eko irailean.	
Zenbakia: 381/2005	Erakundea: ARALAR	Bizkaia
Arrazoa:	2005eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde kanpainaren barruan herritarrei bidali zien propagandako helbideetan Vizcaya ageri da, herrialdearen izen ofiziala <i>Bizkaia</i> izan arren.	
Zenbakia: 729/2005	Erakundea: DENOK HAUTESLEEN ZERRENDA	Bizkaia
Arrazoa:	DENOK hauteskunde taldeak Gasteizko Filologia Fakultatean banatu duen esku-oriaren euskarazko bertsiola latsagarria da. Akatsez josita dago goitik behera.	
Zenbakia: 341/2005	Erakundea: EHNE. EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTEA	Gipuzkoa
Arrazoa:	EHNEK argitaratzen duen Ardatza aldizkaria jasotzen dute herritarrek etxean. 28 orrialdetik 2 besterik ez dira ageri euskaraz.	
Zenbakia: 61/2005	Erakundea: EUSKO ALKARTASUNA	Araba
Arrazoa:	Eusko Alkartasunaren Gasteizko Udal Taldeak gaztelania hutsean zabaldu zuen prentsa oharra hedabideetan 2005eko urtarrilaren 17an.	
Zenbakia: 365/2005	Erakundea: EUSKO ALKARTASUNA	Gipuzkoa
Arrazoa:	2005eko ekainaren 16an Donostiako Udalean EA alderdiak prentsa-oharra banatu zien bertan ziren kazetari guztiei eta den-dena gaztelania hutsez zegoen idatzita.	
Zenbakia: 115/2005	Erakundea: EUZKO ALDERDI JELTZALEA	Araba
Arrazoa:	Arabako Biltzar Nagusietako EAJ-PNV Biltzarkide Taldeak gaztelania hutsean bidali ditu hedabideetara 2 prentsa ohar 2005eko otsailean.	
Zenbakia: 144/2005	Erakundea: EUZKO ALDERDI JELTZALEA	Araba
Arrazoa:	Arabako Biltzar Nagusietako EAJ Biltzarkide Taldeak gaztelania hutsean bidali du prentsa-oharra 2005eko martxoaren 2an.	
Zenbakia: 382/2005	Erakundea: EUZKO ALDERDI JELTZALEA	Bizkaia
Arrazoa:	2005eko Legebiltzarrerako Hauteskunde kanpainan herritarrei etxera bidali zien propagandaren gutunazalean, Vizcaya ageri da herrialdearen izen ofiziala <i>Bizkaia</i> izan arren.	
Zenbakia: 467/2005	Erakundea: EUZKO ALDERDI JELTZALEA	Araba
Arrazoa:	ARABAKO EAJ BILTZARKIDE TALDEAK 2005eko uztailen gaztelania hutsean bidali zuten prentsa-oharra hedabideetara.	
Zenbakia: 18/2005	Erakundea: EZKER BATUA	Araba
Arrazoa:	EZKER BATUA-BERDEAK taldeko prentsa-arduradunak gaztelania hutsean bidali zuten jakinarazpena hedabideetara 2005eko urtarrilaren 5ean.	
Zenbakia: 305/2005	Erakundea: PARTIDO POPULAR	Araba
Arrazoa:	Arabako ALDERDI POPULARRAK EAEko legebiltzarrerako hauteskunde kanpainaren barruan etxetara bidalitako eskuorria gaztelania hutsean dago	
Zenbakia: 396/2005	Erakundea: PARTIDO POPULAR	Bizkaia
Arrazoa:	ALDERDI POPULARRAK herritarrei etxera bidali zion Legebiltzarrerako Hauteskundeetarako propaganda gaztelania hutsean zegoen.	
Zenbakia: 77/2005	Erakundea: PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI-EUSKADIKO EZKERRA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Herritarrek bere kezka agertu du 2005eko hauteskundeetan ostean Legebiltzarreko presidentea hautatzeko prozeduran Euskadiko Alderdi Sozialistak ez duelako euskararen ezagutza aintzat hartu bere hautagaia (Miguel Buen) aurkezterakoan.	
Zenbakia: 472/2005	Erakundea: PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI-EUSKADIKO EZKERRA	Araba
Arrazoa:	PSE-EE-PSOEko Arabako Biltzar nagusietako taldeak gaztelania hutsean bidali zuten prentsa oharra hedabideetara 2005eko uztailan.	
Zenbakia: 64/2005	Erakundea: UNIÓN DE AGRICULTORES Y GANADEROS DE ÁLAVA. UAGA	Araba
Arrazoa:	UAGAK 2 prentsa ohar gaztelania hutsean bidali zituen hedabideetara 2005eko urtarrilean.	
Zenbakia: 112/2005	Erakundea: UNIÓN DE AGRICULTORES Y GANADEROS DE ÁLAVA. UAGA	Araba
Arrazoa:	UAGAK 2005eko otsailean hiru komunikazio bidali ditu hedabideetara gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 280/2005	Erakundea: UNIÓN DE AGRICULTORES Y GANADEROS DE ÁLAVA. UAGA	Araba
Arrazoa:	UAGAK gaztelania hutsean bidali du hedabideetara prentsa oharra 2005eko maiatzaren 19an.	

Zenbakia: 464/2005	Erakundea: UNIÓN DE AGRICULTORES Y GANADEROS DE ÁLAVA. UAGA	Araba
Arrazoa:	UAGAK 2005eko uztailen zehar 3 komunikazio bidali ditu hedabideetara gaztelania hutsean.	
Zenbakia: 547/2005	Erakundea: UNIÓN DE AGRICULTORES Y GANADEROS DE ÁLAVA. UAGA	Araba
Arrazoa:	UAGAK irailean zehar prentsa ohar bat bidali du gaztelania hutsean.	

ERLIJIOA

Zenbakia: 730/2005	Erakundea: BILBOKO GOTZAITEGIA	Bizkaia
Arrazoa:	Azaroaren 22an, Bilboko Eleiz Museoko txartelak erosteko leihatilan zegoen langileak ez zuen euskaraz ulertzen eta bertaratu zirenek nahitaez gaztelaniaz aritu behar izan zuten.	
Zenbakia: 537/2005	Erakundea: BERRIOZARKO DONEZTEBE PARROKIA	Nafarroa
Arrazoa:	Berriozarko DONEZTEBE PARROKIAK kristau ikasbiderako liburua argitaratu du eta hori zabaltzeko egin duen deialdian euskarari eskaintzen zaion tartea hutsaren hurrengo da, informazioa gaztelania hutsean dator.	

EREMUA: PRIBATUA**ELIKADURA ETA OSTALARITZA****1. ESPEDIENTE KOPURUA: 17****2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA****2.1. Izaera**

Jasotako espediente guztiek eskubide urraketaren izaera dute. Eremu honetan eskubideen babeserako legerik ez dago.

2.2. Puntueltasuna / sistematikotasuna**2.2.a. Errepikakortasuna**

Ostalaritzan behin eta berriro errepikatu da promoziorako euskarriak gaztelania hutsean daudela. Hala ere, ezin hitz egin dezakegu errepikakortasun errealaiz, enpresa desberdinei zuzendutako kekek izan direlako.

2.2.b Erabilera**KEXEN ZIOA**

Publizitatea gaztelania hutsean
Etiketak euskaraz ez beste hizkuntzetan

3. ARLOAREN ARABERAKO BALORAZIOA

EREMUA	
ELIKADURA	4
OSTALARITZA	13

ELIKADURA

Kexa gehienak etiketetan euskarak duen trataera eskasari buruzkoak izan dira. Aipagarria da AU'SOME CANDIES EUROPE enpresarena, izan ere, "Flic 'n' lic" izeneko gozokian segurtasun eta osagaiei buruzko oharrek euskara ez beste hamar hizkuntzetan agertzen dira.

Bestela, eremu hurbilagoan zabaltzen diren produktuetako etiketetan ere euskararen arrastorik ez dela agertu duten zenbait herritarrek: GOSHUA edo IGARA etxeek ekoizitakoan esaterako.

OSTALARITZA

Arestian esan bezala, ostalaritzarekin lotutako kekek herritarrei igortzen dieten publizitateari buruzkoak izan dira.

Hala ere, herritarrekiko erantzun zakarraren adibidea ere izan dugu jasotako kexen artean. Kasu horretan herritarrek eskubideak bermatu behar zaizkiola eskaturik, ingeles hiztunen eskubideak ere bermatu beharko liratekeela erantzun zioten. Horrek islatzen du, egun, hainbat herritarrek euskaldunon eskubideekiko duten jarrera.

4. ERANTZUNAK

Erantzunik ez da jaso.

5. SINOPSIK: ELIKADURA ETA OSTALARITZA**ELIKADURA**

Zenbakia: 244/2005	Erakundea: AU'SOME CANDIES EUROPE	Nafarroa
Arrazoiak:	AU' SOME CANDIES EUROPAK merkaturatzen duen "Flic 'n' lic" izeneko gozokiaren segurtasun eta osagaiei buruzko oharrek hainbat hizkuntzetan ageri dira, baina euskaraz ez.	
Zenbakia: 518/2005	Erakundea: GOSHUA	Bizkaia
Arrazoiak:	GOSHUA produktuen etiketa gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 705/2005	Erakundea: IGARA PLATOS COCINADOS	Gipuzkoa
Arrazoiak:	IGARA PLATOS COCINADOS jakien etiketa gaztelania hutsean ageri da.	
Zenbakia: 100/2005	Erakundea: KAIKU	Gipuzkoa
Arrazoiak:	KAIKU bere produktuetan "Senda Vivaren" promozioa egin zuen. Promozioa gaztelania hutsean idatzita zegoen.	

OSTALARITZA

Zenbakia: 683/2005	Erakundea: AUTOGRILL	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Itziarreko atsedeen guneko AUTOGRILL tabernaren kanpoaldean jarri duten iragarkia gaztelaniaz eta frantsesez dago, baina euskaraz ez.	
Zenbakia: 706/2005	Erakundea: CASA VERGARA JATETXEA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	CASA VERGARA jatetxearen eskuorria gaztelania hutsean ageri da.	
Zenbakia: 435/2005	Erakundea: MASUSTA TABERNA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Donostiako MASUSTA tabernak kalean banatzen dituen gonbidapenek erdaraz (ingelesez eta gaztelaniaz) bakarrik ematen dute informazioa.	
Zenbakia: 99/2005	Erakundea: HOME FOOD SERVICE	Gipuzkoa
Arrazoiak:	HOME FOOD SERVICE eskuorri bat zabaldu du Donostian. Eskuorria donostiar guztiei zuzendua izan arren gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 781/2005	Erakundea: ÑAM JATETXEA	Gipuzkoa
Arrazoiak:	Barakaldoko Max Center Merkataritza gunean dagoen ÑAM jatetxean ebaki bat eskatu zuen herritarrek. Zerbitzariak ulertu ez, eta 'cortado' eskatuta honela erantzun zion: 'es que si no me lo pides bien...'	
Zenbakia: 223/2005	Erakundea: PANS & COMPANY	Gipuzkoa
Arrazoiak:	PANS & COMPANY enpresak Donostian banatzen duen publizitatea gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 228/2005	Erakundea: PIZZA HUT	Gipuzkoa
Arrazoiak:	PIZZA HUTek Donostiako etxeetako postontzietan utzi dituen propaganda orrietan euskararen presentzia hutsaren hurrengoa da.	

Zenbakia: 294/2005	Erakundea: PIZZA HUT	Gipuzkoa
Arrazoa:	PIZZA HUTek Donostia banatu duen propaganda orrian euskarari egiten zaion tartea hutsaren hurrengoa da.	
Zenbakia: 578/2005	Erakundea: SANSONATEGI JATETXEA	Gipuzkoa
Arrazoa:	SANSONATEGI JATETXEAN karta bi hizkuntzatan dute eta web orria euskaraz ere badago, alde horretatik zoriontzekoa da. Hala ere, herritarrek dioenez, bazkaltzen egon zen egun batean zerbitsari batek ez zuen euskaraz ulertzen eta ez zuen inolako ahaleginik egin ulertzeko eta gaztelaniaz hitz egin behar izan zuen.	
Zenbakia: 702/2005	Erakundea: TELEPIZZA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Herritarrari motorrean utzi dioten iragarkia gaztelania hutsez dago.	
Zenbakia: 712/2005	Erakundea: TELEPIZZA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Eskuorria gaztelania hutsean zabaldu dute Donostialdeko postontzietan.	
Zenbakia: 384/2005	Erakundea: KUTXAGUNEKO JATETXEA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Zientzia Kutxaguneko jatetxean menuak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 413/2005	Erakundea: DONOSTIAKO TENIS ELKARTE ERREALA	Gipuzkoa
Arrazoa:	Donostiako TENIS ELKARTE ERREALera joan ziren bazkaltzera ekainaren bukaeran. Karta banatzean ikusi zuten gaztelaniaz bakarrik idatzita zegoela eta jangelako arduradunari keza helarazi zioten. Honek esan zien ezinezkoa zela menua euskaraz jartzea egunero aldatzen zelako. Hizkuntza-eskubideak urratzen zirela esatean, arduradunak erantzun zien ingelesak ere urratzen zirela.	

EREMUA: PRIVATUA**PROFESIONALAK ETA ZERBITZUAK****1. ESPEDIENTE KOPURUA: 32****2. ADIERAZLEEN ARABERAKO BALORAZIOA****2.1. Izaera**

Jasotako espediente guztiek eskubide urraketaren izaera dute. Eremu honetan eskubideen babeserako legerik ez dago.

2.2. Puntueltasuna / sistematikotasuna**2.2.a. Errepikakortasuna**

Aipatzekoa da Nafarroako enpresa batek helarazitako kexa, izan ere, RICOH hornitzaileak hilero igortzen dion jakinarazpena gaztelania hutsean egoten da. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan jakinarazpen bera ele bietan igortzen dela jakinarazi dio enpresak, bai eta ereduaren kopia bidali ere, eta hala ere gaztelania hutsean igortzen jarraitzen du.

2.2.b Erabilera**KEXEN ZIOA**

Publizitatea gaztelania hutsean
Errotulazioa gaztelania hutsean
Idatzizko jakinarazpenak gaztelania hutsean
Faktura gaztelania hutsean

3. ARLOAREN ARABERAKO BALORAZIOA

Profesional eta zerbitzuen alorrean ohikoa den propaganda eta publizitateaz gain, izan dira bestelako eskubide urraketak, esaterako, errotulazioa gaztelania hutsean, bezeroei luzatzen dizkieten fakturak gaztelania hutsean

Bestalde Altsasuko Notarioaren jarrera ere azaldu beharrekoa da, izan ere, herritarrari lauzpabost hilabeteko atzerapena eragin zion eskubideak bermatzeko eskatu izanak. Kasu horretan, gainera, profesional pribatuak izan arren, zerbitzu publikoa eskaintzen dute, eta beraz, arreta handiagoa izan behar dute herritarren eskubideen bermean.

4. ERANTZUNAK

Erantzunik ez da jaso.

5. SINOPSIK: PROFESIONALAK ETA ZERBITZUAK

Zenbakia: 421/2005	Erakundea: ABC MICROS	Nafarroa
Arazoia:	ABC MICROSEK gaztelania hutsean bidali die bezeroei udako ordutegia jakinarazteko gutuna.	
Zenbakia: 777/2005	Erakundea: APP INFORMÁTICA	Gipuzkoa
Arazoia:	APP INFORMÁTICAK buzoiratu duen eskuorria gaztelania hutsez ageri da.	
Zenbakia: 744/2005	Erakundea: ASTIGARRAGA KIT LINE	Nafarroa
Arazoia:	Astigarraga Kit Line enpresak egindako produktu bat erosi eta informazio asko 4 hizkuntzatan badator er, euskara ez da ageri	
Zenbakia: 106/2005	Erakundea: BRONTE OPTIKAK	Gipuzkoa
Arazoia:	REFOR AMURRRIO Enpresaldearen inaugurazio ekitaldiaren berri ematen duen prentsa oharra gaztelania hutsean jaso du.	
Zenbakia: 342/2005	Erakundea: CARPINTERÍA BASCONGADA S.L.	Gipuzkoa
Arazoia:	BASKONGADAS S.L CARPINTERIA EN ALUMINIO enpresak buzoiratutako publizitatea gaztelania hutsez ageri da	
Zenbakia: 773/2005	Erakundea: COLCHONES ATSEDEN	Gipuzkoa
Arazoia:	COLCHONES ATSEDENek telefono gidarekin zabaldu duen eskuorria gaztelaniaz dago.	
Zenbakia: 454/2005	Erakundea: COLORE	Gipuzkoa
Arazoia:	COLORE denda-tailerak Donostiako etxeetako postontzian banatu duen propaganda gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 530/2005	Erakundea: E-BUSINESS	Bizkaia
Arazoia:	E-BUSINESS enpresak erakunde bati gutun baten bitartez bidalitako publizitatea gaztelania hutsean idatzita dago.	
Zenbakia: 304/2005	Erakundea: EUSKALIT	Araba
Arazoia:	EUSKALITEK kalitatearen kudeaketarako ikastaroen berri emateko argitaratu duten aldizkaria gaztelania hutsez dago.	
Zenbakia: 86/2005	Erakundea: GERTU ITURGINTZA	Bizkaia
Arazoia:	GERTU ITURGINTZARI faktura euskaraz egiteko eskatu zion herritarrak. Hala ere, gaztelaniaz egin zioten.	
Zenbakia: 710/2005	Erakundea: INSERT COIN	Gipuzkoa
Arazoia:	INSERT COIN enpresak eskuorria gaztelania hutsean buzoiratu du.	
Zenbakia: 422/2005	Erakundea: IRUÑEKO ERRUKI ETXEA	Nafarroa
Arazoia:	Zezenak ikusteko txarteletan euskara ez da modu orekatuan ageri.	
Zenbakia: 298/2005	Erakundea: IWER NAVARRA S.A.	Nafarroa
Arazoia:	IWER NAVARRAK gaztelania hutsean bidali dio jakinarazpena bezero bati.	
Zenbakia: 356/2005	Erakundea: IWER NAVARRA S.A.	Nafarroa
Arazoia:	IWER enpresak duen errotulazioa gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 548/2005	Erakundea: IWER NAVARRA S.A.	Nafarroa
Arazoia:	IWER NAVARRAK eraikineko komunetan jarri dituen ohar guztiak gaztelania hutsean idatzita daude.	
Zenbakia: 721/2005	Erakundea: KENA S.A.	Nafarroa
Arazoia:	KENA enpresak gaztelania hutsean bidali dio gutuna erakunde bati.	
Zenbakia: 224/2005	Erakundea: LA TIENDA DEL ABUELO	Gipuzkoa
Arazoia:	LA TIENDA DEL ABUELO dendak argitaratzen duen informazio esku-orrian ez dago euskararen arrastorik.	
Zenbakia: 553/2005	Erakundea: LICEMAT	Gipuzkoa
Arazoia:	LICEMAT enpresak iragarkia buzoiratu du eta testua gaztelaniaz ageri da.	
Zenbakia: 387/2005	Erakundea: MANPEL	Gipuzkoa
Arazoia:	Usurbilgo MANPELEK bulego materialaren publizitatea banatu du Martin Ugalde Kultur Parkeko postontzietan. Propaganda hori gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 29/2005	Erakundea: ALTSASUKO NOTARITZA	Nafarroa
Arazoia:	Herritarrak euskaraz eta gaztelaniaz egin nahi izan zituen lur sail baten eskriturak Altsasuko Notaritzan. Hainbat buelta eman ondoren eta Epaitegi Gorenaren ebazpen baten kopia aurkeztuta, zeinaren arabera eskriturak euskaraz nahi izanez gero koste gehigarririk gabe jasotzeko eskubidea aitortzen den, eskritura ele bietan eskuratu zuen, hori bai, lauzpabost hilabeteko atzerapenarekin.	
Zenbakia: 79/2005	Erakundea: OBEGISA	Gipuzkoa

Arrazoa:	OBEGISA enpresa lanak egiten ari da Oletan. Kamioien irteeraz chartarazteko jarri dituen kartelak gaztelania hutsean daude.	
Zenbakia: 199/2005	Erakundea: REFOR AMURRIO	Araba
Arrazoa:	Herritarrak REFOR AMURRIO enpresaldearen inaugurazio ekitaldiaren berri ematen duen prentsa oharra gaztelania hutsean jaso du.	
Zenbakia: 253/2005	Erakundea: REINN S.L.	Gipuzkoa
Arrazoa:	REINN S.L.k Donostiako etxeetako postontzietan utzi duen propaganda orria gaztelania hutsean dago.	
Zenbakia: 309/2005	Erakundea: REINN S.L.	Gipuzkoa
